

**HEZKIDETZA EGOERARI  
BURUZKO DIAGNOSI  
AZTERLANA GASTEIZKO  
IKASTETXEETAN  
(0-18 URTE)**

UDAL GAIAK BILDUMA



eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Vitoria-Gasteiz  
Miri Meztzallia  
Ciudad Educadora



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala



# HEZKIDETZA EGOERARI BURUZKO DIAGNOSI AZTERLANA GASTEIZKO IKASTETXEETAN (0-18 URTE)

**Gasteizko Udala, Hezkuntza Zerbitzua**  
**Hezikert ikerketa taldea (UPV/EHU)**

*Ikertzaileak: Vizcarra, M. T. (koord.);*  
*Alvarez-Uria, A;*  
*Aristizabal, P.;*  
*Garai, B.;*  
*Gomez-Pintado, A.;*  
*Lasarte, G.;*  
*Makazaga, A.;*  
*Mendiguren, H.;*  
*Tresserras, A.;*  
*Ugalde, A.I.;*  
*Zelaieta, E.;*  
*Zuazagoitia, A.*

**Argitaratzea:** Vitoria-Gasteizko Udala

**Kordinatzailea:** Udal Hezkuntza Zerbitzua

**Textuak:** Hezikert ikerketa taldea (UPV/EHU)

**Maketazioa:** La Debacle S.L.

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

# Aurkibidea

SARRERA	11
OINARRI TEORIKOAK	15
2.1. GENERO INDARKERIA.....	16
2.1.1. Indarkeria ikuspegi soziologikotik .....	16
2.1.2. Kontzeptu esparrua.....	17
2.2. IDENTITATE ETA HARREMAN SEXUAL/GENERIKOEN ANIZTASUNA .....	20
2.2.1. Sexu/genero sistema eta identitatea .....	20
2.2.2. Aniztasun afektibo-sexuala eta hezkuntza barnertzailea .....	21
2.3. HEZKIDETZA: DEFINIZIOA ETA BILAKAERA .....	24
2.4. HEZKIDETZA: EGITASMOA ETA DIFUSIOA .....	26
2.4.1. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Plana (Emakunde, 2014).....	26
2.4.1.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko gobernu programa ekimenak .....	27
2.4.1.2. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gobernantza .....	27
2.4.2. Eusko Jaurlaritzak Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana (Eusko Jaurlaritza, 2013) .....	28
2.4.3. Partzuergoko Haur Eskolen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana (2010-14) .....	31
2.4.3.1. Kudeaketa.....	32
2.4.3.2. Baliabideak .....	32
2.4.3.3. Komunikazioaren erabilera ez-sexista .....	32
2.4.3.4. Tratu-berdintasunaren kudeaketa: langileak, umeak, fami­liak eta bestelako eragileak.....	33
2.4.4. Gasteizko Udalak eginiko III Berdintasunerako planaren inguruan 2013-2015 .....	33

3.1. IKERKETAREN HELBURUAK .....	42
3.2. PARTAIDEAK.....	42
3.2.1. Irakasleen iritziak ezagutzeko bidalitako galdetegiak .....	42
3.2.2. Bildutako galdetegiak.....	44
3.2.3. Eztabaida taldeetako partaideak.....	46
3.2.4. Ikerketa taldeko partaideak.....	49
3.3. Informazioa biltzeko tresnak.....	49
3.3.1. Galdetegiak .....	50
3.3.2. Eztabaida-taldeak.....	50
3.4. Ikerketaren faseak.....	51
3.5. Bildutako informazioaren analisi nola egin den .....	53

4.1. GALDETEGIETAN LORTUTAKO EMAITZAK.....	59
4.1.1. Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasun politikak.....	61
4.1.1.1. Politiken zabalkundea eta eragina .....	61
4.1.1.2. Ikastetxeen rola.....	75
4.1.2. Zer da hezkidetzatza? .....	83
4.1.2.1. Definizioa .....	83
4.1.2.2. Ikastetxeen beharrak eta zailtasunak .....	93
4.1.2.3. Proiektu hezkidetzailleak .....	104
4.1.3. Eskolaren eredu hezkidetzaillea .....	116
4.1.3.1. Irakasleen rola.....	116
4.1.3.2. Irakasleen prestakuntza.....	146
4.1.3.3. Desberdintasunak detektatzeko sentiberatasuna .....	157
4.1.3.4. Ikasleak orientatzea .....	161
4.1.4. Genero rolen adierazpenak eta interakzioak .....	167
4.1.4.1. Nesken eta mutilen arteko jokaera-diferentziak .....	167
4.1.4.2. Nesken eta mutilen diskurtso-diferentziak .....	171
4.1.4.3. Lanbide-aukeraketak.....	173
4.1.5. Espazioaren erabilera .....	175
4.1.5.1. Patioaren erabilera.....	175
4.1.5.2. Jolasen ezaugarriak.....	180
4.2. EZTABAIDA TALDEETAN LORTUTAKO IRAKASLEEN EMAITZAK.....	185
4.2.1.Emakume eta gizonen berdintasunerako politikak.....	186
4.2.1.1. Politiken zabalkundea eta eragina .....	186
4.2.1.2. Ikastetxeen rola.....	189
4.2.2.Hezkidetzatza .....	197
4.2.2.1. Definizioa .....	197
4.2.2.2. Proiektu hezkidetzailleak .....	197
4.2.2.3. Ikastetxeen beharrak .....	198

4.2.3.	Eskolaren eredu hezkidetzalea .....	200
4.2.3.1.	Irakasleen rola.....	200
4.2.3.2.	Irakasleen parte-hartzea .....	207
4.2.3.3.	Irakasleen prestakuntza.....	208
4.2.3.4.	Desberdintasunak detektatzeko sentiberatasuna .....	211
4.2.3.5.	Ikasleak orientatzea .....	214
4.2.3.6.	Familien rola.....	215
4.2.3.7.	Eskolaren errealitatea .....	216
4.2.3.8.	Atzera pausoak.....	217
4.2.4.	Genero rolen adierazpenak eta interakzioak .....	221
4.2.4.1.	Nesken eta mutilen arteko jokaera-diferentziak .....	221
4.2.4.2.	Nesken eta mutilen diskurtso-diferentziak .....	223
4.2.4.3.	Bikote harremanak.....	224
4.2.4.4.	Lanbide-aukeraketak.....	225
4.2.4.5.	Sare sozialak eta komunikabideak .....	227
4.2.5.	Espazioaren erabilera .....	230
4.2.5.1.	Patioaren erabilera eta espazio-banaketa .....	230
4.2.5.2.	Jolasen ezaugarriak.....	232
4.3.	IKASLEEN EZTABAIDETAN LORTUTAKO EMAITZAK.....	232
4.3.1.	Politika: aukera berdintasun politikak.....	233
4.3.1.1.	Zabalkundea eta eragina .....	234
4.3.2.	Zer da hezkidetza? .....	235
4.3.2.1.	Definizioa .....	235
4.3.2.2.	Proiektu hezkidetzaleak: ikastetxeak hezkidetzaren inguruan egiten dituen ekintzak, jarduerak, proiektuak... ..	236
4.3.3.	Eskolaren eredu hezkidetzalea .....	237
4.3.3.1.	Irakasleen rola.....	237
4.3.3.2.	Irakasleen prestakuntza.....	239
4.3.3.3.	Desberdintasunak detektatzeko sentiberatasuna .....	240
4.3.3.4.	Ikasleak orientatzea .....	243
4.3.4.	Genero rolen adierazpenak eta interakzioak .....	246
4.3.4.1.	Nesken eta mutilen arteko jokaera-diferentziak .....	246
4.3.4.2.	Harremanak .....	256
4.3.4.3.	Sare Sozialak eta Komunikabideak .....	259
4.3.4.4.	Lanbide aukeraketak .....	262
4.3.5.	Espazioaren erabilera .....	265
4.4.	GURASOEN EZTABAIDA TALDEETAN LORTUTAKO EMAITZAK.....	266
4.4.1.	Aukera berdintasun politikak.....	267
4.4.1.1.	Berdintasun politikak: zabalkundea eta eragina.....	267
4.4.1.2.	Berdintasun politikak: Ikastetxeen rola.....	268
4.4.1.3.	Berdintasun politikak: Familien rola.....	269
4.4.2.1.	Hezkidetza: Definizioa .....	270
4.4.2.2.	Hezkidetza: Ikastetxeen beharrak .....	271
4.4.2.3.	Hezkidetza: Ikastetxeetako egitasmoak .....	272

4.4.3.	Eskolaren eredu hezkidetzalea .....	273
4.4.3.1.	Irakasleen rola .....	273
4.4.3.2.	Familien rola.....	274
4.4.3.3.	Familien parte-hartzea .....	275
4.4.3.4.	Familien formazioa.....	275
4.4.3.5.	Eskolaren errealitatea .....	275
4.4.3.6.	Atzerapausoak.....	276
4.4.3.7.	Ikasleak orientatzea .....	277
4.4.4.	Genero rolen adierazpen eta elkarreraginak.....	278
4.4.4.1.	Nesken eta mutilen portaera-diferentziak.....	278
4.4.4.2	Neska-mutilen diskurtso-diferentziak .....	280
4.4.4.3.	Lanbide hautaketak .....	283
4.4.4.4	Sare sozialak eta hedabideak.....	285
4.4.5.	Espazioaren erabilera .....	286
4.4.5.1.	Patioaren erabilera.....	286
4.4.5.2.	Espazioaren banaketa .....	287

## ONDORIOAK

291

5.1.	Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasun politikak.....	291
5.1.1.	Politikak: zabalkundea eta eragina.....	291
5.1.2.	Politika hezkidetzaleak zabaltzen ikastetxeak duen rola.....	292
5.1.3.	Eusko Jaurlaritzako programak ezagutzen diren ala ez .....	295
5.2.	Zer da hezkidetzatza? .....	296
5.2.1.	Definizioa .....	296
5.2.2.	Ikastetxeen beharrak eta aurkitu dituzten oztopoak .....	297
5.2.3.	Proiektu hezkidetzaleak.....	298
5.3.	Eskolaren eredu hezkidetzalea .....	300
5.4.	Genero rolen adierazpenak eta interakzioak .....	306
5.5.	Espazioaren erabilera .....	308

## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

315







1.

SARRERA



# 1.

---

## SARRERA

Ikerketa honen bidez Gasteizko Ikastetxeen Hezkidetzari buruzko egoera zein den aztertu dugu. Testu honek edozein ikerketak jarraituko lukeen egitura jarraitzen du eta hala sarrera honen ostean fundamentazio teorikoa egin dugu gure nondik norakoak ezagutzeko. Genero indarkeriaren inguruko azterketa teorikoarekin hasi gara, sexu eta afektibitatea eta Hezkidetzaren inguruko gogoeta ere jorratu dugu, eskola mistotik eskola Hezkidetzailerako saltoa emateko. Gure gertuko inguruko emakume eta gizonen berdintasunerako hainbat egitasmoren azterketa egin dugu.

Hirugarren partean, metodoa agertzen da, zeintzuk izan diren ikerketa honen helburuak, ikerketa jasotzeko erabili diren tresnak eta zeintzuk izan diren osatu ditugun faseak. Informazioa tratatzeko prozedura azaldu dugu sistema kategoriala aurkeztu eta gero.

Laugarren atalean, emaitzak datoz; lehenengo azpiatalean galdetegietan lortutako informazioa aztertzen da, eta ondoren irakasle eta zuzendarien eztabaida taldeen emaitzak, gurasoena eta ikasleena. Bosgarren atalean, ondorioak azaltzen ditugu eta seigarrenean erabilitako bibliografia biltzen da.





2.

---

## OINARRI TEORIKOAK



## 2.

# OINARRI TEORIKOAK

Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuko ordezkariak guregana gerturatu zirenean bereziki arduratuta agertu ziren emakumeen kontrako indarkeria zela eta. Azken urteotako indarkeria kasuak ikusita, kezkatzeko moduko datuak direla iristen zioten. Jakin nahi zuten, Hezkidetza dela eta, zer egiten den eskoletan, indarkeriaren prebentzio bide garrantzitsua ikusten baitzuten Hezkidetza. Aldi horretan, Eusko Jaurlaritzak bere Hezkidetza Plana aurkeztu zuen eta bere 3. helburuan horrela esaten du:

“3. *Genero indarkeria eta sexismoa sorburu duten indarkeria mota guztiak prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horiei erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzea*”.

Ikusten denez, berebiziko garrantzia ematen zaio indarkeriaren eta sexismoaren prebentzioari. Hori horrela izanda, Sailak, gai honekiko, konpromiso eta lorpen batzuk ezarri ditu legealdi honetarako, horien artean, lehenengoak irakasleen prestakuntzari egiten dio erreferentzia:

“1. *Lorpena: Irakasleen sentsibilizazioa hezkidetzan, sexu eta afektibitate aniztasuna eta genero indarkeriaren prebentzioan. Xedea: irakasleen % 60k oinarritzko sentsibilizazioa jaso du (10 orduko modulua).*”

Ikusten denez, prestakuntza hori hiru ardatz nagusiren inguruan planteatzen du: “*Hezkidetzarekiko sentsibilizazioa, sexu eta afektibitate aniztasuna eta genero indarkeriaren prebentzioa*”. Gaiak duen garrantziagatik eta berritasunagatik genero indarkeriaren inguruko azterketa teorikoarekin hasiko gara. Sexu eta afektibitatearen gaiari heldu ondoren, Hezkidetzaren inguruko gogoeta egingo dugu eta arestian jorratutako bi gai hauei aurre hartzeak duen ga-

rrantzia aipatuko dugu, izan ere, bada garaia eskola mistotik eskola hezkidetzailerako saltoa emateko eta aukera paregabea ikusten dugu momentu honetan. Amaitzeko, emakume eta gizonen berdintasunerako hainbat egitasmoren azterketa egingo dugu.

## 2.1. GENERO INDARKERIA

Atal honek egun indar betean dagoen kezka eta diskurtsoa dakar orrialde hauetara. Hasteko, genero indarkeriaren inguruan eraikitako marko kontzeptuala landuko da: etxeko indarkeria, genero indarkeria, familia indarkeria, emakumearen kontrako indarkeria. Kontzeptu horietan generoaren erabilpena eta tratamendua aztertuko dira eta adiera bakoitzaren erabilpenaren inguruan ere datuak emango dira.

### 2.1.1. Indarkeria ikuspegi soziologikotik

Genero ikuspegitik, genero indarkeriak sexu arteko ezberdintasunak mantentzeko paradig-mari erantzuten dio. Botere ariketa bat da gizonetikiko menpekotasuna behin betirako ezartze-ko (Osborne, 2009; Bosch eta Ferrer, 2002). Indarkeria honen kontra mugimendu feminista 1960ko hamarkadan oldartu zen (Bourke, 2009), baina erakundeak 1990eko hamarkadan ohartu ziren genero indarkeriak sorturiko biktima kopuruaz eta ondorio larriez. Horrela, Nazio Batuen Erakundeak (hemendik aurrera NBE) emakumearen kontrako indarkeria ezabatzeko deklarazioa egin zuen, eta honako era honetan definitu zuen emakumearen aurkako bio-lentzia (48/104 Ebazpena, NBE, 1994:1):

“*Todo acto de violencia basado en la pertenencia al sexo femenino que tenga o pueda tener como resultado un daño o sufrimiento físico, sexual o psicológico para la mujer, así como las amenazas de tales actos, la coacción o la privación arbitraria de la libertad, tanto si se producen en la vida pública como en la privada.*”

NBE-k emandako datuen arabera, munduko hiru emakumetik batek genero indarkeria zer den ezagutzen du (tratu txarrak, bortxaketa, abusua edo jazarpena). Nazioarteko hainbat erakundetatik esan ohi da indarkeria hori dela 15 eta 44 urte bitarteko emakumeen heriotza edo ezintasunerako lehen kausa. Espainian, 2000. urtean Emakumearen Institutuak egindako makro-inkestan ikusi zen ehunetik 12,4 emakumek tratu txar teknikoak jasaten zuela; hori da, 1.865.000 lagunek tratu txarrak pairatzen zituztela aitortu zuten (Vives, 2001).

Gaia oso zabala da, eta eztabaidak honen inguruan milaka sortu dira: nola egin heriotza tasa jaisteko, legeek lortzen ez dutena?; zer egin behar da emakume maltratatu nahiz gizon maltratatzailleekin?; Osasun Zerbitzuek nola funtzionatu beharko lukete?; Berdintasunaren departamenduak zenbateko aurrekontuak jarri beharko lituzke genero indarkeria ezabatze-ko?; mitoei zer kalte egiten dute?. Bada gai bat honen erdi erdian kokatua dagoena: maitasunarena. Eta era horretan azalpena ematen digute honako erreferentzia bibliografiko hauek:

“*El ideal —autoasumido y heteroimpuesto— para las mujeres, ‘la adicción al Amor’ (en la carrera de una mujer se traduce en la idea de abnegación), amor a través del sacrificio como fuente redentora*” (Rich, 1983: 148-149).

*“Esta sobredosis de amor femenino se la apropian los varones, en un entorno que lo favorece y lo aprueba socialmente, conduce a un déficit de igualdad que coloca a las mujeres en una situación de inferioridad”*

(Osborne, 2009: 49).

## 2.1.2. Kontzeptu esparrua

Kultura analisisetan, kontzepturik erabilienak “etxeke indarkeria” eta “genero indarkeria” dira. Osbornek (2009: 28) dio “etxeke indarkeria” kontzeptuak informazioa ezkutatu eta lausotu egiten duela; horrela, indarkeriaren objektua eta subjektua zein diren ez duela zehazten, eta, are gehiago, indarkeria horren azken helburua zein den ez duela esplizitatzen. Bestalde, etxe barruan gertatzen den indarkeria guztia aurreikusten duela eta etxetik kanpora bikote artean izan daitekeen genero indarkeriari ezikusia egiten diola.

Etxeko indarkeriarekin alderatuta, “genero indarkeria” kontzeptuak xehetasun gehiago aurkezten ditu. Generoaren kontzeptuak gizon-emakumeen arteko harremanak ditu gunetzat, eta ez familia. Etxea edo lekua zeinahi dela ere, emakumeen kontrako edozein indarkeria aurreikusten du genero indarkeriak. Genero indarkeria bikotekideen artean gertatzen denean, penalki gehiago zigortzen da; bikotez kanpo, kalean nahiz lanean, gerta daitezkeen indarkeriak, ez dira modu berean tipifikatzen (Osborne, 2009; Larrauri, 2007). Laurraurik genero indarkeriaren hiru aldagai azpimarratzen ditu:

“*Bikotearen kontrola lortzeko buruturiko barru-barruko terrorismoa; barru-barruko terrorismoaren kontra emandako erantzuna; eta azkenik, kontrolarekin eta boterearekin lotua ez den indarkeria, gatazka baten edota gatazka batzuen ondoren gerta daitekeena*” (Larrauri, 2007: 44).

Beste kontzeptu bat erabiltzen dena “*familia indarkeria*” da (Larrauri, 2007: 18). Baina horrek ez du zer ikusirik gizon-emakumeen arteko harreman afektuzko nahiz erotikoeekin. Etxeko indarkeriaren antzera, kontzeptu zabalegia genero asimetriaren gaia lantzeko. Terrorismo tipo batzuetan biktimek izandako harrerak (Osborne, 2009: 28) “*terrorismo familiar*” edo “*terrorismo sexual*” kontzeptuen erabilpena ekarri du. Baina kontzeptu horrek ere kanpoan uzten ditu indarkeriaren hainbat alde, laneko sexu-jazarpena edota jazarpena soilik. “*Feminizidio*” terminoa ere erabili izan da, emakumeen kontrako indarkeria sexualari egokituz kriminologian erabiltzen den eraiketa sistematikoen kontzeptua, Mexikon, Ciudad Juárezen gertatzen direnak kasu. Sarritan erabiltzen den beste kontzeptu bat emakumeen kontrako indarkeria da. Kontzeptu horrek interesgarria du objektua zehaztua duela, ez ordea subjektua edo indarkeriaren xedea (sexista, lapurreta edo bestelakoa).

Kontzeptu hauek guztiak eremu batean baino gehiagotan erabil ditzakegu. Orokorrena indarkeria sexuala dugu. Indarkeria sexuala dagoela esaten da ekintzak eduki sexuala duenean, eta modu ez adostuan, nahi gabe (Bourke, 2009; Larrauri, 2007), indarkeria fisikoaz edo indarkeria fisikorik gabe gertatzen denean. Emakumeak menderatzeko erabiltzen den indarkeria horren baitan leudeke indarkeria mota guztiak, hala nola indarkeria sinbolikoa, publizitate-jazarpena; bortxaketak; tratu txarrak; sexu-jazarpena eta gerrak, genero indarkeria... (Osborne, 2009; Bosch eta Ferrer, 2002).

Kontzeptuekin jarraituz, Esperanza Bosch eta Victoria Ferrerek (2002: 34-36) terrorismo patriarkala eta domestikoa edo indarkeria patriarkala aipatzen dituzte, baina dena terrorismo

misogino kontzeptuaren barruan sartzen dute; izan ere, emakumeen kontrako mespretxuan oinarritzen dute indarkeria guztia. Kontzeptu hauetan guztietan aipatu ez duguna maiztasuna da. Izan ere, indarkeria bi motatakoa izan daiteke: puntualki modu esporadikoan erabili daitekeena edota ohiturazko indarkeria (Larrauri, 2007; Bosch eta Ferrer, 2002), hau da, sistematikoki erabiltzen dena, nagusitzeko edota kontrolatzeko.

1. irudia

**Minnesotan Domestic Abuse Intetervention Project-ek egina da (Larrauri, 2007:42; Bosch eta Ferrer, 2002:32) liburuetatik jasoa.**



Luis Boninok (1995) tratu txar psikologikoei mikromatxismo izena jarri die eta hiru klase-takoak aipatu ditu: koertzitiboak, ezkutukoak eta krisialdikoak. Boninoren kontzeptu horren eta Pierre Bourdieu-ren (2000) indarkeria simbolikoaren artean badira analogiak. Duluth-en gurpilaren bidez irudikatu nahi izan ditugu kontrolatzeko nahiz nagusitzeko erabil daitezkeen indarkeria mota guztiak; gizonak emakumea kontrolatzeko erabiltzen omen dituen lanabe-

sak, alegia. Minnesotan *Domestic Abuse Intetervention Project*-ek egina da guk jasotakoa 1.irudian (Larrauri, 2007:42; Bosch eta Ferrer, 2002:32).

Philip Hallie-k, *The Paradox of cruelty* (1969) liburuan, benetako krudeltasunaren dekalogoia idatzi zuen. Indarkeria mota ezberdinak neurtzeko modu bat bada ere, guk genero indarkeria neurtzeko beste lanabes bat bezala aurkezten dugu. Aurreratu daiteke genero indarkeria neurtzeko Duluthen gurpilaren eta krudeltasunaren dekalogoaren sistemak lagungarriak direla, biak ere indarkeria osotasunean aurkezten dutelako, indarkeria sinbolikoa barne (1. taulan).

Bukatzeko, esan daiteke, beraz, genero indarkeriaren kontzeptua oso zabala dela, haren barruan indarkeria anitz kontzeptualizatzen direlako, baina denak badutela komuna den zerbait: indarkeria emakumeei eragiten zaiela, emakume izate hutsagatik, eta erotikoa dela.

Indarkeriari dagokion azken kontzeptu batekin amaituko dugu, indarkeria sinbolikoarekin. Izan ere, modu oso naturalean eta inkontzientean jasotzen da indarkeri hau, pertzepzio eske-men bidez eta oso zaila da honetaz jabetzea.

Pierre Bourdieu (2000) soziologo frantsesaren hitzak aintzat harturik, indarkeria sinbolikoan hezten gara borondate eskemen gainetik, hau da, jakintza duen kontzientziatik at dauden sumatze eta hautemate-mekanismoak lagun. Eskolak zerbait landu edo ekidin beharko badu, indarkeria sinbolikoa hau da; rolen bidez, estereotipoz mozorrotua, modu naturalean gelara sartuko den indarkeria hau. Eta generoan ez bada irakasleria formatzen, irakaslearen begirada ez bada lantzen, belaunaldiz belaunaldi rola transmititzen jarraituko dugu eta generoa asimetria, hots, genero indarkeria, betikortzen. Emakumearen historia anakroniaz eta anomaliak osaturiko katalogoa da eta horrekintxe, hain zuzen, jantzi behar dugu gure ikasleria, horrekintxe gorpuztuko dugu txiki txikitatik euren identitatea. Emakumearen historiak objektu gisa gehiegizko ikusgarritasuna edo hiper-ikusgarritasuna du, hau da, begiratzeko objektua izan da eta da, baina subjektu bezala oraindik orain ikusezina da.

### 1. taula

#### **Benetako krudeltasunaren dekalogoia, Philip Hallie, *The Paradox of cruelty* (1969) (Moretek jaso, 2000:213)**

<b>I</b>	Krudeltasuna bizitza mota bat mutilatzeko modu bat da. (26 or.)
<b>II</b>	Botere, inpotentzia, agresibitate eta pasitibitate harreman bat dago.
<b>III</b>	Boteretsuaren eta inpotentearen arteko hartu-emanen, diferentzia ez dago soilik bere nortasunean, aurkitzen den egoeran baizik. (34 or.)
<b>IV</b>	Mendekotasun egoera bat izaten da. Kaltegiea kaltetuaren mugimendu askatasuna murrizten ahaleginduko da.
<b>V</b>	Kaltegieak kaltetua bahitu eta isolatu behar du, biktimizazioa eragiteko denbora behar duelako. (22 or.)
<b>VI</b>	Kaltegiearentzat, kaltetuaren mina ez ezik, biktimarekiko sortzen den mendekotasuna eta autoritatea ezinbestekoak dira. (26 or.)
<b>VII</b>	Izuairekin bukatzen den prozesua normalean jarrera onberekin hasten da. (24 or.)
<b>VIII</b>	Kaltetuaren aurpegia gune nagusia da. (31 or.)
<b>IX</b>	Krudeltasunak hiru partaide ditu: boteretsu bat, ahul bat eta ezezagun bat. (26 or.)
<b>X</b>	Krudeltasunaren antitesia borondatea da.

Diskurtsoa maskulinoa izan da, emakumea zer eta zein den esan duena. Beraz, emakumearen subjektibitatea zulo bat da, absentsian eta ukazioan oin hartzen duena (Lasarte, 2013). Genero asimetria begitantzeko, beraz, hezkuntza komunitatea sentsibilizatu beharko da; *curriculum*ean hezkidetzaz sartu; irakasleak generoan formatu; eta azkenik, material didaktikoak egokitu. Horrela, bakarrik, Antígona bizirik lurperatua, isildua, historiari at utzia, subjektu bilakatuko dugu eta haren historiari ikasleria formatu eta hartara jendarte hezkide bat abian jarri.

## 2.2. IDENTITATE ETA HARREMAN SEXUAL/GENERIKOEN ANIZTASUNA

Eskolan aniztasuna dugu bertako partaideen izaera eta harremanen mailan eta honen kudeaketa da egungo hezkuntzaren erroka nagusietako bat. Hurrengo lerroetan generoa, sexua eta sexualitatearekin zerikusia duen aniztasunari buruz arituko gara. *Amnesty International* erakundeak dio orientazio sexuala eta genero identitatea giza izaeraren ezaugarri direla; honen ondorioz, hauek askatasunez bizitzea eta beldur barik adieraztea giza eskubideak direla adierazten da hitz honen esanahi sakonenean.

### 2.2.1. Sexu/genero sistema eta identitatea

Gizon eta emakumeen arteko botere harremana edo emakumeen kontrako diskriminazio eta indarkeria modu desberdinetan salatu eta izendatu izan da mendeetan zehar. XVIII. mendean emakumearen eskubideen defentsa egin zuen Mary Wollstonecraftek (1772), XIX. eta XX. mende artean sufragistak ibili ziren aldarrika, 1960ko hamarkadan kontzientziario eta diferentziaren inguruan aritu ziren lanean feministak eta 1990etik aurrera feminismoaren baitako aniztasuna agerian jartzen. Eragile sozial hauek borrokatu eta salatu dutena matxismoa, patriarkatua edo sexu/genero-sistema gisa izendatu da. Marko teoriko honetarako azken izendapena eta haren berrikusketa erabiliko ditugu.

1975ean Gayle Rubinek *“The Traffic in Women: Notes on the ‘Political Economy’ of Sex”* idatzi zuen. Bertan emakumeak bigarren mailako kokapenean uzteko eta generoa eta derri-gorrezko heterosexualitatea ekoizteko erabiltzen diren mekanismo historiko-sozialak aurkitu eta agerian ipintzen saiatu zen. Sexu/genero sistema kontzeptua asmatu zuen hurrengo definizioarekin: jendarte batek sexualitate biologikoa gisa jardueraren produktu bihurtzeko bideak, hots, bereizkerian oinarritutako harreman sozialek sexua eta ugalketa debekuen sistema bihurtzen dituzte, gizon-emakumeentzako betebeharrak eta eskubide desberdinak hitzarmen sozial bilakatuz.

Generoa eta sexua bereizten ditu bata kulturala eta bestea naturala direla esanez, gizon eta emakumeen arteko bereizketaren oinarria soziala dela azpimarratzeko, antolaketa eta egitura sozio-kulturalari indarra emateko. Sexua gorputzaren desberdintasunari dagokion birtarte generoa eraikuntza soziala dela defendatzen du, denboran eta espazioan aldatzen dena. Simone de Beauvoirri (2005) jarraika proposatu zuen hori, determinismo biologikoari izkina egiteko.

Honekin batera Rubinek esan zuen (1986) sexualitatea garatzeko eta bizitzeko moduak sozialki ikasi eta eraikitakoak direla. Jendarte guztiek kontrolatzen eta arautzen baitute, be-

reziki emakumeena. Beraz, gizon edo emakume jaio, sinesmen, balio, ohitura, arau, praktika, aukera eta jokaera sozial desberdinak izango ditu pertsonak.

Desberdintasun biologikoetatik abiatuta botere harremanetan egituratutako sare sozialak daudela ikasten dugu generoak jendartea antolatzen duelako, eta egunerokotasunean gizon-emakumeen arteko hartu emanak antolatzen ditu. 1960ko hamarkadan gailendu zen feminismoan paradigma hau eta genero kontzeptuaren erabilera zabaldu egin zen.

Genero ikasketak datoz gero, 1990eko hamarkadan, eta hauek gorputzek eta jokaerek bat egiten ez dutenean konturatzen dira prozesua naturala izan ordez kulturala dela osoki. Bestela esanda, intersexualen eta transexualen existentziak generoaz gain sexua ere kulturala, soziala eta ikasia dela nabarmendu zuen. Eta honek sexu/genero sistema kritikatzera eraman zuen Queer mugimendua, Judith Butlerri (2006, 2007) jarraiki sexu/genero sistemaren koherentziak derrigorrezko heterosexualitateari eta argudiaketa biologikoak bi sexuen eta botere harremanei bermea ematen dielako.

Genero identitateari buruz hitz egin dugu orain arte eta sexu identitateari buruz ere hitz egin denez, laburki bi hauen definizioa eta ezberdintasunak argitu nahi ditugu bidean jarraitu aurretik. Norbanakoa gizon, emakume edo beste zerbait sentitzeari buruz hitz egingo dugu genero identitateari buruz ari garenean eta maskulinitasuna eta femininitasuna izango dira haren adierazpen sozialak. Hau egitean arau sozialak bete daitezke ala ez, gizon ala emakume izango da norbanakoa ala ez ditu eskema binarioak beteko eta horren arabera rol soziala jokatu du.

Identitate sexualari buruz hitz egiterakoan sexu/genero sistemaren (Rubin, 1986) banaketari men eginez gorputza eta genitalei begira jarriko gara eta alde fisikoari dagokionez sentituko da pertsona gizon ala emakume, kolektibo baten ala bestearen parte dela, edo bietako bat ere ez. Pertsona bakoitzaren autokontzeptuaz arituko gara hortaz, sexu, genero, sexualitatearen arteko harremanez eta kategoria binarioen gainekoez, adibidez transgenero (Preciado, 2008), honetaz ari garenean. Batzuetan sinonimotzat hartuko dira bi izendapen hauek.

Sexua eta generoa aipatu ondoren sexualitateari begiratuko diogu. Sexualitatea bizitzeko modua ikasi dugula esan dugu gorago, heterosexualitatea delako arau gure jendartean. Baina sexualitatea bizitzeko era ugari dago, ez da zertan sexuarekin edo generoarekin lotuta joan behar, sexu/genero sistemak proposatzen duen moduan: emakume=femenino=heterosexual eta gizon=maskulino=heterosexual.

Pertsona bakoitzak joera eta praktika sexual batzuk izango ditu, erakartzen dituen pertsonak eta sentitzen dituen afektu edo emozioak aldakorak eta anitzak izan daitezkeelako. Joera sexualei buruz hitz egiterakoan hiru dira nagusitzen direnak: heterosexualitatea, lesbianismoa eta homosexualitatea, eta bisexualitatea. Erakartzen emozional, afektibo eta sexuala sentitzen dute lehenengoek berea ez den genero batekiko, bigarrenak genero berarekiko eta hirugarrenak baten eta/edo bestearekiko (Alvarez-Uria, 2013).

### 2.2.2. Aniztasun afektibo-sexuala eta hezkuntza barneratzailea

Jende guztiak bere sexualitatea eta bere genero identitatea askatasunez bizitzeko eskubidea duen arren, milioika pertsonak jasaten dituzte hilketak, kartzelaratzak, torturak, indarkeria eta diskriminazioa araututako sexualitate eta ezarritako genero identitatea betetzen ez

badituzte (bortxaketa “sendagarriak”, seme-alaben zainketa galtzea, poliziaren egurketak, bullyinga eskolan...). Beraz, aniztasuna ikusgarri egin behar dugu eskoletan eta ikas komunitateetan, ikasleek jakin dezaten araututakoaz gain badaudela beste aukera batzuk eta adierazpen eta izaera guztiak positiboki baloratu diskriminazioaren eta indarkeriaren prebentzioa eta arbuioa transmitituz. Horretarako eredu eta erreferentzia desberdinak emango ditugu eta aurreiritzi eta estereotipoak agerian jarri eta deseraiki, ikasgelako errealitate anitza askatasunez eta parekidetasunez bizitzeko baldintzak lortu ahal izateko.

Joera edo orientazio sexual guztiak ez daude maila berean jendartean, heterosexualitatea delako arau eta eredu. Horregatik hitz egiten da derrigorrezko heterosexualitateari buruz (heteronormatibitatea edo heterosexismoa ere erabiltzen dira sinonimo gisa). Hau sexua, generoa eta sexualitatea sozialki eta ekonomikoki arautzeko modu hegemonikoa da, harreman heterosexualak natural eta normal bihurtzen dituena, horretarako, ugalketa eta familia nuklearra gizarte-erakunde funtsezko bihurtuz. Adrienne Rich-ek «Compulsory heterosexuality and lesbian existence» (1981) lanean ezagutzera eman zuen kontzeptua, nahiz eta lehenago beste hainbatek ere proposatu: besteak beste, Carla Lozi italiarrak (1971), eta *Purple September Staff* talde iparramerikarrak (1975). Alde batetik, heterosexualitatearen derrigorrezkotasuna ikusgarri egiten du, eta beste alde batetik, heterosexualitatea patriarkatuaren oinarritzko erakundeetako bat nola bihurtu den aztertzen du. Loziren arabera, ugalketaren araberrako emakume eta gizonen arteko harremanen naturalizazioan datza emakumeen menpekotasuna. Richek dio heterosexualitatea erakunde ekonomikoa dela, lan-jardunaldi bikoitza ahalbidetu baitie emakumeei, eta lanaren banaketa sexuala ekarri duela.

Emakumeek gizonenganako desira izatea bultzatu da, eta hainbat desira-joera indarrez iraurarazi dira, Richen ustez. Teresa de Lauretis-ek (1991) dio Mendebaldeko sexualitate femeninoaren eraikuntza gizonaren desira eta ugalketari begira eraiki dela, eta ikuspegi horren atzean «heterosexualitate presuntzioa» gordetzen dela adierazten du. Monique Wittig-ek (2010), bestalde, «hitzarmen heterosexuala»-ri buruz hitz egiten du, heterosexualitatea hitzarmen soziala dela eta gizarte-erakunde dela ohartaraziz.

Derrigorrezko heterosexualitatearekin batera heteronormatibitatea eta heterosexismoa kontzeptuak daude. Heteronormatibitateak jarraitu beharreko eredu eta arau bihurtzen ditu harreman heterosexualak. Ideologia horren ondorioz, harreman ez heterosexual guztiak arbuia eta «anormal»-tzat edo «bestelako»-tzat jo, eta horrela, homofobia eta lesbofobiari arnasa ematen die. Heterosexualitatea eta heterosexualak gailentzeak, eta arau bihurtzeak, beste sexualitate batzuen diskriminazioa dakar legeetan, kultura-eremuetan eta politikan. Monique Wittigen arabera, heterosexualitatea pentsamendu ideologiko «hetero»-aren erregimen politiko bat da. Ikuspegi horretan, emakume eta gizonak kategoria politikoak dira, eta kategoria horien arabera, lesbianak ez dira emakumeak, logika politika horretatik kanpo baitaude (Alvarez-Uria, 2013).

Aurretik azaldutakoak diskriminazioarekin eta eskubide urraketarekin dute zerikusia eta horretaz ariko gara orain. Sexismoa sexua edo generoaren araberrako diskriminazioa edo tratu desberdinuari deritzo. Emakumeak jendartean gutxiesten, ikusezin bihurtzen eta menpeko kokatzen ditu jarrera eta jokaera honek.

Victoria Sauren (1990) araberrako emakumeak gutxiagotasun, menpekotasun eta esplotazio egoeran mantentzeko erabiltzen diren moduek osatzen dute. Bizitzaren eta harremanen eremu guztiak hartzen ditu barnean eta Nazismoarekin eta arrazakeriarekin konparatu izan dute. Emakumeen sexualitatearen errepresioa eta lanaren sexuen araberrako banaketa dira sexismoaren lehen bi agerpenak. Hauekin batera hezkuntza, hizkuntza eta osasuna ere baditugu

adibide gisa (estereotipo eta mitoekin: amatasuna, etxeoandrea,...). Arte eta zientzietan emakumeen sarrera galarazteko eta emakumeek egindako ekarpenak ezkutatzeko agertuko izan zaigu denboran zehar (Alvarez-Uria, 2013).

Homofobia homosexualenganako, gay eta lesbianenganako ezinikusia, arbuioa, gorrotoa edo beldurra izateari deritzo, eta sentimendu hori patologikoa izatera hel daiteke. Homosexualitateari buruzko mezu ezkorrek osatzen dute. Heteronormatibitatearen (edo derrigorrezko heterosexualitatearen) ondorioz, edozein pertsonak barneratuta izan dezakeen pentsamendu eta jarrera, eta jarrera horrek, beldurra edo lotsa sentiarazi nahi die pertsona gay, lesbiana, transexual edo bisexualei, edota gaixorik daudela sentiarazi nahi die, edo normalak ez direla pentsarazi nahi zaie. Bestalde, androzentrismoaren ondorioz lesbianak ikusezin bihurtzen direnez, *lesbofobia* terminoa ere hedatu da, eta bide bertsutik, transexualen ikusgarritasuna bideratzeko ere *transfobia* terminoa hedatu da (Alvarez-Uria, 2013).

Sexu/genero sistemaren kritika bikoitza da: alde batetik sexua biologikoa eta generoa kulturala direla dioelako eta biak dira eraikuntza sozialak, eta bestetik binarismoa eta heterosexualitatea bermatzen dituelako, kategoria pareak edo binarismoa indartuz. Mendebaldeko pentsamoldea errealitatea aztertzeko kategoria dikotomikoetan oinarritzen da. Dikotomia horiek, gainera, honela definitzen dira: batetik, zehatzak dira (bien artean osotasuna eratzen dute, eta hortik kanpo ez dago ezeingo aukerarik); eta, bestetik, baztertzailak dira (batak ala besteak izan behar du, ezin bietan kokatu); eta, azkenik, dikotomiaren osagai bat positiboaren ikur bihurtzen da, eta bestea, aldiz, negatiboarena. Sexualitateari buruzko diskurtsoek ere kategoria dikotomikoak eta dogmak sortu dituzte: dikotomia anatomikoa (arra/emea), genero-dikotomia (gizon/emakume), genero-estereotipoak (maskulinoa/femeninoa).

Dikotomia anatomikoaren dogma hain da funtsezkoa, aurkitzen ez denean sortu ere egiten dela (adibidez, intersexualei sexu bat ala bestea ezartzen diete, dogmara egokitu ahal izateko). Genero binarismoak, bestalde, emakumeei genero femeninoa eta gizonei genero maskulinoa esleitzea dakar, eta bi aukera horiek derrigorrezko egiten ditu, bestelako aukerak ukatuz edo beste aukera horiek normatik at kokatuz –arauetatik kanpo–. Estereotipo kultural horiek (maskulinoa/femeninoa) kontzeptu antagonikoen zerrenda luzea osatzen dute, eta kontzeptu horiek genero-agindu kultural bihurtzen dira, eta inguratzen gaituen mundua egituratzen dute (Alvarez-Uria, 2013).

Sailkapen bitarra betetzen ez denean (emakume/gizon, maskulino/femenino, heterosexual/homosexual) *genero-aldagarritasun* terminoa erabiltzen dute psikologia, psikiatria, antropologia eta genero-ikasketetako ikertzaileek. Termino zabala eta orokorra da, transexualak, *butchak*, *queerak*, trabestiak, mari-mutilak, maritxuak eta bestelakoak izendatzeko erabil daiteke-eta. Emakumeek genero ez-adostasuna agertuko dute emakume heterosexualaren paradigmatik ateratzean, hala nola, jarduera fisikoak egiterakoan, ugalketa edo etxeo lane-kiko joerarik ez izatean, edota beren burua edertzeko kezkarik ez sentitzean (arropa, makillajea, ilea eta gorputza moldatuz).

Honako hauek dira genero ez-adostasun ezaugarriak, gizonen kasuan: emozioak adieraztea, inguruak zaintzea, etxeo lanengatik ardura edo interesa azaltzea, edo norberaren itxura zaintzea. Gaytzat edo femeninotzat hartua izateko beldurrak gizon asko gidatzen ditu genero ez-adostasuneko jarrerak arbuizatza eta gutxiestera. *Genero-aldagarritasun*aren barruan kokatzen diren pertsonak, *genderqueer* sentitzen direnak, ez dira gizon/emakume binarismo baztertzailaren barruan kokatzen, ez dute haien burua bataren edo bestearen baitan lerratzen. *Genderfuckersak* urrats bat haratago doaz eta binarismo horren aurka egiten dute, hura iraultzeko eta deseraikitzeke proposamenak eginez (Alvarez-Uria, 2013). Eskolaren papera litzateke ahaztuta dauden esparru horietan heziketa ematea.

## 2.3. HEZKIDETZA: DEFINIZIOA ETA BILAKAERA

Eskolak lagundu behar du emakumeen kontrako diskriminazioa, indarkeria eta zapalketaren aurka borrokatzen. Horretarako, Hezkidetza aurkezten zaigu tresna nagusi bezala.

Hezkidetza eskola mistoa gainditzen duen eskuhartze hezitzailea da. Eskola mistoak suposatu zuen mutilen eskola-ereduan neskak eta mutilak aritzea, eredia denentzat egokia zen ala ez ikusi gabe. Eredu hezkidetzaila, gaur egun utopia bat da, eta neska-mutilen gaitasunen eta bakantasunen aitortzan oinarritzen da. Hau da, pertsona guztiak parekidetasunean eta diskriminazio ezan hezteko du helburu, sexu/genero sistemaren arabera menperatze harremanik ez da erakikiko modu honetan eta diferentziatik berdintasunean heziko da. Hori lortzeko, ikasleen trebetasun guztiak garatu eta estereotipo eta aurreiritziak deuseztatuko dira bakoitzaren diferentziak eta ezaugarri pertsonalak baloratuz.

Eskolak identitatearen eraikuntzan parte hartzen du beste eragile sozial batzuen artean (Herranz, 2006), eta bertan identitatearen oinarrietako bat den generoaren eraketan emakume eta gizon kategoriak finkatzen dira bakoitzari sozializazio eta kokapen sozial desberdin eta hierarkizatuak esleitzen. Neska-mutilek etxetik ekartzen dituzte genero estereotipo eta jokararako eta eskolak hauek baztertu beharrean indartu egiten dituela uste dugu.

Gure inguruan, 1970ko hamarkadan ordura arte banatuta ikasten zuten mutil eta neskak elkarrekin hasi ziren ikasten. Hezkuntza demokratizatzeko ahalegina izan zen Eskola Mistoa, eta honek ondorio onuragarriak ekarri zituen, hala nola, neskak eta mutilak hezkuntza sistemara sartzeko aukera berdintasuna izatea maila guztietan; emakumeek jakintzarako duten eskubi-dearen onarpen soziala; emakumeen parte-hartzea hezkuntza sistemako kudeaketan, metodo pedagogiko berritzaileak sortzerakoan eta heziketa esperientziak egiterakoan; edo gizonen kontzientzia hartzean egon den eboluzio positiboa emakumeekin eginkizunak konpartitzeko garaian, bai arlo pribatuan eta bai publikoan (Urruzola, et al, 2002). 1977az geroztik hezkidetzaren aldeko hainbat kolektibo sortu ziren Mugimendu Feministaren barruan: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Emakumeen Asanbladetakoa Emakumea eta Hezkuntza batzordea, Lanbroa Hezkidetza Kolektiboa, eta unibertsitateetan, ikastetxeetan, Berrikuntza Pedagogikoko Mugimenduan eta abar sortuz joan ziren beste hainbat. Guztiek lagundu zuten hezkuntza sistemako egitura sexistaren analisia egiten, eskolak mantentzen zituen rolak aztertzen eta eskolan erabiltzen ziren sexismoaren transmisio mekanismoak detektatzen. Mekanismo horien artean zeuden testu liburuak, espazioaren erabilera, jostailuen erabilera, hizkuntza, orientabidea, eskola antolaketa, giza harremanen heziketa, balioak. (Aristizabal, 2010)

Baina Eskola Mistoa eskolatik kanpo zeuden gizon eta emakumeen arteko botere harremana eta diskriminazioa ere klaseratu ziren. Eskola Mistoa martxan jartzean, ez zen gizonezko generoaren eta emakumezko generoaren kritikarik egin. Ez zen nesken aldeko diskriminazio politikarik aurreikusitako. Ez zen argitu pertsona bezala zer balioetan heziko ziren. Ez zen aztertu irakasgaietan transmititzen zen androzentrismoa; esaterako, historian, filosofian, zientzietan... Eta ez zen kontuan hartu emakumeei egozten zaizkien roleri balio gutxiago ematen zaiela gizartean, gizonen roleri baino (Ugarte, 2005; Arenas, 2006; Vizcarra, Macazaga eta Rekalde, 2009). Hori dela eta, 1990etik hona, Eskola Mistotik Eskola Hezkidetzailerara pauso berriak emateko oinarriak ezartzen hasi ziren. Izan ere, Eskola Mistoa berdintasuna lortu zuen forma aldetik, baina estereotipo sexistak mantentzen jarraitzen zuen. Eskola Hezkidetzaren helburua, nortasunaren eraketa mugatzen duten estereotipoetatik at, eta femeninoak eta maskulinoak bezala hartutako zenbait balio pertsonaren garapen globalerako maila berean direla beharrezko onartuz. (Aristizabal, 2010)

Eskola Hezkidetzaillearen heziketa ereduak balio behar du neskek historian zehar emakumeek garatu dituzten bizimoduak, portaeren eta balioen alderdi positiboak aurki ditzaten. Alderdi horiek ezagutu eta baloratu behar dira, lehendabizi emakumeek beraiek, eta gero ikas-talde osoak. Eta portaera etiko eredu bezala proposatu behar dira bai emakumeentzat bai eta gizonezkoentzat ere. Era berean, ikasleek kultura maskulinoaren portaeraren alderdi positiboak ikus ditzaten lagundu behar du, bai neskek eta bai mutilek ezagutu ditzaten eta portaera etikorako pautak bihurtzeko daitezkeen horiek ere. Beraz, gizarteratze prozesuan emakumeek eta gizonek jarri duten aberastasun desberdina gainditzean datza, eta pertsona bakoitzaren arabera bereizketak egitean, sozialki ezartzen zaion generoa alde batera utzita. Horrek esan nahi du Hezkuntza planifikatzen denean genero kategoria kritikatu hasten dela, ezen sistema patriarkalak emakumeak eta gizonak zatikatu eta kokatu egin dituen irizpide hauetan oinarrituz: espeziearen ugalketan zuten lekua, lan banaketan zuten presentzia, eta botere hierarkian zuten banaketa, beti gizonak emakumeen gainean kokatuz eta genero maskulinoa femeninoaren gainean. Azken finean, pertsona bakoitzarengana hurbiltzea esan nahi du, norberaren indibidualtasunean eta bereizitasunean oinarriturik. Horrela, bere askatasunetik abiatuta, eskolak bultzatu behar du norberak aukera dezala nor izan nahi duen eta zein izango den bere kolaborazioa justiziarekin eta askatasun kolektiboekin. (Urruzola et al, 2002)

Gaur egun ordea ez dira Eskola Hezkidetzaillearen aldekoak ahots guztiak. Edozein modutan, emakumeak segurtasuna lortu behar du, arrakastari beldurrik ez dio izan behar, eta berdina edo parekideak izaten ikasi behar du. Sumisioa baztertu eta bat ez etortzeko, lotsagabe izateko eta energia izateko ezagutza, gaitasuna eta aukera eman behar zaie emakumei (Ballarín, 1984). Beraz, Eskola Hezkidetzaillea eraikitzeke Bilgune Feministak bere Hezkidetzak Gidako minimoen eskema (2008) proposatzen du:

1. Edukiak: Emakumeen izaera eta ekarpena berreskuratu. Emakume ereduaren presentzia bermatu.
2. Materiala: Eduki sexistak duen edozein materialaren bazterketa eta hezkidetzaillearen erabilera bultzatu.
3. Hizkuntza: Hizkuntza ez sexistaren erabilera.
4. Espazioaren antolaketa: Espazio guztiak guztiontzako. Bereizkeria bultzatuko ez duen espazioaren antolaketa.
5. Ikastetxearen antolaketa: Eredu zein maila ezberdinetan parekidetasunean oinarritutako emakumearen parte hartzea.
6. Jarrerak: Hezkuntzako komunitate-kideekiko tratua bereizkeria eza.
7. Baloreak: Hezkidetzak eta beraz, parekidetasuna bultzatuko duten baloreen sustapena.
8. Ebaluaketa: *Sexuaren* arabera aurreiritzi gabeko ebaluazioa.
9. Harremanak: Hezkuntzako komunitate-estamentuen arteko parekidetasunean oinarritutako harremanak sustatu.
10. Jarduerak – Prozedurak – Metodologia: Hezkidetzak bultzatu eta bermatuko duen partaidetzarako metodologia.

Eskema hau osatzeko eta Hezkidetzak borobiltzeko pertsonaren garapen integraltzat har daitezkeen Pentatasuna proposatzen du Begoña Salas (2003a). Honek, alde batetik, bost dimentsio lantzen ditu: identitatea, gorputza, gogoak (edo adimena), gizartea eta emozioak (edo arlo afektiboa), eta bestetik, apendizakia prozesuan kontuan izan behar diren bost klabe zehazten ditu: sintonia (zeure buruarekin eta inguruarekin harmonian egotea), komunikazioa, ikasten jakitea, gatazken konponketa eta elkarbizitza. Bost klabe horiek ere modu orekatuan eta elkarri lotuta azaldu behar dute. Curriculumean jarrerak hartzen dituzten ardatz (Salas, 2003b).

Definizio pare batekin itxi nahi dugu atal hau. Pilar Ballarín arabera hezkidetzak espe-rientzia aniztasuna aitortu eta baloratu behar ditu, genero harreman parekideagoak eraiki eta

jendarteko desorekak egokitu, neska-mutilak formazioaren bidez aske eta autonomo izan daitezen etorkizunean (Ballarín, 1993). Marian Moreno (2013) irakasleak bestetik dio, hezkidetzan hezitzea “gure ikasleen gabeziak eta gehiegikeriak orekatzea” dela.

## 2.4. HEZKIDETZA: EGITASMOA ETA DIFUSIOA

Hezkidetzeta eta berdintasuna bultzatzeko hainbat esperientzia eta lege nahiz erakunde ezberdinen egitasmoak aipatuko dira jarraian. Lehenik eta behin, esan behar da Espainian zehar egitasmo ugari daudela hezkidetzeta bultzatze aldera abian jarriak. Guk ez ditugu aipatuko, bestela, bakar batzuk aukeratu beharko genituzke, eta oso luze jotzeaz gain hautua bera ere ez litzateke batere irizpide erraza izango. Hartaz, Nafarroan abian jarritako diagnostia, gainera bada ere, komentatuko da eta ondoren, Emakundek diseinaturiko VI. Berdintasun plana azalduko da oso modu laburrean; Jaurlaritzak martxan jarritako Hezkidetzeta programa pilotua; Partzuergo Eskolak hezkidetzaren inguruan adosturikoa; eta azkenik, Gasteizko Udalak Berdintasunaren inguruan diseinaturikoa laburtuz osatuko dugu marko hau. Pintzeladak dira, baina guztien artean Berdintasuna eta Hezkidetzeta gure inguruan nola lantzen diren irudikatze aski esanguratsuak.

Interesgarria da Nafarroako Erkide Komunitateak Hezkidetzeta diagnostia egina duten eta berrikusi nahi duten eskolei 2013-2014 bitartean eskainitako “Revisión de las áreas de mejora del diagnóstico de coeducación” plana. Plan hau Haur Hezkuntzari, Lehen Hezkuntzari nahiz Derrigorrezko Hezkuntzari begira egina dago. Plan honen helburua litzateke bi urtez diagnostia egin ostean, hezkidetzaren diagnostia berregitea; lorpenak azpimarratuz eta jardunaldi ildo berriak planteatuz, tresnak eta laguntza eskainiz helburu berriak lortzearen. Helburu hauek lortze aldera metodologia eskaintzen da. Formazio orduak; orientazio orduak diagnostiak aztertze eta interpretatzeko; talde jarduerak; hezkide maleten aurkezpenak. Hau guztia egin ahal izango da eskolak hala eskatzen badu, orotara 20 orduko formakuntza eskainiko delarik.

### 2.4.1. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Plana (Emakunde, 2014)

Oso modu laburrean aipatuko ditugu Emakundek bere azken planean hezkidetzarekin loturiko planak nola aurreikusi dituen. Batetik, gobernu programako ekimenak abian jarri ditu helburu operatibo zehatzekin, eta bestetik, gobernu ordenantzak indartze aldera hainbat aspektu indartu edota aurreikusi ditu. Berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko neurriak guztira 13 dira: horiek denek ere, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak berdintasun-printzipioa euskal herri-aginteen antolakuntzan eta funtzionamenduan txertatzeko ezartzen dituen aginduak biltzen eta hedatzen dituztenak (13. Or.). Berdintasunerako VI. Planak, bestalde, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezarritako lege-agindu bati erantzuten dio. Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintzaren, ekonomiaren, kulturegintzaren eta gizartearen esparru guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko -benetakoa eta eraginkorra- izango den lege aginduari, hain zuzen ere. 15. Artikulua da emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak zedarritzen duena eta honakoa dio (11. Or.):

“*Legegintzaldi bakoitzean, Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onetsi behar du. Plan horretan, hain zuzen, Euskal Herri-agintee emakumeen*

*eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko jarraibideak eta gidalerroak modu koordinatu eta orokorrean jasoko dira.*

Eta horixe bermatze aldera eraiki dira plan honetan berdintasuna sustatzeko gobernu programak nahiz gobernantzak.

#### **2.4.1.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko gobernu programa ekimenak**

Gobernu programaren lehen ardatzak helburu estrategikotzat du balioen aldatzea sustatzea, pertsonen sexuaren arabera emandako genero estereotipoak eta rolak ezabatuz. Hori horrela izanik, Hezkuntza-sistemarekin batera berdintasuna bultzatzeko, 1.1.6 eta 1.1.7 helburu operatiboak aipatzen dira. Helburu horiek medio ikasleen alderdi pertsonala, soziala eta komunitarioa garatzea da jomuga eta Zientziaren eta ikerketaren arloan aukera-berdintasunen bermea aurreikustea.

Gobernu programaren lehen ekimena litzateke, beraz, Hezkuntza-sistemarekin batera berdintasuna bultzatzea, ikasleen alderdi pertsonala, soziala eta komunitarioa garatze asmoz. Hartara, helburu operatibo hauek ditu jomuga eta honela esplizitatzen dira. 1.1.6 puntuak urteko lan-programetan hezkidetzaren sartzeko duten ikastetxe formalen eta ez formalen kopurua handitzea du helburu operatibotzat. Sailak (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila; Ingurumen eta Lurralde Politika Saila) (81.or). 1.1.7ak Zientziaren eta ikerketaren arloan aukera-berdintasuna bermatu nahi du.

Gobernu programaren hirugarren ekimenak helburu estrategikotzat du emakumeen laneratzea, lan baldintzak eta mailaz igotzeko aukerak hobetzea, taldeen eta egoeraren aniztasuna kontuan hartuta. Horrela, 3.1.1 puntuak helburu operatibotzat du emakume-taldeen jardura eta okupazio-tasa handitzea, kalitatezko lanpostuetan (mugagabeak eta lanaldi osoak) parte hartuz (92. Orr.). Ildo horretatik, lehentasuna izango du, batetik, ikasketetan, zientzian, teknologian, ekonomian eta finantzetan emakume ikerlarien kopurua handitzeak, eta, bestetik, teknologiko sektore aurreratu eta trinkoenetan emakume langileen kopurua handitzeak. 3.1.7 puntuaren helburu operatiboa izango litzateke ikasketak aukeratzean, sexuen arteko ezberdintasun kuantitatiboa murriztea, sexu-bereizketa handiena dutenei eta laneratzeko aukera handiena dutenei lehentasuna emanez. Inplikaturako erakundeak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila eta Udalak. Adierazleak Lanbide Heziketako ikasketa adarrak lirateke, gizonen edo emakumeen presentzia % 75 baino handiagoa dutenak, ikasle kopuruaren arabera; gizonen edo emakumeen presentzia % 75 baino handiagoa duten unibertsitate tituluak: genero-distantzien eboluzioa, ikasle kopuruaren arabera ikusita.

#### **2.4.1.2. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gobernantza**

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko gobernantzak indartu nahi dira eta hezkidetzari dagokionez G.4.1 eta G.10.2 gobernantzak ukitzen dira. Euskal herri-erakundeek egindako emakumearen egoerari buruzko eta/edo berdintasunaren arloko berriazko azterlanen kopuruaren inguruan dihardute.

Euskal herri-erakundeek emakumearen egoerari buruz eta/edo berdintasunaren arloan egindako eta askotariko diskriminazioa pairatzeko arriskuan dauden taldeak aintzat hartzen di-

tuzten berariazko azterlanen ehunekoa hartzen du kontua G. 4. 1 gobernantzak (43. or.). Bestalde, G. 10. 2 gobernantzak beren diseinu, ebaluazio eta kudeaketa prozesuetan genero ikuspegia kontuan hartzen duten sektorekako eta zeharkako planen ehunekoa handitzea kontenplazten du (52.or). Ikerketa-programa bultzatzea, jakintza-diziplinetan eta arlotan genero-ikuspegia txertatzeko izango litzateke Gorbenantza honen izatearen zioa.

Gobernu-programaren ekimenekin bat etortzeaz gain, Berdintasunerako VI. Planak proposatutako helburuak ezinbesteko erreferentzia dira gobernuaren sektorekako planetan eta, bereziki, X. legegintzaldian onartuko eta ezarriko diren plan estrategikoetan (berrikuntza publikoaren, hezkuntzaren, enpleguaren, zientzia, teknologia eta berrikuntzaren, gizarte-zerbitzuen, osasunaren eta segurtasunaren arloetan) genero-ikuspegia txertatzeko.

EAEko politika, plan eta sektorekako programa guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna txertatzeko beharra Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legearen 18.1 artikulua ezartzeaz gain, ezinbestekoa da demokrazian aurrera egiteko eta gizarte zuzenagoa, kohesionatuagoa eta gizartearen eta ekonomiaren aurretik garatuago dagoena sortzeko. Horrela garatzen da X Legegintzaldiko plan estrategikoen programa, eta horietan 10. Puntua, Unibertsitate Plana da eta 11., Lanbide Heziketako EAEko IV. Plana. Berdintasun Plan honi dagokio atal horietan generoaren lanketa.

## 2.4.2. Eusko Jaurlaritzak Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana (Eusko Jaurlaritza, 2013)

Eusko Jaurlaritzak 2013ko azaroan argitara emandako gida planak hiru atal ditu. Lehenik, edukiak begi bistan jartzen ditu; bigarrenik, planaren filosofia eta printzipio nagusiak biltzen dira, eta hirugarrenik, planaren atalak azaltzen dira. Hezkuntza, Hizkuntza Politika Linguistika eta Kultura Sailak sustaturiko plan honek hezkuntza sistema du xede, zehatz mehats derrigorrezko hezkuntza (Lehenengo Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza), Haur Hezkuntza eta Batxilergoa, aldi honetarako: 2013/2014 ikasturtetik 2015/2016 ikastertera. Planaren helburua transformazio prozesua sustatzea da, eskola mistoko eredutik hezkidetzan oinarritutako eskolaren eredura aurrera egiteko, genero indarkeriari aurrea hartzen eta, azken buruan, sexismoak eragiten duen edozein indarkeriari aurre egiten laguntzeko. Eskolak ikasleen arteko botere harremanak aldatzen lagundu dezake, behar diren aldaketak eginez, berdintasunean oinarritutako sozializazioa ziurtatzeko. Eskola leku pribilegiatua da aldaketa handiak hasteko, baina berak bakarrik ezin dio lan horri heldu, beste erakunde eta gizarte eragile batzuen laguntza formalagoa behar du, baita hurbileko hezkuntza komunitatearen zuzeneko laguntza ere. Hartara, plan honen helburua ikastetxeak ekimen orokorra eta estrategikoa egitea da, genero indarkeriarekin loturiko hezkidetzeta, berdintasuna eta prebentzioa lantzeko.

Helburuak lortzeko, funtsezkoa da ikastetxeen barrutik nahiz kanpotik sustaturiko jardueraren horien inguruan, hezkidetzeta, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun politikak eta ikerketa zientifiko feministen emaitzak egotea. Plan honek hezkidetzeta eta genero indarkeria Hezkuntza Administrazioaren agendan sartzen du. Gure gizartean, uste hau oso zabalduta dago: emakumeen eta gizonen berdintasuna ia ia lortuta dago.

Hezkuntza sisteman ere aurrerapen handiak egon dira. Izan ere, derrigorrezko irakaskuntzaren ondoko mailetan, gaur egun, ikasle gehienak emakumeak dira. Irakaskuntza mistoa,

irakaskuntza publikoaren eta itunpeko ikastetxe eta ikastetxe pribatu ia ia guztien eredia izatea lortu da. Hala ere, ikerketek erakusten digute nesken eta mutilen arteko harremanek asimetrikoak izaten jarraitzen dutela, eta egoera asko abusuan oinarrituta daudela; gaitasunak, trebetasunak eta bitzita proiektuak generoarekin loturik daude oraindik; curriculum edukietan, emakumeen ekarpenak ez dira ikusten, eta sexismoa eta genero indarkeria nerabeen eta gazteen bizitzen garapenean eragiten ari diren errealitateak dira. Ahalegin handi horretan ez gara hutsetik abiatzen. Dagoeneko hamarkada batzuk igaro dira gure erkidegoan hezkidetzari buruzko lehen hitzak entzun zirenetik.

Hezkuntzari buruzko hausnarketa eta jarduna bultzatu zuten taldeen lehen adierazpenetatik (mugimendu feminista, sindikatuak, pedagogia berrikuntzako mugimenduak) gaur egun arte, zenbait etapa bereiz daitezke, Emakunderen 2005eko azterketan adierazten den bezala (11. Or.). Hezkuntza komunitateak dituen erronka berriak definitu behar dira. Hona hemen erronka horietako batzuk:

- A. Hezkidetzan oinarritutako eskolaren eredia sakon aztertzea, eta genero ikuspegia ikastetxeetako kultura eta praktiketan sartzea planteamendu integral batez.
- B. Ikasleak orientatzea, bizitzan, ikasketetan eta lanbidean bidea aukera dezaten, askatasuna eta aukera aniztasuna errespetatuz eta genero baldintzapenik gabe.
- C. Genero ikuspegia eskola porrotari aurre egiteko ekimenetan sartzea, eta hezkuntza jasotzeko eskubidea benetan unibertsala dela ziurtatzea, bai eta neska eta mutil guztiek hezkuntza sisteman jarraitutasuna izan dezaten bermatzea ere, ikasle guztien aniztasuna aintzat hartuta (etnia, kultura, ekonomikoa, gizarte mailakoa, funtzionala, sexuala, etab.). Harreman afektibo sexualak izateko eta elkarrekin bizitzeko hezteak, aniztasun sexualean eta emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunean oinarrituta.
- D. Eskola komunitate osoaren atxikimendua lortzea, genero-indarkeriari aurrea hartzeko, kasuak lehenbailehen detektatzeko eta biktimei arreta egokia eta eraginkorra emateko (12.- 13. Or.).

Orain arte lortutakoa indartzea da erronka, baina alderdi horiek guztiak modu integralean landu behar dira, hezkuntza komunitate guztiaren inplikazioarekin, irakasleak trebatuz, ikastetxeen proiektuak berraztertuz eta aldatuz, parte hartzeko egiturak sortuz, arduradunak izendatuz, hezkuntza orientabidea eta ikasgela lanerako abiapuntutzat hartuz... (17. Or.) Adierazlerik argienetakoa da ikasketen derrigortasuna desagertu eta oinarritzko hezkuntzatik aldentzen garen heinean, gero eta handiagoak direla jokabide ereduaren desberdintasunak neskek eta mutilek egiten duten aukera akademikoetan. Orduan hasten dira ibilbide bereziak nesken eta mutilen artean, bai ikasketetarako sarbidean, bai aukeratzen dituzten adarretan.

Batxilergoan, mutil gehienek modalitate zientifiko teknikoak hautatzen dute; neska gehienek, berriz, gizarte eta giza zientziak aukeratzen dituzte. Aukera horiek gerora zer unibertsitate karrera hautatu baldintzatzen dute. (18. Or) Gaur egun, hezkuntzaren alorreko kezketako bat mutilek neskek baino emaitza akademiko txarragoak dituztela da. Gainera, mutil batzuen artean joera handiagoa dago jokabide disruptiboak, diziplina arazoak, jazarpen arazoak, gatazka konpontzeko trebetasun falta eta abar izateko. Jarrera horiek eta eskola porrota ez dira lotzen hezkuntzaren munduan. Genero aldagaiarekin baina, oso garrantzitsua da aintzat hartzea mutilek zer maskulinitate eredutan sozializatzen diren eta neskek zer feminitate eredutan sozializatzen diren, ikasgelan dituzten jarrerak ulertzeko, bai eta haien irakaskuntza eta bitzita ibilbideari buruzko itxaropenak ulertzeko ere (19. Or.).

Eurydice azterketak dioen bezala, "Normalean, eskola errendimenduan genero-etenari aurre egin nahi dioten politikek mutilen errendimendu eskasari erreparatzen diote. Herralde gutxi batzuek soilik garatu dituzte programa bereziak mutilen irakurmen trebetasunak hobetzeko

eta neskek matematika eta zientzietan duten errendimendua hobetzeko” (20. Or.). Gaur egun, gazte askok ez dituzte jokabide horiek (patroi tradizionalak) gaitzesten, nahiz eta berdintasunean oinarritutakoak ez direla ohartzen diren; zenbaitetan erakargarriak direla ere iruditzen zaie. Eredu horrekin bat etorritik, moral bikoitzari eusten zaio; hau da, harreman asko dituzten mutilak balioetsi egiten dira, eta gaitzetsi, berriz, gauza bera egiten duten neskek. Neskek eta mutilek gaur egun ere portaera eredu desberdinak izaten dituztela eta jatorrian sexismoa duten portaera ereduak direla jarraitzen da egiaztatzen (21.- 22. Or.).

Alderdi horietaz gain, aintzat hartu behar da heterosexualitatearen gizarte araua urratzen duten sexu identitateak eta aukera afektibo-sexualak ez daudela onartuta eta normalizatu-ta ikasgelan; beraz, kasu askotan ezkutatu egiten dira eta sufrimendua eragiten dute (23. Or.). Ikuspegi biologizistak gainditu behar dira, eta zenbait alderdi landu: sexu-identitatea eta hori nola erlazionatzen den genero identitatearekin eta aniztasunarekin; desira, emozio propioa, eraikia eta garrantzitsua den aldetik, norberaren eta harremanen zioritasunerako; erakarpena, maskulinitate eta feminitate hegemonikoaren parametroetatik kanpo; harreman afektiboak eta/edo sexualak desiran, zaintzan, ongizatean eta konpartitzean oinarrituta, eta ez jazarpenean, kontrolean, abusuak, sufrimenduan edo genero indarkerian oinarrituta (23.-24. Or.). Barne Sailak egindako txostenek azaltzen dute, estereotipoek irauten duten arren, genero-indarkeriaren biktimak eta erasotzaileak oso gazteak direla (24. Or.). Premiazkoa iruditzen zaigu jazarpen sexista eta sexuala bullying eta cyberbullying fenomenoek barnean sakon aztertzea, baita genero sozializazioak hain zuzen, mutilek maskulinitate eredu tradizionala hartzeak zer neurritan eragiten duen fenomeno bietan eta biktima/erasotzaileak hartzeko ere (26. Or.). Oraindik ez dira ezagutzen hainbeste hautematen ez diren indarkeriak –mikroindarkeriak– eta, beraz, onartu egiten dira. Oro har, erasoak minimizatu egiten dira, adinari dagozkion jokabideetatik hartzeko baitira, inolako ondorioz ez balute bezala; irakasleek eta gurasoek ez dute sinesten beren ikasle edo semeek erasotzaileak izan daitezkeela, eta, askotan, susmoa izaten da neskek ez ote duten kontua puztu (26.-27.or.).

Aipatzekoa da araudia, bai berdintasunaren ingurukoa bai hezkuntzako berariazkoa, bat datorrela hezkuntza sistemako alderdi horietan esku hartzeko premia azpimarratzeko orduan, emakume eta gizonen aukera berdintasunean aurre egin ahal izateko. Alderdi horien artean, honakoak nabarmendu daitezke: curriculumaren edukia, ikasmaterialak, egiturekin eta pertsonekin zerikusia duten neurriak, hezkuntza sistemako langileen trebakuntza, ikuskaritza-lana, berdintasun arduradunaren figura Ordezkaritza Organo Gorenetan eta genero indarkeriari erantzuteko neurriak eta politikak (32. Or.). Gida Planean hiru helburu estrategiko eta bederatzi espezifiko ezarri dira (43.-44. Or.):

1. Hezkuntza sistema hornitzea hezkidetzazko eskola ereduak era koordinatuan bultzatzeko egiturez eta pertsonaz.
  - 1.1. Irakasleak eta hezkuntza komunitatea trebatzea, beren esku-hartzeak hezkidetzak eta genero indarkeriaren prebentzioa aintzat hartuz egingo direla bermatzeko.
  - 1.2. Ikastetxeetan hezkidetzak eta berdintasunaren aldeko neurriak ezartzeko koordinazioko figurak eta egiturek garatzea.
  - 1.3. Irakasleen eta hezitzaileen langile hornikuntza prozesuetan hezkidetzan trebakuntza sustatzea.
  - 1.4. Koordinazioa bultzatzea, hezkuntzaren arloan dauden ekimenak eta programak koherenteak izan daitezen genero ikuspegiari dagokionez.
2. Eskola mistoan eraldaketa prozesuak bultzatzea hezkidetzazko eskola baterantz joateko.
  - 2.1. Ikastetxeek beren kulturaren, politikaren eta jardunbideetan genero ikuspegia txerta dezaten bultzatzea.
  - 2.2. Tutoretza eta orientazio planetan genero ikuspegia txertatzea.
  - 2.3. Eskola komunitateko arlo ezberdinen arteko lankidetzak bultzatzea.

3. Genero indarkeria eta sexismoa sorburu duten indarkeria mota guztiak prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horiei erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzea.
  - 3.1. Genero indarkeriaren sozializazio prebentiboa sustatzea.
  - 3.2. Genero indarkeria eta sexismoa sorburu duten indarkeria mota guztiei azkar eta eraginkorki erantzuteko mekanismoak sortzea. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

Sailak konpromiso eta lorpen hauek ezarri ditu legealdi honetarako (43 - 44.or.):

1. Lorpena: Irakasleen sentsibilizazioa hezkidetzan, sexu eta afektibitate aniztasuna eta genero indarkeriaren prebentzioan. Xedea: irakasleen % 60k oinarrizko sentsibilizazioa jaso du (10 orduko modulua).
2. Lorpena: Ikastetxe askori berriazko prestakuntza ematea eskola mistoa eraldatzeko prozesuak abian jartzeko, hezkidetzeta eta genero indarkeriaren prebentzioa sustatuko dituen eskola baterantz. Xedea: ikastetxeen % 30ek berriazko prestakuntza jaso du, eskola mistotik abiatu eta hezkidetzan eta genero indarkeriaren prebentzioan oinarritutako eskolarako eraldaketa prozesuak hasteko.
3. Lorpena: Ezaugarri eta egoera soziokultural ezberdinak dituzten hamar ikastetxe pilotutan proiektu integralak garatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako ikastetxeentzat eredu eta erreferentzia izan daitezten. Xedea: zenbait ezaugarri eta egoera soziokulturaletako 10 ikastetxetan, proiektu integralak garatzen ari dira.
4. Lorpena: Ikastetxeetan hezkidetzako irakasle arduradunak eta Ordezkaritza Organo Gorenetan berdintasun ordezkaria izendatzea, eta hezkuntza komunitate osorako koordinazio eta partaidetza egiturak sortzea. Xedea: ikastetxeen % 100ek hezkidetzako irakasleak izendatu dituzte, berdintasunerako ordezkariak, eta hezkuntza komunitate osoak parte hartzen duen berdintasun batzorde bat sortu dute.
5. Lorpena: Saileko zerbitzu estrategiko bakoitzean (Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzan, Hezkuntza Ikuskaritzan, irakasleei laguntzeko zerbitzuan, ISEI/IVEIn) hezkidetzako eta genero-indarkeria prebenitzeko arduradunak izendatzea. Xedea: Saileko zerbitzu estrategiko bakoitzean (Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzan, Hezkuntza Ikuskaritzan, irakasleei laguntzeko zerbitzuan, ISEI/IVEIn) hezkidetzan, berdintasunean, eta genero indarkerian trebakuntza baldintza duen plaza bat daukate (gutxienez gaien 150 orduko trebakuntza izan behar da eta unibertsitate batek edo administrazio publikoak onetsia). Xedea: ISEI/IVEI erakundeak jarraipen azterlan bat diseinatu du, hezkidetzan eta genero indarkeriaren prebentzioan oinarritutako eskola ereduaren garapenaren jarraipena egiteko. Plan hau 2013/2014 ikasturteetik 2015/2016 ikasturtera garatuko da. Denboraldi horretan, Planaren jarraipena eta ebaluazioa egingo da. Azkenik, lan-plana aurretik azaldutako helburuak lortzeari begira egina dela esan beharra dago. Helburu bakoitzeko, estrategiak, ekintzak eta kronograma zehazten dira.

### 2.4.3. Partzuergoko Haur Eskolen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana (2010-14)

Plana diseinatu aurretik, Haurreskolak Partzuergoak emakume eta gizonen berdintasunaren inguruan duen egoera ezagutu nahi izan du. Hori dela eta, lehenik eta behin, egoeraren diagnostikoa burutu da. Diagnostikoa osatzeko informazio kuantitatiboa zein kualitatiboa erabili da. Plan hori egiteko inkestari 631 langilek erantzun diete, lantaldeetan 48 pertsona aritu dira lanean, elkarrizketa sakonak 11 langileri egin zaizkie eta, horrez gain, Berdintasun Batzordean 6 langile eta Elhuyar Aholkularitzako bi teknikari aritu dira lanean.

### 2.4.3.1. Kudeaketa

Haurreskolak Partzuergoak baliabide egokiagoak bilatu beharko lituzke berdintasuna era eraginkorrago batez bultzatzeko, hortaz, berdintasunerako arduraduna izendatu beharko luke eta berdintasuna lantzeko aurrekontu espezifikoak sortu beharko luke (gaur egun, berdintasuna partida batzuetatik landu egiten da). Plana gauzatzea errazagoa izango da arduradunaren funtzioak zehaztu eta eguneroko lanean integratzen badira; arduraduna/k egonez errazagoa izango da plana bera aurrera eramatea. Hala ere, lehen aipatutako moduan, oso garrantzitsua da azken lan-hitzarmenaren ondorioz, emakumeen eta gizonen berdintasunerako planaren diseinua hasita egotea eta horren jarraipena egiteko, Berdintasun-batzordea eratu izana. Esan daiteke Haurreskolak Partzuergoak berdintasunaren gaia lantzeko baliabideak badituela: berdintasun-batzordea, gaiarekin oso sentsibilizatuta dauden langileak, feministak... baina, orain arte, gai honi ez zaio lehentasunik eman. Kudeaketako pertsonak berdintasunari buruzko prestakuntza jaso beharko lukete. Horrez gain, hautaketa-prozesuetan titulu akademikoak eskatzeaz gain, berdintasunaren gaiaren inguruko ezagutza baloratzea positiboa izango litzateke.

### 2.4.3.2. Baliabideak

Haurreskolak Partzuergoa oso enpresa feminizatua da, ez dago orekarik emakume eta gizonen kopuruetan eta ez da ezer berezirik egin oreka hori lortzeko. Hautaketa-prozesuetan titulu akademikoak eskatzen direnez, eta ikasketa-mota horietan emakumeak nagusi direnez, horrek hautaketa prozesuetan eragin zuzena dauka.

Langileen hautaketa-prozesuan ez da diskriminaziorik egiten oposizio bidezkoa baita. Hala ere, emakumeen eta gizonen kopurua ez dago batere orekatua. Langileriaren % 94,8 emakumea da eta % 5,2 gizona. Azken urteetan gizonen portzentajea pixkanaka igotzen ari da. Nabarmena da gizonen presentzia proportzionalki handiagoa dela kudeaketako langileen artean hezitzaileen artean baino: kudeaketako langileen artean % 23,8 gizona da eta hezitzaileen artean, soilik, % 4,9.

Haurreskoletan erabiltzen den materialari dagokionez, ez dago irizpide bateraturik. Haurreskola bakoitzak erosi beharreko materiala aukeratzen du eta bakoitzaren sentsibilitatearen arabera izaten da materialaren aukeraketa. Panpinak eskatzeko orduan, kontuan hartzen da hezkidetzaren gaia (horrek zer esan nahi duen zehaztu gabe) baina ez, ordea, bestelako materialetan: ipuinak, mantak...

### 2.4.3.3. Komunikazioaren erabilera ez-sexista

Ahalegin berezia dago hizkuntzen eta irudien erabilera sexistarik ez egiteko. Hala ere, irizpideen falta igartzen da. Komunikazioa sexista izan ez dadin finkatutako irizpiderik ez dagoenez, dokumentu askotan hutsuneak topatu ditugu gai honekin lotuta. Irudien aldetik estereotipo gutxi dago (izena emateko orrian edo haurreskola batzuetan erabiltzen diren irudiak kenduta).

Ikusten denez, zenbait Udalek berdintasunaren gaia lantzeko orduan haurreskolak ere horretan inplikatu nahi izan dituzte. Era horretan, hezitzaile batzuek udalerrietako berdintasun-planetan parte hartu dute edo horien inguruko trebakuntza jaso dute.

#### 2.4.3.4. Tratu-berdintasunaren kudeaketa: langileak, umeak, familiak eta bestelako eragileak

Ohiko estereotipoak gainditzeko ahalegin formalak egiten bada ere, praktikan, zailtasunak daude estereotipo horiek gainditzeko, irizpide eta trebakuntza faltarengatik. Hezitzaile batzuek aipatzen dute umeekin izaten dituzten harremanetan ez dutela berdintasunez jokatzeko umea neska edo mutila izanda: erabiltzen den hizkeran, tonuan desberdintasunak egoten dira... Gainera, desberdintasun horiek inkontzienteki egiten direnez, zaila da horietaz konturatzeko eta horiek aldatzea.

Hezitzaileek gurasoekin duten harremanetan gauza bera gertatzen da: hezitzaileek aipatzen dute, familiako kidea gizona edo emakumea bada desberdin tratatzen dutela. Emakumeei informazio zehatzagoa ematen zaie, gizonak egiten dutena gehiago baloratzen da, arazoak daudenean lehendabizi emakumearengana jotzen da...

Familiek ere ez dituzte hezitzaileak (emakumeak eta gizonak) berdinean tratatzen. Familiek erresistentzia handiagoak dauzkate haien alabak edo semeak zainduko dituen hezitzailearen gizona den kasuan. Umeen heziketa eta zaintza, adin-tarte horretan, amatasunarekin oso lotuta dago, oraindik ere. Hezitzaileen artean, hezkidetzak eta berdintasunaren inguruko formakuntza era sistematizatu batez lantzea ondo legoke.

**Barne promozioa:** Sexua ez da kontuan hartzen barne-promozioak egiteko orduan, irizpideak ez dira diskriminatzaileak. Hala ere, gizartean gertatzen den segregazioa Haurreskolak Partzuergoan islatzen da (zaintza eta hezkuntza, oraindik orain, emakumeen rolean lotzen da, horren ondorioz, ikasketa-mota horietan emakumeen kopurua oso altua da). Dena dela, gizonen portzentaia handiagoa da koordinatzaileen artean hezitzaileen artean baino. Trebakuntza-planean ikusten da gizon zein emakumeei ikastaro berberak eskaintzen zaizkiela eta biek parte hartzen dutela ikastaro horietan.

**Soldaten politika:** Gizonen eta emakumeen soldata berdina da. Soldata lanpostuaren araberakoa da eta ez generoaren araberakoa. Batz bestea, gizonen soldata apur bat altuagoa da emakumeena baino (batzuen eta besteen lanpostu motarengatik). Kudeaketako langileen artean, berriz, emakumeen soldata batz bestea altuagoa da.

**Komunikazio politika:** Informazioa berdinean heltzen da gizonengana zein emakumeengana.

#### 2.4.4. Gasteizko Udalak eginiko III Berdintasunerako planaren inguruan 2013-2015

Egun berdintasun politiken jardunean bi lan ildo erabat osagarriak lantzen dira Gasteiz-Vitoria-Udaletxean. Bi politika hauek bere estrategietan oso diferenteak badira ere, helburuetan bat egiten dute; izan ere, xedeztat berdintasun politika zehatzak eta generoa lantzeko zeharkako politikak dituzte. Vitoria-Gasteizko Udalak hamabost urte daramatza berdintasun politikak lantzen. Berdintasun politika horiek plan ezberdinetan burutu dira. Lehenik, Lehen Udal ekintza positiboa Vitoria-Gasteizko emakumeentzat (1999-2003) jarduna burutu zen; bigarrenik, Lehen Udal plana emakumeen kontrako indarkeriaren aurka (2003-2005) egitasmoa garatu zen; hirugarrenik, Bigarren plana gizon eta emakumeen berdintasuna bermatzeko Vitoria-Gasteizen (2009-2011); eta azkenik, egun Gasteiz-Vitoria Gizon eta Emakumeen berdintasunerako III plana bezala zehaztu dena (2013-2015).

Azken plan honek, lau interbentzio ardatz ditu, bakoitzak bere interbentzio ildoak dituelarik. Lehen ardatzak generoa zeharka garatzen du udal politiketan. Bigarren ardatza, Emakumeen jabeakuntza eta balioak aldatzean oinarritzen da. Hartara, genero kontzientzia eta emakumeen ahalduzgarritza garatzea da helbururik behienetakoa; balioak aldatuz, genero rolak eta estereotipoak ezabatzea helburu izanik. Balore aldaketa hau rolak eta genero estereotipoak ezabatuz garatzen da. Rol eta estereotipo hauek ohiko lan mundutik eratorriak lirateke, horrela, gizonezkoen lan merkatua, eta eremu publikotik eratorritako rolak legezkieke eta emakumezkoen, aldiz, etxeko lanetatik, eta pertsonak zaintzetik: orobat, eremu pribatutik eratorriak. Estereotipo hauek egun jendartean bizirik daude eta eragozpen handia dira emakumeak eremu publikoan modu naturalean transitzatzeko eta gizonezkoek, halaber, eremu pribatuan jarduteko. Ikergai dugun lan honetan, oso garrantzitsutzat jotzen da puntu hau, izan ere diagnosian ezinbestekotzat izango da rol hauek eta estereotipo hauek nola transmititzen diren eskolaren bidez ikustea, baldin eta transmititzen badira.

Rol hauek sexuaren baitan bizirik daudela begi bistan jartzen duten adierazleak daude. Horietariko bat gizonezkoekin umeen zaintza partekatua inguruan dagoen iritzia, izan ere, EAEko emakume kopuru ezdeusa litzateke honen kontrako, gizonezkoen kopurua berriz % 5a litzateke. Baina, umeen zaintzarako gaitasunez eta jarreraz hitz egiterakoan, ordea, emakumezkoen % 11.6ak eta gizonezkoen % 12.5ak pentsatzen du gizonezkoak ez direla umeen zaintzarako emakumeak bezain onak.

Beraz, ezinbestekoa ikusten da jendarte berdinean bat lortu nahi bada, baloreak aldatzea eta horretarako rolak nahiz estereotipoak ezabatu behar dira. Hartaz, derrigorrezkoa ikusten da lan hau hezkuntza munduan burutzea eta ume nahiz nerabeei zuzentzea, izan ere, hezkuntzaren eremua nahitaezko gunea baita baloreen eta ohiko rolen ezabapenerako, aldi berean, ahalbidetzen du etorkizuneko jendarte parekideagoa eraikitzea belaunaldi horiekin. Horretarako Udalaren ekintza ildo bat departamendu arteko lan talde bat osatzea litzateke, horrela, programa oso bat martxan jarriaz gazte, neska eta mutilen hezkidetzak garatzeko.

Hirugarren ardatzak gizarte egituraketa partekatua erdigunetzat du. Gizarte kontzientzia eta zaintzen inguruko erantzukizuna aurreikusten du Udalaren hirugarren ardatz honek. Gizonezko eta emakumeen denboreen erabilera. Zaintza eta etxeko lanen ikuspena eta aitortza; sendi bizitza eta lan bizitza edo lan bila dabilenaren arteko kontziliazio partekatua. Ardatz honek, atal nagusi bezala beste lan ildo batzuekin batera, dependentzia egoeratan dauden pertsonak zaintzeko zerbitzu eta errekurtso ekonomikoak aurreikusten ditu.

Laugarren ardatzak genero indarkeria ekiditean hartzen du oinarri. Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko: informazioa, hezkuntza eta prebentziorako sentsibilizazioa aurreikusten da. Halaber, prestakuntza; Udal esku-hartzea; baliabideen sorkuntza edo egokitasuna, horien mantenua eta erakundearen arteko koordinazioa dira ardatz honen egiterik garrantzitsuenetakoak. Eskuardean dugun ikerketa honek, batez ere, arestian esanarekin bat etorriaz, bigarren eta laugarren ardatzean hartzen du arnas. Alde batetik, genero rolak eta estereotipoak baloreetan duten eraginean eta honek jendarte bat eraikitzeke duen ahalmenean. Eta bestetik, laugarren ardatzak aurreikusten duen genero asimetriatik eratorritako genero indarkerian eta hau saiheste aldera egin beharrekoa premisetan.

III Berdintasun plan honek azaltzen ditu Udalak indarkeria ekiditeko abian dituen plan diferenteak. Atal honetan, esan berri dugun bezala, batez ere, Gasteizko Udalak genero indarkeria prebenitze aldera eginiko plana lantzen da, izan ere, Ikerketa honetan eginiko lanean genero asimetria aztertzen da eta beronek leharkean indarkeria sinbolikoa nahiz psikologikoa eta fisikoa. Gasteizko Udalak 1999 apirilaren 23ko batzarrean abian jarri zuen genero in-

darkeriari aurre egiteko asmoa eta geroztik eginkizun eta erabaki ugari burutu ditu genero indarkeria ekiditeko. Berdintasuna bermatzeko II plana 2009-2011 bitarterako martxan jarri zuen Udalak, 4 programa tematiko eta beste bi programa laguntzeko martxan jarri zituelarik. Plana burutu ostean eta ebaluazioak egin ondoren, ikusi da programa mantentzearen beharra, emakumeen kontrako indarkeriaren kontrako estrategiak indartzeko premia, eta batez ere, modu eraginkorragoan bulnerableagoak diren emakumeak babestekoarena. Lan honek diharduten pertsonen formazioa areagotzearen beharra ere aurreikusten da.

2. taula

**Gasteizen jasotako tratu txarrak zenbakitan**

URTEA	2009	2010	2011
<b>Tratu txarren kasu kopurua</b>	160	153	195

Interesgarria iruditu zaigu urte hauetan udaletxean jaso diren tratu txarren zenbakiak begi bistan jartzea (2., 3., 4., eta 5. tauletan). Alde batetik, datuak eskuan, plana indartzeko asmoa ageria azaldu duelako Udal erakundeak; eta bestetik, ikerketa honen funtsa genero indarkeriaren muinaren diagnosian datzalako, Haur Hezkuntzatik Batxilergora Gasteiz-Vitorian heldatzen den eskola komunitate nahiz familien artean. Datuak eskuan, lehenik esan behar da 2009tik 2010 bitartean 160 kasutik 153ra jaitsi zela, aldiz, 2010etik 2011ra 153 tik 195 kasura igo dela, hau da, % 27.5 igo dela.

Esan behar da atzeritarren % 20.5 latinoak direla eta beste % 8.2 Magrebekoa. Bestalde, 2011ko datuei begira esan behar da % 31.3 ezkonduak direla, % 26.2 ezkongabeak eta % 60ek seme alabak dituztela. Familia indarkeria egoera hau bizi duten umeen kopurua 183 umeena da. Horiek Gasteizen azken urteotan bizitako genero indarkeria datuak.

3. taula

**2011an Gasteizen jasotako tratu txarren 195 kasu horien esplizitazioa.**

SALAKETAREN ZERGATIA	ZENBATEKO KOPURUA
<b>Emakumeen kontrako tratu txar psikologikoa</b>	% 43.9
<b>Emakumeen kontrako tratu txar fisikoa</b>	% 38.3
<b>Tratu txar psikologikoak bikote ohiak eraginak</b>	% 8.2
<b>Emakumeen kontrako ekonomiaren kontrako erasoak</b>	% 6.1
<b>Eraso sexualak bikotetik kanpo</b>	% 1.5
<b>Emakumeen trafikoa eta prostituzioa</b>	% 1.0
<b>Bikotearen erasoak</b>	% 1.0
<b>Denetara</b>	% 100

4. taula

**Biktimen adina**

HELDUAK			GAZTEAK		
<b>2011</b>	(112/195) % 57.4	26-45 urte	<b>2011</b>	% 0.5	14-17 urte
<b>2010</b>	(95) % 62.1	26-45 urte	<b>2010</b>	% 1.3	14-17 urte
<b>2009</b>	(107) % 66.9	26-45 urte	<b>2009</b>	% 1.3	14-17 urte

5. taula

**Biktimen Jatorria**

NONGOAK	2009	2010	2011
<b>Espainiarrak</b>	% 48.8	% 52.3	% 56.4
<b>Atzerritarrak</b>	% 51.3	% 47.7	% 43.6







3.

---

METODOA



### 3.

---

## METODOA

Hezkidetzaz aztergai dugun honetan, Gasteizko Udalerriko Ikastetxe ez Unibertsitarioetan Hezkidetzaz gaia nola dagoen ezagutu gura izan dugu, hezkuntza-errealitate zehatz bat ulertu eta interpretatu. Are gehiago, egoeraren diagnostikoa egitea izan du xede. Eskola komunitateko eragileek hezkidetzari ematen dioten esangura ulertzen saiatuz, lekuan lekura joanaz, eurekin egonaz.

Esan berri dugu jakin gura izan dugula eskoletan hezkidetzaz zer pentsatzen duten, eskolan partaide diren gizatalde guztiek. Guk ulertu baino gehiago egin nahi dugu, ulermen soila antzua ere bilaka daitekeelako. Baina prozesuen eta esanahien ezagutzaz derrigorra da, ezagutzatik etorriko delako eskola eta gizarte eragileen aldaketarako jauzia (Habermas, 1994).

Esan genezake, gure ikerketaren ezaugarriak direla eta, erabilitako metodologia azterketa edo behaketa naturalistaren baitan sar genezakeela, lekuan egin delako, ikertu diren pertsonekin batera, eskola komunitateko eragileekin batera, eurekin zuzenean arituz. Izan ere, adituen esanetan, paradigma naturalista oso baliagarria da portaerarekin zerikusia duten fenomeno sozialak aztertzeko, ezinezkoa delako ikertzailearen aldetik jarrera neutroa hartzea, pertsonak direnean ikerketaren objektu. Eta honekin bat dator gure aztergai den hezkidetzaz, pertsona bakoitzaren barnean errotuta baitago, bai ikertu nahi diren eskolako komunitateko eragileengan, baita ikertzaile direnengan ere. Gainera, ezin ahaztu daiteke giza portaerak ez direla isolatuak, ez banakakoak ezta sozialak ere, eta ezin direla bereizi pertsonen testuingurutik. Derrigorra da, beraz, bere ezagutzaz ideografikoa, desberdintasunak berdintasunak bezain inportanteak izanik gertatzen dena ulertu ahal izateko (Guba, 1989).

## 3.1. IKERKETAREN HELBURUAK

Ikerketa honen helburu nagusia Gasteizko Udalerriko Ikastetxe ez Unibertsitarioetan Hezkidetzaren nola dagoen ezagutzea da, hainbat urteren ostean, izandako berdintasun politiken zabalkundea eta eragina zein den jakiteko. Jakin gura izan dugu ea proiektu edo ekintzarik txertatzen den eguneroko errealitatean; ikastetxeen rola zein izan den horretan, zer ulertzen duten hezkidetzaz irakasleek, gurasoek eta ikasleek ere; irakasleen zeregina horretan, ikasleena, familiena. Zein den eskolaren errealitatea, irakasleen prestakuntza, jarrera eta sentiberatasuna gai horrekiko, ikasleen eta familien beharrak ere bai; zeintzuk diren aurrerapausoak eta atzerapausoak. Aipatzekoak dira genero rolen adierazpenak eta interakzioak zelatan gauzatzen diren, neska-mutilen arteko harremanetan, jokabide eta diskurtsoetan, lanbidea hautatzerakoan eta, nola ez!, sare sozial eta komunikabideetan. Eta eskolan ari garenez, espazioaren erabileraz ere jardungo dugu, patioaz, jolasaz eta espazioaren banaketaz. Laburki, ikerketa hau eginda lortu nahi ditugun helburuak hauek dira:

- Zuzendari eta irakasleen galdetegietan jasotako datuak alderatzea dagoen informazio dokumentalarekin.
- Eztabaida talde bakoitzak (zuzendari, guraso, irakasleak, ikasleak, ...) Hezkidetzari buruz emandako iritziak ezagutzea analizatzea.
- Aurreko ikerketetan oinarrituta, dokumentazio akademiko esanguratsuan, zein den Hezkidetzaren egoera ezagutzea egungo Gasteizko Ikastetxe ez Unibertsitarioetan.
- Hezkidetzan sakontzeko eta aurreratzeko, proposamenak egitea, arlo honetan sortzen diren premiei modu eraginkorrean erantzuteko.

## 3.2. PARTAIDEAK

Halako ikerketa batean pertsona askok parte hartzen du. Guk, ikerketa prestatu dugun modua kontuan izanik, bi multzo handi berezi behar ditugu. Batetik, ezinbestekoak izan dira ikastetxeetako irakasle eta zuzendariak, igorritako galdetegiari erantzun dietenak. Bestetik, eztabaida taldeak, zeintzuetan elkartu diren zuzendari eta irakasleak, gurasoak eta ikasleak. Eta guztiakin batera lanean, ikerketa taldea.

### 3.2.1. Irakasleen iritziak ezagutzeko bidalitako galdetegiak

Gasteizko eskola komunitateetan Hezkidetzaren gaia aztertzeko, bi galdetegi mota bidali ziren, irakasle eta zuzendarietarako proposak. 60 ikastetxetan jaso zituzten galdetegiok, Unibertsitate aurreko eskaintza duten ikastetxeak, hain zuzen: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketakoak. Galdetegia jaso zuten irakasleak 2785 izan ziren eta 189, zuzendariak (6. taulan).

6. taula**Galdetegiak jaso dituzten ikastetxeak, irakasle eta zuzendariak bereizita**

<b>IKASTETXEAREN IZENA</b>	<b>IRAKASLEAK</b>	<b>ZUZENDARIAK</b>
CEIP Abendaño Ikastola HLHI	42	3
CEIP Adurza Ikastola HLHI	28	3
CEIP Aranzabela Ikastola HLHI	28	3
CEIP Landazuri Ikastola HLHI	15	3
CEIP Luis Dorao HLHI	42	3
CEIP Miguel de Cervantes HLHI	37	3
CEIP Padre Orbiso HLHI	51	3
CEIP Ramón Bajo HLHI	17	3
CEIP San Martín HLHI	51	3
CEIP Sta. María de Vitoria HLHI	15	3
IES Federico Baraibar BHI	58	3
IES Francisco de Vitoria BHI	100	3
IES Los Herrán BHI	50	3
IES (ITS) Ciudad Jardín (ITB) BHI	50	3
CEIP Odón de Apraiz Ikastola HLHI	31	3
CEIP Pedro Ignacio Barrutia Ikastola HLHI	28	3
CEIP Toki Eder Ikastola HLHI	42	3
CEIP Abetxuko Ikastola HLHI	15	3
CPEIPS Padre Raimundo Olabide HLBHIP	105	3
CEIP Umandi Ikastola HLHI	34	3
CPEIPS Calasanz HLBHIP	48	3
CPEIPS Hogar San Jose HLBHIP	25	3
CPEIPS Inmaculada Concepción HLBHIP	26	3
CPEIPS Urkide HLBHIP	80	3
CPEIPS Nazareth HLBHIP	18	3
CPEIPS Niño Jesús HLBHIP	45	3
CPEIPS Ntra. Sra. de las Mercedes HLBHIP	38	3
CPEIPS Presentación de María HLBHIP	62	3
CPEIPS Carmelitas-Sagrado Corazón HLBHIP	75	3
CEIP Samaniego HLHI	45	3
CEIP San Ignacio HLHI	28	3
CPEIPS San Viator HLBHIP	72	3
CPEIPS Sagrado Corazón HLBHIP	81	3

IKASTETXEAREN IZENA	IRAKASLEAK	ZUZENDARIAK
CPEIPS Vera Cruz HLBHIP	43	3
CPEIPS Virgen Niña HLBHIP	22	3
CPEIPS Calasancio HLBHIP	25	3
CPES Jesús Obrero BHIP	140	3
CPES Diocesanas BHIP	150	9
CPEIPS Pedagógica San Prudencio S.C.L. HLBHIP	61	3
IES Koldo Mitxelena BHI	75	3
IES Miguel de Unamuno BHI	80	4
CPEIPS Armentia Ikastola HLBHIP	55	3
IES Mendebaldea BHI	78	3
IES Ekialdea BHI	90	5
IES Samaniego BHI	40	3
CEIP A. Lpz. De Guereñu-José Mardones HLHI	32	3
CEIP Judizmendi-Canciller Ayala-Sta. Lucía HLHI	16	3
CEIP Luis Elejalde-Rogelia de Álvaro HLHI	25	3
CEIP Divino Maestro-María de Maeztu HLHI	30	3
CEIP Ángel Ganivet-Izarra-Sta. Lucía HLHI	55	3
CEIP Aranbizkarra Ikastola HLHI	32	3
CEIP Ibaiondo HLHI	41	3
CEIP Salburua HLHI	18	3
CEIP Zabalgana HLHI	25	3
CEIP Lakuabizkarra HLHI	35	3
CEIP Mariturri HLHI	9	3
CPI Sansomendi IPI	49	3
CEE Gorbeialde HBI	12	3
CPI Ikasbidea IPI	50	3
CEIP Errekabarri HLHI	15	3
<b>OROTARA</b>	<b>2785</b>	<b>189</b>

### 3.2.2. Bildutako galdetegiak

189 ikastetxetara bidali baziren ere galdetegiak, erantzun diotenak 30 izan dira, 20 titularitate publikodunak eta gainontzekoak, hitzartutakoak. Hauetatik, 3 kooperatibak dira eta besteak ordena erlijiosoaren esku daude. Eta adinari erreparatu ezker, eskola publikoen (Pub) artean, hamalau dira 2-12 urte bitarteko haurrak hezten dituztenak; eta sei institututan, 12-18 urte bitarteko gazteak.

7. taula

Galdetegi erantzun dieten ikastetxeak, zuzendari eta irakasleen arabera, haien titularitatea, eskaintzaren adin tartea, baita ikerketan zehar izendatzeko erabilitako kodeak ere.

GALDETEGIAK				
Kodea	IKASTETXEA	Titularitatea	Zuzendariak	Irakasleak
01	CEIP Adurtza Ikastola LHI	Pub (2-12)	1	12
02	CEIP Aranbizkarra Ikastola LHI	Pub (2-12)	2	12
03	CEIP Arantzabela Ikastola LHI	Pub (2-12)	1	
04	CEIP Lakuabizkarra LHI	Pub (2-12)	3	11
05	CEIP Luis Dorao LHI	Pub (2-12)	1	17
06	CEIP Luis Elejalde LHI	Pub (2-12)	1	9
07	CEIP Mariturri LHI	Pub (2-12)	1	3
08	CEIP Miguel de Cervantes LHI	Pub (2-12)	3	29
09	CEIP Odón de Apraiz LHI	Pub (2-12)	2	14
10	CEIP Salburua LHI CEIP	Pub (2-12)	1	4
11	CEIP San Ignacio HLHI CEIP	Pub (2-12)	3	6
12	CEIP Toki Eder Ikastola LHI	Pub (2-12)	2	11
13	CEIP Zabalgana LHI	Pub (2-12)		2
14	IES Francisco de Vitoria BHI	Pub (12-18)	1	13
15	IES Koldo Mitxelena BHI	Pub (12-18)	4	16
16	IES Lakua BHII	Pub (12-18)	1	
17	IES Los Herran BHII	Pub (12-18)	1	9
18	IES Mendebaldea BHI	Pub (12-18)	3	52
19	IES Miguel de Unamuno BHI	Pub (12-18)		
20	IPI Sansomendi	Pub (2-12)		24
21	CPEIPS Armentia Ikastola HLBHIIP	Kont (0-16)	4	39
22	CPEIPS Calasanz HLBHIIP	Kont (0-16)	5	21
23	CPEIPS Carmelitas HLBHIIP	Kont (0-18)	1	
24	CPEIPS Corazonistas HLBHIIP	Kont (0-18)	1	12
25	CPEIPS Egibide Jesús Obrero HLBHIIP	Kont (12-18)	1	8
26	CPEIPS Hogar San José HLBHIIP	Kont (0-12)	1	18
27	CPEIPS Niño Jesús HLBHIIP	Kont (0-16)	1	21
28	CPEIPS Olabide Ikastola HLBHIIP	Kont (0-18)	1	19
29	CPEIPS Presentación De María HLBHIIP	Kont (0-18)	1	0
30	CPEIPS San Prudencio HLBHIIP	Kont (0-16)	2	39
	<b>GUZTIRA</b>		49	421
Kodea			A,B,...E	(1...52)

Hitzartutakoetan (Kont), berriz, lautan, 0-16 arteko ikasleak dauzkate; beste lautan, 0-18 urte bitartekoak; batean, 12-18 urte bitartekoak eta beste batean, 0-12koak (7. taulan). Orotara, 470 galdetegi izan dira, 419 irakasleenak eta 51 zuzendaritza taldekoenak. Irakasleen taldeetik 277 emakume (% 66,1) eta 120 gizonezko (% 28,6) azaldu dira, 397 guztira. Gero beste 22 (% 5) daude ezer jarri ez dutenak (jartzea ahaztu edo jarri nahi izan ez dutenak). Zuzendaritza-taldean 51 galdetegi, 24 emakumezko (% 47), 25 gizonezko (% 49) eta 2 zehaztugabe (% 4).

### 3.2.3. Eztabaida taldeetako partaideak

Eztabaida taldeak antolatu ditugu zuzendari, irakasle, guraso eta ikasleekin. Hauen parte hartzea boluntarioa izan da, denak euren kasa etorri baitira antolatutako eztabaida horietara. Horretarako, Udaleko Hezkuntza Zerbitzuko laguntza izan dugu zuzendari, irakasle eta gurasoekin batera aritzeko. Eta irakasle eta zuzendariena, ostera, ikasleekin jarduteko.

Ikertzaileen aldetik, dinamizatzaileak eta landa ohar hartzaileen ardura nagusia izan da eztabaida giro lasaia sortzea, konfiantzazkoa, parte hartzaile guztiek hitz egin zezaten euren ekarpenak eginaz. Dinamizatzailearen esku egon da, gidoi bati jarraituz, eztabaida gidatzea. Bestalde, landa ohar hartzaileek idatziz jaso dute bertan esandakoa. Saio guztiak grabatu egin dira eta argazkiak atera, guztien baimena lortu ondoren.



Argazkia 1: Irakasle eta zuzendarien eztabaida taldea, dinamizatzailea eta 2 landa ohar hartzaile.

Zuzendari eta irakasleekin bi eztabaida talde osatu ditugu. Batean, zazpi lagun bildu dira, dinamizatzaile baten gidaritzapean eta bi ikertzaile izan dira landa ohar hartzaile lanetan. Bestean, hiru lagun, dinamizatzaile eta landa ohar hartzaile banarekin.



Argazkia 2: Irakasle eta zuzendarien eztabaida taldea, dinamizatzailea eta landa ohar hartzailea.

Gurasoen eztabaida taldeak ere bi izan ditugu. Batean, aita bat eta lau ama elkartu dira eta bestean, oster, aita bat eta hiru ama. Dinamizatzailea eta landa ohar hartzaileek osatu dituzte eztabaida taldeak.

Ikasleen eztabaida taldeak hiru osatu ditugu. Batean bost gazte elkartu dira, mutil bat eta lau neska. Bestean bost neska egon dira; eta hirugarrenean, hiru mutil eta lau neska. Eurekin batera, denetan, dinamizatzailea eta landa ohar hartzailea.



Argazkia 3: Gurasoen eztabaida taldea, dinamizatzailea eta 2 landa ohar hartzaile.



Argazkia 4: Gurasoen eztabaida taldea, dinamizatzailea eta landa ohar hartzailea.



Argazkia 5: Ikasleen eztabaida taldea, dinamizatzailea eta landa ohar hartzailea.



Argazkia 6: Ikasleen eztabaida taldea, dinamizatzailea eta landa ohar hartzailea.



Argazkia 7: Ikasleen eztabaida taldea, dinamizatzailea eta landa ohar hartzailea.

### 3.2.4. Ikerketa taldeko partaideak

Ikerketa burutu duten hamabi kideek, Maria Teresa Vizcarraren zuzendaritzapean, talde anitza osatzen dute, heterogeneoa. Jakintza gai desberdinetakoak dira, eta denek urte askotan lanean dihardute hezkuntza munduan. Hala, 4 ikertzaile Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpidearen Didaktika Departamenduko kide dira; Didaktika eta Eskola Antolakuntza Departamendukoak, 3 kide; Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Departamendukoak, beste 3 kide; eta Gorputz eta Kirol Hezkuntza eta Gizarte Zientzien Didaktika Departamentuetako, ikertzaile bana.

Azpmarratu behar dugu ikerketa talde honek etengabeko laguntza izan duela Gasteizko Udaleko Hezkuntza zerbitzukoen aldetik, eurak izan baitira bitartekari lan guztia egin dutenak Ikerketa talde honen eta ikastetxeen artean. Lana erraztu eta samurtu baino ez dute egin eta, horregatik, gure esker ona adierazi nahi diegu.

#### 8. taula

#### Ikerketa taldea

IKERTZAILE TALDEA	DEPARTAMENTUA
<b>María Teresa Vizcarra</b>	Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpidearen Didaktika
<b>Ainhoa Gomez Pintado</b>	Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpidearen Didaktika
<b>Alaitz Tresserras</b>	Didaktika eta Eskola Antolakuntza
<b>Amaia Alvarez Uria</b>	Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika
<b>Ana Isabel Ugalde</b>	Gizarte Zientzien Didaktika
<b>Ana Makazaga</b>	Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpidearen Didaktika
<b>Ana Zuazagoitia</b>	Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpidearen Didaktika
<b>Beatriz Garay</b>	Gorputz eta Kirol Hezkuntza
<b>Edu Zelaieta</b>	Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika
<b>Gema Lasarte</b>	Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika
<b>Jon Bustillo</b>	Didaktika eta Eskola Antolakuntza
<b>Pilar Aristizabal</b>	Didaktika eta Eskola Antolakuntza

### 3.3. INFORMAZIOA BILTZEKO TRESNAK

Metodologia kualitatiboa eta kuantitatiboa uztartu ditugu ikerketa honetan. Alderdi kualitatiboari dagokionez, galdetegiak edo inkesta kualitatiboak eta eztabaida taldeak baliatu dira. Azal ditzagun informazioa biltzeko bi tresna hauek, banan-banan. Alderdi kuantitatiboa gatzeko, SPSS 20 erabili da.

### 3.3.1. Galdetegiak

Galdetegiei dagokienez, parte hartzaile bakoitzak erabili dituen konstruktuen esanahiak zein diren jakiteko tresnak dira (Goetz eta Lacompte, 1988). Erantzun beharreko serieak proposatzen dira, aztergaiari buruzkoak, eta oharrak eginez egituratzen dute informazioa (Elliot et al., 1986). Informazioa mugatu samarturik badago ere, modu irekian galdetzen denez gero, informazioak ñabardura ugari izan ditzake (Bisquerra, 2004), erantzun “bakar” eta “zuzen”ik espero gabe.

Inkesta kualitatiboan helburua honako hau da: jakitea erantzuten duten pertsonen zenbateraino dituzten antzeko sinesmenak, antzeko portaerak edota antzeko diskurtsoak. Alde horretatik, ikerketan erabilitako inkesta hauek balio dute egiaztatzeko nola ulertzen duen pertsona bakoitzak errealitate sozial konkretu bat, eta, hala, aukera ematen digute parte hartzaileen hitzak eta jarrerak interpretatzeko (Elliot et al, 1986).

Arestian hizpide genituen konstruktuen edukia analizatzeko emango digu arrastoa galdetegiak bete dituzten pertsonen hezkidetzaren inguruko hainbat alderdi nondik nora ulertzen dituzten jakin dezagun. Esan beharra dago galdera berak egin zaizkiela pertsona guztiei; hau da, ikerketan parte hartu duten zuzendariei eta irakasleei kontu berak itaundu zaizkie. Hala jokatu izanak erantzunak kuantifikatzeko modua eman digu, nahiz eta, erantzunaren arabera, beti kontu erraza ez suertatu (Vizcarra, Macazaga, eta Rekalde, 2009)

### 3.3.2. Eztabaida-taldeak

Eztabaida taldeak, funtsean, pertsona batzuk elkartzea da gai jakin bati buruz mintzatzeko asmoz; gure kasuan, bistan denez, hezkidetzak Gasteizen duen egoera izan da mintzagaia. Era horretan, aurretik jarritako helburuen erantzunak bilatu nahi dira planteamendu komunikatibo eta dialogikoen bidez (Freire, 1990, 1999; Habermas, 1994; Aubert, García, eta Racionero, 2009). Metodologikoki, hortaz, elkarrizketak erabateko garrantzia hartzen du, eta taldean sortzen den solasaldiak gogoia pizten die bertan parte hartzen dutenei; hots, irakasleei, gurasoei eta ikasleei.

Limon eta Crespo-k (2002) diotenari jarraika, eztabaida guztietan moderatzaileak adierazi du elkarrizketaren bidez elkarrekiko errespetu eta hobekuntza lortu nahi direla. Horretarako, eta betiere aztergaia aintzat harturik, parte hartzaileen interesak identifikatu, eztabaida bideratu eta bertan egin diren ekarpenak positiboki nabarmendu ditu. Izan ere, Rapley-k (2014) dakarren gisan, datuak biltzea xede duen eztabaida-talde batean ez dago behin betiko erantzunik, ezpada horiek testuinguruaren eta beste solaskideekiko adierazpenen arabera zentzuz hornitzen direla. Alde horretatik, ikerketan gauzatu diren eztabaida guztiak emankorrrak gertatu direla esan beharrean gaude. Eztabaida taldeak egiteko gidoia adostu da ikerketa-taldean (ikus eranskinak). Gidoia buruan zuela aritu da beti moderatzailea, mahai gainean zuen paperezko gidioaz gainera. Halaber, moderatzaileak izan ditu beste ikerketa-taldeko bi laguntzaile: landa-oharrak hartzen aritu den pertsona bat eta ikus-entzunezko materialaz arduratu den pertsona bat. Hainbat autorek agerian utzi duten bezala, ikertzaile bat baino gehiago aritzea bizi izandako momentuaren inguruko ikuspegi ezberdinak trukatzeko aukera ematen du, errealitatearen gaineko behatzea eta ulertzea globalagoa izan dadin (Recalde, Vizcarra, eta Macazaga, 2011; Recalde, Vizcarra eta Macazaga, 2014).

Bukatzeko, aipa dezagun gehienez bi eztabaida-talde egin direla egun berean, eta saio bakoitzak ez duela ordu eta erdi baino gehiago iraun (Russi, 1998).

### 3.4. IKERKETAREN FASEAK

Ikerketa prozesuak urtebete inguru iraun du, 2013-2014 ikasturtean zehar gauzatu. Eta bostaldi nagusitan burutu da, nahiz eta onartu behar dugun ez direla bata bestearen hurrengo izan, sarritan bateratsu burutu izan ditugulako.

Lehenengo fasean, 2013ko abendua bitartean, Gasteizko eskoletan zein egoeratan dagoen hezkidetzaz ezagutzeko, ikertaldekoek inkesta edo galdetegiak prestatu zituzten ikastetxe guztietako zuzendariak (maila desberdinetakoak) erantzun zituzten; eta beste batzuk, irakasle eta familientzako eratu zituzten.

Bitartean, Udaleko Hezkuntzako zerbitzukoek proiektua aurkeztu zuten eskoletan eta ondoren, inkestak banatu zizkieten zuzendari eta irakasleei. Hauek betetakoan, unibertsitatera helarazi zituzten.

Bigarren fasean, 2014ko urtarrila eta otsailan, ikastetxeetan batutako datuok prozesatu eta analizatzeko unea etorri zen, eta beste iturri batzuk eskaintzen dituztenekin alderatu beharra (Eusko Jaurlaritza eta Eustat, kasu).

Hirugarrenean, 2014ko martxoa, apirila eta maiatzean, talde bakoitzak Hezkidetzari buruz emandako iritziak analizatu genituen, hots, zuzendaritza eta irakasleenak. Horretarako, galdetegietan esandakoaren analisi kualitatiboa egin dugu eta iritzion informazio estatistikoa osatu.

Informazio kualitatiboaren azterketa burutzeko, analisirako kategoriak eta sistema kategoriala ezarri genituen. NVivo8 plataforman sartu genituen datuok eta, ondoren, sumarioak atera, kategoria bakoitzeko interpretazioa errazte aldera. Eta analisi kuantitatiborako, SPSS programa erabili zen. Finean, galdetegiaren interpretazio txostena egiteko, bi eratako informazioak uztartu behar genituelako.

Galdetegiaren osagarri izan ziren eraturako eztatibak taldeak, zuzendari, irakasle, guraso eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleenak. Udaleko Hezkuntza zerbitzukoek deituta eratu ziren. Arestian esan moduan, ikerketa taldekoek eztatibarako gida aproposak prestatu zituzten eta debateak dinamizatu, landa oharrak jaso, argazkiak atera eta grabatu egin zituzten.

Ondoren, 2014ko maiatza eta ekainean, grabazio guztiak transkribatu eta analizatu beharra izan dugu. Hala, dagokion informazioa egiteko. Eta datuak batzen jardun genuen bitartean, ikerketa taldeak gaiarekin zerikusia duen informazio esanguratsuaren bilketa egin du, aurretiko ikerketak eta dokumentazio akademikoa lagungarri izan daitezkeen azkeneko txostena idazteko. Uztaila amaieran, lehenengo zirriborroa eman genuen, eta azkeneko informazioa 2014ko irailean landu zen, urri aldera entregatzeko.

Hona hemen zehatz-zehatz burututako lanaren kronograma, helburu, arduradun, modua, jarduerak, noiz eta hartutako arduren banaketaz.

9. taula

Helbururak, faseak eta jarduerak

HELBURUAK	NORK	NOLA	PRESTATZE ETA GAUZATZE JARDUERAK	NOIZ	BETE BEHARREKOAK
<b>1. Helburua:</b> Vitoria/Gasteizko ikastetxeetan HEZKIDETZA nola dagoen ezagutu	Udaleko Hezkuntza Zerbitzuko kideak	Eskolekin aurreneko hartu-emana ezarri.	Proiektua aurkezteko eskutitza	2013ko abendua.	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Eskoletara eskutitza helarazi.</li> <li>– Eskoletako zuzendari taldeei eta irakasleei galdetegiak helarazi.</li> <li>– Galdetegiak batu eta Unibertsitatera igorri.</li> </ul>
	Unibertsitateko ikerketa taldekoak	Galdetegia egitea ikastetxeetako zuzendari taldeentzako (etapa bakoitzerako aproposa).	Hilabete edo hilabete eta erdi.	2013ko abendua.	– Galdetegiak eta moldatze lanak egitea.
		Galdetegia egitea irakasleentzako.	Hilabete edo hilabete eta erdi.	2013ko abendua.	– Galdetegiak eta moldatze lanak egitea.
<b>2. Helburua:</b> Dagoen informazio dokumentala batu eta eskoletan jasotako datuekin alderatu.	Unibertsitateko ikerketa taldekoak	Marko teorikoa eratu	Intereseko informazio berrien hartzea: Galdetegietan jasotako materialaren analisia.	2014ko urtarrila eta otsaila	– Galdetegiak eta moldatze lanak egitea, eztabaida taldeen gidioak egituratzea.
<b>3. Helburua:</b> Taldea bakoitzak (zuzendari, guraso, irakasleak, ikasleak, ...) Hezkidetzari buruz emandako iritziak analizatu.	Ikerketa taldea	Aurrenekoan Galdetegietan emandako iritziak analizatu (jazaera kualitatiboko informazioa). Emandako iritzien informazio estatistikoaaren analisia.	Analisirako kategoriak eta sistema kategoriala ezarri, informazio kualitatiboa aztertzeke. SPSS programa erabiltzea.	2014ko martxoa eta apirila	– Galdetegiei dagokien interpretazio-txostena egitea.
	Ikerketa taldea	Ondoren; Eztabaida taldeetarako gidak sortzea. Eztabaida taldeak zuzentzea.	Eztabaida taldeetarako gidak: Eztabaida taldeak: zuzendariena (1), irakasleenak (3), familienak (3), D.B.H.ko ikasleenak (3):	2014ko martxoa eta apirila	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Eztabaida taldeetarako gidak sortzea.</li> <li>– Eztabaida taldeak dinamizatu eta debateak grabatzea.</li> </ul>
	Udaleko Hezkuntza Zerbitzuko kideak	Ikerketa taldeak aurkeztutako premiei erantzuteko, eztabaida taldeei deitzea.	Eztabaida taldeei deitzea	2014ko martxoa eta apirila	– Eztabaida taldeei deitzea
	Ikerketa taldea	Eztabaida taldeei egindako grabazioak transkribatzea. Eztabaida taldeen transkribapenak analizatzea.	Eztabaida taldeetan sortutako informazioa analizatzea.	2014ko maiatza, ekaina eta uztaila	– Eztabaida taldeen informazioaz txostena idaztea
<b>4. Helburua:</b> Behin betiko txostena aberastuko duen informazio eta dokumentazio akademiko esanguratsua bildu.	Ikerketa taldea	Aurretiko ikerketak eta bibliografia esanguratsua aztertzea.		2013ko azarotik 2014ko maiatzera	– Behin betiko txostenaren marko teorikoa idaztea.
<b>5. Helburua:</b> Behin betiko txostena egin	Ikerketa taldea	Behin betiko txostena egin eta eman		2014ko iraila	– Urri hasieran behin betiko txostena aurkeztu.

## 3.5. BILDUTAKO INFORMAZIOAREN ANALISIA NOLA EGIN DEN

Gure ikerketan jasotako informazioa analizatzeko prozesua nagusiki induktiboa-deduktiboa izan da, dinamikoa eta sistematikoa. Horretarako, bildu diren iritziak ezagutu, aukeratu, sailkatu, alderatu eta interpretatu egin dira. Prozesu konplexu honi esker, fenomenoak gorpuzten dituzten kontzeptu gisa ordezkaturako informazioetatik ideia nagusiak atera ahal izan dira (kategoriak) eta, batzuetan, fenomeno horienak diren kontzeptuenak (azpikategoriak) (Rodríguez, Gil eta García, 1996; Coffey eta Atkinson, 2003). Hala, kategoriak era hierarkiko batean antolatu ditugu (10. taulan ikusten den moduan), eta kategorien artean maila ezberdineko kategoriak sortu dira.

Arestiko prozedura honek perspektiba hermeneutiko bat hartu du, gizakien arteko komunikazioan datzan zentzua ulertu eta azaldu nahian. Dokumentuak kategoriatan sailkatu dira, eta taldeko hainbat ikertzailek berrikusi dituzte txostena idazten hasi aurretik. Honen guztiaren ondorioz, geroago aurkeztuko dugun sistema kategoriala baliatu dugu analisia egiteko. Bertan, erdietsitako datuak sailkatzeko bost dimentsio erabili ditugu: Politika: aukera berdintasun politikak; Zer da hezkidetza?, eskolaren eredu hezkidetzalea; genero rolen adierazpenak eta interakzioak; espazioaren erabilera. Azal ditzagun labur, banan-banan.

1. Politika: aukera berdintasun politikak. Dimentsio honetan erakundeek azken aldiar ezarritako berdintasun politikak eta neurriak langai hartu ditugu, eta nolako eragina eta zabalkundea izan duten aztertu.
2. Zer da hezkidetza? Partaideek eman dituzten hezkidetzaren inguruko definizioak eta kontzeptualizazio nagusiak jaso nahi izan ditugu, bai eta, ideia horietatik abiatuta, ikas-tetxeen beharrak nahiz proiektuak zein diren analizatu.
3. Eskolaren eredu hezkidetzalea. Eskolan parte hartzen duten eragileen rolen eta jardunen gaineko datuak bildu ditugu; hots, irakasleek-ikasleek-gurasoek zer-nola egiten duten eta eskola hezkidetzalea bera nola ulertzen duten aztertu dugu dimentsio honetan.
4. Genero rolen adierazpenak eta interakzioak. Nesken eta mutilen arteko harremanak nondik nora gertatzen diren ikusi nahi izan dugu honetan. Horretarako, sexu bakoitzari egotzi ohi zaizkion jokamoldeak, estereotipoak, adierazteko moduak eta abar analizatu ditugu, mundu fisikoan nola birtualean.
5. Espazioaren erabilera. Eskolako patioan suertatzen diren egoeren berri jaso dugu; hau da, gelaz kanpoko orduetan neska eta mutilak elkarrekin ala bereiz aritzen ote diren aztertu dugu, bai eta haien jolasek ezaugarri prototipikorik izaten duten ere.

10. taula

**Sistema kategoriala**

DIMENTSIOAK	KATEGORIAK	AZPIKATEGORIAK
<b>1. Politika: aukera berdintasun politikak</b>	Zabalkundea eta eragina	
	Ikastetxeen rola	
<b>2. Zer da hezkidetzaz?</b>	Definizioa	
	Ikastetxeen beharrak	
	Proiektu hezkidetzazileak: ikastetxeak hezkidetzaren inguruan egiten dituen ekintzak, jarduerak, proiektuak...	
<b>3. Eskolaren eredu hezkidetzazilea</b>	Irakasleen rola	Hizkuntzaren erabilera
		Material didaktikoak
		Ikasgelaren kudeaketa: parte-hartzea eta lidergoa, tutoretzak, bestelakoak
		Curriculumean txertatzea
	Irakasleen parte-hartzea	
	Irakasleen prestakuntza	
	Desberdintasunak detektatzeko sentiberatasuna	
	Ikasleak orientatzea	
	Ikasleen rola	
	Ikasleen beharrak	
	Ikasleen parte hartzea	
	Familien rola	
	Familien parte hartzea	
Eskolaren errealitatea		
Atzerapausoak		
<b>4. Genero rolen adierazpenak eta interakzioak</b>	Nesken eta mutilen arteko jokaera-diferentziak	
	Nesken eta mutilen diskurtso-diferentziak	
	Bikote harremanak	
	Sare sozialak eta komunikabideak	
	Lanbide-aukeraketak	
<b>5. Espazioaren erabilera</b>	Patioaren erabilera	
	Jolasen ezaugarriak	
	Espazioaren banaketa	

Ikerketaren alderdi kualitatiboa egokiro gauzatzeko asmoz, NVivo analisirako softwarea erabili da. Izan ere, programa honen bidez errazagoa gertatu da datuen trataera informatikoa egitea (Aristizabal eta Vizcarra, 2013). Horrela, beraz, ikerketan jasotako informazio kualitatibo guztia bertan prozesatu da.

NVivo softwareak aukera eman digu kategoriak antolatzeko eta informazioa antolatzeko; nolabait, proiektuaren biltegi bihurtu da, eta hortik lortu dugu informazio tratatua txostena idazteko. Era berean, programa hau erabilgarria suertatu da konparazioak egiteko, aztertutako datuak ikusteko eta informazioa hainbat modutan aurkezteko, besteak beste, kontzeptu mapetan nahiz matrizetan antolatzen baitu informazioa programak.

Datu guztiak digitalizatu eta ondoan ekin zaio azken txosten hau idazteari. Sandin-ek dioskunez (2003), generoarekiko kezka ikerketa honi lotuta ageri da. Alde horretatik, generoen artean egon ohi den simetriarik ezak gogora ekarriko digu, informazioa analizatzean, gizonen boterea eta emakumeena ez dela maila berean, boterearekiko sarbidea ez den bezalaxe. Gaude ikerketa honek, generoari buruz egiten diren beste batzuk bezala, kontzientzia asmatzaile baten premia indartu behar duela, eta horrek egungo hezkuntza-sistema ikertzera garamatza.





4.

EMAITZAK



## 4.

---

# EMAITZAK

Laugarren atal honetan, emaitzak azalduko ditugu. 4.1. puntuan galdetegien bidez lortutako emaitzak daude; 4.2, 4.3 eta 4.4. puntuetan berriz eztabaida-taldeetan lortutako informazioen emaitzak azalduko dira: 4.2. puntuan zuzendaritza taldekoen eta irakasleen eztabaida-taldeen emaitzak (2 eztabaida-talde ezberdin egon ziren eta emaitzak bateratuta agertzen dira); 4.3 puntuan ikasleen eztabaida-taldetako emaitzak (3 eztabaida talde egon ziren) eta 4.4. puntuan (gurasoen eztabaida-taldeen emaitzak (bi talde egon ziren)).

Orokorrean, analisia egiteko metodoan agertzen den kategoria-sistema erabili da ikerketa guztian zehar, baina tresnaren arabera eta kolektiboaren arabera kategoria-sistema hori pixka bat aldatzen da. Hori dela eta puntu bakoitzaren hasieran agertuko da atal horretan erabili den kategoria-sistema puntu horren diskurtsoa, horren arabera baitago ordenatuta.

### 4.1. GALDETEGIETAN LORTUTAKO EMAITZAK

Puntu honetan erabili den kategoria-sistema 11. taulan dago jasota, eta honen arabera sailkatu da jasotako informazioa. puntu honetan agertzen den informazioa ere horren arabera ordenatu da. Kategorien barruan zenbaki batzuk agertzen dira: 6Z, 1I (horiek esan nahi dute zuzendaritzako galdetegietatik 6.galdera aztertu dela -6Z-, edo irakasleen galdetegitik 1.galdera izan dela aztertua puntu horretan). Gure kasuan datuak ezberdinu ditugu eta NVI-VO8an etapa bakoitzeko proiektu bat egin dugu. Hori dela eta, horren arabera ere agertzen dira datuak.

11. taula ulertzeko nola dagoen antolatuta esango dugu: dimentsioak gai nagusiak dira (bloke tematiko garrantzitsuenak); haien azpian kategoriak (gai bakoitzean ematen diren tematikak) eta azpikategoriak daude, kasu gehienetan kolektibo bakoitzeko jaso diren erantzun kopuruak agertzen dira (erreferentziak) eta zenbat galdetegietatik aterata dagoen informazioa (baliabideak). Zer esan nahi du horrek? Horrek esan nahi du erreferentzia kopurua baliabide kopurua baino altuagoa bada hainbat pertsonak bi erantzun eman duela. Totalak dimentsioa atera dira. Agertzen diren zenbakiak galderen zenbakiak dira eta I edo Z jarriko du jakiteko ea irakasleen galdetegietatik edo zuzendaritzakoen galdetegietatik zein galderak dauden aztertuta puntu horretan, modu horretan 13Z agertuko balitz Zuzendaritzakoen galdetegitik 13. galdera aztertu dela kategorio horretan esan nahi du.

11. taula

**Galdetegietan erabili den kategorio-sistema eta erantzun kopurua kategorio bakoitzeko.**

DIMENTSIOAK	KATEGORIAK	AZPIKATEGORIAK	KOLEKTIBOA	ERREKURTSOAK	ERREFERENTZIAK	
4.1.1. Politika: emakume eta gizonen aukera berdintasunen aurrean egiten diren politikak	4.1.1.1. Zabalkundea eta eragina (1I, 2I, 3I, 23I, 1Z, 2Z, 3Z, 4Z, 5Z, 6Z, 7Z, 8Z, 9Z, 11Z, 12Z)	HH LH DBH	zuzendaritza	43	78	
			2	2		
			24	29		
			85	85		
	4.1.1.2. Ikastetxeen rola, zer nolako papera hartzen duen ikastetxeak zabalkunde horretan (10Z, 10I, 14Z)	HH LH DBH	zuzendaritza	1	1	
			18	22		
			22	26		
			40	43		
				<b>Totalak</b>	<b>235</b>	<b>286</b>
	4.1.2. Hezkidetzaren den eta nola lantzen den	4.1.2.1. Definizioa (4I)	HH LH DBH	zuzendaritza	0	0
64				64		
136				136		
126				126		
4.1.2.2. Ikastetxeen beharrak eta aurkitzen dituzten oztupoak (13I, 15I, 16Z, 17Z, 18Z)		HH LH DBH	zuzendaritza	11	15	
			37	48		
			73	90		
			72	85		
4.1.2.3. Proiektu hezkidetzailleak: ikastetxeak hezkidetzaren inguruan egiten dituen ekintzak, jarduerak edo proiektuak... (7I, 8I, 12I, 13Z, 19Z, 20Z)		HH LH DBH	zuzendaritza	37	71	
			27	35		
			81	122		
			112	175		
			<b>Totalak</b>	<b>776</b>	<b>967</b>	

DIMENTSIOAK	KATEGORIAK	AZPIKATEGORIAK	KOLEKTIBOA	ERREKURTSOAK	ERREFERENTZIAK	
4.1.3. Eskolaren eredu hezkidetzaila	4.1.3.1. Irakasleen rola. (9I, 11I, 14I,23I)	4.1.3.1.1. Hizkuntzaren erabilera		23	25	
		4.1.3.1.2. Material didaktikoak		22	25	
		4.1.3.1.3. Ikasgelaren kudeaketa: parte-hartzea eta lidergoa, tutoretzak, bestelakoa:		24	24	
		4.1.3.1.4. Curriculumean txertatzea		18	20	
	4.1.3.2. Irakasleen prestakuntza (16I) HH LH DBH	4.1.3.2. Irakasleen prestakuntza	zuzendaritza		3	3
				28	30	
				113	113	
				115	116	
	4.1.3.3. Desberdintasunak detektatzeko sentiberatasuna (19I) HH LH DBH	4.1.3.3. Desberdintasunak detektatzeko sentiberatasuna (19I)	zuzendaritza		1	1
				8	8	
				53	55	
				139	139	
	4.1.3.4. Ikasleak orientatzea (21Z, 22Z)	4.1.3.4. Ikasleak orientatzea (21Z, 22Z)			18	19
			<b>Totalak</b>		<b>565</b>	<b>578</b>
4.1.4. Genero rolen adierazpenak eta interakzioak	4.1.4.1. Nesken eta mutilen arteko jokaera-diferentziak (18I, 20I) HH LH DBH	zuzendaritza		6	6	
			7	8		
			46	50		
			14	15		
	4.1.4.2. Nesken eta mutilen diskurtso-diferentziak (23Z)	DBH		126	128	
	4.1.4.3. Lanbide-aukeraketak (17I) LH DBH	4.1.4.3. Lanbide-aukeraketak (17I)	HH		0	0
			LH		15	15
DBH				22	22	
<b>Totalak</b>			<b>236</b>	<b>244</b>		
4.1.5. Espazioaren erabilera	4.1.5.1. Patioaren erabilera (21I) LH DBH	HH		8	8	
		LH		56	56	
		DBH		143	143	
	4.1.5.2. Jolasen ezaugarriak (22I) LH DBH	4.1.5.2. Jolasen ezaugarriak (22I)	HH		8	8
			LH		57	58
			DBH		134	135
<b>Totalak</b>			<b>406</b>	<b>408</b>		

## 4.1.1. Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasun politikak

### 4.1.1.1. Politiken zabalkundea eta eragina


Hezkuntza formalaren eremuan hezkidetzak garatzeko helburuarekin hainbat irizpide eta programa eraman dira aurrera azken urteotan Gasteizko udalerriko Ikastetxeetan. Politika horien

eragina eta zabalkundea aztertzeko, borondatez erantzutekoak ziren galdetegiak zabaldu ziren udalerriko irakasle eta zuzendaritza-taldeetako kideen artean politika horien inguruan haien iritziak jasotzeko helburuarekin. Honako arlo hauetan oinarritu ziren bertan egindako galderak: lanean ziharduten ikastetxeetan hezkidetzeta eta berdintasunaren alorretan eza-gutzen zituzten arduradunetz bai eta horiek jaso zuten prestakuntzaz; zentroan hezkuntza etapa desberdinetan lanean aurkitzen ziren gizonezko eta emakumezkoen kopuruaz; zen-troan genero bortizkeriaren aurkako planen, protokoloen eta deialdien inguruan zuten infor-mazioaz; eta azkenik, politika horiek ikasleengan sortzen duten eraginaz.

**Ikastetxe zentroetan bai hezkidetzan bai eta genero bortizkerian ere prebentzio ardu-radunik dagoen** galdetu diegunean jasotako datuek adierazten dute Gasteizko Udalerriko irakasleen ia erdiak ez duela hezkidetzeta eta genero bortizkeria arloetan prebentzio arduradun-ik bere zentroetan eta ia laurden batek ez dakiela baduen edo ez. Zuzendaritza taldeei galdera berdina egitean baita ere antzeko erantzunak jaso dira, ezezkoaren % 51arekin (1. grafikoa).

1. grafikoa

**Ba al dago Hezkidetzan eta genero bortizkerian prebentzio arduradun-ik klaustroan?**



12. taula

**Hezkidetzeta eta genero bortizkeriaren prebentzioaren arduraduna ikastetxeko klaustroan**


	BAI	EZ	EZ DAKI
<b>Irakasleak</b>	% 30,8 (129)	% 43,4 (182)	% 22,9 (96)
<b>Zuzendaritza-taldea</b>	% 47,1 (24)	% 51 (26)	0

**Eskola Kontseiluei dagokionean baita ere** aurreko galderaren oso antzeko emaitzak jaso dira, irakasleen artean ezezkoa emaitza nagusia izatean antzeko portzentajearen (% 43,9), baieztokoaren % 17,4aren aurrean. Irakasleek Kontseiluari buruz informazio gutxiago izatea izan daiteke ezjakintasuna % 35,1era handiagotu izatearen arrazoia. Horrela, esan daiteke

galdetutako 10etik 2 irakaslek bakarrik badutela arduradun mota hau beren ikastetxeetan eta 10etik 3k baino gehiagok ez dakiela baduen edo ez. Zuzendaritza taldeek diotenaren arabera ordea emaitzak oso bestelakoak dira; izan ere, jasotako erantzunen erdiak baino gehiagok (% 54,9) baieztatzen baitute badagoela halako figura, ezezkoa dioten % 43,1aren aurrean (2. grafikoa eta 13. taula).

2. grafikoa

**Ba al dago Eskola Kontseiluan hezkidetzaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioaren ardura duen pertsonarik?**



13. taula


**Ba al dago Eskola Kontseiluan hezkidetzaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioaren ardura duen pertsonarik?**

	BAI	EZ	EZ DAKI
<b>Irakasleak</b>	% 17,4 (73)	% 43,9 (184)	% 35,1 (147)
<b>Zuzendaritza-taldea</b>	% 55,9 (28)	% 44,1 (22)	0

**Arduradun horrek gai horren inguruan prestakuntza espezifikorik jaso duen galderari** oso erantzun desberdinak jaso dira zuzendarien eta irakasleen artean. Irakasleen aldetik bi herenek baino gehiagok ez dakit (% 44,2) edo ez (% 20) erantzun dute. % 11,5ak bakarrik baieztatzen du arduradun horrek prestakuntza espezifikoa jaso duela eta % 17,4k ezetz. Zuzendaritza taldeetako kideen erantzunen gehiengoak ordea, % 39,2ko baiezeko batekin, prestakuntza espezifikoa jasotzen dutela adierazten dute, ezezkoa diotenaren % 27ren aurrean. Talde honetako % 9,3k ez daki prestakuntza berezia jaso duen edo ez. Aurreko galderarekin bateratuz ondorioztatzen da irakasleek orokorrean eskola-kontseiluetan hezkidetzaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioaren ardura duen pertsonaren inguruan informazio gutxi dutela (3. grafikoa eta 14. taula).

3. grafikoa

**Arduradun horrek, gai horren inguruan prestakuntza espezifikoa jaso du**



14. taula

**Arduradun horrek, jaso du gai horren inguruko prestakuntza espezifikorik?**

	BAI	EZ	EZ DAKI
<b>Irakasleak</b>	% 11,5 (48)	% 17,4 (73)	% 44,2 (185)
<b>Zuzendaritza-taldea</b>	% 39,2 (20)	% 27,5 % (14)	% 9,3 (5)

**Klaustroa osatzen dutenen artean Hezkidetzarako prestakuntza zenbatek jasotzen duten** galdetu zaienean, zuzendaritza-taldeetako kideen aldetik jasotako erantzun nagusia, 11 erantzunekin % 35,5 osatuz, 1 eta 10 pertsona arteko kopurua izan da. Erantzun horien gehiengoak 1 edo 2 pertsona izaten dira, kasuren batean 6koa izan bada ere. Kasu horietan ez da zehazten lehenago jaso ez dutenek jaso duten prestakuntza edo irakasle zehatz batzuek bakarrik jasotzen duten.

- “6” (25A DBH Batx LbdH Gi)
- “2 pertsona” (01A HH LH Gi)
- “2 personas” (22F HH LH DBH Em)
- “1” (23A HH LH DBH Batx LbdH Em)
- “1” (16A DBH Gi)
- “Batek” (18D Batx DBH Em)
- “2” (18E Batx DBH Em)
- “Específico, creo que sólo el responsable” ( 05A HH LH Em)

Prestakuntza espezifikoa jaso dutenen artean 10 edo gehiagok jaso dutela erantzun dutenak erantzunen % 16,1a izan da 5 erantzunekin eta gaineranzkoetan 12 edo 30 irakasle zenbatekoak azaltzen dira. Kasu horietan klaustro osoak prestakuntza jaso izana azaltzen da zenbaitetan:

“*Klaustro osoak pentazitarearen inguruko formazioa jaso zuen.*”

(28A HH LH DBH Batx Em)

“*La totalidad del claustro.*” (29A HH LH DBH Batx Em)

“*12*” (12B HH LH Gi)


“*30 - oinarrizko formakuntza*” (02A HH LH Em)

Prestakuntza espezifikoa jaso dutenen artean behin betikoeak jaso izanaren taldea ere jaso ahal izan da erantzunen % 14arekin; ordea aipatu beharrekoa da hori adierazi duten zuzendaritza taldeko kideen erantzun guztiak eskola berdinekoak izan direla. Galdera horren bestaldean, alegia prestakuntza espezifikorik jaso ez dutenak, jasotako erantzunen % 15,3 izan dira 6 erantzunekin eta jaso duen edo ez dakiena % 12,8 (5 erantzunekin).

**Prestakuntza espezifikoa hori azken urtean zenbatek jaso duten** galderari erantzunez, zuzendaritza taldeetako kideen aldetik jasotako 50 galdetegietatik 15 erantzun jaso dira. Erantzunen ia erdiak (6) prestakuntza espezifikoa 1 edo 2 pertsonak jaso dutela adierazten dute eta bakarrik klaustro osoak jaso duela adierazi du. Erantzun nagusia beraz, erantzunen erdiarekin, azken urtean prestakuntza espezifikoa inork ez duela jaso izan da (7 erantzunekin). 2 erantzunetan ez da jakin prestakuntza jaso den edo ez. (4. grafikoa)

4. grafikoa


**Prestakuntza espezifikoa jaso dute azken urtean**



Zuzendaritza taldeetako kideei **Ikastetxean Hezkidetzeta eta genero bortizkeriaren prebentzioaren arduradunik dagoen** galdetu zaienean gehienek baiezkoa erantzun dute, jasotako erantzunen % 45,1arekin (23) ezezko erantzunaren % 37,1en aurrean (19). Baita ere gaineratu behar da % 11,8k (5) adierazi duela horretan dabiltzala. Horrela badirudi geroz eta eskola gehiagotan sortzen ari dela arduradunaren figura alor honetan (5. grafikoa eta 15. taula).

5. grafikoa

**Ba al dago Hezkidetzeta eta genero bortizkeriaren prebentzioaren arduradunik ikastetxean?**



15. taula


**Badago Hezkidetzeta eta genero bortizkeriaren prebentzioaren arduradunik ikastetxean? (Zuzendaritza-taldea)**

	BAI	EZ	HORRETAN GABILTZA
<b>Badago Hezkidetzeta eta genero bortizkeriaren prebentzioaren arduradunik ikastetxean?</b>	% 45,1 (23)	% 37,3 (19)	% 11,8 (6)

**Zuzendaritza-taldeetako kideek arlo horretan prestakuntza espezializaturik jaso duten galderari** erantzunez, erantzunen erdia ezezkoa izan da, 18 erantzunekin % 35,3 osatuz. Baiezkoa bestalde % 11,8koa izan da 6 erantzunekin eta horretan dabiltzala adierazten dutenak % 15,7 dira, 8 erantzunekin (6. grafikoa). Horrela esan daiteke, jasotako datuen arabera, zuzendaritza taldeetako kideen artean gehiengo batek ez duela espezializatutako prestakuntzarik jaso baina hau aldatzen ari dela jada martxan dauden prestakuntza-programak direla eta.

6. grafikoa


**Zuzendaritza-taldeetako kideek prestakuntza espezializaturik jaso dute arlo honetan?**



**Hezkuntza etapa desberdinetan dauden emakumezkoen eta gizonezkoen kopurua**ri dagokionean, emaitzek erakusten dute Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza emakumezkoen kopurua nabarmen handiagoa dela adin txikiko hezkuntzan. Haur Hezkuntzan emakumezkoen zenbatekoa 216 irakaslerena den bitartean, gizonezkoena 26koa da. Lehen Hezkuntzan emakumeak 320 dira eta gizonezkoak 112. DBHn egoera berdindu egiten da, emakumezkoak 535 direlarik eta gizonezkoak 433 (7. grafikoa eta 16. taula).

7. grafikoa

**Emakume eta gizonezkoen kopurua Hezkuntza etapa desberdinetan**



16. taula


**Emakume eta gizonezkoen kopurua Hezkuntza etapa desberdinetan**

	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK
<b>Haur Hezkuntza</b>	216	26
<b>Lehen Hezkuntza</b>	320	112
<b>DBH</b>	535	433

**Ikastetxean berdintasun edo genero biolentziarekin lotutako gatazken ebazpenerako protokolo edo araudirik badagoen** galdetu zaienean, zuzendaritza taldeetako kideen gehiengoek, 22 erantzunekin ezezko erantzuna eman dute, % 43,1 osatuz. Berdintasun edo genero-biolentziarekin lotutako gatazken ebazpenerako protokolo edo araudia badutenak 8 erantzun jaso dira, erantzunen % 15,7 osatzen dutena eta horren prozesuan dabilzanak 14 izan dira, jasotako erantzunen % 27,5 (8. grafikoa). Horrela, badirudi Hezkidetza eta berdintasunaren alorrean azken urteetan ezarritako politikak ikastetxe zentroetan ezarri doazela.

8. grafikoa


**Ba al dago berdintasun edo genero biolentziarekin lotutako gatazken ebazpenerako protokolo edo araudirik?**



**'Hezkidetza eta genero biolentziaren prebentzioa Hezkuntza Sistemari' plan berria beren ikastetxean ezagutzen den** galderari, zuzendaritza taldeetako kideek baiezkoa erantzun dute nagusiki, % 54,9 osatuz 28 erantzunekin. Ezezkoa bestalde jasotakoaren % 35,5 izan da 18 erantzunekin (9. grafikoa).

9. grafikoa


**'Hezkidetza eta genero biolentziaren prebentzioa Hezkuntza Sistemari' plan berria ikastetxean ezagutzen al da?**



**Plan berri hori ikastetxean aztertu den** galderari erantzun nagusia ezezkoa izan da jasotako erantzunen % 49arekin (25 erantzun), baiezko erantzunaren % 37,3aren aurrean 19 erantzunekin (10. grafikoa).

10. grafikoa


**‘Hezkidetzeta eta genero biolentziaren prebentzioa Hezkuntza Sistematan’ plan berria ikastetxean aztertu al da?**



**Ikastetxeak deialdi pilotuan izena eman duen** galderari, 34 erantzunekin erantzun nagusia ezezkoa izan da, jasotako erantzunen % 66,7a osatuz. Baiezko erantzunak ordea 8 izan dira, jasotakoen % 18,7 direlarik, erantzun ez duten bezainbeste (9) (11. grafikoa).

11. grafikoa

**Ikastetxeak deialdi pilotuan izena eman al du?**



**Zuzendaritza taldeetako kideek Eusko Jaurlaritzaren deialdiaren inguruan duten iritzia jasotzean, jasotako erantzunetan (24) ez da deialdiaren kontrako iritzirik jaso, ordea jasotako iritzia nagusia, 8 erantzunekin eta % 33,3 osatuz, deialdiarekin **ados** badagoela adierazten da **baina ez eraman den antolamenduari**ekin:**

“*Oso asmo onarekin planteatuta dago baina ez dugu argi ikusi antolamendua*”. (15D DBH Batx LH Em)

Oro har denborarekin zerikusia duten gabeziak azaldu dira, hala nola programak berandu sartu direla, modu txarrean eta irakasleek horiek barneratu ahal izateko denborarik gabe:

“*Ondo dago, baina hainbeste plan berria ez dago denborarik barneratzeko*” (01A HH LH Gi)

“*Gaizki ezarri da, azkar eta ordurik gabe, lantzeko asmoa dugu*” (14A DBH LbdH Em)

“*Asmo ona da. Ez da antolamendua egokia izan (Epeak)*” (15A DBH Batx LbdH Gi)

“*Oso ondo deritzot helburua baina antolamenduari ez nago ados: Deialdia berandu, zehaztaper gutxi, asko eskatu eta gutxi eman.*” (15B DBH Batx LbdH Em)

“*Helburua ondo deritzot baina antolamenduari ez nago ados. Oso berandu atera da eta zehaztaper gutxi ditu: asko eskatu eta gutxi eman.*” (15C DBH Batx LH Em)

“*Se planteó tarde y no había posibilidad de dedicar horas al mismo*” (17A Batx DBH Em)

Gainerako erantzunen arabera, deialdia **beharrezkoa** da erantzun duten % 25entzat (6), eta beste hainbesterentzat **interesgarria** ere bai. Erantzun batek deialdia hitzartutako ikastetxeetara zabaldua izan beharko litzatekeela aipatzen du:


“*Debería estar abierta también a los centros concertados.*” (29A HH LH DBH Batx Em)

‘Hezkidetza eta genero biolentziaren prebentzioa Hezkuntza Sistemaren’ planaren inguruan esan daiteke, datuen arabera eta oro har hartuta, ikastetxeetan ezagutzen den plana dela. Ordea ez da behar adina aztertzen eta are gutxiago deialdietan izena eman. Badirudi plana behar bezala ezarri ahal izateko baldintzak ez direla ematen eta horregatik zentroak kanpoan geratzen direla askotan, planarekin konforme egon arren.

**Ikastetxean landutako hezkidetzari buruzko programek ikasleen jokaeran eraginik duen inguruan**, irakasleen iritzia nagusia positiboa da. Horrela, jasotako 139 erantzunetatik % 49ak (69) baieztatu iritzia azaldu du, ezeztatu iritzia % 12,3 (17) osatzen dutenen aurrean. Kontuan hartzekoa da jasotako erantzunen artean % 28k (40) eskolan ez duela ezer landu adierazi duela eta % 10ak (13) ez dakiela programarik landu den edo ez (12. grafikoa).

12. grafikoa

**Ikastetxean hezkidetzari buruz landutako programek ikasleen jokaeran eragina sortzen du**



Baiezko erantzunak adierazi dituztenen artean ikasleengan sortzen den **sentsibilizazioa eta kontzientziarioa** nabarmentzen dute:

“*Bai, sentsibilizazioa lortzen da eta ideia batzuk argi transmititzen direlakoan nago.*” (1510 Batx. Gi)

“*Gehiago pentsatzen dute, esan nahi dut kontzientziatuagoak ikusten zaie.*” (1512 DBH Em)

“*Sí, son eficaces, conciencian al alumnado*” (1702 Batx DBH Gi)

“*Sí. contribuyen a una mayor sensibilización entre el alumnado.*” (1705 Batx Gi)

Horrelako programek epe laburrean eta epe luzean ere ikasleengan eragina sortzen duten iritzia azaltzen da:

“*Bai. Epe laburrera ez baino epe luzera espero dut baietz.*” (1817 DBH Em)

“*Zerbait, bai; hausnarketa egitera bultzatzen dute eta hau da lehenengo pausua ekintzara pasatu ahal izateko.*” (1830 Batx DBH Em)

“*Dudarik gabe eta orain epe motzean ikusi ez arren hor barnean daramate eta aterako da*” (1837 DBH Em)

“*Sí. Poco a poco son más conscientes del problema.*” (2016 DBH Em)

“*¿Cuáles? Espero que sí, pero se verá a más largo plazo.*” (2023 DBH Em)

*“Esperientzia hori da behintzat; bat bateko eragin nabarmena ez badu ere, ‘zerbait’ geldituko denaren esperantzarekin lan egiten dugu”.* (2213 DBH Em)

Ordea, nahiz eta eragin positiboaren iritzia eman, iritzi horietan ere agertzen dira programen eraginkortasunaz **zalantza egiten dutenak**, adibidez eskolaz kanpoko eraginak lehenetsiz:

“*Bai, baina etxean ikusten eta bizi dutena izango da haiek gehien pentsaraziko diotena”.* (2606 LH Em)

*“Bai. Horrelako programak baliogarriak direla uste dut eta bere eragina handiagoa edo txikiagoa izan arren, mantendu behar dira. Ordea, ikasleen ingurugiroa eragin handiagoa daukala uste dut, onerako edo txarrerako”* (3009 DBH Batx Gi)

...edota denborak sortzen duen eraginkortasun faltak...

“*Behin-behinean behintzat. Batez ere, mutilek kontzientzi hartzen dute eta neskarekiko jarrera desberdina da, baikorragoa. Zoritxarrez, ez dirudi iraunkorra denik.*” (1503 DBH Gi)

*“Agian hasieran bai, baina denborak aurrera egin ahala, gauzak bere ‘normaltasunera’ bueltatzen dira.”* (2610 DBH Gi)

**Eragina positiboa ez denaren iritzia** azaltzen duten irakasleek oro har antzerako iritzia azaltzen dute. Gehiengoaren ustez, ikasleengan sortutako eraginik ez da sortzen edo oso txikia da eta berehala galtzen da:

“*Ez, ikastetxean landutako programak ez dute eragin handirik ikasleengan.*” (3024 LH Gi)

*“Muchas veces no.”* (1403 Batx LbdH Gi)

*“Ez orokorrean. Tailerren bat egin eta gero kontzientzia hartzen dute baina orokorrean egia esan eragin txikia ikusi dut orain arte”* (1508 DBH Gi)

*“komentatzen dutenaren arabera ez dute ezer berririk ikasten.”* (3007 DBH Batx Em)

Hezkidetzaren inguruan eskola eta familiaren arteko erantzukizun erlazioak agerian jartzen dira eraginkortasun ez positiboaz aritzerakoan. Horrela, lehen aipatu bezala politiken eraginkortasuna zalantzan jartzen den bezalaxe,

“*Nahiko gutxi, eskolan egiten denak ez badu jarraipenik etxean galduta gaude*”.

 (2815 DBH Em)

*“Lantzen denean nabaritzen da lehenengo egunetan, gero, hasierara bueltatzen gara.”* (2812 DBH Em)

*“Programek, aholkuek, irakaspenek neurri xume batean eragina daukate”.*  
(1843 DBH Gi)

Genero biolentziaren kontrako prebentzio-hezkuntza eskolaz kanpoko arazoa denaren ustea ere jaso da:

“*No es un problema en el centro y por ello no se ve la necesidad de hacer más.*” (2410 DBH Gi).

Ikasleengan hezkidetzari buruzko programen eraginkortasunaz galdetzerakoan, hirugarren erantzun nagusia, erantzun guztien % 9,3arekin (13 erantzun), **inolako planik landu ez duten**aren erantzuna izan da. Erantzun gehienek planik landu ez dutela adierazten badute ere...

“*Ez ditut programa horiek ikusi.*” (0406 LH Em)

*“No conozco los programas. En Primaria no se han trabajado.”* (2602 LH Gi)

*“Ez dugu bat bera ere landu.”* (2601 LH Em.)

*...badira ere planak izatearen zalantzak adierazten dituztenak...*

*“Ez dugu programarik landu, nik dakidala.”* (0829 LH Em)

*“Ez dakit nire ikastolan landu diren hezkidetzari buruzko programarik ala ez.”* (0823 LH Em)

*“Ez dut uste hezkidetzari buruzko programak egiten direnik”* (2119 DBH Em)

Hezkidetzaren programen eraginkortasunaz aritzerakoan azpimarragarria da baita ere irakasleen iritzien artean **ezjakintasuna** izatea erantzun guztien bigarren erantzun nagusia % 28,7arekin (40 erantzun). Batzuentzat ezjakintasuna eraginkortasunaren neurketan dagoen bitartean...

“*No se medir el efecto.*” (2404 Batx Gi)

*“No lo se. Difícil de medir.”* (2405)

...beste batzuek bestelako faktoreen eragina azpimarratzen dute...

“*Ez dakit. Nik uste dut guk egiten dugun lan indibidualak bai du eragina*”  
(0827 LH Gi)

*“Ez dakit. Gizarteak ere eragin handia du.”* (1814 Batx DBH Em)

Politiken zabalkundean eta eraginean jaso diren ideia nagusiak ikus daiteke laburtuta (1. laburpen-laukian).

1. laburpen-laukia

Politiken zabalkundea eta eragina

Kategoria	Erantzunen laburpena
<b>Hezkidetzan eta genero bortizkerian prebentzio arduradunaren figura</b>	Aztertutako ikastetxeen erdiak kontaktzen du, oro har, <b>Hezkidetzan eta genero bortizkerian prebentzio arduradunaren figurarekin</b> (bai klaustroetan bai eta Eskola Kontseiluetan ere).
<b>Arduradunen Prestakuntza espezifikoaz</b>	Irakasleek ez daukate ezagutzarik arduradun horiek hezkidetzaren alorrean jasotzen duten <b>prestakuntza espezifikoaz</b> . Zuzendaritza-taldekoek dutena ere ez da hain nabaria.  Klaustroetan prestakuntza espezifiko hori jasotzeko ohiturarik ez dago eta ematen denean pertsona bakarrak edo bik jasotzen dute.
<b>Irakasleriaren sexuaren araberako banaketa Hezkuntzan</b>	<b>Irakasleriaren sexuaren araberako banaketak</b> erakusten du Hezkuntzan emakumezkoak nagusi direla etapa guztietan baina modu berezian Hezkuntza etapa goiztiarretan. DBHn banaketa orekatua dago.
<b>Eusko Jaurlaritzaren `Hezkidetzeta eta genero biolentziaren prebentzioa Hezkuntza Sistemán' Plan berria</b>	Ikastetxeen erdiak baino gehiagok ezagutzen du <b>Eusko Jaurlaritzaren `Hezkidetzeta eta genero biolentziaren prebentzioa Hezkuntza Sistemán' Plan berria</b> baina horietatik erdiak ez du aztertu eta are gutxiagok eman du izena deialdian. Planaren helburuekin ados egon arren ez dute Plana garatzeko modua egokia ikusten.
<b>Politika horiek ikasleengan sortzen duten eragina</b>	Irakasleriaren gehiengoak uste badu ere politika horiek <b>ikasleengan eragin positiboa</b> sortzen dutela, ia heren batek uste du ez dela ezer landu horren inguruan.

**Laburbilduz:** Aztertutako ikastetxeen erdiak kontaktzen du, oro har, Hezkidetzan eta genero bortizkerian prebentzio arduradunaren figurarekin (bai klaustroetan bai eta Eskola Kontseiluetan ere). Irakasleek ez dute ezagutzarik arduradun horiek hezkidetzaren alorrean jasotzen duten prestakuntza espezifikoaz, eta zuzendaritza-taldekoek dutena ere ez da hain nabaria.

Klaustroetan prestakuntza espezifiko hori jasotzeko ohiturarik ez dago eta ematen denean pertsona bakarrak edo bik jasotzen dute. Irakasleriaren sexuaren araberako banaketak erakusten du Hezkuntzan emakumezkoak nagusi direla etapa guztietan baina modu berezian Hezkuntza etapa goiztiarretan.

Ikastetxe gehienek oraindik ez dute berdintasun edo genero biolentziarekin lotutako gatazken ebazpenerako protokolo edo araudirik baina asko dira orain horretan dabiltzanak eta laster izango dutenak.

Ikastetxeen erdiek baino gehiagok ezagutzen dute Eusko Jaurlaritzaren `Hezkidetzeta eta genero biolentziaren prebentzioa Hezkuntza Sistemán' Plan berria baina horietako erdiak ez dute aztertu eta are gutxiagok deialdian izena eman dute. Planaren helburuekin ados egon arren ez dute Plana garatzeko modua egokia ikusten.

Irakasleriaren gehiengoak uste badu ere politika horiek ikasleengan eragin positiboa sortzen dutela, ia heren batek uste du ez dela ezer landu horren inguruan.

#### 4.1.1.2. Ikastetxeen rola

Berdintasun politikak nola zabaltzen diren ezagutzeko ezinbestekoa zen jakitea zer nolako rola hartzen duten ikastetxeek, zer nolako programak aplikatzen ari diren eta zein puntura arte ikastetxeen barruan hezkidetzako kanpainak ezagunak ziren, eta hala egin da irakasle zein zuzendaritza taldekoen iritzia ezagutu nahi izan dugunean. **Hezkidetzaz garatzeko zein proiektu ezagutzen dituzten** galdetzen diegunean proposamen batzuk aurkeztu dira, horien artean, Begoña Salasen *Pentazitate programa*, Emakunderen *nahiko programa*, Gasteizko Udaletxeko *Emakumearen Biolentziaren Aurkako Programa*, Eusko Jaurlaritzaren *beldur barik kanpaina*, eta *kirola % 100a femeninoa*. Taulak eta grafikoak ikus daitezke (17. taulan, eta 13. eta 14. grafikoetan), ezagutzen zutena aztertzeko eta horrela bi kolektiboen artean dauden ezberdintasunak ikustea errazagoa da, modu horretan, badirudi zuzendaritza taldekoen ezagutza maila irakasleena baina altuagoa dela.

17. taula


#### Ezagutzen dituzun hezkidetzaz garatzeko programak

EZAGUTZEN DITUZUN HEZKIDETZAZ GARATZEKO PROGRAMAK	IRAKASLEAK				ZUZENDARITZA TALDEEK			
	Bai		Ez		Bai		Ez	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%	kop.	%
<b>Pentazitatea</b>	100	23,9	282	67,3	28	54,9	14	27,5
<b>Nahiko programa</b>	39	9,3	345	82,3	14	27,5	25	49
<b>Emakumearen biolentziaren aurkako Gasteizko Udaletxeko Programa</b>	106	25,3	282	67,3	16	31,4	25	49
<b>Beldur Barik (DBH)</b>	114	27,2	270	64,4	21	41,2	22	43,1
<b>DXT % 100 femeninoa</b>	12	2,9	350	83,5	0	0	32	62,7

Irakasleek orokorrean hezkidetzaz garatzeko programak gutxiago ezagutzen dituzte, baina zuzendaritza taldekoek, berriz, gehienetan hezkidetzaz garatzeko programak ezagutzen dituzte. Programen artean gehien ezagutzen dutena pentazitatea da, ondoren, Beldur Barik kanpaina eta hirugarren tokian Gasteizko Udaletxeak bultzatutako emakumeen kontrako biolentzia ekiditeko programak egongo lirarteke.


13. grafikoa

Ezagutzen dituzten hezkidetzaren inguruko programak



14. grafikoa

Ezagutzen ez dituzten hezkidetzaren inguruko programak



Programa bakoitzaren ondoan bai edo ez hautatu behar zuten, eta galderaren beheko partean espazio libre bat zegoen nahi zutena gehitzeko edo emandako erantzuna nolabait justifikatzeko. Erantzuna justifikatzen dutenean, irakasle kopuru handi batek **ez du ezer berria esaten**. Erantzuten ez dutenen artean gehiengoak (38 pertsonak) aipatutako programak eza-

gutzen dituztela esaten dute eta 17 pertsonak, berriz, guk galdetegian jasotzen ez ditugun bestelako programa batzuk aipatu dituzte.

Inongo programarik **ezagutzen ez dutenean** hainbat argudio erabili dituzte egoera hori azaltzeko eta horien artean gehienetan ikastetxean berriak direla edo denbora gutxi daramatela argudiatzen dute, beraz, horren ondorioz aipatzen dute ez dakitela ikastetxean zer egiten den. Hainbatek lanean lehenengo urtea dela diote (hori batez ere, Haur Hezkuntzan jaso da). Besteren batek komentatzen du badakiela ikastetxean zerbait landu dela baina aldi berean ez dakiela zein programa garatu den edo zein izan den garatu den edukia.

“Nire 1. urtea da eta ez ditut ezagutzen” (0609 HH Em)

“*En algún curso se han hecho, pero desconozco el nombre.*” (3005 DBH Em)

“*Lan-murrizketa daukat eta plangintza eta ekintza askotan ezin dut parterik hartu (eta ez ditut ezagutzen)*” (0608 HH Em)

“*Ordezko berria naizenez ez daukat informazio hau.*” (0203 HH Em)

**Bestelako programa batzuk ezagutzen dituztela** aipatu dute, horien artean honako hauek azpimarratzen dituztela: “ausartzen al zara ni maitatzen?”, “tratu onak”, “gizonduz”, “prevención de la violencia de género”, “solasean”... Kasu askotan, ematen den formazioa erakunde batekin lotzen da eta honako erakunde hauek aipatzen dituzte: Berritzegunea, Udala, Emakumeen asanblada, Gurutze gorria...

“Aurten Berritzegunearen bitartez formakuntza jasoko dugu ikastetxean arlo honetan.” (1102 HH Em)

“*Ausartzen al zara ni maitatzen?*” (3007 DBH Batx Em)

“*Buenos tratos.*” (2813 DBH Batx Gi)

“*GIZONDUZ: No me acuerdo el nombre de la actividad.*” (3004 DBH Batx Gi)

“*SOLASEAN (de la Diócesis); Asamblea de mujeres (Ayuntamiento y asociaciones); Emakumeok (ONG alboan)*” (2502 LbdH Em)

“*Talleres para el alumnado organizado por el Ayuntamiento -Educación para la igualdad-*”. (3010 DBH Batx Em)

“*Udalak duela urte batzuk hezkidetzarako formakuntza, saio batzuk antolatu zituen, Hezitzaile batzuk parte hartu genuen horietan.*” (1102 HH Em)

“*Hezkidetza lau haizetara.*” (3030 LH em)

“*Ni ogros ni princesas. Obispado de Vitoria.*” (2406 DBH Batx Gi)

“*Orain Gurutze gorriak planteatutakoan parte hartu dugu. Emakumeen Asanbladak aurkeztutakoan ere.*” (1840 DBH Em)

18. taula


**Ezagutzen dituzun hezkidetza garatzeko programen artean zeintzuk dira azken bost urtetan zure ikastetxean martxan jarri direnak?**

IKASTETXEAN MARTXAN JARRI DITUGUN PROGRAMAK	IRAKASLEAK		ZUZENDARITZA TALDEEK	
	Bai	Ez	Bai	Ez
<b>Pentazitatea</b>	% 10,5 (44)	% 41,8 (175)	% 15,7 (8)	% 54,9 (28)
<b>Nahiko programa</b>	% 2,6 (11)	% 43,9 (184)	%5,9 (3)	% 54,9 (28)
<b>Emakumearen biolentziaren aurkako Gasteizko Udaletxeko Programa</b>	% 6 (25)	% 41,8 (175)	% 13,7 (7)	% 54,9 (27)
<b>Beldur Barik (DBH)</b>	% 13,6 (57)	% 35,1 (147)	% 21,6 (11)	% 52,9 (25)
<b>DXT % 100 femeninoa</b>	% 1 (4)	% 43 (180)	% (0)	% 54,9 (25)

Azken 5 urtetan **martxan jarri diren programak** zeintzuk izan diren galdetu dugunean, gehiengoak dio ikastetxeak ez dituela programak martxan jarri, eta martxan jarri diren programak ordenatuta agertzen badira honako hau litzateke zerrenda: beldur barik, pentazitatea, Gasteizko Udalaren emakumeen aurkako biolentzia ekiditeko programa eta nahiko programa (ikusi 18. taula eta 15. grafikoa).

15. grafikoa

**Azken bost urtetan zure ikastetxean martxan jarri diren programak?**



Irakasle eta zuzendari gehienek, hala ere (18. taulan eta 15. grafikoa ikus daitekeen bezala), hezkidetza garatzeko guk aurkeztu genituen programa horiek ez dituztela ezagutzen esaten dute, eta hala galdetutako % 14,48ak bakarrik programa hauetako bat ezagutzen duela erantzun du.

Profesionalen erantzunak zehaztu dituztenean, batzuk espresuki diote beraien ikastetxean **ez dela ezer egin** (32 pertsonak). Beste batzuk beste programaren bat martxan jarri dutela diote, adibidez, emakumeen kontrako bortxakeria ekiditekoa... edo bestelakoak.

“*Ez da ezer egiten.*” (0906 HH LH Em)

“*Ez dela lantzen zuzenki.*” (2005 HH LH Gi)

“*Prevención de la violencia de género en 3º y 4º ESO.*” (2713 DBH Gi)

“*Programa anual sobre Educación Sexual en la ESO (5 sesiones por curso).*” (3011 DBH Em)

“*Osasunkume koadernilloak; Ipuin-testu desberdinak (euskaraz).*” (3021 LH Gi)

Hezkidetza lantzeko **gehien erabiltzen dituzten programak** honako hauek dira: txanela, udalak eskainitakoa, emakumearen enpoderatzeari buruzkoa, sindikaturen batek eginikoak eta urtxintzak egindako materialak.

“*Propuestas del Ayuntamiento para el empoderamiento de la mujer.*” (0604 HH LH Em)

“*Programa jakin batean parte hartu ez arren, darabilgun ikas material-  
leko proposamenen bitartez (Txanela Proiektua) lantzen dugu hezki-  
detza.*” (2106 LH Gi)

“*DBH-n Urtxintxa eskolaren eskutik Hezkidetza tailerra lantzen dute (ez dakit ziur).*” (2102 LH Em)

“*Ez dakit ziur, DBH-n URTXINTXA eskolaren eskutik hezkidetza tailerra lantzen delakoan nago.*” (2103 LH Em)

“*Sindikatuan egindako unitate didaktikoak erabili izan dira.*” (1510 DBH Batx Em)

Zuzendaritza taldekoei eta irakasleei galdetu genien zer nolako adostasuna adierazten zuten emandako esaldi batzuekin (19. taulan), gehien jaso diren erantzunak honako hauek izan dira: haien ikastetxean hezkidetza curriculumean barneratzen dela, eta tutoretzan lantzen dela. Hezkidetza curriculumean barneratzen dela zuzendaritzakoen % 72ak eta irakasleen % 49,2ak esan dute. Ados daude hezkidetza tutoretzetan lantzen dela esaten dutenean (zuzendaritza taldeetako % 58,8ak eta irakasleen % 29,4ak).

19. taula

**Hezkidetza sustatzeko programen garapenarekiko adostasuna**

	ERABAT DESADOS		DESADOS		EZ ADOS EZ DESADOS		ADOS		ERABAT ADOS	
	Zuz.	Irak.	Zuz.	Irak.	Zuz.	Irak.	Zuz.	Irak.	Zuz.	Irak.
<b>Gure ikastetxean arlo/eremu jakin batzuen curriculumaren barnean lantzen dira</b>	% 2 (1)	% 2,6 (11)	% 2 (1)	% 1,9 (8)	% 2 (1)	% 11 (26)	% 72,5 (37)	% 49,2 (209)	% 11,8 (6)	% 11,7 (49)
<b>Gure ikastetxean tutoretzetan lantzen dira</b>	% 2 (1)	% 2,9 (12)	% 2 (1)	% 2,1 (9)	% 0 (0)	% 7,4 (31)	% 58,8 (30)	% 51,6 (216)	% 29,4 (15)	% 17,2 (72)
<b>Gure ikastetxean ikastetxe bertako adituen bitartez lantzen dira (aholkularia, orientatzailea, etab.)</b>	% 4 (2)	% 5,3 (22)	% 25,5 (13)	% 9,3 (39)	% 15,7 (8)	% 15,5 (65)	% 43,1 (22)	% 33,7 (141)	% 4 (2)	% 9,1 (38)
<b>Gure ikastetxean ikastetxetik kanpoko adituen bitartez lantzen dira (aholkulariak, adituak, Emakunde, Berritzeguneak, etab.)</b>	% 9,8 (5)	% 4,1 (17)	% 23,5 (13)	% 11,2 (47)	% 25,5 (13)	% 16,9 (71)	% 23,5 (12)	% 31,5 (132)	% 5,9 (3)	% 8,1 (34)

Erantzun kualitatiboak direla eta, batzuk **gustura daude ikastetxean** egiten den lan horrekin eta ikastetxeetan nahikoa egiten dela eta horrekin jarraitu behar dela aipatzen dute.

“*Antolaketa ona dela eta, erabat txertatuta egunerokoan.*” (1510 Batx Gi)

“*Neurrian egiten denez, horrela jarraitu behar da.*” (1512 DBH Em)

Ikastetxe batean **programa hauek bizikidetza batzordetik** ailegatzen direla aipatzen da eta beste batean, egiten diren ekimenak ikastegian errotuta eta garatuta daudela eta genero indarkeriaren aurka lan handia egiten dela diote.

“*Aurtengo esperientzia txikitik, ikusi ahal izan dut ikastetxearen kulturaren eta jomugetan hezkidetza ongi errotuta dagoela, baita genero indarkeriaren aurkako lana, Bizikidetza Batzordearen kudeaketaren menpean beti. Edo, hala uste dut.*” (1503 DBH Gi)

“*Goi mailako heziketa zikloetan oso gai landua dela esango nuke: genero berdintasuna, rolen banaketa bateratua...*” (1404 LbdH Em)

Hainbat ikastetxetan **iniziatiba pertsonalak** daudela esan arren, askotan ekintza hauek ez daudela ondo koordinatuta eta ez dela etekin nahikoa ateratzen errekonozitzen da. Iniziatiba

pertsonalak gehienetan pertsonen militantzian oinarrituta daudela diote eta haien jarraipena arriskuan geratzen dela pertsona horiek ikastetxetik desagertzen direnean, edo bestela sarituta ez daudenean.

“*Bakoitzak bere kabuz egiten du goian aipatutako arloetan. Koordinazio gehiago eta gehiago finkatzea beharrezkoa iruditzen zait.*” (2616 LH Em)

“*Hay un equipo de profesorado y personal de administración de servicios que se reúne sin liberación lectiva porque le preocupa la sensibilización sobre temas de igualdad en la comunidad educativa y está motivado e ilusionado en desplegar un plan de Igualdad realista y contrastado gracias a los distintos niveles y realidades a las que representan.*”

(2502 LbdH Em)

“*Horrelako programak askotan ikasleengana ailegatzen dira irakasle batzuen laguntzaz, ez ikastetxeak lagunduta.*” (2213 DBH Em)

“*Irakaslearen arabera, aurten formazio saioak sentsibilizazio helburu zutenak antolatu ditugu, irakasleei eta gurasoei zuzendua.*” (0601 LH Em)

**Zer nolako ekintzak egiten dituzten** aipatzen dituztenean honako hauek agertzen dira: jolasak, elkarrizketak, txartel informatiboak, eztabaidak eta hausnarketak... eta gehienetan haien bitartez genero ezberdintasunak gainditzea bilatu dutela aipatzen dute.

“*Norberari egokiak iruditzen zaizkionak.*” (1407 DBH Gi)

“*Eguneroko ekintzetan gaia agertzen bada, hausnarketak, elkarrizketak edo jolasak egiten ditugu.*” (0821 HH Em)

“*Tenemos carteles que informan de que el centro no hace discriminación por razón de sexo.*” (3016 LH DBH Gi)

Egiten dituzten ekintzak **tutoretzetan** egiten den lanekin lotzen dira, eta hala, programa hauen arduradun gisa tutorea ikusten dute. Tutoretzan lantzen den materiala aipatzean gehienetan emakumearen egunaren inguruan garatzen diren ekintzak, emozio tailerrak eta sexu hezkuntza aipatzen dira eta gehien erabiltzen diren materialak Emakunde erakundeak egingakoak dira.

“*Tutoretzarako bereziki prestatutako programazioak eta materialak (sindikatuak egindakoak).*” (0110 LH Gi)

“*Emakumearen eguna tutoretzan landu egin behar da.*” (1813 DBH Em)

“*Emozio tailerra eta sexu-hezkuntza hemen ikastetxeak parte hartu du.*” (0602 LH Em)

“*Jasotzen dugun material guzia (Berritzegune, Emakunde, Eusko Jaurlaritza) tutoretza plana lantzen dutenei pasatzen zaie.*” (28A HH LH DBH Batx Em)

“Arazo puntualak sortuz gero, tutoretzan lantzen ditugu”. (2001 LH Em).

“Tutoreak moldatzen gara.” (0105 LH Em)

## 2. laburpen-laukia

### Berdintasunaren politikak zabaltzen ikastetxeek duten rola.

Kategoria	Erantzunen laburpena
Ezagutzen dituzten programak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendariek gehien ezagutzen duten programa dira: pentazitatea (% 55) eta beldur barik (% 46)</li> <li>- Irakasleen kopuruak askoz txikiagoak dira: beldur barik (% 27,2) eta pentazitatea (% 23,9)</li> <li>- Irakasleen gehiengoak adierazten du ez dituztela programa hauek ezagutzen (ikusitako grafiko 14)</li> <li>- Irakasle batzuk aipatzen dituzte bestelako programak, horien artean: “ausartzen al zara ni maitatzen?”, “tratu onak”, “gizonduz”, “prevención de la violencia de género”, “solasean”, “Ausartzen al zara ni maitatzen?” “Buenos tratos”, “GIZONDUZ”, “Hezkidetzak lau haizetara.” “Ni ogros ni princesas”.</li> <li>- Non jaso duten formazioa: berritzegunean, gurutze gorrian, udal-ean, emakumeen asanblada...</li> </ul>
Ezagutzen dituzten programak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakasle berriek, eskolan denbora gutxi daramatenek, ez dituzte ezagutzen horrelako programak</li> </ul>
Ez dela ezer egiten	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 32 pertsonak diote</li> </ul>
Gehien erabiltzen dituzten programak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Txanela programa</li> <li>- Urtxintxa</li> <li>- Sindikatu-erakundearen egindako materialak</li> </ul>
Hezkidetzaren Curriculumean integratu behar da	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaritza taldeak % 72 eta irakasleen % 49,2 ados dago afirmazio horrekin.</li> <li>- Hezkidetzaren tutoretzan landu behar da.</li> <li>- Bizikidetzaren batzordeak garatu behar du</li> </ul>
Gustura daude ikastetxean egiten denarekin...	<ul style="list-style-type: none"> <li>- ...Ondo antolatuta dagoelako</li> <li>- ...gehienetan inisiatiba pertsonaletan oinarrituta (hura joaten denean, bukatzen da)</li> </ul>
Erabiltzen diren tresnak hezkidetzaren garatzeko	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jolasak</li> <li>- Emozioen tailerrak</li> <li>- Hezkuntza sexuala</li> </ul>
Ikastetxearen papera	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ezinbestekoa kontsideratzen da.</li> </ul>

**Ikastetxearen rola** ezinbestekoa ikusten da hizkuntza lantzeko, eta eguneroko ekimenetan bi sexuak kontutan hartuta izaten direla diote.

“Hizkuntza zaintzen dugu, adibideak ipintzerakoan emakumea zein gizona kontutan hartzen dugu, material berria esaterakoan, geletako ordezkatuak izan behar direnean neska eta mutilen presentzia egoten da.” (09A LH Em)

**Laburbilduz** (ikusi 2. laburpen-laukia), Irakasleek Hezkidetzaren programen zabalkuntza egiteko ikastetxearen rola ezinbestekoa dela esaten dute, nahiz eta askotan programak ez diren ezagutzen edo ez diren aplikatzen hainbat arrazoi direla medio. Orokorrean programa hauek zuzendaritza taldeen artean irakasleen artean baino ezagunagoak dira. Guk izendatu ez genituen programa batzuk aipatu dituzte: *Berritzegunearen bitartez jasotako formakuntza, ausartzen al zara ni maitatzen?, gizonduz, solasean...* Gehiengo handi batek hezkidetzaren curriculumean integratuta egon behar dela eta tutoretzan landu behar dela ikusten du, eta era berean, interesgarria litzatekeela kanpoko adituak ekartzea. Baloratzen denean ikastetxeetan egiten dena iritziak oso bestelakoak dira, batzuk ezer ez dela egiten aipatzen duten bitartean, beste kasu batzuk iniziatiba pertsonalen esku gelditzen direla diote. Kasu batzuetan zuzendaritzak hartzen duela iniziatiba azpimarratzen da, tutoretza planetan sartzen edo bizikidetzaren bitartez hezkidetzako iniziatibak bultzatzen. Hainbat ekintza puntu-lak aipatzen diren arren hizkuntzaren zaintza ezinbestekoa ikusten da. Honekin batera esan dezakegu Arenas-ek (2006) dioen bezala eredu hezkidetzaillea eskolan zabal dadin eskolako komunitateak gai honekiko sentsibilizazioa eta inplikazioa adierazi beharko duela.

## 4.1.2. Zer da hezkidetzaren?

### 4.1.2.1. Definizioa

Partaideek eman dituzten hezkidetzaren inguruko definizioak eta kontzeptualizazio nagusiak jaso nahi izan ditugu, bai eta, ideia horietatik abiatuta, ikastetxeen beharrak nahiz proiektuak zein diren aztertu. Hezkidetzaren zer den edo nola ulertzen duten irakasleei galdetu diegunean erantzunen heren bat baino gutxiago generoaren ikuspegira hurbiltzen direla ikusi dugu; hau da, estereotipo edo aurreritziak gainditzeko eskuhartze bezala eta norberaren ezaugarri pertsonalak baloratzean eta garatzean oinarritzen den hezkuntza. Abiapuntutzat hartzen dugun definizio honetara iristen diren erantzunak gutxienekoak izan dira.

“*Hezkidetzaren eskola mistoa gainditzeko duen eskuhartze hezitzailea da. Neska-mutilen gaitasunen eta bakantasunen aitortzean oinarritzen da. Hau da, pertsona guztiak parekidetasunean eta diskriminazio ezan hezteko helburu, sexu/genero sistemaren arabera menperatze harremanik ez da erabakitako metodo honekin eta diferentziatik berdintasunean heziko da. Hori lortzeko, ikasleen trebetasun guztiak garatu eta estereotipo edo aurreritziak deuseztatuko dira bakoitzaren diferentziak eta ezaugarri pertsonalak baloratuz”.*

Irakasleek emandako erantzunak sei multzotan antolatu ditugu, definizioaren indarra non jartzen duten arabera: **berdintasuna orokorrean, elkarbizitza edo errespetua, aukera berdintasunak, hezkuntzaren zati bat, genero ikuspegia**, eta azken talde batean, **ezjakintza**, gutxi batzuk badira ere hezkidetzaren zer den ez dakiten edo honi buruz inoiz ezer entzun ez duten irakasleak. Emandako erantzunen analisia etapaz etapa egingo dugu, etapa bakoitzean nagusitzen den irizpidea zein den zehaztasun gehiagoz ezagutzeko.

**Haur Hezkuntzaren etapa** erantzun gehienak **berdintasunaren** inguruan plazaratzen dira, hezkidetzaren esanahian gehiegi sakondu gabe. Berdintasuna behar dela aipatzen da baina ez estereotipoak edo aurreritziak landu behar direla. Multzo honetan beraz berdintasun orokor bat behar dela aipatzen da. Aspekturen bat aipatzen dutenak dira baina funtsezkoa

dena definitu gabe, edo behintzat ezer zehaztu gabe, oso definizio orokorrak direnak. Hauek dira erantzun ohikoenak. Batzuek neskak eta mutilak berdin hezi behar direla pentsatzen dute eta beste batzuek berdintasunean hezi behar direla.

“Neskak eta mutilak *“berdin” hezitzea*” (0812 HH LH Em)

*“Landu mutilen eta nesken hezkuntza modu berdinean”*. (2717 HH Em)

*“Denak gara berdinak, ez bakarrik terorian, praktikan ere horrela izan behar da”*. (2817 HH Gi)

*“Mutil eta nesken arteko berdintasunean oinarritzen den hezkuntza”*. (0201 HH Em)

Irakasle multzo batek **aukera berdintasunean** jartzen du indarra baina ez du hezkidetzaz zer den gehiegi zehazten. Gehienbat aukera berdintasunak, eskubideak...

“Neska eta mutilak aukera berdinak izatea esparru guztietan” (1301 HH Em)

*“Genero ezberdinekoak izan arren, eskubide berberak ditugula erakusten digun hezkuntza atala”*. (0703 HH Em)

*“Emakumeek galduta duten tokia ematea, eta bai mutil eta bai emakumeekin kontzientzia hartzea eskubide berdinak bideratzeko (ez dagoela inor besteen menpe)”* (0906 HH LH Em)

*“Sexuaren arteko berdintasunerako hezkuntza, diskriminatzen ez duena”*. (3030 Em)

Hirugarren multzo batean **elkarbizitza** edo errespetuan indarra jartzen duten definizioak topatzen ditugu baina ez dute generoaren erreferentzia berezirik egiten. Hezkidetzaz elkarbizitza-planen barruko osagai bat dela pentsatzen dutenak dira hauek.

“Nik pentsatzen dut hezkidetzaz bizikidetzaren zatia dela” (1301 HH Em)

*“Guztion artean eskolako giroa eta *“bizitza”* eraikitzea”*. (1001 HH Gi)

*“Egunero gizakiok pakean elkarbizitza, norberaren eskubideak eta betebeharrak kontuan izaten”*. (0821 HH Em)

*“Sexu edo genero ezberdinen arteko errespetoan elkarulertzean hezitzean”*. (2617 HH)

*“Giro onean elkarbizitza eskolan, mutil eta nesken ezberdintasunik gabe”*. (2715 HH Em)

Laugarren multzo batean **hezkuntzaren metodo berezi** bat dela edo osagaiaren bat dela pentsatzen dutenak.

“*Hezkuntzako metodo bat da non sexuen berdintasunaren arteko printzipiotik hasten den eta sexuen diskriminaziotik*”. (0820 HH Em)

“*Berdinen arteko heziketa metodo bat*” (2107 HH Em)

“*La educación en cooperación entre profesorado, familia y agentes sociales*”. (2014 DBH Em)

Eta bostgarren talde batean zuzenean hezkidetzaren definizioan estereotipoak edo aurreiritziak gainditzeko eskuhartzeari erreferentzia egiten dioten definizioak topatu ditzakegu, **genero ikuspegiarekin** zerikusi zehatzagoa dutenak.

“*Estereotipo sexistak apurtzearen aldeko hezkuntza*”. (2818 HH Em)

“*La coeducación es la educación que favorece el desarrollo de la persona sin tener en cuenta estereotipos sexistas*”. (3032 HH Em)

“*Genero berdintasunean oinarrituta dagoen hezkuntza mota haurrak direnetik, berdintasunean hezi behar dira, genero bortizkeria sahiesteko ahalegina egiteko*”. (0907 HH LH Gi)

“*Aukera berdintasun errealean eta dagoen egoera desorekatua gainditzeko estrategietan hezitzea*”. (0206 HH LH Gi)

“*Educarse en la igualdad independientemente del sexo y respetando las individualidades de cada uno como persona*”. (3035 HH Em)

Bigarren atal batean **Lehen Hezkuntzako** irakasleek hezkidetzeta nola ulertzen duten aztertuko dugu. Lehen multzoan, berdintasuna orokorrean, generoaren zehaztapenik gabe ematen diren erantzunak jaso ditugu. Hauek dira gehien ematen diren erantzunak. Batzuek pentsatzen dute neska eta mutilak modu berdinean hezitu behar direla, ezberdintasunik egin gabe, eta beste batzuk haratago doaz eta berdintasunean hezitu behar direla pentsatzen dute, hau da, bai neskak bai mutilak berdintasuna lortzeko.

“*Bai neskak bai mutilak modu berean HEZTEA, berdin hezitzea*”. (0405 LH Em)

“*Ume guztiak heziketa berdina jasotzea era honetan umeek konturatuko dira horrela jokatu behar dela*”. (2807 LH Em)

“*Eskolako iharduera guztietan neskak nahiz mutilak berdin aritzea beti*”. (0517 LH Gi)

“*Mutila eta neskeen arteko bereizketarik ez egitea*” (0801 LH Gi)

“Gizonezko eta emakumeen berdintasunaren aldeko filosofia mota bat”.  
(1211 LH Gi)

“La educación en igualdad, sin diferencias entre hombres y mujeres”.  
(2604 LH Em)

“Sexu ezberdinetako haurrek balore berdinen bidez hezitzea, inolako diskriminaziorik gabe” (0501 LH DBH Em)

“Berdintasuna. Gizakiok ez dugu sexurik, pertsonak gara eta”. (0824 LH Gi)

Bigarren multzo batean **aukera berdintasunak** azpimarratzen dituzten erantzunak topatzen ditugu, aurrekoak baino zehatzagoak dira baina oraindik ez dute aipatzen estereotipo sexistak gainditzeko lan egin behar denik. Hemen, aukerak eta eskubideak aipatzen dituzte.

“Aukera berdinak edukitzea ikasteko, tokiak erabiltzeko, ardurak izateko eta tratu egokia edukitzeko”. (0209 LH Em)

“La igualdad de posibilidades, que no la uniformidad, y el respeto entre todos independientemente del sexo, raza y creencias”. (1101 LH Em)

“Educar en la igualdad de ambos sexos en cuanto a derechos, obligaciones y oportunidades, respetando las diferencias innatas entre ambos”.  
(2602 LH Gi)

“Educación a niños y niñas en las mismas condiciones, con las mismas oportunidades”. (0515 LH Gi)

“Pertsona guztiek eskubide eta eginbehar berak izatea, bakoitzaren ezberdintasunak errespetatuz”. (0813 LH Em)

Hirugarren talde batean hezkidetzak **elkarbizitza edo errespetu** gisa ulertzen duten erantzunak jasotzen ditugu. Erantzun hauek urriagoak dira. Bizikidetzarekin erlazionatutako gaiak aipatzen dituzte: komunak diren balioak lantzea, harreman egokiak neska eta mutilen artean, egokia eta baketsua den giroa sortzea...

“Genero ezberdintasunak landu eta errespetatu eta hezitu haurrak prebentziorako. Bizikidetzak formazioa barruan” (0410 LH Em)

“Bai neskak eta bai mutilak haztea balore berdinak garatuz, elkarbizitza indartuz, estigmatizaziorik gabe eta rol bereziak edo desberdinik eman gabe neskei eta mutilei, hauek desberdinduz”. (3021 LH Gi)

“Generoen berdintasunaren eta errespetuan bizitzea ikasteko partaide guztiak”. (2801 LH Gi)

“Empatía, respeto, igualdad,... entre personas”. (3023 LH Em)

*“Hezkidetza gure ikasle guztiak modu inklusiboan garatu ahal izateko eta beren ahalmenen hobekuntza ekartzera bideratutako harduera hezitzaileak dira, berdintasunez, justiziaz”.* (0601 LH Em)

*“Neska eta mutilen arteko desberdintasunak kontuan izaten errespetuz, bizi eta denak aukera berberak bizitzan izateko, esperientzia, laguntza berberak izatea, sexu batekoa edo bestekoa izateagatik indako diskriminazio, bazterketa izan gabe eta batzutan aukera gehio ematen aukerarik ez daukanari”.* (0602 LH Em)

Badira ere, nahiz eta erantzun guztien heren batera ez iritsi, **genero ikuspuntuarekin** erlazioaturik zehatzagoak diren erantzunak. Baina hauetan jada estereotipoak gainditzeko beharrezkoa den eskuhartzea aipatzen dute, pertsona guztien ezaugarriak errespetatzea...

“*Ikasleak heztea sexu bereizketarik egin gabe gizon-emakume rola baztertuz eta pertsona bere osotasunean kontuan hartuz*”.

 (2132 LH DBH Em)

*“Sexuen arteko ezberdintasunak kontuan hartuta eta horietatik abiatuta, mutilen eta nesken duintasun eta eskubide berdinak bultzatzen duen heziketa mota da. Lagundu behar die bi “sexuei” elkar errespetatzen eta estimatzen, ezberdintasunak baloratu, eta aberasgarritzat hartuz*”.

 (0828 Gi)

*“Neskak eta mutilak desberdinak direla kontutan izanda, beraien identitate propioa garatzen lagundu, haien gaitasunak bultzatu eta hauen arteko errespetuzko harremanak eraiki. Beti ere, gogoan izanda irakaslearen jokabidea eta irakaslearen artean praktikan jartzen ditugun harremanak eredu bat direla gure ikasleentzako*”.

 (0829 LH Em)

Irakasle batzuek ez dute definizio zehatzik ematen eta hezkidetza **hezkuntzaren metodo bat** edo zatiren bat dela esaten dute baina generoaren kontzeptua azpimarratu gabe edo horretan indarrak jarri gabe.

“*Un método educativo que parte del principio de la igualdad de sexos*”.

 (3036 LH Em)

*“Irakaskuntza eta ikaskuntza zeharlerroa, momentu guztietan kontutan izan behar den gauza bat*”.

 (0818 LH Em)

*“Sexuaren arteko berdintasunerako hezkuntza mota bat*”.

 (2021 LH Gi)

*“Educación entre iguales*”.

 (2024 LH Em)

*“Hezkuntzan partaide ezberdinak egileak izan behar direla*”.

 (2705 LH DBH Gi)

Eta hezkidetza hezkuntzaren baliabide bat dela esaten dutenean, gehienbat, **balioren transmisioarekin** erlazioatzen dute.

“La coeducación es la transmisión de valores, en los métodos educativos, asignaturas, vida diaria que se basa en la igualdad de sexos”. (3018 LH Em)

“Transmisión de valores, está presente en todas las asignaturas”.(3020 LH Em)

Lehen Hezkuntzako etapa honetan hezkidetzaz zer den edo honi buruz **inoiz ezer entzun ez** duenik edo hezkidetzaz zer denarekin apur bat **nahastuta** dagoenik ere topa dezakegu.

“No había oído hablar de ello antes” (0511 LH DBH Em)

“Emakumeak errespetuz tratazea” (2006 LH Gi)

“Educación conjunta para niños o jóvenes de ambos sexos (de acuerdo con esta definición del diccionario de la RAE)” (3016 LH DBH Gi)

“Que los niños vean de manera natural que una chica pueda ser futbolista o un papá ama de casa”. (3027 LH Em)

**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan** hezkidetzaren definizioa **genero kontzeptuarekin erlazionaturik ematen duten irakasleen portzentajea handitzen da**. Hala ere, erantzun gehienak orokorrak dira eta ez dira batere zehatzak. Gehiengoak, adibidez, **berdintasun orokorrekin** erlazionaturitakoak dira. Batzuek diote berdinean hezi behar direla neskek eta mutilak eta beste batzuek berdintasunean hezi behar direla berdintasuna lortzeko. Dena den, ez dute zehazten ezer genero estereotipo edo aurreiritzien inguruan.

“Edozein ikaslek, ar zein eme, heziketa bera eta batera jasotzea” (1503 DBH Gi)

“Neska eta mutilak eremu berean eta berdintasunean hezteak”. (1802 DBH Em)

“Berdin tratatzea mutilak eta neskek; eta gure ikasgaia lantzen dugunean, aipatzea eta jorratzea sexuen arteko berdintasuna (emakumearen papera historian zehar, literatura emakumeek egindako lana...)” (1835 DBH Gi)

“Educar en igualdad, sin diferenciación por sexos” (2023 DBH Em)

“Intentar fomentar entre los valores de los alumnos/as la igualdad y la paridad, sabiendo que, en esencia, las personas son seres iguales”. (2402 DBH Batx Gi)

“Educar, en igualdad a todo el alumnado, sin discriminación alguna”. (2711 DBH Em)

“Berdin hezitzea pertsona guztiak (berdin emanda zein den beraien sexua). Ardurak, betebeharrak, eskubideak... berdinek guztiontzat”. (2813 DBH Batx Gi)

Badira ere indarra **aukeren berdintasunean** jartzen duten irakasleak. Hau da, hezkidetzan nesken eta mutilen aukerak eta eskubideak errespetatzean datzala pentsatzen dutenak, diskriminatzailea ez dena. Baina hor gelditzen dira, ez doaz harago.

“*Hezkuntza zuzena eta orekatua, neskei eta mutileri dagokien aukerak eta baliabideak emateko*”. (2411 DBH Gi)

“*Berdinak gera eta aukera, betebeharrak eta eskubide berdinak eduki behar ditugu*”. (2136 DBH Gi)

“*La educación basada en la igualdad de derechos y deberes que no discrimina por razón de sexo u orientación sexual y huye de roles sexistas u homófobos*”. (2611 DBH Em)

“*Kontzientziatu neskek eta mutilak sexu biek eskubide berdinak ditugula*”. (1801 Batx DBH Em)

Irakasleriaren zati batentzat hezkidetzan **elkarbizitzarekin** oso erlazionatuta dago. Errespetua eta elkarbizitza. Genero biolentziaren aurka borrokatzeko bide egokiena dela pentsatzen dute.

“*Elkarrekiko errespetuz, bestearenganako enpatia eta aukera berdintasun osoa aspektu guztietan pertsona guztien artean*”. (1507 Batx DBH Gi)

“*Gendea hezitzea baina elkarrekin. Batak besteekin hezitzea eta alde-rantziz*” (1509 Batx DBH Gi)

“*Guztiok elkar errespetatuz lan egiteko eta ikasteko*” (1704 DBH Em)

“*Hezkidetzan pertsonen artean eman behar diren elkarbizitzarako oinarrikoak diren baloreak irakasten ditu*”. (1410)

Generoarekin zerikusirik azpimarratu gabe, **hezkuntzaren alor bat** edo metodo bat baino besterik ez dela pentsatzen dutenak ere topatzen ditugu.

“*Es educar a todos por igual sin diferencias de sexo, raza, economía, etc.*” (2403 DBH Batx)

“*Bizitzak erakusten digun erronka ederra. Funtsezko abiapuntua heziketan lanean. Tresna eraginkorra baloreetan hezteko. Ikasleek bizitzarako behar duten zerbaitek. Ikastetxearen lanaren kalitatearen irizpideetako bat*”. (1510 Batx Gi)

“*Pertsonen banakotasunean oinarritzen den hezkuntza*”. (3007 DBH Batx Em)

“*Capacidad de desarrollar en cada alumno/a una identidad personal que le haga feliz*”. (2407 DBH Gi)

Eta badira oraindik **eskola mistoa eta hezkidetzak nahasten** duten irakasle batzuk; ikasleak espazio fisiko berean elkarrekin egonik, jada hezkidetzan ari direla pentsatzen dutenak.

“*Clases mixtas e impartir valores, normas, estilos de vida, formación sin discriminar, todos pueden compartir las mismas tareas; no hay tareas, deportes, trabajos exclusivos*”. (2405 DBH Gi)

“*La educación integral de hombres y mujeres en el mismo espacio educativo*”. (2501 DBH Gi)

“*Neska eta mutilak fisikoki ez bereiztea. Neska eta mutilak elkarrekin ikasgela berean, hestea da*”. (2608 DBH Em)

“*Educación impartida conjuntamente a ambos sexos*”. (2605 DBH Em)

“*Educación conjunta, e igual tanto para chicas como para chicos*”. (2016 DBH Em)

Eta okerrago oraindik, hezkidetzak zer den **ez dakitenak** edo honi buruz inoiz ezer entzun ez dutenak.

“*No lo sé, porque no lo había oído nunca (sí conozco el tema pero desconocía que se refirieran a él en esos términos)*”. (3005 DBH Em)

“*Ez dakit*” (1817 DBH Em)

Azken multzoan hezkidetzak **genero kontzeptura** hurbiltzen dutenak daude eta derrigorrezkoa den etapa honetan beste etapatan baino irakasle gehiago agertzen dira. Definizio hauetan estereotipo sexistak gainditzeko egin behar den lanean oinarritzen dira batez ere.

“*Berdintasunean hezitzea, neskek eta mutilak “balore” sexistak ez transmitzea eta jokoak desagokiak zuzentzea eta ez uztea pasatzen*”. (1830 Batx DBH Em)

“*Educación en igualdad, sin sesgos sexistas, que permita el desarrollo de la individualidad...*” (2410 DBH Gi)

“*Educación a chicos y chicas de manera similar, independientemente de su género, y de los roles que se les atribuye por su sexo*”. (2504 LdH Em)

“*Generoa kontuan hartu gabe hezitzea baina ahaztu gabe pertsona guztiak diferenteak garela*”. (1822 DBH Em)

3. laburpen-laukia

Hezkidetza zer den etapa bakoitzean

Kategoria	Erantzunen laburpena		
	HH	LH	DBH
<b>Berdintasuna orokorrean</b>	Erantzun gehienak hezkidetza berdintasunarekin identifikatzen dute, baina ez dute sakontzen. Ez dute aipatzen ezer ez estereotipoei edo aurreiritziei buruz. <i>“Neskak eta mutilak berdin heztea”</i>	Berdintasun orokorrari buruz dira jaso ditugun erantzun gehienak etapa honetan. Batzuk “modu berdinean” hezitu behar direla eta beste batzuk “berdintasunean” hezitu behar direla esaten dute. <i>“Berdintasuna. Gizakiok ez dugu sexurik, pertsonak gara”</i>	Portzentai handi batean hezkidetzaren definizioa berdintasun orokorrearekin erlazionatzen dute baina genero ikuspegiari aipamena egin gabe. <i>“Berdintasunarekin tratatzea ikasleak kontutan izan gabe haien sexua”</i>
<b>Aukera berdintasunak</b>	Aukera berdintasunean indarra jartzen dute. <i>“Pertsona guztiei aukera berdinak eskaintzen dituen hezkuntza”</i>	Erantzun zehatzagoak dira aukera berdintasunak errebindikatzaren direnak, aukerak era eskubideak errespetatzearen aldekoak. <i>“Pertsona guztiek eskubide eta eginbehar berak izatea, bakoitzaren ezberdintasunak errespetatuz”</i>	Hezkidetza nesken eta mutilen aukera eta eskubideak errespetatzean datzala pentsatzen dutenak baina haratago ez doazenak. <i>“Aukera berdinak izatea”</i>
<b>Elkarbizitza</b>	Elkarbizitza edo errespetua indarrean jartzen dituen definizioak baina generoaren erreferentzirik egin gabe. <i>“Nik pentsatzen dut hezkidetza bizikidetzaren zatia dela”</i>	Erantzun mota hauek urriagoak dira. Hezkidetza bizikidetzaren gaiarekin erlazionatzen dute. <i>“Genero ezberdintasunak landu, errespetatu eta hezitu haurren prebentziorako. Bizikidetza formazioa barruan”</i>	Elkarbizitzarekin erlazionatzen dute hezkidetza, genero biolentziaren aurka borrokatzeko. <i>“Elkarbizitza, emakumezko eta gizonezkoen artean”</i>
<b>Hezkuntzaren zati bat (metodoa...)</b>	Batzuk hezkidetza hezkuntzaren metodo bat dela edo osagairen bat, baina generoarekiko erreferentzirik gabe. <i>“Berdinen arteko heziketa metodo bat”</i>	Batzuk ez dakite ondo bereizten, hezkidetza eta hezkuntzaren metodo bat dela esaten dute baina generoaren kontzeptua aipatu gabe. <i>“Un metodo educativo que se basa en la igualdad de sexos”</i>	Hezkuntzaren alor bat edo metodo bat besterik ez dela pentsatzen dutenak. <i>“Pertsonen banakotasunean oinarritzen den hezkuntza”</i>

Kategoria	Erantzunen laburpena		
	HH	LH	DBH
<b>Genero ikuspegia</b>	<p>Hezkidetza definizioan genero estereotipoak eta aurreritziak gainditzeko eskuhartzeari erreferentzia egiten dutenak.</p> <p><i>“Aukera berdintasun errealean eta dagoen egoera desorekatua gainditzeko estrategietan hezitzea”</i></p>	<p>Erantzun guztien artean, heren batek, genero ikuspuntuarekin zuzenean erlazionatzen dute.</p> <p><i>“Generotik kanpo hezitzea, pertsona bakoitza bere ezaugarriekin, bere banakotasunetik, bere generoak ez dezala mugatu”</i></p>	<p>Etapeta honetan beste etapetan baino gehiago genero ikuspegitik hezkidetza definitzen dutenak daude.</p> <p>Estereotipo sexistak gainditzeko egin behar den lana azpimarratzen dutenak.</p> <p><i>“Berdintasunean hezitzea, neskek eta mutilak balore sexistak ez transmititzea eta jokaera desegokiak zuzentzea eta ez uztea pasatzen”</i></p>
<b>Balioen transmisioa</b>		<p>Hezkidetza balioen transmisioarekin nahasten dutenak ere agertzen da.</p> <p><i>“Transmision de valores, esta presente en todas las asignaturas”</i></p>	
<b>Ezjakintza</b>		<p>Badaude hezkidetzari buruz inoiz ezer ere entzun ez dutenak, edo terminua nahasten dutenak.</p> <p><i>“No habia oido hablar de ello antes”</i></p>	<p>Batzuk eskola mistoa eta hezkidetza nahasten jarraitzen dute.</p> <p><i>“Neska eta mutilak fisikoki ez bereiztea. Neska eta mutilak elkarrekin ikasgela berean heztea da”</i></p> <p>Azpimarratzeko ere badaudela irakasle batzuk inoiz ez dutela ezer ere entzun hezkidetzari buruz, ez dakitela zer den.</p> <p><i>“No lo sé, porque no lo había oido nunca”</i></p>

“Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna lortzeko egiten den heziketa. Sexismoa ekiditeko eta aurreiritziak aztertzeko egiten ari dena”. (3008 DBH Batx Em)

*“La educación de seres humanos, sin tener en cuenta su sexo, promoviendo una evolución conjunta y equilibrada de los valores masculinos y femeninos”.* (2508 LbdH Gi)

Laburbiltzen, irakasleek hezkidetzari buruz dituzten ideiak ez dira oso zehatzak edo osatuak (ikusi 3. laburpen-laukia). Hezkidetzaren kontzeptura hurbiltzen dira modu batean edo beste baina irakasleriaren % 20aren inguruan bakarrik da gai hezkidetzaren oinarriko ideiak formulatzeko. Funtsezkoak diren ideiak gaineratik pasatzen dituzte, hau da, hezkidetzaren oinarrian dauden genero estereotipoen gainditzea, persona bakoitzak dituen gaitasunak eta bakantasanak onartzeko lana edota eskuhartze hezitzailea praktikan jartzeko hezkuntza. Irakasleen definizioetan berdintasunaren kontzeptua nagusitzen da, batzuk neska eta mutilak berdin hezitu behar direla, ia-ia eskola mistoaren ildo beretik, espazio berean elkarrekin egotea, hori hezkidetzaren delakoa pentsatzen dutenak topatzen ditugu. Baina badira berdintasunaren beste maila batera pasatzen direnak ere bai, eta berdintasuna lortzeko “berdintasunean” hezitu behar direla diotenak. Bigarren multzo batean, aukera berdintasunak eskatzen dituztenak agertzen dira, eskubide mailan diskriminaziorik egin gabe. Bestalde, hezkidetzaren bizikidetzarekin, elkarbizitzarekin zerikusia duela pentsatzen dutenak daude, genero biontzia ekiditeko. Eta, azkenik, hezkidetzaren genero ikuspuntutik definitzen dutenak jaso ditugu, hezkuntzaren bigarren etapan gehiago direnak nahiz eta irakasleriaren % 20 hezkidetzaren zer den ondo definitzeko gai ez izan. Amaitzeko harritu gaituena da, nahiz eta “anekdota” bat izan hiru irakasle bakarrik izan zirelako, hezkidetzaren zer den edo inoiz horri buruz ezer entzun ez dutenak agertu direla izan da. Irakasleak aldaketaren eragileak izan behar badira hezkidetzaren gaia aspaldian barneratuta eduki beharko luketelako.

#### 4.1.2.2. Ikastetxeen beharrak eta zailtasunak

Hezkidetzari buruz zer pentsatzen den ikastetxeetan galdetzen dugunean, irakasleek (% 69ak) hezkidetzako edukiak garatzea ikastetxeen ardurak dela eta gehiengoak (% 81,1k) arlo guztietan garatu beharreko edukiak direla diote.

Arestian agertzen zen bezala, profesionalen % 69,7ak hezkidetzako gaiak tutoretzan landu behar direla uste dute. Batzuk (% 49k) lan hori aholkulari baten esku utzi behar dela esan arren gehiengoak irakasleari formazioa eta baliabideak falta zaizkiola (% 78,7ak) uste du. Irakasleen formazioa ezinbestekoa dela diote baina kontua irakasle formatuen eskuetan utzi beharko litzatekeela diote (20. taulan eta 16. grafikoan).

20. taula


**Ikastetxeetan berdintasuna nola landu behar den  
(irakasleak)**

IRAKASLEAK	ERABAT DESADOS	DESADOS	EZ ADOS EZ DESADOS	ADOS	ERABAT ADOS
<b>Eduki hauek ez lirateke ikastetxeen ardura izan behar</b>	% 34,6 (145)	% 34,4 (144)	% 13,1 (55)	% 6,7 (28)	% 1 (4)
<b>Arlo eta materia guztietan landu beharko lirateke zeharka</b>	% 0,7 (3)	% 2,4 (10)	% 8,1 (34)	% 46,5 (195)	% 34,6 (145)
<b>Tutoretza saioetan landu beharko lirateke</b>	% 2,1 (9)	% 5,7 (24)	% 14,1 (59)	% 49,4 (207)	% 20,3 (85)
<b>Ikastetxeko irakasle espezialistek landu beharko lituzkete (aholkulariak, orientatzaileak, ...)</b>	% 4,1 (17)	% 16,7 (70)	% 20,8 (87)	% 37,5 (157)	% 11,5 (48)
<b>Ikastetxetik kanpoko pertsona espezialistek landu beharko lituzkete</b>	% 5,3 (22)	% 18,1 (76)	% 22,7 (96)	32% (134)	% 11 (46)
<b>Arlo eta materia desberdinetan integratu ahal izateko baliabideak egon beharko lirateke</b>	% 1 (4)	% 0,7 (3)	% 10,5 (44)	% 49,6 (208)	% 29,1 (122)
<b>Gai horretan prestatu beharko lirateke irakasleak</b>	% 1,2 (5)	% 2,1 (9)	% 11,9 (50)	% 48 (201)	% 29,1 (122)
<b>Gai horren ardura duen pertsona bat egon beharko litzateke ikastetxean</b>	% 2,4 (10)	% 11,7 (49)	% 29,6 (124)	% 30,1 (126)	% 14,8 (62)

Zuzendaritza taldekoekin galdera berdinak egiten direnean galdetu diegunean parametro guztietan zuzendaritzakoen baloreak irakasleenak baino altuagoak izan dira (ikus 21. taula eta 17. grafikoa), eta hezkidetzak garatzeko ardura norena izan beharko litzatekeen galdetxean zuzendariak (% 82,2ak) ikastetxeen ardura dela esaten dute, eta gehiengoak (% 94,1k) arlo guztietan garatu beharreko edukiak direla aipatzen dute. Irakasle eta zuzendarien % 92,2ak gai horiek tutoretzan landu behar direla uste du. Lan hori aholkulari baten esku utzi behar dela % 47k aipatzen du, eta aurreko kasuan bezala gehiengoak uste du irakasleari baliabideak eta formazioa falta zaizkiola (% 84,4a). Eta % 88,6ak irakasle formatuen eskuetan utzi beharko litzatekeela lan horren ardura uste du.

16. grafikoa

**Ikastetxeetan berdintasuna nola landu behar den (irakasleak)**



Zuzendaritza taldekoek oso argi dute ikastetxeen ardura dela hezkidetzaren lantzea, baina irakasle formatuak eta baliabideak behar direla aldarrikatzen dute ere. Galdetzen diegunean hezkidetzaren nola landu beharko litzatekeen gehiengoak aipatzen du ez dakiela nola landu behar den, gutxiengoak landu beharreko gai batzuk aipatzen dituzte eta horien artean “acoso en redes sociales”, “Bullying homofobikoa”, harremanak bideratzeko ekintzak, genero indarkeriaren prebentzioa, estereotipoen analisia, eta hizkuntzaren zaintza.

“Ez dakit.” (1829 Batx DBH Gi)

“Ez dakit” (0203 HH Em)

“Acoso en redes sociales.” (2714)

“Bullying homofobikoaren gaian.” (1820 DBH Batx)

“Garrantzitsuena gure egunero praktika eta ereduak (zuzendaritzan emakumezkoak egotea, adibidez)”. (1814 Batx DBH Em)

“Gaztetxoek beraien arteko harremanak nola bideratu.” (2815 DBH Em)

“Genero-indarkeriaren prebentzioan”. (1842 Batx DBH Em)

“Haien harremanetan zerbait ikusten dugun ohartuz.” (1835 DBH Gi)

Komentatzen dutenean zein alderdi garatu behar den gehienbat esaten dute Eusko Jaurlaritzarenak bezalako ekimenak txalotzen direla eta kolektibo guztien indarrak batu beharko liratekeela. Atsedendietan lana egin beharko litzatekeela edo gertatzen dena zaindu beharko litzatekeela esan da, eta irakasleak indar-batze horretan inplikazioa adierazi behar duela diote.

“*Agente ezberdineko indarrak batu. Sistematizar lo planteado en el Plan director aunando todos los departamentos en Educación.*” (11A HH LH Em)

“*Ardura: Talde batena hobeto, talde lana egin behar da.*” (0908)

“*Atsedendietan.*” (1802 DBH Em)

21. taula

**Ikastetxeetan berdintasuna nola landu behar den (zuzendaritzak)**

ZUZENDARITZAK	ERABAT DESADOS	DESADOS	EZ ADOS EZ DESADOS	ADOS	ERABAT ADOS
<b>Eduki hauek ez lirateke ikastetxeen ardura izan behar</b>	% 64,7 (33)	% 23,5 (12)	% 3,9 (2)	% 2 (1)	
<b>Arlo eta materia guztietan landu beharko lirateke zeharka</b>			% 3,9 (4)	% 43,1 (22)	% 51 (26)
<b>Tutoretza saioetan landu beharko lirateke</b>			% 3,9 (2)	% 45,1 (23)	% 47,1 (24)
<b>Ikastetxeko irakasle espezialistek landu beharko litzukete (aholkulariak, orientatzaileak, ...)</b>	% 3,9 (2)	% 21,6 (11)	% 23,5 (12)	% 39,2 (20)	% 7,8 (4)
<b>Ikastetxetik kanpoko pertsona espezialistek landu beharko litzukete</b>	% 3,9 (2)	% 17,6 (9)	% 23,5 (12)	% 39,2 (20)	% 7,8 (4)
<b>Arlo eta materia desberdinetan integratu ahal izateko baliabideak egon beharko lirateke</b>			% 3,9 (2)	% 47,1 (24)	% 37,3 (19)
<b>Gai horretan prestatu beharko lirateke irakasleak</b>			% 5,9 (3)	% 51 (26)	% 37,3 (19)
<b>Gai horren ardura duen pertsona bat egon beharko litzateke ikastetxean</b>	% 5,9 (3)	0	% 27,5 (14)	% 37,3 (19)	% 17,6 (9)


Irakasle taldeen ardura falta kritikatu da irakasleek askotan ez dutela berdintasunean sinesten eta ondorioz ez dutela klasean lantzen lan guztia tutoretzarako utzita. Jokabide hori salatzen da.

“Batuetan gainera lantzen da, sakondu gabe, ikasleek ere, eta irakasleek ez dute sinesten gehiegi berdintasunean eta hor egin beharko litza-teke indarra garrantzia ematen berdintasunari.” (1501 DBH Em)

“Ez bakarrik tutoreek irakasle guztiek landu beharko lituzkete gai hauek (denon ardura da).” (1708 DBH Em)

17. grafikoa

**Ikastetxeetan berdintasuna nola landu behar den (zuzendaritzak)**



Etapa guztietan landu behar dela eta horretarako irakasle guztiekin hitz egin behar dela formazioa jasotzeko eta horrelako lan bat egin ahal izateko, materialak lantzea ezinbestekotzat jotzen dute.

“Desplegarlo a todas las etapas y que no sólo esté concentrado en las personas de este equipo de igualdad o en los cargos (socializarlo). - Que sea algo más notorio, más percibido ambientalmente en el centro. - sesiones formativas para el personal (dentro de los miércoles pedagógicos). - crear unidades didácticas para los distintos niveles educativos (ESO, BACH, FP) y que la primera semana de marzo todo el centro los trabajemos transversalmente.” (2502 LbdH Em)

Gai honen garrantziaz jabetzeko sentsibilizazio lan bat egitea proposatzen dute, eta sentsibilizatorako dinamikak proposatzen dituzte ere, eztabaidak, hausnarketak, materialak prestatzea, edo familiak eta eskola kontseiluak inplikatzeko.

“*Empezaría por una campaña de sensibilización y compromiso con este tema.*” (1701 Batx DBH Em)

*“Ikastetxeko plangintza bat ikastetxean bertan garatzeko irakasle arduradun bat, hori antolatzeke denbora (orduak) dituen, batzorde baten laguntzarekin.”* (1507 Batx DBH Gi)

Beharrezkoa ikusten da eskoletan zerbait aldatzea, oinarrizko errebindikazioak proposatzen dituztenean orientazioan eta prestakuntzan eskatzen dute laguntza eta batez ere, arazoak alde aurretik ikusi ahal izateko.

“*Orientazioa eta prestakuntza gehiago. Es necesario recibir orientación y formación para poder desarrollarlos.*” (1413 DBH Em)

Zuzendaritza taldekoei galdetzen diegunean zeintzuk diren ikastetxeetan topatzen diren oztopoak horrelako gaiak aurreratzen dituzte (22. taulan), eta ados ez daudela esaten denean irakasleek errefusatu dute gai horien lanketa (% 72,5ak), hedabideek eskolan landu den horri kaltea egiten diotela (% 66,6ak) baieztatzen dute. Ez dute garbi testu liburuetan sexismoa dagoenik, % 22,5ak bakarrik uste dute sexismoa dagoela testu liburuetan. % 50ak pentsatzen du indarkeriaren inguruan dauden hainbat gai tabu izan direla orain arte, eta gai horiek garatzeko nabarmenak direla haien prestakuntza falta.

Gehiengoak, % 70,5ak uste du familien heziketan sexismoa dagoela eta gaien hauek aldatzeko gertatzeko familiekin lan egin behar dela. Neurri berean irakasleak uste dute ez direla sexistak eta hala bakarrik, irakasleak sexistak direla % 17,7k dio.

Oztopoak eta zailtasunak azpimarratzen dituztenean oztoporik handienetako bat arlo horretan sentsibilizazio falta da, pisu gutxiegi duelako eskolan eta curriculumean, horregatik guztion inplikazioa ezinbestekoa da honetan, eta formazio eta informazio gehiago behar du irakasleriak.

“*Nik uste dut gai honetan lan egiten dugula baina ez kontzienteki.*” (0812 HH LH Em)

*“Gaiak bere tokia izan beharko luke, hezkidetzari pisu gehiago ematen”* (0908)

*“Guztione inplikazioa beharrezkoa da”* (1504 DBH Gi)

Eraginkorragoa izateko hezkidetzaren inguruan egiten dugun lana (ikus 23. taula), badirudi egoikiagoa ikusten dutela alde batetik hezkidetzaren lantzea eta bestetik biolentziaren prebentzioari buruzko prestakuntza izatea (% 79,9). Irakasgai hauek curriculumean sartu behar direla ikusten dute, baina horretarako irakasleriak prestakuntza jaso behar duela diote (% 85,4).

Bizikidetzaren plana hobetzeko gai hauek eskolan jorratzea ezinbestekoa dela ikusten da eta hala, % 90,2ak horrela adierazten du, eta gauza bera gertatzen da tutoretzan egiten den lanarekin eta ia proportzio berdinean. Oso interesgarria iruditzen zaie aholkularitza propioa izatea gai hauek lantzeko (% 83,3), eta egokia ikasmateriak eta arlo guztietan programazio espezifikoak egitea gai hori barneratzen.

Irakasgai hauek jorratu ahal izateko instituzioen inplikazioarekin lana eraginkorragoa izan beharko litzatekeela esaten da.

22. taula

**Ikastetxeetan dauden zailtasunak edo oztopoak berdintasuna lantzeko (zuzendaritzak)**

	ERABAT DESADOS	DESADOS	EZ ADOS EZ DESADOS	ADOS	ERABAT ADOS
<b>Irakasleek gai hauek lantzea errefusatzan dute haien funtzioa ez dela uste dutelako</b>	% 29,4 (15)	% 43,1 (22)	% 15,7 (8)	% 3,9 (2)	0
<b>Hedabideek gai hauetan duten eragin kaltegarriari eskolatik aurre egiteko zailatasuna</b>	% 3,9 (2)	% 9,8 (5)	% 9,8 (5)	% 43,1 (22)	% 23,5 (12)
<b>Testu liburuetako sexismoa</b>	% 11,8 (6)	% 25,5 (13)	% 33,3 (17)	% 17,6 (9)	% 3,9 (2)
<b>Gai hauek lantzeko irakasteko metodo tradizionalen egokitasun falta</b>	% 3,9 (2)	% 19,6 (10)	% 33,3 (17)	% 29,4 (15)	% 2 (1)
<b>Orain arte tabu izan diren gaiak lantzeko irakasleen prestakuntza falta</b>	% 5,9 (3)	% 27,5 (14)	% 9,8 (5)	% 41,2 (21)	% 7,8 (4)
<b>Familiaren heziketan dagoen sexismoa</b>	% 3,9 (2)	% 2 (1)	% 13,7 (7)	% 52,9 (27)	% 17,6 (9)
<b>Gai hauek aldatzeko familien inplikazio falta</b>	% 3,9 (2)	% 15,7 (8)	% 13,7 (7)	% 43,1 (22)	% 15,7 (8)
<b>Irakasle batzuek duten sexismoa</b>	% 17,6 (9)	% 41,2 (21)	% 15,7 (8)	% 15,7 (8)	% 2 (1)
<b>Ikastetxeak gai hauei aurre egiteko duen baliabide gabezia</b>	% 7,8 (4)	% 19,6 (10)	% 17,6 (9)	% 43,1 (22)	% 2 (1)
<b>Irakasleen artean batez ere emakumezkoek hartzen dutela ardura hau</b>	% 13,7 (7)	% 39,2 (20)	% 29,4 (15)	% 6,5 (3)	% 2 (1)
<b>Zuzendaritza taldearen inplikazio falta gai hauek gidatzeko</b>	% 27,5 (14)	% 45,1 (23)	% 13,7 (7)	% 2 (1)	% 3,9 (2)
<b>Gai hauek kontuan hartuko dituen proiektu integral baten falta ikastetxean</b>	% 6,5 (3)	% 25,5 (13)	% 13,7 (7)	% 39,2 (20)	% 7,8 (4)
<b>Ez dira HCP n agertzen diren gaiak</b>	% 7,8 (4)	% 43,1 (22)	% 15,7 (8)	% 17,6 (9)	% 2 (1)
<b>Ez dira ICPn agertzen diren</b>	% 7,8 (4)	% 37,3 (19)	% 23,5 (12)	% 17,6 (9)	% 2 (1)
<b>Gai hauek data zehatzekin lotzeko joera, curriculum sistematikoki kontuan hartu gabe gertatzeko joera</b>	% 3,9 (2)	% 15,7 (8)	% 13,7 (7)	% 49 (25)	% 5,9 (3)

Adituen beharra, eta irakasleen prestakuntza aldarrikatzen dute eta komentatzen dute agian hori izan daitekeela instituzioetara eska daitekeena.

“Beharrezko denean (Ikastetxetik kanpoko adituek landu).” (1841 DBH)

“Ikastetxeko irakasleak eta aholkulariak lagundu, kanpoko aholkulariengandik laguntza eman, eta egon beharko luke pertsona berdintasunean pertsona espezialista bat.” (02A HH LH Em)

Hezkidetzan martxan jartzeko **baliabideak** direla eta, materialak prestatzeko laguntza eskatzen dute, eta hizkuntzaren erabilera ez sexisten irizpideak ezagutzea ezinbestekoa ikusten dute. Testu liburuak nola erabil daitezkeen eta zer begiratu behar den hezkidetzaren ikuspegitik ezagutzea behar gisa aldarrikatzen dute faltan botatzen baitute orientabideak izatea testu liburuen hausnarketa horretan.

“Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako irizpideak ezagutzearena danok landu beharrekoa da; Irudiaren erabilera ez-sexistari buruzko protokoloa danok landu beharrekoa da.” (0201 HH Em)

“Hizkuntzaren erabileran eta materialen aukeraketan.” (1840 DBH Em)

“Nahiz eta testu liburuak oso egokiak ez izan, umeek azter ditzakete eta konturatzea egokiak diren ala ez, espiritu kritikoa landu.” (08C LH Em)

Arduradunaren ezaugarriei buruz hitz egiten dutenean lanaren errekonozimendua izatea ezinbestekoa jotzen da, eta lan orduetan jaso nahi dutela formazioa diote. Modu horretan errekonozimendua lan orduen truke proposatzen da. Bere ustez, hezkidetzan **Curriculumean** txertatua egon beharko litzateke.

“Pero todos los responsables tienen que contar con horario para poder organizar el tema. No sólo los 2 o 3 primeros años y ahí te arreglas.” (05A HH LH Em)

“Programazioetan txertatu.” (0409 HH Em)

Gaia tratatu ahal izateko gaiarekiko **sentsibilizazioa** adieraztea ezinbestekoa dela aipatzen da kontrako efektua ez sortzeko. Genero estereotipoen inguruan lan serio bat egin beharko litzatekeela aldarrikatzen da.

“Ahalik eta irakasle kopururik handiena gaiarekin sentsibilizatu.” (1404 LbdH Em)

“Gaia aurretik landu egin behar da argi eta garbi ikasleei azaltzeko.” (1512 DBH Em)

“Genero estereotipo eta roletan jarri beharko litzateke indar gehiago.” (2017 HH LH Em)

“Lo que ponía antes, a veces no somos conscientes de que existan problemas. Consideramos que, hoy en día, están superados, y no es verdad.” (05A HH LH Em)

“Zenbait umeen dituzten aurreiritzietan indar gehiago jarri beharko litzateke.” (o821 HH Em)

23. taula

Zer egin daitekeen ikastetxeetan berdintasuna lantzeko eraginkortasun gehiagorekin (zuzendaritzak)

	ERABAT DESADOS	DESADOS	EZ ADOS EZ DESADOS	ADOS	ERABAT ADOS
Hezkidetzeta eta genero biolentziaren prebentziari buruzko prestakuntza berezitua	0	0	% 17,6 (9)	% 58,3 (28)	% 21,6 (11)
Genero biolentzia kontuan izango duen biolentziaren prebentziarako prestakuntza berezitua, perspektiba integralarekin	0	% 2 (1)	% 11,8 (6)	% 52,9 (27)	% 27,5 (14)
Landu behar diren gaiak kaltetu gabe, ikasgaietan gai hauek txertatzeko eta jorratzeko prestakuntza	0	0	% 13,7 (7)	% 54,9 (28)	% 25,5 (13)
Bizikidetzeta planaren ezarpena edo hobekuntza, gai hauek sistematikoki eta orokorki landuz	0	0	% 5,9 (3)	% 66,7 (34)	% 23,5 (12)
Tutoretza planaren hobekuntza gai hauengan honek duen eragina handitzeko	0	0	% 7,8 (4)	% 62,7 (32)	% 23,5 (12)
Ikastetxean gai hauek kontuan hartzen lagunduko duen aholkularitza berezitua izan	0	0	% 9,8 (5)	% 58,8 (30)	% 23,5 (12)
Arlo eta materien egitarauetan gai hauek beste bat balira bezala sartu	% 2 (1)	% 7,8 (4)	% 17,6 (9)	% 45,1 (23)	% 19,6 (10)
Gai hauek lantzeko ardura duten erakundeekin lankidetzeta handiagoa	0	0	% 15,7 (8)	% 58,8 (30)	% 17,6 (9)
Ikasgeletan gai hauek lantzeko erraztasunak emango dituzten materialak eskura izan	0	0	% 7,8 (2)	% 58,8 (30)	% 27,5 (14)
Hezkuntza sailaren inplikazio handiagoa gai hauen jarraipenean	0	% 2 (1)	% 9,8 (5)	% 56,9 (29)	% 13,7 (7)

Edozein kasutan, arreta berezia jarri beharko litzateke ikasleen artean gertatzen diren hartu-emanetan eta tratuan eta irudiak eta hizkuntza **errespetuz** tratatu behar direla aldarrikatzen da.

“*Tratar a alumnos y alumnas por igual. Detectar si hay problemas concretos para atajarlos.*” (3002 Batx Em)

“*Edozein pertsonetik errespetuan. Irudiak uste dut azken argitalpene-tan nahiko zainduta daudela.*” (0112 LH Em)

“*Egunerokotasunean, ikasleekiko trataeran.*” (1404 LbdH Em)

Batzuetan, hainbat kontutan ez dugula ezer aurreratu ematen du eta jolastokiak nola dauden okupatuta ikustea **ahalegin berezia** eskatu beharko lukeela diote, hala, ikastegi batzuetan zerbait egin dela baina ez dela nahikoa izan esaten dute eta ideia berriak sortu beharko liratekeela gai honen inguruan.

“*Oraindik, jolastokian esaterako mutilek futbol zelaia, saski baloi zelaia, eta frontoia hartzen dute jolasteko eta neskek beste zatietan egonean edo pasean ibiltzen dira.*” (2135 DBH Em)

“*Hasi beharko zen. Hasieran oinarritzko kontzeptuetan*” (1210 HH Em)

Alderdi guztietatik begiratura **irakasleen formazioan** arreta jartzea ezinbestekoa da, tresnak izan ditzaten hezkidetzaren gaiaren aurrean kokatzeko, eta errekurtsioak izateko. Askotan aurreiritziak etxetik ekartzen direnez familien formazio egokia bilatu beharko litzatekeela aipatzen da.

“*Argi daukat ikastetxean landu beharra dagoela, baina hezkuntza etxean hasten da, ondorioz gurasoak ere hezitu behar dira.*” (2610 DBH Gi)

“*Berriz ere, indarra jarriko nuke irakasleen formakuntza, gaur egun ez baita ona nahikoa.*” (0829 LH Em)

“*Formatu irakasleok. Familiak kontutan hartu eta eurekin ere lan egin.*” (0106 LH Em)

“*Indar gehiago familiekin lantzeko, material aproposak bilatzeko eta genero diskriminaziorik ez egoteko alderdietan jarri beharko litzateke.*” (0820 HH Em)

Formazioarekin batera, irakasle hauen ahotan bestelako aldarrikapenak ere egon dira, eta adibidez, irakasleen plantillaren finkotasun eza oztopoa bihurtzen dela diote.

“*Eskolak ia irakasle gehienak finkoak izatea (ni 3.zikloan nago eta 5 tuto-reetatik 4 ordezkioak dira.*” (0829 LH Em)

Formazioak zer jorratu beharko lukeen esaten dutenean honako erantzunak jasotzen dira: bullying eta sexua.

“*Bullying eta sexua.*” (2107 HH Em)

“*Jarrera sexista goiztiarrak detektatzen, frenatzen eta berbideratzen saiatzen naiz.*” (0409 HH Em)

Biolentziaren aurkako programak direla eta programazioan sartu beharko liratekeela esaten da, batez ere, protokoloak eraikitzen eta aplikatzen.

“En la utilización de algún protocolo.” (2407 DBH Gi)

“En protocolos de actuación.” (3004 DBH Batx Gi)

#### 4. laburpen-laukia

### Hezkidetzaren aurrean ikastetxeek dituzten beharrak eta zailtasunak

Kategoria	Erantzunen laburpena
<b>Berdintasuna nola landu beharko litzateke</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakasleen ustez Hezkidetzeta lantzea ikastetxeen ardura dela (% 69).</li> <li>- Arlo guztietan garatu beharreko edukiak direla (% 81,1k).</li> <li>- Irakasle espezialisten bidez.</li> <li>- Zuzendariak ez dute uste gai hauek ikastetxearen ardura izan behar direnik.</li> <li>- Zuzendariak zehar eduki bat dela diote.</li> </ul>
<b>Beharrak</b>	<p>Landu beharko litzatekeena baina formazioa falta da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- “Acoso en redes sociales”.</li> <li>- “Bullying homofobikoa”.</li> <li>- Harremanak bideratzeko ekintzak.</li> <li>- Genero indarkeriaren prebentzioa.</li> <li>- Estereotipoen analisisa.</li> <li>- Gazteen arteko harremanak.</li> <li>- Eta hizkuntzaren zaintza.</li> </ul>
<b>Eusko Jaurlaritzak egindako programak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Oso egokia,</li> <li>- beste instituzioekin bat egin.</li> </ul>
<b>Onartutako kritikak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakasle eta ikasleek ez dute hezkidetzan sinesten, hori dela eta gainetik lantzen da.</li> </ul>
<b>Eman beharreko pausoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zabaldu etapa guztietan.</li> <li>- Ikasleen sentsibilizazioa lortu eztabaiden bidez.</li> <li>- Denbora izan materialak prestatzeko.</li> <li>- Norbait liberatuta horrelako gauzak egiteko.</li> <li>- Orientazioa eta formazioa zereginak egiteko.</li> </ul>
<b>Hezkidetzeta lantzeko oztopoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- irakasleek ez dute errefusatzan gai horien lanketa.</li> <li>- hedabideen gainean lan egin.</li> <li>- Ez dute garbi testu liburuetan sexismoa dagoenik.</li> <li>- Indarkeriaren inguruan dauden hainbat gai tabu izan direla orain arte.</li> <li>- Prestakuntza falta gai horiek garatzeko.</li> <li>- Familien inplikazio falta.</li> <li>- Gaik ez du toki zehatz bat curriculumean.</li> <li>- Ikasmaterialak eta programa espezifikokoak landu behar.</li> </ul>
<b>Behar diren baliabideak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hizkuntzaren erabilera ez sexista ezagutzea.</li> <li>- Denbora gehiago materialak prestatzeko.</li> <li>- Pertsonetikiko errespetua.</li> <li>- Jolas tokiak zaindu.</li> </ul>

Laburbiltzen (ikusi 4. Laburpen-laukia): Orokorrean irakasleek eta zuzendaritza taldekoek uste dute Hezkidetzak ikastetxeen ardura dela eta gai horiek tutoretzan landu behar direla, eta hala, ikastetxeko aholkulari baten esku utzi behar dela uste dute. Horretarako ezinbestekoa da irakasleen formazioa hobetzea eta baliabide didaktikoak eskura uztea, eta fundamantazio teorikoan ikusi den bezala plan guztietan aipatzen da hori, baina martxan jartzea falta da.

Beraien formazio beharrak asetzeko honako gai hauek proposatzen dituzte: “acoso en redes sociales”, “Bullying homofobikoa”, harremanak bideratzeko ekintzak, genero indarkeriaren prebentzioa, estereotipoen analisia, eta hizkuntzaren zaintza. Instituzioak inplikatu beharko liriteke formazioan, eta hala, irakasleak, ikasleak eta gurasoei zuzenduta formazioa egin beharko litzateke.

Askotan ikastegietan hezkidetzarekiko irakasleen ardura falta nabarmena da, eta ezinbestekoa litzateke hezkidetzaren garapena etapa guztietan zabaltea. Lehenengo urratsak eman ahal izateko irakasle taldeko hausnarketa eta eztabaidak abiapuntua izan daitezke, eta ondoren materialen prestakuntza eta familien inplikazioa lortu beharko litzateke. Aipatzen dute interesgarria litzatekeela ikastetxe guztietan gai hauetan prestatutako irakasle bat egotea eta era berean, kanpoko aholkularitza bereziarekin kontaktzea. Hedabideek hezkidetzari kalte handia egiten diotela erraz ikusten dela aipatzen dute, baina liburuetan dagoen sexismoa askotan ez dela horren erraz ikusten eta sexismo hori identifikatu ahal izateko prestakuntza falta somatzen dutela, nolabait diskurtso egokia zabaldu da baina praktika onak ez horrenbeste. Familietan dagoen sexismoa nabaria da, baina nekez identifikatzen da irakasleen artean dagoena. Hizkuntzaren erabilera ez sexistak identifikatzea erabiltzen dituzten baliabideetan gehien arduratzen den gaia da. Gustatuko litzaieke baztertzeko irizpideak ezagutzea eta liburuak analisirako tresnak izatea. Kasu guztietan curriculum-ean integratzea eskatzen da, baina horretarako sentsibilizazioa eta errespetua behar dela diote.


### 4.1.2.3. Proiektu hezkidetzailleak

Atal honetan ikastetxeetako irakasle zein zuzendaritza-kideek lan egiten duten zentroetan hezkidetzaren inguruan martxan jarritako programen eta ekintzen inguruko balorazioak jasotzen dira; hala nola generoarekin zerikusia duten egun jakinetan jarduera bereziak antolatzen ote diren bai eta zer nolakoak izaten diren jarduera horiek; irakasleen adostasun maila hezkidetzaren inguruan aplikatzen diren programen inguruan; lan egiten duten zentroetan alderdi honetan egindako aurrerapen handienak zeintzuk diren bai eta indar gehiago zertan jarri beharko litzatekeen.

Irakasle zein zuzendaritza taldeetako kideek generoarekin **zerikusia duten egun jakinetan** (*martxoak 8, Emakumearen eguna; azaroak 25, emakumeen aurkako bortizkeriaren kontrako eguna; maiatzaren 17a, Lesbofobia, homofobia eta Transfobiaren kontrako eguna*) beren ikastetxeetan antolatzen dituzten ekintzei buruz galdetzerakoan, martxoaren 8ko emakumearen egunean eta azaroaren 25ean Emakumeen aurkako bortizkeriaren kontrako egunean antolatzen dituzte ekintza gehienak. Horrela, jaso ahal izan diren 144 erantzun inguruetakoa jarduera ia guztiak bi egun hauetarako antolatutako jarduerak azaltzen dituzte (ikusi 18. grafikoa eta 24. eta 25. taulak).

18. grafikoa

**Generoarekin zerikusia duten egun jakinetan ikastetxeetan antolatzen dituzten ekintzak**



24. taula

**Generoarekin zerikusia duten egun jakinetan ikastetxeetan antolatzen dituzten ekintzak. Irakasleak**

	IRAKASLEAK %		
	BAI	EZ	EZ DU ERANTZUN
<b>Martxoak 8: Emakumearen eguna</b>	33,4 (140)	58,2 (244)	8,3 (35)
<b>Azaroak 25: Bortizkeriaren kontrako eguna</b>	23,9 (100)	69,7 (292)	6,5 (27)
<b>Maiatzak 17: Lesfobia eta Homofobia kontrako eguna</b>	1,2 (5)	87,1 (365)	11,8 (49)
<b>Ekainak 28; Gay harrotasunaren eguna</b>	1 (4)	86,8 (363)	12 (52)

25. taula

Generoarekin zerikusia duten egun jakinetan ikastetxeetan antolatzen dituzten ekintzak. Zuzendaritza-kideak

ZUZENDARITZA KIDEAK %			
	BAI	EZ	EZ DU ERANTZUN
<b>Martxoak 8: Emakumearen eguna</b>	52,9 (27)	41,2 (21)	5,8 (3)
<b>Azaroak 25: Bortizkeriaren kontrako eguna</b>	27,5 (15)	60,8 (31)	11,6 (6)
<b>Maiatzak 17: Lesfobia eta Homofobia kontrako eguna</b>	3,9 (2)	82,4 (42)	13,6 (7)
<b>Ekainak 28; Gay harrotasunaren eguna</b>	-	84,3 (43)	15,6 (8)

Martxoaren 8an irakasleek antolatzen dituzten sentsibilizazio jarduera guztiak hainbat modutara lantzen dituzte (25. Taula). Horien guztien % 50 **hizketaldien bitartez** eramaten dira aurrera (World Cafe-ak antolatuz, klase hasieran egunaren inguruan gogoeta eginez edo iruzkinak landuz:

“ Emakumeetaz hitzegin /zereginak...” (0906 HH LH Em)

“Lectura de información sobre este día” (1106 LH Em)

Erantzunen % 18,7ak gogoeta egiteaz gainera esku-lanen bitartez (**kartelak, muralak** edo erakusketaz prestatuz) lantzen dute martxoaren 8a

“ Murales, conferencias” (1702 Batx DBH Gi)

“Tutoretza lana eta kartelak” (1504)

“Poemak Carmen Gil, Mural bat” (2020 LH Em)

Irakasleen % 11,2k dio **bideo emanaldiak** erabiltzen dituztela egun honetan...

“ Videos, charlas, actividades lúdicas” (1101 LH Em)

“Oso puntualak: bideoak, kantaren bat... “ (1843 DBH Gi)

“Charlas, videos, películas” (1705 Batx Gi)

**Tutoretza saioek** ere erantzunen % 13,7 osatzen dute eta bertan tutore bakoitzak libre erabakitzen du zer egin egun honetan. **Bestelakoak** diren jardueretan, eskolak zein irakasleek adostutako jarduerak eramaten dira aurrera eta erantzun guztien % 6,2 osatzen du. Bertan aurkitu daitezke adibidez adin txikiko ikasleekin aurrera eramaten diren jarduerak (ikusi 26. taula) ...

“ Kartela gelako atean jarri eta ume bakoitzak margotu eta etxera eramana)(“umekin hitz egin)” (0609 HH Em)

“Ipuin bat irakurri” (09B HH LH Em)

...Udaletxeak antolatutako tailerrak lantzea...

“Talleres organizados por el Ayuntamiento de educación para la igualdad” (3002 Batx Em)

...emakume zientzialariak gogora ekartzea...

“Se hace hincapié en las aportaciones de las mujeres a la educación y al saber en general” (1701 Batx DBH Em)

...irakasleen arteko bazkariak antolatzea...

“Bazkaria” (0905 LH Em)

...edo klasean otoitza egitea...

“Otoitza, kartelak” (2409 DBH Gi)

26. taula

Martxoak 8an antolatutako jarduerak

ANTOLATZEN DIREN JARDUERAK	PORTZENTAJEA (KOPURUA)
GOGOETAK	% 50 (40)
KARTELAK	% 18,7 (15)
BIDEOAK	% 11,2 (9)
TUTORETZAK	% 13,7 (11)
BESTELAKOAK	% 6,2 (5)

Azaroaren 25ean, Emakumearen aurkako bortizkeriaren kontrako egunean ere emakumearen egunaren tankerako jarduerak eramaten dira aurrera ikastetxeetan, baldin eta erantzunen arabera neurrian zerbait baxuagoa izan jarduera kopurua. Horrela, baldin eta Martxoaren 8an 80 erantzun inguru jaso badira, azaroaren 25ean erantzunak 50 ingurura mugatzen dira. Jardueren aldetik esan daiteke proportzioak zein jarduerak berdinak direla: hainbat praktiken bitartez gaiaren sentsibilizazio-jarduerak martxan jartzea ikasleen artean; nagusiak, gogoetak (klase hasieran egunaren aipamena eginez)

“Se comenta el día y por qué se celebra.” (3038 LH em)

“Mención al inicio del día.” (2410 DBH Gi)

...eta esku-lanen bitartez eguna gogoan hartzea izaten dira (**kartelak eta muralak** prestatuz...

“Erakusketak, kartelak egin” (1507 Batx DBH Gi)

“Egunaren garrantzia azpimarratzeko kartela jarri zen atean” (2022 LH Em).

...baita ere **bideo emanaldiak**...

“Bideo emanaldia eta horren lanketa”. (1511 Batx DBH Em)

“Bideoa: La luna en ti. Un secreto demasiado bien guardado”  
(0825 HH LH Em)

“Bideo bat jarri zen jolastokian.” (1851 Batx DBH Em)

...eta **bestelako ekintzak** lantzen dira egun honetan: udaletxearen edo fundazioek antolatutako tailerrak eta materialak...

“Se dio un taller por la Asociación Clara Campoamor” (1701 Batx DBH Em)

“Gasteizko Udalak sortutako materiala erabiltzen dugu.” (1508 DBH Gi)

“reflexión y zinezba” (2501 DBH Gi)

“Jarduera oso diferenteak: world-kafea, zine-forumak..Udalak antolatzen dituztenak” (15D DBH Batx LH Em)

... ikasleek beraiek sortutako ekimenak...

“Ikasleek egindako ekintzak” (1820 DBH Batx LbdH)

... testuen azterketak...

“Analizar textos”. (2713 DBH Gi)

...edo otoitza bera...

“Oración mañanas.” (2406 DBH Batx. Gi).

Gainerako bi egunetan, Maiatazaren 17 (Lesbofobia, Homofobia eta Transfobiaren kontrako eguna) eta Ekainaren 28an (Gay, lesbiana, bisexual eta transexualen harrotasunaren eguna) jasotako erantzunak nahikoa testimonialak izan dira. Hain zuen ere maiatzeko egunaren inguruan 6 aipamen egon dira eta bakarra ekaineko egunekoan, gehienbat azken egun honetarako ikastetxe gehienek amaitu egin dituztelako klase egunak.

Aipatu beharrekoa da aurkitu direla, erantzun oso gutxi batzuk, zeintzuk uste duten horrelako ekimenak behar baino gehiago egiten direla

“Gehiegi.” (2408 DBH Gi)

...edo helburuarekin ados dagoena baina dagoen lan-kargarentzat gainerako zama bat direla horrelakoak...

“La filosofía es buena, pero supone una cosa más para la que no se dispone de horario.” (05A HH LH Em).

**Programak aplikatzerakoan irakasleen adostasun mailari dagokionean**, jasotako erantzunen zenbateko nagusia *ados* edo *erabat ados* azaltzen da, baturak erantzun guztien % 60,4 osatuz. Hain zuzen ere programak aplikatzearekin ados azaltzen direnak erantzunen % 37 dira (135 erantzun) eta erabat ados % 23,4 (98). Bestalde, aplikatzearen desadostasuna azaltzen dutenak % 5,5 (23) dira, zeintzuen artean % 3,6k (15) erabateko desadostasuna adierazten duten. Baita ere, programa hauek diskriminazioaren aurkako borrokan eraginkorrak diren galderaren adostasun mailaz galdetzerakoan, gehiengoak baita ere positiboki erantzun du erantzunen % 51,3arekin. *Ados* % 37,7 (158) azaldu dira eta *erabat ados* % 13,6 (55). Bestalde, iritzi negatiboa dutenek erantzunen % 5,5 (23) osatu dute, aurreko galderan ere iritzi negatiboa eman duten zenbateko berbera. Horrela, emaitzen arabera irakasleek programen inguruan duten iritzia positiboa dela ondoriozta daiteke (ikusi 27. taula).

27. taula

**Irakasleen adostasun maila parte hartu duten hezkidetzak lantzeko programei buruz**

	ERABAT DESADOS	DESADOS	EZ ADOS EZ DESADOS	ADOS	ERABAT ADOS
<b>Garrantzitsua da programak aplikatzea</b>	% 4,1 (17)	% 1,4 (6)	% 8,4 (35)	% 37 (155)	% 23,4 (98)
<b>Programa hauek eraginkorrak dira diskriminazioaren aurkako borrokan</b>	% 3,6 (15)	% 1,9 (8)	% 16 (67)	% 37,7 (158)	% 13,1 (55)

**Ikastetxeek hezkidetzaren alorrean aurrerapenik** handiena zein alderditan eman duten irakasleei galdetzean, honakoak izan dira erantzunak (19. Grafikoa).


Zer erantzun jakin ez duten irakasleak erantzun guztien % 28 izan da (35 erantzunekin), horietatik erdiak (13) adierazi duelarik ezin zuela erantzun ikastetxean berria edo ordezkoa zelako. Aurrerapen handiena **hizkuntzan** egin dela azaltzen dutenek erantzun guztien % 10,4 osatzen dute (13 erantzunekin). Ikastetxean egindako lana azpimarratzen dute, oro har hizkuntza ez-sexistaren erabileran...

“*Lenguaje no sexista*” (1702 Batx DBH Gi)

“*En la utilización del lenguaje, respeto mutuo*” (1401 DBH Gi)

19. grafikoa

**Ikastetxean emandako aurrerapenik handienak**



... edota estereotipoak aldentzeko lanean ...

“*Usu del lenguaje; desterrar estereotipos.*” (2713 DBH Gi)

**Sensibilizazioa** eta kontzientziarioa azpimarratu dutenak erantzunen % 21,6 osatzen dute 27 erantzunekin. Ikastetxeak prestakuntzan eta sensibiltzate prozesua indartzen egiten duen ahalegina azpimarratzen dute

“*Irakasleriaren formakuntza eta sensibiltzazioan*” (2018 LH Em)

“*Orokorrean hezkidetzaren aldeko kontzientzia sortuz*” (1846 Batx)

...eta baita ere urtez urte ekimen berriak sartuz eskolaren dinamiketan...

“*Ikastetxe berria da eta urtero urtero sartzen ari da arlo desberdinetan agiri eta oinarriak, aurrerapenak urtero eta alderdi desberdinetan.*” (0404 HH Gi).

Sensibilizazioa espazioaren arlora eramaten da baita ere, jolas lekuen berrantolaketan kontzientzia sortuz...

“*Modu kontziente batean ez da eman, baina gauzak egiten dira: Adibidez patioa antolatze modua, espazio librea utziz, futbola guztiaren jaun eta jabe izan ez dadin.*” (0601 LH Em).

**Programak** edo ekintzak, eta ikastetxean praktikan jartzen diren jardura antolatuak dira eta 18 erantzunekin erantzun guztien % 14,4k osatzen dute. Multzo honetan aipatzen dira...

“*Sexu Afektibo Hezkuntzan arloko programa, Sexu Afektibo Hezkuntzan (Alternatiba), aspalditik lantzen dira, baita tutoretzan ere*” (1814 Batx DBH Em)

...Elkarbizitza programa...

“*Elkarbizitza plana oso garatua dugu eta sortu berriak gara Hezkidetzan plan batean*” (1837 DBH Em)

...edo bestelako programak...

“*Generación de un Plan de Igualdad de acuerdo con el plan director del Gobierno Vasco.*” (2503 LbdH Batx Gi).

Aurrerapenik handiena **curriculumaren barnean** edo eskola dinamiketan hezkidetzan irizpideak sartu izana uste dutenak erantzun guztien % 8,8 izan da 11 erantzunekin, eta bertan azpimarratzen diren erantzun nagusiak irakasle zein zuzendariek hartutako sentsibilizazioa eta ardura azpimarratzen da: irizpideak ezartzeko orduan...

“*Ekintza guztietan berdintasunaren irizpideak errespetatzen dira.*” (0821 HH Em)

“*Zuzendaritzak gaiarekin ekiteko urteetako ardura hartu izana. Hausnarketak egiten ditugu, bilerak eta ekintza batzuk*” (1501 DBH Em)

...materialen aukeraketa egiteko orduan...

“*Testu liburuen aukeraketan, ez-sexistak izateko*” (0607 HH Em)

...edo harremanen kudeaketan...

“*Gehien lantzen dugun alderdia harremana denez, ikasleen arteko harremanetan esango nuke*” (2135 DBH Em).

**Bestelakoak** diren aurrerapenen artean, eta erantzunen % 8 osatzen dutenak honakoak aurkitzen dira: ikastetxeak eskaintzen dituen laguntzak edota arretak zerbitzuak arriskuan egon daitezkeen ikasleei babesa eskainiz

“*Ikasleen babesa*” (0212 LH Em)

“*Poner en contacto a alumnas en posibles situaciones de riesgo con los educadores de calle para participar en actividades formativas en los centros cívicos*” (1409 DBH Em)

“*En ‘Bullying’ en general.*” (2607 DBH Gi).

Multzo honetan baita ere hezkidetzan jada normalizatua eta egunerokotasunean barneratua den zerbait ikusten dutenak ere azaltzen dira

“*Es algo ya normalizado*” (0508 LH Gi)

“*Normalidad y naturalidad*” (2405 DBH Gi).

Azken talde batean, aurrerapen gutxi ikusten dutenaren iritzia dutenen multzoan 7 erantzunekin, erantzun guztien % 5,6 osatzen dute. Bertan iritzi nagusia da hezkidetza planak hasi berriak direla, eskola berria delako.

*“Hezkidetza Planaren hastapenean gaude ikastetxe berria delako eta landu gabeko gaia da eskolan.”* (0701 LH Em)

*“Estamos empezando”* (0604 HH LH)


...edo aurrerapenak eman bai baina horiek nahikoak ez direlako oraindik.

“Nire ustez, aurrerapenak izan dira, baina oraindik ez da nahikoa” (0810 LH Em).

Zuzendaritza taldeetako kideek galdera honi beroni ematen dioten erantzunari dagokionean, hau da, lan egiten duten ikastetxean aurrerapen handiena eman den arloa zein den adieraztean, honelako erantzunak eman dituzte (20. grafikoa).

20. grafikoa

**Zuzendaritza-taldeko kideen iritzia ikastetxean egindako aurrerapen handienaz**



Jasotako erantzunen gehiengoa % 61,5 osatzen duena 16 erantzunekin, **sentsibilizazio** eta kontzientziazio arloan uste dute eman dela aurrerapenik handiena (ikusi 21. grafikoa). Horrela, sentsibilizazio maila, adibidez, klaustroak hartutako kontzientziazio mailan adierazten dute...

“Klaustroak onartu duela arlo honetan lan egin behar duela” (08A HH LH Gi)

*“Lehenengo pausoa eman da (garrantzitsuena). Klaustroak gai honetan zerbait egin behar dela onartu du, eta proiektu bat aurkeztu du.”* (08B HH LH Gi)

*“Klaustroaren partaidetza, arazoak arduratzen gaitu”*  
(15A DBH Batx LbdH Gi)

...jostailuak ikasleekin konpartitzeko moduan...

“Espazioak, jostailuak, jarduerak... konpartitzen dira. Taldekatzeko momentuetan pertsona hartzen da kontuan, ez sexua.” (02A HH LH Em)

...edota hezkidetzaren alorrean oraindik asko dutela ikasteko adieraztean...

“Oraindik hastapenetan gaude gai honetan. Ez gara jabetu hezkuntzan duen eragina.” (28A HH LH DBH Batx Em).

**Hizkuntza** aurrerapenak eman izana aipatu dutenak erantzunen % 11,5 osatzen dute 3 erantzunekin eta hizkuntzaren trataera zaindu izana azpimarratzen dute

“Hizkuntza ez sexistaren erabileran aurrera eta hobetu dugu, nahiz eta irizpiderik ez izan. Indibidualki horren hausnarketa egin dugu. Hori uste dut behintzat.” (21E)

“Hizkuntzaren trataeran edo erabileran, eskolako bizitzan nesken eta mutilen presentzia orekatzen” (09C HH LH Em).

Azkeneko multzoa, **parte-hartzea** izena eman zaiona, ikastetxean eransketaren bat egin izana azpimarratzen dutenen multzoa izango litzateke, hori ulertuta hezkidetzaren alorrean programa bat martxan jarri edota ikastetxearen organigraman figura berriak ezarri. Horrela, talde honek erantzunen % 19,2 hartzen du 5 erantzunekin eta alde batetik ikastetxean programak martxan jarri izana aipatzen dutenak azaltzen dira.

“Sexu Afektibo Hezkuntza asignatura daukagula” (18F Batx DBH Gi)

“Nahiko programan sartuta egon ginenean” (01A HH LH Gi)

...eta bestetik ikastetxean berdintasun alorrean arduradunak edo taldeak sartu izana aipatzen dutenak...


“Hezkidetzeta lantzeko arduradun bat dagoela eta berdintasunerako beste bat”. (14A DBH LbdH Em)

“En hacer un equipo de igualdad.” (25A DBH Batx LbdH Gi).

Indar gehiago zein alderditan jarri beharko litzatekeen galderari, zuzendaritza taldeetako ki-deen erantzunak honelakoak izan dira (21. grafikoa):

21. grafikoa

**Indar gehiago jarri beharko litzateke zuzendarien ustez**



Jaso diren erantzunen sailkapenaren arabera, zuzendaritza taldeetako kideen % 31,5ak (6 erantzunekin) ikastetxeetan **ikasleen sentsibilizazioan** jarri beharko litzateke indar gehiago, hori ulertuta ikasleen arteko harremanak lantzean

“*Ikasleen arteko harremanetan*” (o8B HH LH Gi)

“*Hizkuntzaren trataera, ikasleen arteko harremanetan (gatazkak kudeatu generoaren ikuspegitik ere)*” (o8C LH)

...prebentzio planak aurrera eramanez...

“*Durante el 2014/15 acciones de prevención y formación al alumnado*” (11B HH LH Gi)

...edota komunikabideen eragina hobeto aztertuz...

“*komunikabideen eragina*” (o9A)

Erantzunen % 21aren arabera 4 erantzunekin, **irakasleen prestakuntza** da indar gehiagorekin landu beharko litzatekeena, bai beharrei aurre egiteko

“*Irakasleen formakuntza indartu, gizartean agertzen diren ereduak aldatzen: telebistan...*” (o9B LH Em)

...bai eta alor honetan irakasleengan motibazioa pizteko ere bai...

“*Irakasleei gai hauek tratatzeko beharra eta gogoia piztea, eta horretarako materiala izatea.*” (14A DBH LbdH Em).

Gaineranzko sailkapenen arabera 2 erantzunek, % 4 osatzen dutena, **familiekin lankidetzaren harremanak sortu** beharko lirateke...

“Gurasoekiko lankidetzaren” (15C DBH Batx LH Em)

“Familien esparruan, gizarte mailan.” (18E Batx DBH Em)

...eta beste hainbatentzat hezkidetzaren ardura **ardura integrala da**, alor guztietan lan egitea eskatzen duena.

“Gai honetan alderdi guztiak garrantzitsuak dira. Guztien lanketa egingo nuke.” (21E DBH LH HH Em)

“Arlo guztietan landu behar” (18F Batx DBH Gi).

**Laburbilduz** (ikus 5. laburpen-laukia), jasotako datuak oro har hartuta, ondorio bezala esan daiteke ikastetxeetan jarduerak gutxi lantzen direla hezkidetzaren inguruan eta lantzen direnak emakumearen egunean egiten direla. Egiten direnean eskola zehaztuta egiten dira, gaiarekiko sentsibilizazioa modu berezian lantzen dutenetan. Egiten diren jarduerak gogoeta lanak izaten dira gehienbat, aipamen, iruzkin edo eztabaida moduan. Baita ere laguntzen dira eskulanean bitartez, kartelak eta muralak prestatuz. Beste egunei buruzko jarduerak oso modu testimonialean egiten dira, egiten badira.

Ikastetxeetan hezkidetzaren inguruan antolatzen diren programak aplikatzearen garrantziaz, irakasleek adostasun altua edo oso altua adierazten dute. Horrela, ondorioztatu daiteke egozki ikusten dutela horrelako programak aplikatzea. Era berean, programa horien eraginkortasunaz baita ere adostasun maila altua adierazten dute oro har, baldin eta kopurua baxuagoa bada ere. Eraginkortasunaren inguruan beraz badirudi zalantza gehiago sortzen dela irakasleen aldetik.

Ikastetxeetan hezkidetzaren lortutako aurrerapen handienak zehazteko orduan, baldin eta irakasleen artean ezjakintasuna nagusi izan bada ere, erantzunen gehiengoa sentsibilizazioan oinarritu da. Horrela, badirudi azken urteotan sortutako ekimen eta programek lortu dutela bai klustroetan bai eta klaseak antolatzeko moduan ere bai gai honekiko begirada lantzea.

Irakasleekin eta ikasleekin artean erabiltzen den hizkuntzaren erabilerekin ardura ere hartzen da ikastetxeek emandako aurrerapen garrantzitsu bezala. Horrela, badirudi orain arte lantutako programek eraginkortasuna izan dutela irakasleekin eta zuzendaritza-kideekin hezkidetzaren ikuspegia lantzeko orduan, egunerokotasunaren aurrean sentsibilizazio handiagoa lortuz hezkidetzaren alorrean bai eta beren jarduna lantzeko orduan, hizkuntzaren erabilera zaintzeko adibidez.

Bestalde, zuzendaritza-kideekin ustez, irakasleekin prestakuntzan baino gehiago, hezkidetzaren inguruan indar gehien ikasleekin sentsibilizazioa lantzen jarri beharko litzateke, komunikabideekin eragina landuz edota planak antolatuz honen inguruan, esaterako. Era berean eskola eta familaren arteko harremana gehiago lantzea edota hezkidetzaren alor integral gisa hartzea dira lantzea eskatzen dutena.

## 5. laburpen-laukia

### Hezkidetzaren inguruan egiten diren ekintzak

Kategoria	Erantzunen laburpena
<b>Jarduerak Hezkidetzaren inguruan</b>	Gaiarekiko sentsibilizazioa modu berezian lantzen duten ikastetxeetan lantzen dira eta lantzen direnak emakumearen egunean egiten dira, aipamen, iruzkin edo eztabaida moduan. Baita ere laguntzen dira eskulanean bitartez, kartelak eta muralak prestatuz. Beste egunei buruzko jarduerak oso modu testimonialean egiten dira, egiten badira.
<b>Programak aplikatzearen garrantziaz</b>	Irakasleek adostasun altua edo oso altua adierazten dute. Horrela, ondorioztatu daiteke egoki ikusten dutela horrelako programak aplikatzea.
<b>Programen eraginkortasunaz</b>	Adostasun maila altua adierazten dute oro har, baldin eta kopurua baxuagoa bada ere. Eraginkortasunaren inguruan beraz badirudi zalantza gehiago sortzen dela irakasleen aldetik.
<b>Ikastetxeetan lortutako aurrerapen handienak</b>	Sentsibilizazioan oinarritu dira; badirudi azken urteotan sortutako ekimen eta programek lortu dutela bai klaustroetan bai eta klaseak antolatzeke moduan ere gai honekiko begirada lantzea. Irakasleekin eta ikasleen artean erabiltzen den hizkuntzaren erabilerarekiko ardura ere hartzen da ikastetxeek emandako aurrerapen garrantzitsu bezala.
<b>Indar gehiago jarri beharko litzateke</b>	Sentsibilizazioa eta prestakuntza gehiago landu beharko lirateke, komunikabideen eragina landuz edota planak antolatuz honen inguruan, esaterako. Era berean eskola eta familaren arteko harremana gehiago lantzea edota hezkidetzak alor integral gisa hartzea dira gehiago lantzea eskatzen dutena.

### 4.1.3. Eskolaren eredu hezkidatzailea

Alor honetan derrigorra zen jakitea, ikastetxeetako zuzendari eta irakasleei galdetu zitzaizkionean, Hezkidetzan zein rol jokatzaren zuten irakasleek, ikasleekin zuzen zuzenean aritzen zirenean. Garrantzitsua zen ezagutzea zein inportantzia ematen zioten hizkuntzari, erabiltzen zuten material didaktikoari, edo ikastaldearen kudeaketan, zein tutoretza estilo, lidergo edo parte-hartze mota sustatzen zuten geletan. Beste aspektu bat irakasleen prestakuntzari zegokiona zen, ea behar ote zuten halakorik. Eta gai ote ziren, sentiberatasuna ote zuten desberdintasunak detektatzeko. Eta bukatzeko, tutorearen beste lan inportante bat dena, ea ikasleak orientatzerakoan nola jokatzaren zuten. Denak galdera zabalaren bitartez burutu ziren eta zuzendari zein irakasleek modu irekian erantzuteko aukera izan zuten.

Ahots edo testigantzen irakurketari laguntzeko argitu beharra dago bakoitzaren amaieran zehazten dela zein ikastetxetako den, lan egiten duen maila eta sexua.

#### 4.1.3.1. Irakasleen rola

Irakasleen rolaz zuzendariari galdetu zitzaizkionean, oso gutxi erantzun zioten itaunari, hiruk baino ez eta ikastetxe berekoak. Denak oso baikor agertu ziren irakasle taldearen inplikazioa aitortuz:

“*Klaustroaren erantzuna oso egokia da, parte hartzailea*” (15A DBH Batx LbdH Gi).

“*Klaustroaren inplikazio maila oso altua da*” (15C DBH Batx LH Em)

Tenore berekoak izan ziren emandako erantzunak galdetu zitzaizenean ea irakasleek gai hauek lantzea errefusatzen zuten haien funtzioa ez zela uste zutelako. Izan ere, halako galdera ezkorriari desadostasuna adierazi zioten zuzendarien % 70ak baino gehiagok (22. grafikoan).

Erantzun duten Haur Hezkuntzako irakasle gutxien artean, berriz, iritzien aniztasuna bistakoa da. Badago ezagutzen ez duenik bere ikastetxean erabiltzen dituzten baliabideak. Hala ere, sumatzen da banakako lana dela hezkidetza ikur bilakatu duten irakasleena. Ahots baten arabera, gainera, ez omen da naturaltasunez tratatzen.


“*Irakasle batzuk kontutan hartzen dituzte aurrean izendatutako irizpideak*” (0908 HH Em)

“*Beste irakasleekin modu berean lan egin nahiko nuke*” (0908)

“*Gai naturalitateaz tratatu*” (0909 HH Em)

22. grafikoa

**Irakasleek gai hauek lantzea errefusatzen dute haien funtzioa ez dela uste dutelako, zuzendarien iritziz.**



Umeak koskortuz doazen heinean, euren irakasle direnek berea den zereginaz iritzi zehatzagoa adierazten dute. Erantzun duten Lehen Hezkuntzako 12 irakasleetatik gehienek guztiz barneratuta daukate bat egiten dutela gaiarekin, eta hala jokatzeko dutela euren lanean, nahiz eta norbait zalantzarok agertu bere egindakoaz edo irakasle gazteagoen formazio espezifikoa:

“*Irakasle guztia gai honekin guztiz kontzientziatua dago*” (0406 LH Em)

“*Denak umeak dira, eskubide eta eginbehar berberekin*” (0813 LH Em)

“*Protokoloak edo programak ezagutu ez arren, hezkidetza da nagusi nire pentsatzeko eran, beraz, nire lan egiteko moduan ere bai*”. (0109 LH Gi)

*“Nire ustez berdintasunean tratatzen ditut baina seguraski errealitatean ez da horrela” (0827 LH Gi)*

*“Aspaldian sentsibilizatzeko tailerrak burutu ziren. Irakasleen barruan hezkidetzak bere leku propioa betetzen du. Orain etorri diren berri hauek ez dute aukerarik izan gogoeta egiteko. Horrek ez du esan nahi sentsibilitate hori ez dutenik” (1203 LH Gi)*

Hala ere, nabarmena da euren ardura zehazten dutenean eskolak ezin dituela bete beste esparru batzuetako hutsuneak, familia, komunikabideak edo gizartean hedatutako ereduak, oro har.

“*Eskolako lana ez dela nahikoa, are gehiago, alferrikakoa bihur daiteke familia, gizarte komunikatibo irudietan,... e.a, ez bada garatzen ere” (0112 LH Em)*

*“Etxean eta kalean dituzten estereotipo sexistak klasean asko lantzen ditugu baina hauek famili jakin batzuetan oso nabariak dira. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna landuz” (0406 LH Em)*

#### 4.1.3.1.1. Hizkuntza

Hizkuntzak errealitate aldakorak dira eta, sasoiari sasoiari, premia berriei erantzuna bilatze-ko, hiztunek aldaketok burutzen dituzte, edozein izanik esparrua. Berdintasunaz dihardugun honetan, badirudi hizkuntza ere egokitu behar duela gaur egungo gizarteak, sexua dela eta, diskriminazioa ekiditeko egiten duten ahaleginari (ikusi 6. laburpen-laukia).

Zuzendari bik eta hamabost irakaslek baino ez diote erantzun galdera honi eta gai korapilatsu eta polemikoa azaleratu dela dirudi. Denek hizkuntza zaintzen dutela diote, zuzendari nahiz irakasleek, diskurtsoaren protagonistak emakumezkoak zein gizonezkoak izan daitezen ahalegintzen dira hiru lagun eta desbideratzerik balego, zuzendu egiten du lehenbailehen, irakasle baten esanetan:

“*Hizkuntza zaintzen dugu, adibideak ipintzerakoan emakumea kontutan hartzen dugu, material berria esaterakoan, Umeen delegatuak neska/mutilak dira”.* (09B HH LH Em)


*“Utilizo cambio de roles en mis ejemplos (amo de casa y mecánica); Cuido el lenguaje escrito en mis comunicaciones internas o en circulares al profesorado y a las familias. Utilizo frecuentemente la palabra personas”.* (2502 LbdH Em)

*“En no dejar pasar cualquier comentario por mínimo que sea que pueda menospreciar a un compañero y actuar a nivel de centro muy rápido formando y corrigiendo al alumno”.* (3005 DBH Em)

Datu kualitatiboak argiak badira, datu kuantitatiboek berretsi baino ez dute egiten hizkuntza ez sexistaren erabilera. Irakasleen % 90 inguruk aitortzen du hori dela bere jokabidea eskolak ematerakoan (23. grafikoan).

23. grafikoa


**Hizkera ez-sexista erabiltzen duten irakasleak azalpenak ematerakoan edo adibideak jartzerakoan**



Hala ere, gorabeherarik handiena gaztelerazko generikoak sortu du. Datu estatistikoek emandako irudia ere halakoa da. Izan ere, maskulinoa orokortzat erabiltzen ez duten irakasleak ez dira % 55era heltzen, horretan desadostasuna adierazi dutenak % 10 baino zerbait gehiago dira eta besteek esan daiteke ez dutela iritzi formaturik (24. grafikoa).

24. grafikoa

**Taldeari hitz egiteko maskulinoa orokortzat erabiltzen ez duten irakasleak**



Datu kualitatiboei begiratu ezker, dirudienez, euskaraz eta ingelesez ez dute arazorik ikusten; bai, ordea, gazteleraz. Eta honen inguruan emandako iritziak bi multzo handitan bana genitzake, maskulino generikoa erabiltzen dutenena (6 lagun) eta modu hori errefusatu dutenena (3 lagun). Hauetariko bik femeninoa gehituta edo generikoa erabiltzeko ahalegina egiten dute; eta hirugarrenak apustu berri bat egiten du, hau da, sexuen gehiengoari erreparatuta, maskulinoa eta femeninoa. Maskulinoa erabiltzea, neskak eta mutilak elkarrekin daudenean, gizartean onartua dago. Femeninoa, ostera, neskak eta mutilak elkarrekin daudenean, zeharo apurtzailea da, mutilek – ezta neska askok ere- ez baitute euren burua kategoria horren barruan ikusten, gutxiago izanda ere ez.

“Euskaraz ez da generoa bereizten, beraz, hitz egiterakoan ekiditen dugu arazo bat”, (2812 DBH Em)

“Nire saioak edo ingelesez edo euskeraz direnez ez dugu normalean ez dugu “maskulino generikorik” erabili beharrik”. (0828 Gi)

“Euskaraz, zorionez, ez dago “maskulinoa” orokortzat. Gaztelaniaz dauden formulak ez zaizkit gustatzen baina ez dut erabiltzen ikaslee-kin. Ingelesez, dauden formulak sexismoa ekiditeko erabili eta azaltzen ditut”. (1801 Batx DBH Em)

“Lengoaia zaintzeko ahalegina egiten dela uste dut (gaztelaniaz)” (1404 LbdH Em)

“Gaztelania generiko erabiltzen du bi sexuak adierazteko” (1708 DBH Em)

“GAZTELERAZ MASKULINOA GENERIKOA DA eta ez du emakumerik baztertzen; kultura “sexista” da, inoiz ez HIZKUNTZA. Beste irtenbide badaude eta ez bakarrak maskulino generikorik ez onartzea”. (1850 DBH Em)

“Azken galderari dagokionez, euskaraz hitz egitean ez dago arazorik ez dagoela, ez baita genero bereizketarik, baina gaztelera ez dut esaten ‘vosotras’, bi sexuetakoak (¿?) daudenean ‘vosotros’ baizik”. (2610 DBH Gi)

“El masculino es el género no marcado, por lo que puede expresar también el femenino. Es un proceso de economía lingüística que no debe ser interpretado como discriminatorio (hablamos de género no de sexo)”. (3003 Batx. Em)

“A nivel de lenguaje cuando se emplea el masculino para referirnos a un grupo mixto, es neutro. Luego no es sexista; el idioma es así”. (3005 DBH Em)

“Baieztapenean argitu behar dut, euskaraz ez dagoenez maskulino orokorra, ez dago arazorik. Baina gaztelaniak, gehienetan, maskulino orokorra, erabiltzen dut”. (0823 LH Em)

“Euskaraz generorik ez dago eta horrek asko errazten du. Hala ere, beti saiatzen naiz maskulinoa soilik ez erabiltzen”. (1811 DBH Gi)


“Bai. Ez dut maskulino erabiltzen, generikoa baizik”. (1851 Batx DBH Em)

“Si la mayoría son chicos utilizo el masculino, si la mayoría son chicas, el femenino”. (2611 DBH Em)

Gai eztabaidagarria dela argi utzi dute aurreko testigantzek. Agian horregatik, irakasleei galdetu zaienean ea aurrerapenik eman den hizkuntza ez sexistaren usuan euren ikastetxeetan ia % 20ak baino ez du aldaketarik sumatu (25. grafikoan).

25. grafikoa


**Ikastetxeetan emandako aurrerapena hizkuntza ez sexistaren erabileran, irakasleen iritziz**



Honekin lotura zuzena dute hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatzekotan, azkeneko urteetan gauzatu diren protokoloak. Jarraitzeko irizpiderik duten galdetu zaienean oso datu desberdinak jaso dira zuzendariek edo irakasleek erantzun dutenean. Zuzendarien esanetan, ia % 40 dira; irakasleenetan, ostera, 10 puntuko aldea dago (26. eta 27. grafikoetan).


26. grafikoa

**Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako irizpideak dauzkaten ikastetxeak, zuzendarien iritziz**



27. grafikoa

**Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako irizpideak dauzkaten ikastetxeak, irakasleen iritziz**



6. laburpen-laukia

**Hizkuntzaren zaintza**

Kategoria	Erantzunen laburpena
<b>Zuzendari eta irakasle denek zaintzen dute hizkuntza, hezkidetzarekin bat etor dadin, sexismoa ekiditeko</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Emakumeei protagonismoa emanda adibideetan</li> <li>– Irakasleen desbideratzeak zuzenduta.</li> <li>– Ikasgeletako karguak modu orekatuan banatuta</li> <li>– “Emakumeenak” izan diren zereginak gizonezkoei esleituta (“amo de casa”)</li> <li>– Komunikazio instituzionalean oso kontuan izanda hizkuntza ez sexista</li> <li>– Pluralean, genero ukitua duten hitzak ez erabilia eta, horien ordeaz, GENERIKOAK: “personas”.</li> </ul>
<b>Bi sexuei erreferentzia egiteko, gaztelera generiko plurala erabiltzerakoan, bi postura antzematen dira</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– 2/3ak gaztelera MASKULINO GENERIKOAREN DEFENTSA egiten du: “los alumnos”, neskek eta mutilak izanda</li> <li>– 1/3ak gaztelera MASKULINO GENERIKOA arbuaitzen du: “el alumnado” hobesten du</li> <li>– Irakasle bakarrak, ordea, bi sexuetoak egonda ere, neskek gehiago direnean, “las chicas” esaten du. Mutilak gehiago direnean, “los chicos”.</li> </ul>
<b>Ikastetxeetan aurrerapantekin ote da hizkuntza ez sexistaren erabilera?</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Irakasleen % 20k bakarrik ikusi du hori bere eskolan</li> </ul>
<b>Hizkuntza ez sexistaren erabilera ikastetxeetako protokoloen ezarpenaz eta efikaziaz</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Zuzendarien % 40 ados dago</li> <li>– Irakasleen % 30 bakarrik dago ados</li> </ul>

#### 4.1.3.1.2. Material didaktikoak

Zortzi ikastetxetako zuzendariak eta 13 irakasleek idatzi dute Hezkidetza lantzeko erabiltzen dituzten materialei buruz. Lehenek aipatzen dituzte bideoak, filmak, liburuak eta artikulak. Baita tutoretza saioak eta ikasleen asanbladak ere horretarako erabiltzen dituztela gehitzen dute. Horietan hainbat programa lantzen dituzte.

“Bideoak, filmak, artikulak...” (18E Batx DBH Em)

“Hezkidetza, lantzeko ditugun materialak (liburuak, pelikulak, ...) tutoretza, ikasleen asanblada...” (02A HH LH Em)

“Tutoretza klaseetan hainbat programa garatzen dira, mailaren arabera” (15D DBH Batx LH Em)

“PROAN ere lantzen dira” (11C HH LH Em)

“Eusko Jaurlaritzak dituen protokoloak (bullying,...). Berritzegunetik esandakoak. Aurten Hezkidetza mintegian gaude eta hor jasotzen dena irakasleei pasatzen diegu eta eskolako web orrian zintzilikatzen dugu” HEZKIDETZA TXOKOAN ([www.cervantesgasteiz.hezkuntza.net](http://www.cervantesgasteiz.hezkuntza.net)). (08C LH Em)

“Ikastetxean Sexu Afektibo Hezkuntza irakasten da DBH 1.mailatik 4. Mailara” (18D Batx DBH Em)

Irakasleen testigantzak, berriz, aurrekoez gain, beste material batzuk zehazten dituzte, esaterako, fitxak, testuliburuak, editorialen bat eta irakasleek sortutakoak. LHko bi irakaslerentzat oso inportantea da materialak zaintzea eta arretaz jarraitzea gertatutakoa. Badago HHko irakasle bat ez dakiena ere zer darabilten bere ikastetxean eta LHko eskola berri batekoa, zeinean hasi behar duten planak sartzen:

“Errutinak eta errutinetako fitxak”. (2616 HH, LH Em)

“Norberarenak” (0404 HH Gi)

“Zerbait desegokia edo susmagarria ikusten dugunean argitzen saiatzen gara”. (0821 HH Em)

“Saiatzen gara materialak kontutan hartzen (rolak)” (0906 HH LH Em)

“Testu liburuak, irakasle taldeak prestatutako materialak eta erakundeek ematen dizkigutenak” (0110 LH Gi)

“Txanela globalizatua eta irakasleok sortzen edo aurkitzen ditugunak” (2123 LH Em)

“Bakoitzak prestatzen duena (prestatzen bada); Testuliburuak lantzeko (gai batzuk oinarrituta)”. (2612 LH Em)

“Ikastetxeak lehen hezkuntzan lau urte besterik ez ditu eta pixkanaka pixkanaka sartu behar dira planak”. (0410 LH Em)


Hezkidetzta lantzeko materialak inportanteak dira, baina horiek bezain garrantzitsuak bilaka daitezke ikasleek egunero darabiltzatenak. Gogoan hartzekoa da, beraz, ikasmaterialen aukeraketan Hezkidetzta irizpide inportantea dela irakasleen heren baten iritziz (28. grafikoa).

Lanbide Heziketako irakasle bakarrak erantzun dio galdetutakoari eta indarra pertsonengan jarri du, umiltasunez lan isil bezain esanguratsua egingo dutenengan:

“ *Recursos humanos y no sólo materiales: personas motivadas para reflexionar y poner en marcha iniciativas diminutas pero significativas*” (2502 LbdH Em)

28. grafikoa

**Ikastetxean hezkidetzaren ikuspuntua kontuan hartzen da testuliburuak eta ikasmaterialak aukeratzeko, irakasleen iritziz.**




Eskura duten materialaz, askotan gertatzen den legez, oso bestelakoa da zuzendariek eta irakasleek duten pertzepzioa. Horrela, zuzendarien % 60 baino gehiagok baieztatzen dute euren ikastetxeetan badagoela materiala Hezkidetzta, erantzunkidetasuna eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa lantzeko. Berriz, irakasleen artean datua herenera jaisten da, % 20ra ez delako heltzen (29., eta 30. grafikoean).

Irakasleek erabiltzen ditzute merkatuan eskaintzen diren materialak eta instituzioetatik sortutakoak, baina programa bereziak behar direla aldarrikatzen dute, batez ere tutoretzetan erabiltzekoak (ikusi 7. laburpen-laukia).


29. grafikoa

**Hezkidetzta, erantzunkidetasuna eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa lantzeko materialak dituzten ikastetxeak, zuzendarien iritziz**



30. grafikoa

**Hezkidetzari eta biolentziaren prebentzioari buruzko informazioa emateko edota sentsibilizazioa bultzatzeko materialak, irakasleen iritziz.**



7. laburpen-laukia

**Material didaktikoak**



#### 4.1.3.1.3. Ikasgelaren kudeaketa: parte hartzea eta lidergoa, tutoretzak

Irakasle baten zereginen artean esku artean duen taldearen kudeaketa dago eta, gelako heldu esanguratsu lez, badu zer esanik eta zer eginik edozein gaitan eragiteko, baita Hezikidetzan ere. Euren esku dago lan giro on eta aproposa sortzea, ikasleak gustura senti daitezen, eta lagun arteko harreman estilo sana eratzeari. Denbora eta espazioa antolatzea ere bere ardurapekoa da, ikasleak taldekatzeko moduan edo arauak ezartzea. Azken finean, bera da taldearen gidari eta eredu, zuzenean nahiz zeharka, eta, neurri batean, ikasleak bera denaren ondorio izango dira.

Galdetu zitzaienean zuzendariak zein baliabide zeuzkaten euren ikastetxeetan eta zein alderditan jarriko zuketela indar handiagoa, erantzun zuten 6 lagunek arteko batek kontzientzia handirik eza bota zuen arazo moduan (HH eta LHko irakasleengan). Beste batek zioen programa espezifiko batean lantzen zutela. Eskola bereko zuzendari bik azpimarratu zuten arlo guztietara, irakasle guztiek eta curriculumean txertatu beharra zegoela. Bosgarrenak, berriz, aisialdia gogoan izan behar zela, jolas orduetan eta eskolaz kanpoko ekintzetan. Baita, beste batek, jantokian lantzen zutela. Gazteentzako eskaintza duten ikastetxe bateko zuzendariak, ordea, tutoretza orduak ikusi zituen egoki indartzeko. Izan ere, tutoretza oso saio aproposa ikusten dute zuzendariak eta irakasleek aurreko ataletan behin baino gehiagotan frogatu ahal izan dugun moduan.

“*Creo que no somos muy conscientes*” (05A HH LH Em)

“*Se trabajan en PROA*” (11A HH LH Em)

[Arlo] “*Guztietan*” “*Irakasle guztiekin*” “*Gai hau sustraitu behar da gure kurrikulumean*” (02A HH LH Em)

“*Poner más esfuerzo en tiempos libres (patio) y en extraescolares*” (23A HH LH DBH Batx LbdH Em)

“*También se trabaja en las actividades del comedor*” (11B HH LH Gi)

“*Tutoretza orduetan*” (15A DBH Batx LbdH Gi)

Irakasleei gelako kudeaketaz zerbait gehiago esaterik bazuten galdetu zitzaient, eta 18k erantzun zioten galderari. Noski! Irakasleak dira zuzen-zuzenean umeekin harremanetan daudenak eta hori nabari da gehienek esandakoan. Salbuespena litzateke Haur Hezkuntzako umeen adina dela eta, ez dagoela zertan lantzerik dioena. Kontrakoa diote besteek, edozein izanik lan egiten duten etapa, edo espresuki edo egiten dutenaz mintzo direnean:


“*Oso txikiak dira gure umeak hau lantzeko*” (2107 HH Em)

“*Haur hezkuntzan egunerokotasunean lantzen da*”. (2717 HH Em)

Hala ere, galdetuta Hezkidetza gaia bera zelan lantzen duten, irakasleak bi multzotan bana daitezke. Arlo bati lotuta egiten duen herenak eta zeharka lantzen duten beste bi herenak (31. eta 32. grafikoetan).


31. grafikoa

**Hezkidetza arlo/eremu jakin batean lantzen duten irakasleak**



32. grafikoa


**Hezkidetza zeharka lantzen duten irakasleak**



Pareko zifrak erakusten dituzte materialak aukeratzeko ere Hezkidetza irizpidetzat hartzen dutenak (33. grafikoa).

33. grafikoa

### Hezkidetza kontuan hartzen duten irakasleak materialak aukeratzeko orduan



Esplizitatzen dituzten praktikak dagozkie taldekatzeari HHn, eskoletan jarraitutako programa, protokolo eta berezitasunei. Irakasle biren testigantzen arabera, badakigu edo honen inguruko berriak daudenean tratatzen dituztela ikasleekin. Eta tutoretza saioak, programak jarraitu ala ez, oso egokiak direla horretarako azpimarratzen dute.

“Lan taldeak egiterakoan eta klasean eseritzerakoan beti saiatzen naiz neska eta mutilak nahasturik egotea” (0812 HH LH Em)

“Elkarbizitzarako ‘Observatorio de la Convivencia’, Tutoretzak, Familiarikiko elkarrizketak” (1102 HH Em)

“Bullying protokoloa dugu, denok jarraitzen duguna. Tutoretzako saio bereziak halako gaiak jorratzen dituztenak”. (2810 LH Em)

“Egunerokotasunean gai honen inguruan zerbait gertatu bada momentuan jarraitzen dut” (1204 LH Em)

“Gai honi buruzko berriak gertatzen direnean komentatzen ditugu”. (1830 Batx DBH Em)


“Programak aurrera eramán barik, egunero sortzen diran arazoei aurre egiten diegu, ahoz, guztion artean hitzegiten”. (0109 LH Gi)

“Tutoretza arloan jorratzen dugun gaia da, nahiz eta programa zehatz batean parte hartu ez badu ere. Tutoretza arloan ez ezik beste gai batzuetan ere lantzen da era ez zuzen batean”. (3008 DBH Batx Em)

Tutoretza saioei dagokienez, badira desberdintasunak zuzendari eta irakasleen pertzepzioan. Zuzendarien gehiengo garbi batek (% 95etik hurbil) argi ikusten zuen bitartean, % 60ra jais-ten da irakasleena (34. eta 35. grafikoetan).


34. grafikoa

**Tutoretza saioetan landu beharko litzatekeela pentsatzen duten zuzendariak**



35. grafikoa


**Tutoretza saioetan landu beharko litzatekeela pentsatzen duten irakasleak**



Eta espezialisten esku egon beharko litzatekeen galdetzerakoan, portzentajeak erdira datoz zuzendarien kasuan, eta parekatu egiten dira irakasleenekin konparatzerakoan (38. eta 39. grafikoetan).


36. grafikoa

**Irakasle espezialistek (aholkulariak, orientatzaileak, ...) landu beharko luketela pentsatzen duten zuzendariak**



37. grafikoa

**Irakasle espezialistek (aholkulariak, orientatzaileak, ...) landu beharko luketela pentsatzen duten irakasleak**



Eta atal honekin bukatzeko, irakasleek ikasleekin izaten duten jarrerak ere izan zuten islarik erantzunetan. Hiruk jakinarazi dute ez diotela sexuari begiratzen ikasleekin tratatzerakoan, bakar batek desberdin portatzen dela neskekin eta mutilekin eta bosgarrenak, neskak hobesten dituela.

“*Doy clase a personas, no me importa si son chicos o chicas*”. (3022 LH Gi)

“*Pienso y tengo claro que me dirijo a personas, no me fijo si son chicos o chicas, para mí son personas*”. (3002 Batx Em)

“*Tkasleak pertsona bezala tratatzen ditugu, generoa begiratu gabe!!*”. (3007 DBH Batx Em)


*“Pese a que mi trabajo consciente intento que sea coeducativo me he dado cuenta que inconscientemente mi actitud, lenguaje corporal, en definitiva la manera de ganarme el alumno/a cambia según su género y me resulta complicado controlarlo”.* (2202 LH Gi)

*“Berdintasuna bultzatzen saiatzen naiz baina, taldearen arabera, neskek indartzen ditut”.* (2818 HH Em)

Datu kuantitatiboetara jo ezkerreko, irakasleen % 95ak ikasle guztiei, neska nahiz mutileri, protagonismo bera eta parte hartze orekatua ematen dietela gelan aitortzen dute (38. eta 39. grafikoetan).


38. grafikoa

**Neskek eta mutilek protagonismo bera har dezatela gelan bultzatzen duten irakasleak**



39. grafikoa


**Neska eta mutilen parte hartze orekatua gelan bultzatzen duten irakasleak**



Atentzioa deitzaerakoan, neska eta mutileri berba egiten dietenean, zerbait jaisten da portzentajea, % 90eraino ez bada ere (40. eta 41. grafikoak).


40. grafikoa

**Modu berean, neska eta mutileri arreta (saritu, zoriondu, errieta egin, zigortu) deitzen dieten irakasleak**



41. grafikoa


**Neska eta mutileri desberdin hitz egiten ez dieten irakasleak**



Baina arazoaren ondorengo esku-hartzeaz jasotako datuek ez dute hain panorama eraginkorra azaltzen. Galdetutakoan ikasleren bat sexua edo generoarekin lotutako bortizkeriaren biktima izan denaren susmoa dagoenean nola jokatu duten, irakasle gutxi adierazi dute jarrera erabakigarria izan dutenik. % 30 inguru dira inplikaturik dauden ikasleekin hitz egiten dutenak, erasoaren arrazoi eta baldintzak ezagutzeko (42. grafikoan). Ez ikusiarena egiteaz ere itaundu zitzaizen eta % 40k erantzun zuten inoiz ez zirela horrela portatzen (43. grafikoan).


42. grafikoa

**Ikasleren bat sexua edo generoarekin lotutako bortizkeriaren biktima izan denaren susmoa dagoenean, inplikaturik dauden ikasleekin hitz egiten duten irakasleak erasoaren arrazoi eta baldintzak ezagutzeko**



43. grafikoa


**Ikasleren bat sexua edo generoarekin lotutako bortizkeriaren biktima izan denaren susmoa dagoenean, ez ikusiarena egiten duten irakasleak**



Baxuagoak izan dira jasotako datuak, arazo beraren aurreko portaeraz, honakoa galdetu zitzaizanean: gurasoekin hitz egiten zuten (44. grafikoa), ikasleak zigortu (45. grafikoa), jokabideak gaitzetsi (46. grafikoa), ikasleekin hitz egiten zuten haien portaeraren ondoriozko arriskuen berri emateko (47. grafikoa), nahastuta sentitzen ziren eta ez zuten jakiten nola jokatu (48. grafikoa), ikastetxekoa ez zen aditu bati galdetzen zioten zer egin behar zuten (49. grafikoa), arazoak nola eboluzionatzen zuten ikusteko itxoin egiten zuten (50. grafikoa), zuzendaritzakoei edo orientatzaileari aholkua eskatzen zioten nola jokatu behar zuten jakiteko (51. grafikoa), frustratuta sentitzen ziren (52. grafikoa), gogor lan egiten zuten konponbidea bilatu arte (53. grafikoa), errudun sentitzen ziren arazoa ezin izan zutelako ekidin (56. grafikoa), arazoa ahaztu eta irakats lanean zentratzen saiatzen ziren (55. grafikoa), arazoari aurre egiteko zeuden aukerak zeintzuk ziren hausnartzen zutenak (56. grafikoa), eta,etsita, zer eginik ez zegoen pentsatzen ote zuten (57. grafikoa).


44. grafikoa

**Ikasleren bat sexua edo generoarekin lotutako bortizkeriaren biktima izan denaren susmoa dagoenean, gurasoekin hitz egiten duten irakasleak**




45. grafikoa

**Ikasleren bat sexua edo generoarekin lotutako bortizkeriaren biktima izan denaren susmoa dagoenean, ikasleak zigortzen dituzten irakasleak**




46. grafikoa

**Ikasleren bat sexua edo generoarekin lotutako bortizkeriaren biktima izan denaren susmoa dagoenean, egileen jokabidea gaitzesten duten irakasleak**




47. grafikoa

**Ikasleekin hitz egiten duten irakasleak, haien portaeraren ondoriozko arriskuen berri emateko**




48. grafikoa

**Nahastuta sentitu eta nola jokatu ez dakiten irakasleak**




49. grafikoa

**Ikastetxetik kanpoko pertsona aditu bati zer egin behar duten galdetzen dioten irakasleak**




50. grafikoa

**Arazoak nola eboluzionatzen duen ikusteko itxoin egiten duten irakasleak**




51. grafikoa

**Zuzendaritzari edo orientatzaileari aholkua eskatzen dioten irakasleak, nola jokatu behar duten jakiteko**




52. grafikoa

**Frustrazio handia sentitzen duten irakasleak**




53. grafikoa

**Gogor lan egiten duten irakasleak konponbide bat aurkitu arte**




54. grafikoa

**Errudun sentitzen diren irakasleak arazoa ezin izan dutelako ekidin**




55. grafikoa

**Arazoa ahaztu eta irakats lanean zentratzen saiatzen diren irakasleak**




56. grafikoa

**Arazoari aurre egiteko dauden aukerak zeintzuk diren  
hausnartzen duten irakasleak**



57. grafikoa

**Etsita, zer eginik ez dagoela pentsatzen duten irakasleak**




**4.1.3.1.4. Curriculumean txertatzea**

Hezkidetzaren gaia zehazki curriculumearen parte izateaz, zeharka bada ere, behin baino gehiagotan mintzatu dira zuzendari eta irakasle batzuk. Datu estatistikoek berretsi egiten dute ideia hau. Zuzendarien % 95ak egokiena dela uste du eta irakasleen % 60ak euren eskoletan horrela dela diote (58. eta 59. grafikoak).


58. grafikoa

**Arlo eta materia guztietan zeharka landu beharko liratekeela pentsatzen duten zuzendariak**



59. grafikoa

**Hezkidetzaren arlo/eremu jakin batzuen curriculumaren barnean lantzen dela dioten irakasleak.**



Ikerketa kualitatiboari erreparatzen badiogu, berriz, zuzendari bik argi dute horrela izan behar dela:

*[Arlo] "Guztietan, Irakasle guztiekin, gai hau sustraitu behar da gure kurrikulumean" (o2A HH LH Em)*

Irakasle batzuk Hezkidetzaren ikuspegi “akademikoagoari” ere ez diote muzin egiten. Gaia lantzen dutela azpimarratzen dute eta lau irakaslek diote indarra jartzen dutela bereziki emakumeek egindakoa bistaratzen, LHko umeein eta ondorengo etapetako ikasleekin:

“*Tutoretza arloan jorratzen dugun gaia da, nahiz eta programa zehatz batean parte hartu ez badu ere. Tutoretza arloan ez ezik beste gai batzuetan ere lantzen da era ez zuzen batean*”. (3008 DBH Batx Em)

“*Nire ikasgaiko saiotan landu dugu hizkuntza sexista, feminismoa historian zehar,...*” (1835 DBH Gi)

“*Lan teorikoak lantzen dizkiet (emakumea, kirola, iragarkiak)*”. (2706 LH DBH Em)


“*Emakumeen garaipenei (kirola, kultura,...) arreta berezia jartzen diet eta ikasleei ezagutarazi*”. (2123 LH Em)

“*Emakumeek zientzian izan duen garrantzia historian zehar*” (1507 Batx DBH Gi)

Zenbakiei begiratuta, irakasleen erdiak baino gehiagok aitortzen dute ahalegin berezia egiten dutela emakumeen lana eta presentzia gizartean bistaratzen (60. grafikoan) eta, gainera, % 95ak, emakumeei buruz hitz egiterakoan, ez ditu gutxiesten edo euren gaineko txisterik egiten (61. grafikoa).


60. grafikoa

**Emakumeen lana eta presentzia, ikasgaiarekin lotuta, ikusgarri egiten duten irakasleak**



61. grafikoa.


**Emakumeei buruz hitz egiterakoan, gutxiensten edo txisterik egiten ez dituzten irakasleak**



Tutoretza saioen egokitasunaz ez gara tematuko, gogaikarri ez izate arren, praktika onartua baita ikastetxeetan halako gaiak tratatzeko. Baina zuzendariak azpimarratzen dute ikastetxearen berdintasuneranzko bidearen eraginkortasunari asko lagunduko lioketela hainbat neurrik. Esaterako, ia % 90ak tutoretza planetan hezkidetzaren presentzia hobetuko balitz (62. grafikoa); ia % 90ak, Bizikidetzeta plana modukoak sistematikoki eta orokorki landuko balira (63. grafikoa); % 80 inguruk, gai hauek txertatzeko espezialisten laguntza balego, aholkularitza berezitua (64. grafikoa); ia % 85ak, beste edozein gai moduan tratatuko balira (65. grafikoa); % 75 inguruk, gai hauek lantzeko ardura duten erakundeekin lankidetzeta handiagoa balitz (66. grafikoa); % 85 inguruk, gai hauek lantzeko erraztasunak emango dituzten materialak eskura izango balituzte (67. grafikoa) eta % 70ak, Hezkuntza Saila gehiago inplikatu balitz (68. grafikoa).


62. grafikoa

**Eraginkortasuna hobetuko litzateke tutoretza planetan hezkidetzaren presentzia hobetuko balitz, zuzendarien iritziz.**




63. grafikoa

**Eraginkortasuna hobetuko litzateke Bizikidetza planaren ezarpenaz edo hobekuntzaz, gai hauek sistematikoki eta orokorki landuz, zuzendarien iritziz.**




64. grafikoa

**Eraginkortasuna hobetuko litzateke gai hauek kontuan hartzeko lagunduko duen aholkularitza berezitua balego, zuzendarien iritziz**




65. grafikoa

**Eraginkortasuna hobetuko litzateke arlo eta materien egitarauetan beste edozein gai bezala sartuko balira, zuzendarien iritziz**




66. grafikoa

**Eraginkortasuna hobetuko litzateke gai hauek lantzeko ardura duten erakundeekin lankidetzari handiagoa balitz, zuzendarien iritziz.**




67. grafikoa

**Eraginkortasuna hobetuko litzateke ikasgeletan gai hauek lantzeko erraztasunak emango dituzten materialak eskura izango balituzte, zuzendarien iritziz.**



68. grafikoa

**Eraginkortasuna hobetuko litzateke Hezkuntza Sailaren inplikazio handiagoa balego gai hauen jarraipenean, zuzendarien iritziz.**



Baina ezin dugu amaitu aipatu barik badirela ikastetxeak, aldika, saio edo egun bereziak antolatzen dituztenak:

“*Hezkidetza / bizikidetza ikastaroak eta tailerrak*” (1510 Batx Gi)

“*Día de la Paz y la Convivencia; la semana de la Coeducación en Presentación de María*” (29A HH LH DBH Batx Em)

Orokorrean irakasle guztiak ikusten dute Hezkidetza curriculumean txertatu behar dela, bai tutoretzetan, bai irakasle espezifikoak ekarriz, edo bai ikasleeen denbora librean hausnarketa bultzatzeko ekintzak antolatzen (ikusi 8. laburpen-laukia)

8. laburpen-laukia

**Ikasgelaren kudeaketa**

HEZKIDETZA DELA ETA, ZEIN ARAZO DAGO IKASGELAREN KUDEAKETAN? ZERTAN ERAGIN BEHARRA DAGO?							
ZUZENDARIEN IRITZIZ	IRAKASLEEN IRITZIZ						
Irakasleen kontzientziazioa behar da	Egunerokotasunean landu behar da						
Arlo guztietan, irakasle guztiak eta curriculumean txertatu beharra dago HEZKIDETZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- HEZKIDETZA arlo bati lotuta landu behar da(1/3ak)</li> <li>- HEZKIDETZA zeharka landu behar da (2/3ak)</li> <li>- Ikasmaterial aproposak hautatuta landu behar da HEZKIDETZA (2/3ak)</li> </ul>						
Tutoretza saioak oso aproposak dira HEZKIDETZA lantzeko (% 95)	Tutoretza saioak oso aproposak dira HEZKIDETZA lantzeko (% 60)						
HEZKIDETZA espezialisten ardurapekoa izan beharko litzateke (1/2ak)	HEZKIDETZA espezialisten ardurapekoa izan beharko litzateke (1/2ak)						
Aisialdia, jolas orduak eta eskolaz kanpoko ekintzetan arreta jartzen da eta jarri behar da HEZKIDETZAN hezteko							
Jantokian arreta jartzen da eta jarri behar da HEZKIDETZAN hezteko							
Ikasgelan ezarritako estiloa, irakasleen iritziz							
Bullying, bortizkeria kasuetan	Indarrean dauden protokoloak jarraitu behar dira						
Nola tratatu neskek eta mutilak	<table border="1"> <tr> <td>% 60K BERDIN:</td> <td>Pertsonak dira, neska zein mutil</td> </tr> <tr> <td>% 40K DESBERDIN:</td> <td>Nahigabe bada ere, DESBERDIN tratatu</td> </tr> <tr> <td></td> <td>DISKRIMINAZIO POSITIBOA: Taldearen arabera, neskek indartu</td> </tr> </table>	% 60K BERDIN:	Pertsonak dira, neska zein mutil	% 40K DESBERDIN:	Nahigabe bada ere, DESBERDIN tratatu		DISKRIMINAZIO POSITIBOA: Taldearen arabera, neskek indartu
% 60K BERDIN:	Pertsonak dira, neska zein mutil						
% 40K DESBERDIN:	Nahigabe bada ere, DESBERDIN tratatu						
	DISKRIMINAZIO POSITIBOA: Taldearen arabera, neskek indartu						
Ikasleak taldekatzea, ikasleei emandako protagonismoa eta parte hartze aukerak	Oreka bilatu neska eta mutilen artean						
Bortizkeriaren biktima izan direnekin	Ez dago jokabide zehatzik						


**4.1.3.2. Irakasleen prestakuntza**

Hezkidetzan, beste edozein gaitan bezala, irakasleen prestakuntza derrigorrezkoa da eta hori uste dute zuzendari zein irakasleek. Badira urteak ikastetxeetan lantzen hasi zena, baina oraindik asko dira irakasleen formazio beharra aldarrikatzen dutenak.

Zuzendariak hobeto baloratzen dute prestakuntza berezia gai zehatz batzuei lotua, eraginkorragoa izango delakoan. Horrela baloratzen dute % 80ak hezkidetza eta genero biolentziaren prebentzioari buruzkoa eta genero biolentzia kontuan izango duen biolentziaren prebentziarako, perspektiba integralarekin egiten bada. Antzeko parametroetan mugitzen dira prestakuntza bada hezkidetza edozein ikasgaitan txertatzeko (69., 70. eta 71. grafikoa).


69. grafikoa

**Hezkidetza eta genero biolentziaren prebentzioari buruzko prestakuntza berezitua ematea, zuzendarien iritziz.**




70. grafikoa

**Genero biolentzia kontuan izango duen biolentziaren prebentziarako prestakuntza berezitua ematea, perspektiba integralarekin, zuzendarien iritziz.**



71. grafikoa

**Landu behar diren gaiak kaltetu gabe, ikasgaietan gai hauek txertatzeko eta jorratzeko prestakuntza ematea, zuzendarien iritziz.**



Zer esanik ez erantzun duten 285 irakasle gehienek, gizon zein emakumeek, gazte zein eda-detuek, oso inportantetzat jotzen dutela irakasleen prestakuntza. HHn aritzen direnen artean, 59 irakasleak bat datoz honetan. LH, DBH eta Batxilergokoan artean, berriz, % 15 inguru ezetzera daude edo zalantzak azaltzen dituzte. Nahikoa landutako gaia dela, ez dagoela pre-miarik edo badela hori baino lehenagokorik. Bakarra da horretan arazorik ez dagoela esaten duena. Beste batentzat ondo landutako gaia da eta soluzioa arauak aplikatzean dago. Pare bat ez daude irakasle guztiek formazio hori hartzearen alde. Beste hiruzpalauk euren burua formatuta ikusten dute, nahiz eta beste batzuentzako ondo ikusi:

“No, porque tenemos claro que no hay diferencias por sexo”. (3002 Batx Em)

“No. Creo que se está trabajando suficientemente”. (2404 Batx Gi)

“No. Es de sentido común”. (2405 DBH Gi)

“No, hay otras prioridades formativas”. (2410 DBH Gi)

“Ez da beharrezkoa irakasle guztientzat”. (1843 DBH Gi)

“Ez, nahiko landuta dago dagoeneko; arauak aplikatzea, besterik ez”.  
(1850 DBH Em)

“Ongi dago baina nik irakasle moduan asko jaso dut honen inguruan”.  
(0112 LH Em)

“No creo que lo sea. Cada uno sabe en qué momento está y por lo tanto  
obrará en consecuencia”. (2401 DBH Batx Gi)

“Agian barnerratuta daukadalako hezkidetza nire baloreen artean”. (2011  
DBH Batx LbdH Gi)

Norbait inposatutako formazioaren eraginkortasunaz mintzo da, nahiz eta onartzen duen irakasleen jokamoldeen desberdintasunaz. Batek esperientzia txarra izan omen du jasotako formazioaz eta lan egiteko beste modu bat proposatzen du, eta bada esaten duenik nahiago lukeela umeen senitartekoek hartuko balute prestakuntza, irakasleen bizkar gainean soilik utzi beharrean. Edo herritar ororen kontua dela ere bai. Beste bik zalantza dute, kontra agertzen ez badira ere, LHko umeekin landu beharreko gaia ote den

“*Agian bai. Nik badakit gai honekin beste guztietan bezala irakasle guztiok ez dugula berdin jokatu, baina formakuntza inposatua zer edo zertarako balioko zuen...??*” (1801 Batx DBH Em)

“*Ez da garrantzitsua. Formazioarekin esperientzia txarrak izan ditugu. Irakasle bileretan gai honi buruz hausnarketa egitea eta akordioetara heltzea da bide egokiena*”. (0807 LH Em)

“*Eta gurasoek jasoko bazuten ere? Edo dena irakasleen esku utzi behar da?*”. (1822 DBH Em)

“*Ez, ez da hain beharrezkoa. Hori gure herritarren beharrean dago*”. (1846 Batx Gi)

“*Lehen hezkuntzan ez dakit beharrezkoa den.*” (0818 LH Em)

Hala ere, salbuespenak salbuespen, erantzuleen % 85 inguru prestakuntza jasotzearen erabat alde agertzen ziren, saio motzagoak (4k hala adierazi zuten) edo luzeagoak, baina aldeko apustua eginaz. Neurri batean, ikasleen eredu sentitzen direlako, eta gaur egungo ume eta gazteak etorkizunerako, epe luzerako, hezi behar dituztelako, gizarte hobearen esperantzaz:

“*Azken finean horixe izango delako irakasle bakoitzak geletara eramango duena. Honen inguruan ez badugu hausnarketarik egin, nahiz eta baliabideak eskura izan, ez ditugu behar bezala aprobetxatuko*”. (1802 DBH Em)

“*Si, por el futuro de una sociedad justa y equilibrada*”. (2210 HH Em)

“*Oso garrantzitsua. Umeen etorkizunaren inguruan gaudelako hitz egiten*”. (2717 HH Em)

“*Sí, porque hay que trabajar en esta dirección, para que se eviten situaciones indeseadas en la sociedad*”. (2708 DBH Gi)

“*Bai. Batez ere nerabeek jaso beharko lukete, formakuntza horrek eragin positiboa izango luke etorkizuneko jarreretan*”. (1503 DBH Gi)

“*Sí. Porque debemos conseguir una sociedad de iguales (utopía)*” (2009 DBH Em)

Esaldi honen harira, azpimarratzekoa da zenbatak adierazten duten formatu beharra dagoe-  
la, hezkidetza landu behar bada, helburu arrakastatsua izateko:

“*Erabat, edozein gauzatan bezala, 190a da gu geu formatzea eta ondoren egindako lana transmititzea. Beharrek behartzen gaituzte zenbaitetan*”.  
(0810 LH Em)

“*Porque seamos más capaces de transmitirlo a nuestros/as alumnos/as*”. (2402 DBH Batx Gi)

“*Para poder aplicarla bien*” (2010 DBH Em)

“*Sí, como en cualquier otro ámbito, la formación contribuye al éxito de las medidas que se planteen*”. (1705 Batx Gi)

“*Porque es importante para poder solucionar los problemas de ese tipo que tenemos en el centro*”. (2016 DBH Em)

“*Sí, para poder formar a los alumnos en ese tema*”. (3006 DBH Em)

“*Bai, geuk irakasle moduan Hezkidetza arloko estrategiak, balioak eta prozedurak barneratzeko eta ikasleei modu egokian transmititzeko*”.  
(3009 DBH Batx Gi)

“*Bai. Irakasleok eskolan hezkidetzan hezi behar ditugu, baina horretarako garrantzitsua da irakasleok gai horretan ongi formatuta egotea*”.  
(1202 HH Em)

“*Horrelako gai bat ondo manejatua ahal izateko borondate ona ez da nahikoa. Formakuntza ezinbestekoa da*”. (0809 HH LH Em)

Gainera, borondateaz ari garen honetan, eskolak berak ere denborari dagokionez, erraztasunak eman beharko lituzke:

“*Bai, baina horretarako denbora behar da eta ez dugu. Bakoitzaren borondatearen arabera ezin delako hori utzi*”. (0910 HH LH Em)

Gaiaren inguruan, ezinbesteko ikusten dute hezkidetza zer den ezagutzea, bere konplexutasuna argitu beharra, bere garrantzia ikasleen heziketarako:

“*Porque hoy en día, aún no se sabe qué es*”. (2024 LH Em)

“*Ez dut uste denok hezkidetza berdín ulertzen dugunik*”. (0409 HH Em)

“*Bai, Ez jakintasun handia dugulako gaia gelan nola landu. Gezurra badirudi ere, gaur egun oraindik premiazko gaia da*”. (2013 DBH Em)

*“Bai. Gutxi ezagutzen dut kontzeptua, eta uste dut garrantzitsua dela informazioa jasotzea bakoitzak baliabide egokienak bilatzeko”.* (2715 HH Em)

*“Bai, gaia ez delako erreza”* (0821 HH Em)

*“Sí, porque no se puede enseñar ni llevar a la práctica lo que no se conoce”.* (2712 DBH Em)

*“Sí. Porque forma parte de la educación integral de las personas a las que formamos”.* (3019 LH Em)

*“Sí. Porque creo que la coeducación es tan importante como la enseñanza de cualquier asignatura”.* (3020 LH Em)

Garrantzitsu jotzen dute, oso, irakasleen sentsibilizazioa lortzea, eta banakako zein taldeko kontzientziarioa, elkarlana bultzatuz. Hala, txarrean ere, poliki-poliki irakasleak hezkidetzaz sentibera bilakatzen.

“*Bai, baina beste arlo batzuetan bezala, gutxienez batzuek konturatzeko duen garrantziaz”.* (2612 LH Em)

*“Oso. Gauza asko dakigula uste baitugu eta gero ez da horrela”.* (2018 LH Em)

*“Bai, ez baitaio behar duen garrantzia ematen hasi eskolatan”* (0501 LH DBH Em)

*“Bai, beste begiekin errealitatea ikusteko eta kontzienteak izan ahal izateko”.* (0410 LH Em)

*“Bai. Kontzientzia hartu behar dugulako eta gaurko gizarterako beharrezkoa delako”.* (0906 HH LH Em)

*“Bai, irakasleok etengabeko formakuntza behar dugu egunerokotasunean hezkidetzan hezteko (hizkera, jarrerak, portaerak, ...) Gai hauekiko sentsibilizatuak egon behar dugu denok”.* (1204 LH Em)

*“Sí, falta sensibilización con el tema”.* (3029 HH Em)

*“Sí, para sensibilizar y concienciar a quien no lo esté. Aunque creo que forma parte de la educación desde niño”.* (3035 HH Em)

*“Bai baina garrantzitsuagoa da barneratua izatea. Ez da kanpotik etorri behar den zerbait, barrutik kanpora baino”.* (0110 LH Gi)

*“Hezkidetzaren inguruko prestakuntza eman beharko zen noski, baina garrantzitsuagoa da irakasle guztien kontzientzia suspertzea”.* (3030 em.)

*“Sí, porque así podremos estar más atentos en nuestra tarea y con la suficiente formación para hacer bien nuestro trabajo”.* (3031 HH em)

*“Bai. Gizarte honetako arazo bat delako eta irakasle-teknikari askok (hau zehazki ez landu arren) ez daukagu informazioa”.* (2107 HH Em)

*“Bai. Hausnarketak konpartitzeko, plangintzak osatzeko eta benetan gauzatzeko”.* (0206 HH LH Gi)

*“Bai, honi buruz egiten edo egiten ez dugun kontzientzia hartzeko eta horri buruz irakasleok hitz egiteko, erabakiak hartzeko”.* (1210 HH Em)

*“Bai, garrantzitsua da. Formazioa jasotzeaz gain, irakasle oro AUTOE-ZAGUTZA prozesu batetik pasatu beharko litzateke, bere praktiken KONTZIENZIALIA hartu ahal izateko”* (0829 LH Em)

*“Sí. Mejoraría y facilitaría su implantación real. Evitaría errores de actuación. Aumentar la concienciación”* (2501 DBH Gi)

*“Bai. Teorian denak ados egon arren praktikan ez dugu denak berdin lantzen , ohitura falta edo interes falta dela eta”.* (2124 LH Em)

*“Hezkidetzaren inguruan formazioa jasotzea garrantzitsua dela iruditzen zait. Gure aurreiritziak apurtzeko eta Hezkidetza duen garrantziarekin kontzientziatzeko”.* (0815 LH Em)

*“Bai. Ezjakintasun asko dagoelako eta dena gaindituta dagoela uste du gehiengoak”.* (2123 LH Em)

*“Bai, denak batera bide berebean lan egiteko”.* (1003 LH Em)

*“Sí. Siempre es bueno escuchar diferentes puntos de vista y modos de tratar el tema”.* (2605 DBH Em)

Hala ere, prestakuntzaren premia adierazten duten irakasle gehienek formazio praktikoa eskatzen dute, ikastetxeetako errealitatean murgilduta bizi diren heinean, tresnak izan ditzaten modu eraginkor batean lan egiteko:

“*Sí, si la formación es buena. Porque siempre es bueno conocer nuevos modos de afrontar los problemas en la escuela y en la sociedad en general”* (1101 LH Em)

*“Para sensibilizarnos y dotarnos de recursos”* (1409 DBH Em)

*“Sí. Quizás creamos que sabemos lo suficiente y no sea así. Posibilidad de conocer materiales”.* (2602 LH Gi)

*“Bai. Praktikara bideratuta badago eta materialak eskeintzen badituzte”.* (2808 LH Em)

*“Sí. Porque la falta de conocimiento puede hacer no actuar de manera correcta en ciertas ocasiones”.* (2604 LH Em)

*“Sí, porque ante determinadas situaciones sería bueno disponer de unas pautas concretas”.* (3037 LH Gi)

*“Sí, para poder solucionar o detectar el problema lo antes posible y de forma correcta”.* (3038 LH Em)

*“Creo que sí es necesario, para poder saber dar respuesta a las diferentes situaciones”.* (3032 HH Em)

*“Bai, umeeekin lantzerako orduan ideiak... jasotzeko, gero praktikan ipintzeko”.* (0404 HH Gi)

*“Bai. Irakasle guztiok jakin beharko genukeelako zer egin behar den kasu hauetan”.* (0820 HH Em)

*“Bai. Baliabideak behar ditugu eguneroko egoeretan erantzunik aproposena eskaintzeko”.* (1102 HH Em)

Irakasle kontzientziatuenean argi dute sarritan euren portaerak edo jarrerak ez datozela bat hezkidetzaz, jaso duten heziketarekin, bizi garen testuinguruarekin edo beste arrazoi batzuk bitarteko. Eta hori problema bat izan daiteke normaltzat hartzen direlako jokabide asko oso berneratuta daukatelako. Horretara ere bideratu beharko litzateke prestakuntza:

“*Bai. Askotan gaietan ezkutuan dauden hainbat gai/arazo/... agerian uzteko edo ikusten lantzeko”.* (1804 Batx DBH Em)

*“Bai, zeren nahiz eta saiatu beti hezkidetzan irakasten, batzuetan aspektu batzuk joan egiten baitzaizkigu”* (0101 HH Em)

*“Bai, guztiok baikaude jaso genuen hezkuntzaren eta gizartean gailentzen diren ereduaren eraginpean”.* (3033 HH em)

*“Formakuntza jasotzea beharrezkoa da, oraindik ohitura txar asko daukelako, inkontzienteki egiten ditugulako”* (0907 HH LH Gi)

*“Bai, nahiz eta ikuspuntu aurrerakoia izan errutinaren sartzen garenean ahazten zaigu eta noizbehinka “toke”ren bat emateko”.* (1207 LH Em)

*“Bai. Gure heziketan hezkidetzaren ez zelako gaur egungo ikuspuntutik landu, egunero momentu oro jarraitu beharko genuke gai honetan formatzen”.* (1820 DBH Batx LbH Em)

*“Bai. Noizean behin gaiaren inguruko gogoeta egiteko eta oharkabean pasatzen zaizkigun gauzetaz ohartzeko”.* (0701 LH Em)

*“Desde luego, porque seguramente no seamos conscientes de que nuestras propias actuaciones son inapropiadas”.* (0805 LH Em)

*“Para hacernos conscientes de rutinas que tenemos muy arraigadas (interiorizadas)”* (2023 DBH Em)

*“Bai garrantzitsua da, gelan ikasleekin beharko genituzkeen jokamoldeez eta ondo-ondo jabetzeko”* (2121 LH Gi)

*“Bai, ikusten da erantzunekin asko daukagula hobetzeko. Eguneroko ohituretan barneratuta ditugun jokabide okerrak zuzentzeko”*. (0104 HH LH Gi)

Irakasle batzuk zehaztu egiten dituzte, normaltzat hartzen diren jokabide aldrebes askoren hausnarketan, zeintzuk diren hobetu beharreko aspektuak, behin eta berriro aipatuz urteen poderioz barneratutako ohitura eta estereotipo asko eta asko:

“*Bai. Ez legoke gaizki horren inguruan formazioa jasotzea, izan ere etorkizuneko hiritarrak prestatzen ditugu eskolan eta honen inguruko errespetua ahalbidetzea ezinbestekoa dela iruditzen zait, baina baliabide edo formakuntza aldetik gehiago egin daitekeela uste dut. Gaur egun batzuek ez dute neska eta mutilen desberdintasunen aurrean kontzientziarik eta gure esku dago eskema sexistak edota jarrerak aldatzea. Guztien erronka izan beharko litzateke”*. (3013 LH DBH Em)

*“Bai. Azken urteotan arlo honetan lan handia egin den arren eta aurre-rapausoak egin arren, gizartean oraindik irudi sexistak eta eskubideen urraketa ugari daude eta gure ikasle eta haurrak hori ikusi eta barneratzen dute”*. (2610 DBH Gi)

*“Agian konturatu gabe edota jaso dugun hezkuntzaren ondorioz hainbat hitz, espresio edo ekintza oker egiten ditugun konturatzeko eta aldatzeko”*. (1837 DBH Em)

*“Bai. Kondukta matxistak baztertzeko”*. (1838 DBH Em)

*“Sí. Sin darnos cuenta reproducimos actitudes sexistas. Primero debemos darnos cuenta”*. (0511 LH DBH Em)

*“Porque no estamos suficientemente convencidos. Repetimos patrones de actuación basados en las desigualdades y la no naturalidad. (Roles de género)”* (0604 HH LH)

*“Bai, oso garrantzitsua. Nahiz eta, gudan generoak eragina ez duen uste, errotuta ditugun jarrera desigualitarioak ditugulako. Eta hauetaz kontzientzia hartu behar dugulako”*. (0106 LH Em)

*“Sí. Nos queda mucho por hacer y es importante detectar acciones sexistas que todos/as tenemos e intentar reconducirlas”*. (2202 LH Gi)

*“Bai, formakuntza izatea beti ematen du hobetzeko aukera, estereotipo asko daude oraindik ere gure txikitako hezkuntza dela eta barneratuta ditugunak”*. (2132 LH DBH Em)

*“Bai. Beharrezkoa da askotan gizartetik jaso ditugun rolak eta hizkerak errepikatzen baititugu konturatu gabe eta horren kontziente izatea beharrezkoa delako”*. (2103 LH Em)

*“Bai, modu horretan mutilen eta nesken arteko desberdintasunak ez bultzatzeko”.* (0201 HH Em)

*“Oraindik hainbat gauzetan, gizarte matxista baten eragin nabarmena ezin kendu gabiltzalako”.* (2213 DBH Em)

*“Sí. Creo que en ocasiones resulta difícil huir de los tópicos sexistas, y aunque estemos sensibilizados con el tema, nos vendría bien tener pautas de actuación”.* (2611 DBH Em)

*“Sí, para evitar los estereotipos en las clases y mejorar las relaciones entre alumnos”.* (2607 DBH Gi)

*“Bai, gaur egun ikasle askok etxetik dakarten hezkuntzak ezberdintasunak ditu, batzuk rolak oso ezberdinduta dituzte eta besteek ez”.* (0703 HH Em)

Bada aspektu bat oso kezkarri ikusten dutena, hots, indarkeria eta bereziki generoarekin lotutakoa. Horretarako, oso tresna inportante moduan ikusten dute Hezkidetzan formatzea, indarkeria guztien prebentzioan, saihesteko ahaleginean:

“*Sí, porque todavía es una realidad bastante extendida en nuestro entorno el machismo y comportamientos similares (violencia de género)*”.

(2508 LbdH Gi)

*“Sí. Para prevenir la violencia”.* (1702 Batx DBH Gi)

*“Bai. Nahiz eta informazioa izan, zoritxarrez gizaratean gero eta kasu gehiago egoten dira”.* (2615 HH Em)

*“Bai. Gure ikasleak etorkizuneko hiritarrak direlako eta gaur egun genero indarkeria arazo larria dela ikusten delako”.* (0408 Em)

*“Si, para evitar la violencia de género”.* (2618 HH Em)

*“Sí, por lo que sucede a menudo en lo que respecta a violencia de género”.* (3034 HH LH Em)

Hain bistakoa eta nabarmena ez bada ere, sexuen arteko desberdintasuna eskolako errealtatearen zati da eta hori ere irakasleek saihestu beharra ikusten dute indarkeriarekin batera:

“*Sí. Porque es un tema muy importante, y cuanto más información en la prevención de violencia y la igualdad de género, mejor para todos y para el día a día*”.

(3018 LH Em)

*“Sí, para estar informados de las políticas para la igualdad de sexos y prevención de la violencia de género”.* (3036 LH em)


*“Sí, para obtener información actualizada sobre las nuevas políticas de prevención de la violencia y la igualdad de género”.* (3039 LH Em)

“Bai, batez ere bortizkeria eta desberdintasunak saihestea”. (2616 HH LH Em)

“Bai, bortizkeria eta ezberdintasunak saihesteko”. (2617 HH)

9. laburpen-laukia

Irakasleen prestakuntza



“*Bai. Nerabeen artean dauden jarrera sexistak baztertze*”. (2505 DBH Gi)

Baliteke orain arte esandako hainbat esalditan beste kultura batzuetako etorkinek sortutako talka kulturalaren zantzuak egotea, baina gaia espresuki ere azaldu dute irakasle gutxi batzuk. Hala, besteak beste:

“*Sí. Para hacer frente a las nuevas realidades*”. (2713 DBH Gi)

“*Sí, porque es importante para poder solucionar los problemas de ese tipo que tenemos en el centro*”. (2016 DBH Em)

“*Bai, batez ere gure ikastetxean. Desberdintasunak oso nabarmenak direlako, kultura desberdinak daudelako*”. (2002 LH Gi)

“*Porque tenemos alumnos de diferentes culturas*”. (0508 LH Gi)

Hezkidetzaren garatzeko eta genero indarkeria alde aurretik ekiditeko formazioa ezinbestekoa dela esaten dute irakasleek (ikusi 9. laburpen-laukia)

#### 4.1.3.3. Desberdintasunak detektatzeko sentiberatasuna

Aurreko atalean hainbatetan aitortu legez, irakasle askok adierazi dute Hezkidetzaren formazioa izateak lagundu dezakeela sexuen arteko desberdintasunak gainditzeko. Orain, berriz, ikusiko dugu ea zer dioten 195 irakasleek espresuki galdetu zaienean gai sentitzen diren komentario nahiz jolas batek, ekintza nahiz jarrera batek eraso sexistarik dakarren bereizteko. Ea uste duten nahiko sentsibilizatuta dauden halako erasoak ikusteko. Baita zergatik ote den ere.

Hamaika lagunek diote ez direla sentiberak gaiaren inguruan. Horietatik hiruzpalauk uste dute formazio falta izan daitekeela horren eragile, batek hausnarketa pertsonal eza gehitzen dio eta beste batek, halako jazoerak egunero gertatu ez izanari ere bai. Sentiberatasun hori azalekoa izatea, eta ez benetan barneratua, traba bat izan daiteke lana ondo egiteko, irakasle baten arabera. Eta beste batek diosku hezkidetzaren ez duela hain kontuan edukitzen.

“*No estoy suficientemente sensibilizado por falta de formación y reflexión personal*”. (0604 HH LH)

“*Ez. Ez zaidalako egunero gertatzen*”. (0107 LH Em)

“*Ez. Ez. Agian nire horri buruzko formazioa ez delako nahikoa*” (1812 Batx DBH Em)

“*No, porque hay que aplicar y tener presente siempre este punto de vista y no lo tenemos automatizado*”. (2023 DBH Em)

“*Presenteago izan behar dut gaia*”. (2814 DBH Batx Em)

Zalantzakor ere bat baino gehiago daude. Hogeita hamar gizon-emakume agertzen baitira horrela, nahiz eta gehienek sentsibilizatuta daudela dioten. Erabateko baiezkora ez ematearen arrazoiak anitzak dira: irizpideak direla, ziurtasun eza dela, informazio eta formazio falta dela, arreta falta dela, zer den sexista eta zer ez bereizten kostatzen zaiela.

“*Bai. Ez dakit “nahiko sentsibilizatuta” nagoen. Ez dakit zein irizpide jarraitu hau baloratzeko*” (2011 DBH Batx LbdH Gi)

“*Ez dakit gai naizen antzemateko. Nik baietz uste dut. Baina esango nuke nahiko sentsibilizatua nagoela gaiarekin*”. (1811 DBH Gi)

“*Batzuetan bai. Nire ustez bai, inguruan ere bizi izan ditudalako kasuak gai honetan sentsibilizatua egoteko*”. (1820 DBH Batx LbdH)

“*Uste dut baietz baina ez nago ziur. Bai oso.*” (1823 Batx Em)

“*Ez. Bai. Egoera horiek oso mingarriak direlako jasotzen dituenarentzat*”. (2136 DBH Gi)

“*Necesito más información para su detección precoz*”. (2501 DBH Gi)

“*Batzutan ez naiz egoera horietaz konturatzen. Nire arloan zentratua egonik batzutan “ihes egiten” didate egoera horiek*”. (2013 DBH Em)

“*Gutxi gorabehera, baina formazio gehiago beharko nukeelakoan nago*” (1508 DBH Gi)

“*Algunas veces. Sí, aunque me gustaría formarme más en este tema.*” (2604 LH Em)

“*Nik uste dut baietz baina ez nago ziur. Beharbada niri eraso sexista iruditzen ez zaidana, baino eraso*”. (1704 DBH Em)

Esan berri dugunarekin batera, bizpahiruk diote beti ez dela erraza jokabide arbuigarriak zeintzuk diren bereiztea egoera jakin batzuetan, txantxetan edo antzekoetan:

“*Sí, pero a veces es difícil en situaciones distendidas*”. (2708 DBH Gi)

“*Bai, batzutan bai baina ez beti. Batzutan ekintza ikustearekin ez da nahikoa, pertsonen arteko erlazioa eta jarrera kontuan hartu behar da. Ekintza horren atzean zer dagoen jakin arte (jarrera edo erlazio mota) zaila egiten zaizkit horrelakoak bereizten*”. (3009 DBH Batx. Gi)

Eta seik adierazten dute zenbatetan txanda-pasa egingo ote duten guztiz barneratuta dituzten egoera asko eta asko aintzat hartzen dituztelako, kulturaren pisua handia baita:

“*No creo que siempre lo detecte. Estamos demasiado acostumbrados*”. (0511 LH DBH Em)

“*Batzuetan, ohiturak direla eta, zaila da konturatzea lehenengo momentu batean*” (0515 LH Gi)

“*Agian ez beti, baina baietz esango nuke. Seguraski, guk ere, irakasleok inkontzienteki barneraturik ditugun zenbait gauza ikusteko gai ez gara*”. (1505 Batx DBH Em)

*“Guztiak bereizteko gai ez naizela uste dut, estereotipo batzuk eta jarre-  
ra batzuk barneratuta ditugulako eta normalizat hartzen ditugulako”.*

(1511 Batx DBH Em)

*“Batzuetan ez gaude nahiko sentsibilizatuak. Denboraren poderioz  
horrela izan da beti, eta ohituak gaude txisteak eta komentario sexistak  
entzutera. Hori dela eta, entzuteak ez gaitu harritzen”.* (1836 DBH Em)

Hala ere, irakasleen 3/4ak bere burua gai ikusten du hain jokabide kaskarrak antzemateko, sentsibilizatuta baitago, urteetako esperientziak erakutsi diolako, empatia, formazioa, sufritu izanak edo emakume edo ama izateak ematen duen sentiberatasunagatik

“*Sí, porque tengo gran experiencia en educación*”. (3002 Batx Em)

*“Sí. Sí, por las experiencias vividas como docente”.* (2607 DBH Gi)

*“Sí, cuando conoces a los alumnos y sus reacciones”.* (2614 DBH Em)

*“Bai. Eskarmentua izan dudalako”.* (2608 DBH Em)

*“Sí, porque sabes si a ti te dolerían o molestarían; por lo tanto a los de-  
más también”.* (3005 DBH Em)

*“Bai. Zoritxarrez askotan ikusten direlako”.* (2505 DBH Gi)

*“Sí. Un poco de empatía y sentido común”* (2503 LbdH Batx Gi)

*“Sí, porque soy consciente de que tales desigualdades están presentes en  
mi entorno y que les causa sufrimiento a las personas y esto me lleva a  
movilizarme”.* (2502 LbdH Em)

*“Sí, soy capaz, estoy sensibilizado. Odio las desigualdades e injusticias”.*  
(2402 DBH Batx Gi)

*“Bai, orokor, gaia landu formazioa jaso dudalako”.* (1840 DBH Em)

*“Bai. Gai honetan sentiberatasun handia eskuratu dugulako, azken urte  
hauetan”.* (1843 DBH Gi)

*“Sí en ambos casos. La educación que yo recibí huía, bajo mi punto de  
vista, de estereotipos”.* (2611 DBH Em)

*“Bai, gai naiz. Emakumea naizelako eta nik batzuetan pairatu behar  
izan ditut”.* (1853 DBH Em)

*“Sí. Sí. Porque soy mujer y estoy muy concienciada con el tema”.* (2016 DBH Em)

*“Sí, porque soy mujer y he escuchado alguna vez que donde mejor esta-  
mos es en la cocina”.* (2712 DBH Em)

Badirudi emakume askok eragin handia dutela inguruan lanean ari direnengan. Hori antze-man daiteke horrelako baieztapenetan:

*Creo que sí, aunque, evidentemente puedo equivocarme (trabajo rodeado de compañeras que son mujeres)*” (2508 LdH Gi)

*“Bai, emakume adinekoekin izanda eta esperientziak emandako sentisibilizazioagatik berehala ikusten ditut horrelako egoerak”.* (1837 DBH Em)

10. laburpen-laukia

**Desberdintasunak detektatzeko sentiberatasuna**

Kategoria	Erantzunen laburpena
<b>Irakasle batzuk (1/4) zalantza dute euren sentiberatasuna benetakoa ote den</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Informazio eta formazio ezagatik</li> <li>– Hausnarketa pertsonal ezagatik</li> <li>– Ziurtasun ezagatik</li> <li>– Jazoera arbuigarriak noizbehinka gertatzen direlako</li> <li>– Azaleko sentiberatasuna ote den</li> <li>– HEZKIDETZA ez dutelako kontuan izaten</li> <li>– Jakintzarik eza, zer den sexista eta zer ez den jakiteko</li> <li>– Gutxi gora behera antzematen dute</li> <li>– Arreta falta, beste aspektu batzuei kasu gehiago egiteagatik</li> </ul>
<b>Egoera zehatz batzuk sexismoaz kutsatuta ote dauden diskriminatzeo zailtasunak dituzte</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Egoera arbuigarri asko normalizat hartzen direlako, guztiz barneratuta dituztelako</li> <li>– Ikasleak txantxetan ari direnean</li> <li>– Protagonisten arteko harremanak ez direnean ezagutzen</li> </ul>
<b>Irakasle gehienek(3/4) ez dute zalantzarik euren sentiberatasunaz</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Jokabide kaskarrak antzemateko</li> <li>– Urteetako esperientziagatik</li> <li>– Enpatiagatik</li> <li>– Formazioagatik</li> <li>– Sufritu izanak</li> <li>– Emakume edo ama izateak ematen duen sentiberatasunagatik</li> <li>– Emakumeek gizonengan eragiten dutelako</li> <li>– Emakume zaharragoek gazteagoengan eragiten dutelako</li> </ul>
<b>Zuzendarien jokabidea eraso sexistarik egon bada</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Beste edozein eraso dagoenean moduan portatu</li> <li>– Emakumeei babesa eta laguntza eman</li> <li>– Salaketa ipini edo emakumeak ipini dezan animatu</li> <li>– Zerbitzu Sozialetara edo dagokion erakundera jo</li> </ul>

Gainera, detekzioaren ondoren egin beharrekoaren kezka ere azaltzen du norbaitek eta jarre-  
ra aktiboa dutenik ere badago halako egoerak aurreikusi eta saihesteko:

“*Bai. Bereiztea eta ikustea sentsu kontua da, baina gero nola jokatu beste kontu bat da*”. (2610 DBH Gi)

*“Behar bada; ez bada larria interbentzio agian ez da zuzena izan behar”.*  
(1707 Batx Gi)

*“Bai. Nire gaian mutilak arrakastatsuagoak izan daitezkeelako eta oso adi egoten naiz halako egoerak ekiditeko”.* (2812 DBH Em)

*“Orokorrean bai. Eta klasean horrelako egoerak agertzen direnean saihesten saiatzen naiz”.* (2118 DBH Em)

*“Bai. Gaiarekin gaztetandik izan dut sentsibilizazio handia. Gelan jarre-  
ra batzuk onargaitzak direla azpimarratzen dut”.* (2213 DBH Em)

Bada irakasle bat esaten duena berak ondo bereizten dituela, baina gazteak ez dituela hain zorrotz ikusten.

“ Uste dut orokorrean bai. Kontuz! Gaur egungo neskek guk baino kontzientzia txikiago dute haien egoerari buruz. Ama bezala eta irakasle bezala, ikusi dut nesken jarrerak nahiko ahulak”.

(1801 Batx DBH Em)

Zuzendariei egindako itauna zehatzagoa izan zen, hau da, nola jokatu zuen ikastetxeak horrelako erasoren bat izan dutenean. Eta erantzun duten laurak bat etorri dira egoera gaitzetsi zutela esanaz eta ez zutela beldurrik izan Gizarte Zerbitzuetara, Berritzegunera edo polizia-rengana jotzeko:

“ La misma que con otros conflictos, agresiones”.

(30B HH LH DBH Batx Em)

*“Gizarte zerbitzuetara jo dugu, gomendioak eman dizkiegu emakumeei salaketa ipintzeko eta egoera ez onartzeko”.* (02A HH LH Em)

*“Gizarte zerbitzuekin harremanetan jarri, famili eta berritzegunearekin”.* (06A HH LH Gi)

*“Se denunció a la policía y se hizo una manifestación de apoyo a la víctima, que contó con el asesoramiento del psicólogo del centro”.* (25A DBH Batx LbdH Gi)


Genero desberdintasunak detektatzeko sentiberatasuna ñabardurak ikus daitezke (ikusi 10. laburpen-laukia).

#### 4.1.3.4. Ikasleak orientatzea

Irakasle edo tutoreen zeregin garrantzitsu bat ikasleen orientazioa izaten da. Etengabe egiten den zerbait da, irakaslea izaten delako ikasle askoren ispilu, baina oraingoan orientazio espezifikoa ari gara, batez ere DBH, Batxilergoa edo Lanbide Heziketako gazteek ikasketak edo lanbidea hautatu behar dutenean, jarraitzen diren irizpideen inguruan, zehatz egiten dutenaz galdetu zaienean. Hori dela eta, ikastetxeen herenean, zuzendarien aburuz, irizpide ez sexistak dituztela aitortu dute (72. grafikoa).

72. grafikoa

**Ikasleen orientazio profesional eta akademikorako irizpide ez sexistak dauzkaten ikastetxeak, DBH, Batxilergoa eta erdi mailako Lanbide Heziketan, zuzendarien iritziz.**



16 zuzendarik ere eman dituzte erantzunak, euren ikastetxeetan honetan duten politikaz jardun dutenean eta, orokorrean, gidari den ideia gizon eta emakumeen berdintasunarena da. HH eta LH ikasleak dauzkaten ikastetxeetako lau zuzendarik ez dute zalantzarik sexismorik gabeko irakaskuntza eskaintzen dutela esaterakoan. Irakaskuntza eskaintza zabalagoko eskoletan ere antzeko irizpideak dituzte, baina batek azpimarratzen du emakume eta gizonezkoen benetako ereduak eskaintzen dizkietela hitzaldi, bisita eta antzekoetan. Eta bete ikastetxe batekoak bere buruari galdetzen dio ea desberdindu beharko litzatekeen orientazioa, eraginkorragoak izateko:

“Gustoko ibilbideari jarraitu behar diotela azpimarratzen da, sexista kutsua baztertuta” (02A HH LH Em)

“Gustoko duten ibilbideari jarraitu behar diote sexista kutsua baztertuta” (02B Em)

“Por eso, que no lo tengo claro, pero no creo que por ser niños o niñas se les anime en un sentido u otro”. (05A HH LH Em)

“Berdintasunean hezitzen ditugu” (21C HH LH DBH Gi)

“No discriminatorio e información” (23A HH LH DBH Batx LbdH Em)

“Presencia de referencias masculinas y femeninas en las charlas orientadoras, visitas,...” (29A HH LeH DBH Batx Em)

“Ikasle guztien orientazioa modu berean ematen zaie (agian ezberdindu beharko genuke eraginkorragoak izateko”. (28A HH LH DBH Batx Em)

Gazteekin diharduten ikastetxeetakoak ere antzera mintzo dira, baina bik ñabardura bana azalartzen dute, behin baino gehiagotan agertzen diren errotutako estereotipoek sorturiko problematikaz edo gurasoen sentsibilizazioaz:

“No discriminatorio e información” (16A DBH Gi)

“Generorik gabeko lanbideak erakutsiz, eskainiz”. (18D Batx DBH Em)

“Orientatzaileek berdin azaltzen dute ikasketa guztiak” (18F Batx DBH Gi)

“Eskaintzak ez daude sexu desberdinetakoentzat bideratuta. Baina gizar-teak estereotipatuta ditu” (14A DBH LbdH Em)

“Gurasoekiko lankidetzan jarri beharko litzateke indar gehiago” (15D DBH Batx LH Em)

Eta arlo praktikoan sartuta, ikastetxe bereko hiru zuzendarik eta beste bakar batek lanbidea aukeratzeko egiten dituzten saioetan eraturako programa jakin bat aplikatzen dutela adierazi dute:

“Lanbide bat aukeratzeko saioak udaletxekoak eskainiak” (15A DBH Batx LbdH Gi)

“Generorik gabeko lanbidea hautatu” programarenak” (15C DBH Batx LH Em)


“Generorik gabeko lanbidea hautatu programarenak” (15D DBH Batx LH Em)

“Se ofrece lo mismo a todos los alumnos, participando en el programa GPS” (24A HH LH DBH Batx)

Arestian esan moduan, maila guztietan orientazioaz arduratuta dauden arren, problematika bistaritzen da ikasleek ikasketen aurrean edo ibilbide profesionalaren hautua egin behar dutenean. Horrelakoetan indartsuago esplizitatzen baita zein arlorekin lotzen dituzten aukera desberdin eta anitzak neskak eta mutilak, estereotipoak indarrean dauden edo ez.

73. grafikoa

**Badira jakintza arlo batzuk mutilekin gehiago lotzen direnak eta beste batzuk neskekin, irakasleen iritziz**



Irakasleen arteko 3/4ak jakintza arloak sexuaren arabera bana daitezkeela errefusatzen duten arren (73. grafikoa), jasotako 37 iritzietatik - LH, DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketakoak-, ondorioztatu daiteke oraindik indarrean eta bizi-bizirik dirautela urteetan eraturako ereduak. Salbuespen banaka batzuk ezik, irakasleek berresten dute euren inguruan nesken zako aproposak ikusten direla Letretako ikasketak, irakasle, estetika, biologia, medikuntza, erizaintza edo zaintzarekin, oro har, lotura zuzena dutenak. Eta mutilentzako, berriz, egokiagoak ei dira teknologiak, ingeniari-tza, automozioa, heziketa fisikoa, eta inizatiba behar duten lanbideak, baten iritziz. Gainera, bakar batzuk iritzi horien kontrako euren jarrera garbi uzten dute:

“*Oso neska-mutil estereotipatuak ditugu, gizartearen islada dena*”. (0601 LH Em)

“*Kulturalki mantentzen direnak (?)*” (2213 DBH Em)

“*Nire eskolan irakasle gehienak emakumeak izaten jarraitzen dugu*” (0829 LH Em)

“*Badirudi mutilak Ingeniaritza ikasi behar dutela adbz. Neskek berriz Magisteritza edo Erizaintza (nahiz eta ez natorren bat gauza hauekin)*” (3014 LH Gi)

“*Adibidez Heziketa Fisikoa beti lotu da mutilekin, baina niretzat ez da horrela, ikasgai hori bi generoentzako baita*”. (3025 LH Gi)

“*Mutilekin, heziketa fisikoa*”. (0407 LH Em)

“*Zaintzarekin lotuak daudenak neskenak; Inizatiba behar dutenak mutilek*”. (0602 LH Em)

“*Neskekin lotzen dira: hizkuntzak, arte hezkuntza; Mutilekin lotzen dira: zientziak, gorputz hezkuntza*” (0823 LH Em)

“*Kirola-->mutilak--ikasketak-->esku-trebetasuna, neskak*” (0824 LH Gi)

“*Mutilak teknikoak eta neskek biosanitarioak*” (2137 LH DBH Em)

“*Teknologiarekin lotuta mutilak, zientziarekin lotuak neskekin*” (0902 LH Em)

“*Teknologiarekin lotutakoak mutilekin, zientziarekin lotuak neskekin*”. (0903 LH Em)

“*Mutilekin-> Marrazketa teknikoa, Industria teknologia. Neskekin-> Biologia, Kimika*” (1507 Batx DBH Gi)

“*Arlo teknikoak mutilekin lotzen dira gehiago eta estetika eta zaintzakoak neskekin (gizartean eta ikasleen aukeretan)*” (1510 Batx Gi)

“Hizkuntzak neskekin eta mutilak zientziekin” (1511 Batx DBH Em)

“Teknologia eta gorputz soinketa mutilekin; Zientziak eta letrak neskekin” (1820 DBH Batx LbdH)

“Mutilekin arlo teknologikoa; Neskekin arlo humanistikoak” (1823 Batx Em)

“Teknologi, ingeniariaritz...mutilekin; Irakaslea, lan soziala, enfermera,... neskekin” (1828 Batx DBH Gi)

“Letretakoak neskentzat eta teknikoagoak direnak mutilentzat”. (1835 DBH Gi)

“Neskak: hezkuntza, erizaintza” (1852 Batx DBH Em)

“Los de siempre: cuidado de personas -> chicas. //tecnológico -> chicos” (2406 DBH Batx Gi)

“Mutilekin --> teknologia, marrazketa; Neskekin --> Biologia, Fisika, Kimika”. (3009 DBH Batx Gi)

“Teknikoak mutilekin (lotzen dira, ez dira lotu behar)” (1802 DBH Em)

“Ciclos Formativos industriales a chicos; Ciclos Formativos Servicios a chicas”. (2503 LbdH Batx Gi)

“Adibidez estetika neskekin eta automozioa mutilekin”. (2610 DBH Gi)

“Irakaskuntza, neskekin; Ingeniaritza, mutilekin”. (3008 DBH Batx Em)

Etorkizuneko ibilbide akademiko eta profesionala ez ezik, LHko irakasle batek azpimarratzen du, bere esperientziaren arabera, ikasketetan oso desberdinak direla neskak eta mutilak. Aisialdiari ere erreparatu diote hiru irakaslek eta horretan ere arras desberdinak dira ikasleek erakusten dituzten gustuak:

“ Ignoro el porqué pero en la práctica los chicos sobresalen más en ciencias y en matemáticas a las chicas en lengua y sociales (tal vez sea algo cultural)” (1101 LH Em)

“Áreas artísticas (bellas artes, música...) = chicas; Educación física (deportes de contacto...) = chicos” (0502 LH Em)

“Mutilak: kirola, play station, Neskak: abesbatza, artea, bolondresak, erlijio-taldeak”. (2411 DBH Gi)

“A los chicos se les asocian actividades más físicas que requieren fuerza. A las chicas actividades que tengan que ver con la estética”. (2707 DBH Gi)

**Laburbilduz**, (ikus 11. laburpen-laukia) irakaskuntzako profesionalek Hezkidetzan joka dezaketen paperaren inguruan esanenez ez dela gai arrotza gehientzat, gizon eta emakume, zahar eta gazteentzat, zuzendari eta irakasleentzat.

Horrenbeste datuen irakurketa eta interpretazioa egin ondoren, argi dago asko egin dela eta, era berean, asko dagoela egiteko; gizartean benetako aldaketak nekezak direlako gauzatzen. Eta, gainera, baliteke kezka eta zalantza ziurtasunak baino gehiago izatea.

Eragin beharreko aspektuak lirateke kontzeptua bera argitzea, esangura adosteko edo kontsentsu batera heltzeko. Gaiaz sentsibilizatzeko saioak edo kanpainak oso interesgarritzat jotzen dituzte irakasle askok, elkarrekin lan egin eta mezu bera helarazteko eskola komunitateari.

Hizkuntzari eman beharreko tratamendua dela, material didaktikoen hautaketa, tutoretza estiloa, ikasleen orientazioa, protokolo desberdinen ezarpena, hezkidetzaren zein esparrutan lan du beharko litzatekeen ere, denak arazotsu bilaka daitezke adostasunik ez badago zuzendari eta irakasleen artean. Baita ikasle eta gurasoekin ere.

### 11. laburpen-laukia

#### Ikasleak orientatzeko jarraitzen diren irizpideak

Kategoria	Erantzunen laburpena
<b>Zuzendarien iritziak garbiak dira orientaziorako eskaintzaren inguruan: Berdintasuna izan arren eskolaren apustua, gizarteko ereduak eta familiak sarritan ez datoz bat</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>– Irizpide berdinak, sexuari begiratu barik</li><li>– Informazio berdina ematen zaie</li><li>– Tenore honetako programa espezifikokoak erabiltzen dituzte</li><li>– Gustuari begiratu behar diotela azpimarratzen zaie ikasleei</li><li>– Eredu aberatsak eskaini (sexismo gabekoak), hitzaldi eta bisitaldietan</li><li>– Gizartean errotutako estereotipoen kontra egitea oso zaila dela</li><li>– Familiekin ere lan handia egin behar dela</li></ul>
<b>Irakasleen iritziak lanbide eta jakintza arloen inguruan:</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>– Irakasleen 3/4ak jakintza arloak sexuaren arabera bana daitezkeela errefusatzen du</li><li>– Irakasle batzuk (1/4) aitortzen dute neskek eta mutilek oso gustu desberdinak dituztela ikasketetan, aisialdian</li></ul> <p>Estereotipoak oso bizirik diraute:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>– Neskentzako: Letretako ikasketak, irakasle, estetika, biologia, medikuntza eta zaintzarekin lotuak</li><li>– Mutilentzako: teknologiak, ingeniariaritzak, automozioa, heziketa fisikoa eta inizatiba behar duten lanbideak</li></ul>

Izan ere, eskolak ez dira islak, gizartearen parte dira eta inguruarekin elkarerlazioan daude. Hori ukazina da. Baina irakasle askok erronka familiekin egin beharreko lanean ikusten dute eta aspaldian, halaber, etorri berri diren etorkin askoren jatorriko kultura oso urruti dagoelako hezkidetzako planteamenduetatik. Beste kultura batzuetako kide askoren pentsamoldeak sortu lezakeen talkari aurrea hartu behar zaio.

Hau guztia onik bideratzeko, irakasleek prestakuntza eta formazioa behar dute. Zuzendariek formazio espezifikoak egokiago ikusiko lukete, gai zehatz batzuk gainditze aldera. Irakasle andanak, ostera, prestakuntza praktikoa eskatzen du, nahiz eta oraindik asko egiteko dagoen sentsibilizatzeko eta kontzientziazioan. Badirudi makroa detektatzeko ez dagoela arazo larririk, baina jarrera eta jokaera desegoki arrunt asko oso barneratuak daude eta horiek dira benetan landu beharrekoak.

#### 4.1.4. Genero rolen adierazpenak eta interakzioak

Nesken eta mutilen arteko harremanak nondik nora gertatzen diren ikusi nahi izan dugu honetan. Horretarako, sexu bakoitzari egotzi ohi zaizkion jokamoldeak, estereotipoak, adierazteko moduak eta abar aztertu ditugu, mundu fisikoa nola birtualean.

##### 4.1.4.1. Nesken eta mutilen arteko jokaera-diferentziak

Zuzendaritzako taldekoei nesken eta mutilen arteko harremanak nolakoak ohi diren eta ea inoiz ikasleren batek sexu bortizkeria jasaten dueneko susmo sendoa topatu dutenean ea nola erantzun duten galdetu diegunean % 51.ek ezetz esaten dute, behintzat haiek ez dute horrelako salaketaren berririk (28. taula).

28. taula

#### Eraso sexistak

	BAI	EZ
<b>Azken urteotan jaso izan duzue eraso sexisten salaketarik? p.19</b>	% 11,8 (6)	% 51 (26)

Kasu gutxi izan badira horrelakoetan ikastetxeak horren aurrean emandako erantzuna eskolatik kanpo laguntza eskatzea izan da eta salatzeke neurriren bat adostu ere egin dute.

“Gizarte zerbitzuetara jo dugu, gomendioak eman dizkiegu emakumeei salaketa ipintzeko eta egoera ez onartzeko”. (02A HH LH Em)

“Gizarte zerbitzuekin harremanetan jarri, famili eta berritzegunerekin”. (06A HH LH Gi)

“Se denunció a la policía y se hizo una manifestación de apoyo a la víctima, que contó con el asesoramiento del psicólogo del centro” (25A DBH Batx LbdH Gi)

Irakasleriari galdetuta gai honi buruz zer estrategiak hartzen dituzte harrizkekoa da, agian kasu guxti gertatu direlako eta esperientzia gutxi daukatelako, baina erantzunen artean “arazoa ignoratzea” (% 41,8), “itxoitea ea arazoa nola doan” (% 49, 5), “arazoa ahaztea” (% 28,2) edo etsipena (% 28,4) dira portzentai altu batean ematen dituzten erantzunak. Ematen du ez dela irakasleen asuntza eta nahiago dutela ez parte hartzea (ikusi 29. taula).

## 29. taula

## Zer egin eraso sexistaren aurrean?

ERANTZUN MOTA	INOIZ EZ	GUTXITAN	BATZUETAN	SARRITAN	BETI
Inplikatuta dauden ikasleekin hitz egiten dut erasoaren arrazoi eta baldintzak ezagutzeko	% 0,7 (3)	% 1,2 (5)	% 5,5 (23)	% 11,7 (49)	% 30,8 (129)
Ez ikusiarena egiten dut	% 41,8 (175)	% 6,2 (26)	% 0,7 (3)	0	% 0,2 (1)
Gurasoekin hitz egiten dut	% 1,9 (8)	% 3,3 (14)	% 17,9 (75)	% 14,1 (59)	% 11 (46)
Ikasleak zigortzen ditut	% 6 (25)	% 7,9 (33)	% 23,6 (99)	% 6,2 (26)	% 3,3 (14)
Arazoa beste irakasle batzuekin partekatzen dut	% 0,5 (2)	% 9,3 (39)	% 17,9 (75)	% 21,5 (90)	% 49,2 (206)
Beren jokabidea gaitzesten dut	% 2,9 (12)	% 1 (4)	% 6,9 (29)	% 12,2 (51)	% 24,2 (103)
Ikasleekin hitz egiten dut haien portaeraren ondoriozko arriskuen berri emateko	% 1 (4)	% 0,7 (3)	% 4,8 (20)	% 13,6 (57)	% 29,1 (122)
Nahastuta sentitzen naiz eta ez dut jakiten nola jokatu	% 11 (46)	% 18,6 (78)	% 16,5 (69)	% 2,6 (11)	% 0,2 (1)
Ikastetxetik kanpoko pertsona aditu bati galdetzen diot zer egin behar dudan	% 13,1 (55)	% 17,7 (74)	% 11,7 (49)	% 3,8 (16)	% 2,6 (11)
Arazoak nola eboluzionatzen duen ikusteko itxoin egiten dut	% 49,5 (40)	% 15 (63)	% 14,8 (62)	% 6,4 (27)	% 2,4 (10)
Zuzendaritzari edo orientatzaileari aholkua eskatzen diot nola jokatu behar dudan jakiteko	% 2,4 (10)	% 3,6 (15)	% 16,5 (69)	% 13,4 (56)	% 13,4 (56)
Frustrazio handia sentitzen dut	% 8,6 (36)	% 14,8 (62)	% 17,4 (73)	% 5 (21)	% 2,1 (9)
Gogor lan egiten dut konponbide bat aurkitu arte	% 1 (4)	% 1 (4)	% 6,7 (28)	% 22 (92)	% 18,4 (77)
Errudun sentitzen naiz arazoa ezin izan dudalako ekidin	% 14,3 (60)	% 12,9 (54)	% 16,7 (70)	% 3,3 (14)	% 0,2 (1)
Arazoaz ahaztu eta nire irakats lanean zentratzen saiatzen naiz	% 28,2 (118)	% 13,1 (55)	% 3,6 (15)	% 1 (4)	% 1,2 (5)
Arazoari aurre egiteko dauden aukerak zeintzuk diren hausnartzen dut	% 0,5 (2)	% 1 (4)	% 4,8 (20)	% 21,7 (91)	% 19,6 (82)
Etsi egiten dut, pentsatzen dut ez dagoela zereginik	% 28,4 (119)	% 14,6 (61)	% 2,9 (12)	% 1 (4)	% 0,2 (1)

Azalpenetara pasatzen bagara, emandako erantzun kualitatiboen analisisa egitera, etapaz etapaz ideia hauek azpimarratu ditzakegu. Haur Hezkuntza etapako irakasleek nesken eta mutilen arteko jokaera ezberdinak azaltzeko gizartearen eragina nabarmentzen dute, gehienbat helduengandik entzuten dutena barneratu eta gero erreproduzitzen dutela.

“Generoarekin loturiko estereotipoak, esaerak.... entzun, barneratu eta erabiltzen dituzte”. (0104 HH LH Gi)

“Gure umeak txikiak dira. Bakarrik irainak erabiltzen dituzte nagusiak bezala”. (2615 HH Em)

“Se reproduce el lenguaje de la calle” (0604 HH LH)

**Lehen Hezkuntzako** etapan ere estereotipoen garapenean **telebistaren eragina** azpimarratzen dute. Horrela etapa honetako ikasleek jadanik ikasleek hizkuntza sexista eta homofobikoa erabiltzen dutela detektatzen dute, bai eta sexu bakoitzari esleitutako rolak ere bai. Hizkuntzarekin erlaziozuzenak batzuetan irain sexistak dira, nahiz eta kontziente ez izan zer adierazten ari diren, baina gizartearen eta telebistaren eraginez ikasten eta erabiltzen dituzte.

“En ciertos casos no lo conocen, no alcanzan a comprender el sentido real de ciertos insultos pero son conscientes de que diciéndolos hacen daño que es su propósito”. (1101 LH Em)

“Batzuetan bai, ‘puta zorra’”. (1003 LH Em)

“Noizean behin. Gehienetan telebistan ikusitako moldeak edo esaldiak izaten dira”. (0110 LH Gi)

“Askotan hitz desagokiak erabiltzen dituzte, baina beti ere nahigabe”. (3025 LH Gi)

“Batzuetan bai. Adibidez etxean, telebistan edo beste leku batean entzundakoak esaten dituzte haren esanahia jakin gab”. (3026 LH Gi)

“Bai (De puta madre, esto es la polla, qué coñazo...)”. (0903 LH Em)

“Algunas veces sí. Toman estas expresiones de la familia y de series de TV como ‘La que se avecina’ y otras parecidas”. (3016 LH DBH Gi)

Irakasleek seinalatzen dute etapa honetako ikasleek jadanik rolak eta estereotipoak ere barneratuak dituztela. Emakumeen rolak etxeko lanak, sukaldea eta mutilenak, kirolarekin identifikatzen dituzte. Koloreen esleipena, gustoa, irakurgaiak...

“Neskek ez dakite futboleko jolasten, ez dute indarririk...” (0205 LH Gi)

“Oraindik ere ikasle batzuek ez dute ikusi nahi neskari bere futbol taldeeta”. (2203 LH Em)

“Neskak sukaldera, neskak kirolean gutxiago dira” (3014 LH Gi)

“Emakumeak ez duela lanik egin behar”. (2018 LH Em)

“Mutilen / neskentzako liburua da hori”. (2123 LH Em)

“Baliteke jarrera sexistak izatea etxean ikusten eta ikasten dutenagatik. Adibidez: indarra behar denean mutilak egitea esfortzua, neskak indarrik ez duela esaten dutelako”. (0406 LH Em)

“(…) futbola mutilen jolasa da, arropa hau neskena da, kolore hau neskena da”. (0801 LH Gi)

“Zer joku mota dute gustoko. Koloreen erabilpena...” (0407 LH Em)

“Bai, adibidez: mutil batzuk trufatzen dira indar edo trebakuntza fisiko ‘gutxi’ duten beste mutilez. “Nenaza”, “mariquita” edo antzekoak deituz, mespreztuz”. (0828 GI)

“Oraindik, bai beraien artean, bai familien partetik badaude.. “Mari-koiak”/“nesken gauzak edo mutilenak”. (2122 LH Em)

“Bai, adibidez eta oso zabaldua dagoena: INTERNET-en bidez jasotzen dituzten gizon eta emakumeen estereotipoak erreproduzitzen dituzte: maitasuna bizitzeko ereduak, janzkera, izaera. Eta baita ‘Hombre mujeres y viceversa’ programatik jasotzen dituzten eredu gaixoak”. (0829 LH Em)

Irakasleek honen aurrean askotan frustrazioa sentitzen dute oso zaila delako gizartearen aurka borrokatzea, familia eta komunikabideen aurka.

“ Askotan frustrazioa sentitzen dut, ahaleginak eta gero ez dudalako lortzen aldaketa sakon bat”. (0407 LH Em)

“Ez zait inoiz gertatu. Eta gertatuko balitzait ez nuke paso egingo, inondik inora. Familiarekin, ikasleekin, ikasle erasotzaileen gurasoekin, zuzendartzarekin eta aholkulariekin hitz egingo nuke... nork ez?”. (0601 LH Em)

“Batzutan, frustrazioa sentitzen dut, eskolan ematen den konponbidea arazoa konpontzeko ez dagoelako indartuta etxetik eta askoz gutxiago gizartean dauden hezkidetzaren kontra baloreekin”. (0823 LH Em)

Bestalde, irakasleen erantzunen arabera **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako** etapan rolen banaketa eta estereotipoek indar gehiago hartzen dutela ikusten dugu..

“ Normaltzat hartzen dute genero banaketa arlo batzuetan: lanbidea, jarrerak, zaletasunak, eta abar”. (1844 Batx DBH Gi)

“Mutilen eta nesken rola batzuetan bereizturik sentitzen dituzte”. (1505 Batx DBH Em)

“Janzkera, irudia, hitz egiteko erak”. (1511 Bat DBH Em)

“Eskolako edozein arlotan bai neskak bai mutilak aurki daitezke, kirolean gehienbat mutilak dira”. (1512 DBH Em)

Baina **irakasleek eurek ere barneratuta** dituzte nesken eta mutilen arteko rolak, eta normaltzat ematen dituzte, edo behintzat ez dituzte kolokan jartzen.

“*Veo que por cultura los chicos son más actuadores y las chicas se lo piensan más, esto en general pero siempre hay particularidades*”. (1701 Batx DBH Em)

*“Hezitzaileek lagundu, zuzendu, argitu eta pentsarazi behar diegu ikasleei. Baina garai honetan gure rola askotan ez da hori eskatzen digute gehiegi. Ikasleek norberaren burua defendatzen ikasi behar dute, ematen du gaur hori ez dela erraza, berehala nagusiak sartzen gara -hipersentsibilizatuak- haien arazoak konpontzera*”. (1801 Batx DBH Em)

*“Sí, pero son parte del juego graciosos,... de su cultura*”. (1413 DBH Em)

Badaude estereotipoen aurrean zer egin planteatzen duten irakasleak, baina askok **ziurtasun falta eta ezjakintasuna** erakusten dute.

“*Holakoetan, eta gertatu izan zait, mila ate joka ibili naiz, baino bakar-bakarrik egin behar izan diot aurre arazoari, inor ez da inplikatu, zuzendaritzakoak ezta (ez da zentro honetakoa izan)*”. (1802 DBH Em)

*“Kasoa, egoera eta ikaslearen arabera hartzen dut erabakia nola jotatzearena. Eta batzutan ez dakigu nola jokatu edota ez dugu asmatzen*”. (2610 DBH Gi).

#### 4.1.4.2. Nesken eta mutilen diskurtso-diferentziak

Bigarren hezkuntzako irakasleek nesken eta mutilen artean diskurtso ezberdinak erabiltzen dituztela diote eta **hizkuntza sexistaren** erabilpena nabaria eta ohikoa izaten dela. Irain asko matxistak dira (“cojonudo”, “coñazo”...)

“*Nesken inguruan hitz egiteko dituzten hitzak (Jaca, jamba, jamona, coñejo...) eta beraien artean harremantzeko duten modua*”. (2610 DBH Gi)

*“Expresiones malsonantes: zorra, puta, ser un don juan, narciso...”* (2713 DBH Gi)

*“(...) amargada”, “escocida”* (2008 DBH Em)

Askotan iruzkin hauek bereziki **homofoboak** dira, hau Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan gertatzen da gehienbat.

“*Marikoia bereziki*”. (2213 DBH Em)

*“Komentario homofoboak”*. (2136 DBH Gi)

*“Marimacho”*. (3005 DBH Em)

Ez dira hitzak bakarrik; **txistreak, iruzkinak eta aurreritziak** ere kutsatuta daude.

“Eguneroko portaera askotan oso gutxi aurreratatu delako gai honen inguruan urte askotan landuak izan arren”. (1808 DBH Em)

“Estereotipo matxistek jarraitzen dute gure artean oraindik, “mutilek ez dute negarrik egiten”. (2710 DBH Gi)

“Bai, aurreiritzi asko dituzte. Adibidez sexuaren aurrean daukaten jarrerera oraindik ere sexista da”. (3008 DBH Batx Em)

12. laburpen-laukia

Gizon eta emakumeen arteko diskurtso diferentziak

Kategoria	Erantzunen laburpena
<b>Hizkuntza sexista</b>	Gutxiezteko termino femeninoak (“coñazo”...) eta goraiatzeko maskulinoak (“cojonudo”...)
<b>Hizkuntza homofoboa</b>	DBH.ko etapan gutxiezteko irain homofo asko erabiltzen dituzte (“maricón”, “marimacho”...)
<b>Txisteak, iruzkinak, aurreritziak</b>	Jarrera, estereotipo eta aurreitzi sexista asko mantentzen dira oraindik
<b>Telebistaren eta kalearen eragina</b>	Telebistan eta kalean ikusten dutena barneratzen dute gogoeta kritikorik gabe
<b>Kultura edo etnia jakin batzuegan nabarmenagoa</b>	Bereziki kultura edo etnia jakin batzuekin diskurtso-diferentzia hauek nabarmentzen dira.

Irakasleek esaldi edo intsulto hauek askotan **telebistaren eraginagatik edo kalean** daukelako erabiltzen dituztela pentsatzen dute. Irakasleek entzun eta barneratu egiten dituzte, askotan zer adierazten duten edo zer esaten ari diren ondo jakin gabe. Ez dago hizkuntza horri buruz analisi kontziente bat.

“Telebistak adibide asko ematen ditu”. (1820 DBH Batx LbdH)

“Ziurrenik bai, ez dakit momentuan, baino TV-tik edo kaletik entzundakoa errepikatzen dute”. (2217 DBH Gi)

Irakasle batzuek **kultura edo etnia jakin** batzuetara lotzen dituzte horrelako adierazpenak.

“En algunas etnias (gitana) la expresión: las chicas siempre hacen la casa. A veces insultos”. (402 DBH Em)

“Bai, argi dago. Emakumea naiz eta oraindik ikasle gizon batzuk errespetu faltarekin tratatzen naute (normalean beste kulturetatik etorritakoak)”. (1801 Batx DBH Em)

“Hedabideetan entzundako esaerak eta ikasleen ingurukoak erabilitakoak (lagunak, familia, etab.). Esaerak edo jarrerak errepikatzen dituzte benetan kontzienteak izan gabe”. (3009 DBH Batx Gi)

Generoaren ingurua neskek eta mutilek diskurtso ezberdina dute (ikusi 12. laburpen-laukia).

### 4.1.4.3. Lanbide-aukeraketak

Atal honetan irakasleriari galdetu genion ea sexuaren arabera arlo ezberdinak daudela pentsatzen zuten, eta baietz pentsatzen bazuten ea zeintzuk ziren neska edo mutilekin lotzen ziren arlo horiek. Jaso dugunaren arabera ikus daiteke irakasleek pentsatzen dutela badaudela nesken eta mutilen artean interes, gaitasun eta arlo profesional ezberdinak (30. taula).

30. taula

#### Ikasleen lan orientazioa hezkuntza zentroan

	ERABAT DESADOS	DESADOS	EZ ADOS EZ DESADOS	ADOS	ERABAT ADOS
<b>Badira jakintza arlo batzuk mutilekin gehiago lotzen direnak eta beste batzuk neskekin</b>	% 57 (13,6)	% 19,6 (82)	% 10,7 (45)	% 8,8 (37)	% 1,9 (8)
<b>Eskolak estereotipo horiek mantentzen laguntzen du</b>	% 13,6 (57)	% 24,3 (102)	% 11,5 (48)	% 4,5 (19)	% 0,2 (1)
<b>Eskolak egoera hori eraldatzen laguntzen du</b>	% 2,4 (10)	% 3,3 (14)	% 11,2 (47)	% 30,5 (128)	6% (25)
<b>Zure eskolan jakintza teknologikoa “mutilen” arloa dela esango zenuke?</b>	% 16,7 (70)	% 24,8 (104)	% 9,1 (38)	% 3,1 (13)	% 0,2 (1)
<b>Zure eskolan pertsonen zaintzaren eremua “nesken” arloa dela esango zenuke?</b>	% 14,8 (62)	% 24,3 (102)	% 9,5 (40)	% 5 (21)	% 0,5 (2)
<b>Genero-estereotipoak hausten edo gainditzen dituzten kasuak ezagutzen ditut eskolan</b>	% 5 (21)	% 9,1 (38)	% 15,8 (66)	% 16,5 (69)	% 2,4 (10)
<b>Neskak izaten dira gehienbat estereotipo horiek hausten dituztenak</b>	% 4,1 (17)	% 12,2 (51)	% 23,4 (98)	% 8,6 (36)	% 1,7 (7)
<b>Mutilak izaten dira gehienbat estereotipo horiek hausten dituztenak</b>	% 4,8 (20)	% 16,5 (69)	% 25,8 (108)	% 1,7 (7)	% 0,7 (3)

Irakasleriaren % 57 batek neska eta mutilentzat **jakintza arlo ezberdinak** daudela pentsatzen dute, eta arlo horiek zeintzuk diren argi daukate. Mutilak gehiago zientziak, matematika, heziketa fisikoa eta kirolarekin, arlo teknikoekin (ingeniartizak); eta neskek gehiago artea, estetikak, letrak, hezkuntza, osasuna, zaintza-lanekin lotutako ikasketekin...

“Zaintzarekin lotuak daudenak neskenak; Iniziatiba behar dutenak mutilek”.  
(0602 LH Em)

“*Ignoro porqué pero en la práctica los chicos sobresalen más en ciencias y en matemáticas a las chicas en lengua y sociales (tal vez sea algo cultural)*”. (1101 LH Em)

“*A los chicos se les asocian actividades más físicas que requieren fuerza. A las chicas actividades que tengan que ver con la estética*”. (2707 DBH Gi)

Beste irakasle multzo batek uste du dauden ezberdintasun hauek naturalak ez direla eta egoera hau salatzeke gai dira. Irakasleek adierazten dutenez **gizartearen isla dira estereotipo horiek**.

“Nire eskolan irakasle gehienak emakumeak izaten jarraitzen dugu”.  
(0829 LH Em)

“*Badirudi mutilak Ingeniaritza ikasi behar dutela adbz. Neskek berriz Magisteritza edo Erizaintza (nahiz eta ez natorren bat gauza hauekin)*”.  
(3014 LH Gi)

“*Irakasle batzuk gaitasun ezberdinak dituztela uste dute, neskek gehiago esku lanak egiteko eta mutilak gehiago ikasketarako*”.

“*Oso neska-mutil estereotipatuak ditugu, gizartearenislada dena*”. (0601 LH Em)

“*Kulturalki mantentzen direnak*”. (2213 DBH Em)

Atal honekin bukatzeko esan behar dugu nahiz eta egoera hau, alegia jakintza edo lanbide arloak oraindik ere estereotipatuak izaten mantentzen diren, zuzendaritza taldekoek erantzunetan adierazten dutela egoera hau gainditzeko neurriak hartzen bai eta zentroetan praktikara eramaten ari direla baita ere. **Zuzendarien % 33,3 baten arabera hezkuntza zentroetan orientabide irizpide ez sexistak ematen dira**. Agian beste lan batean irizpide horiek noiztik jarri diren martxan edo horien eraginkortasuna aztertu beharko litzateke, momentuz eraginkorrak ez direlako.

13. laburpen-laukia

**Lanbide aukeraketak**

Kategoria	Erantzunen laburpena
<b>Irakasleen gehiengo batek genero estereotipoak barnetatuta dituzte oraindik</b>	Irakasleriaren zati handi batek lanbide- aukeraketa genero estereotipoak “natural”-tzat hartzen ditu. Mutilentzako arloak (zientziak, matematikak, arlo teknikoak, kirola...), neskeentzako arloak (letrak, artea, estetika, zaintzarekin erlazionatutakoak...)
<b>Irakasleen gutxiengo batek genero estereotipoak kulturalak direla pentsatzen dute</b>	Lanbide-aukeraketan genero estereotipoak kulturalak dira eta gaur egunean mantentzen dira

**Laburbilduz:** Neska eta mutilek beraien arteko harremanetan erabiltzen duten hizkuntzak se-xista izaten jarraitzen du, batez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan, eta baita ere haien jokamoldeak eta estereotipoak. Irakasleek honen aurrean haien frustrazioa adierazten dute, eta nahiz eta euren hezkuntza zentroetan egoera honen aurka lan egin, oso zaila ikusten dute eta emaitzak oso urriak, gizartearen eragina, eta gehienbat telebistaren eragina oso indartsua delako. Egoera honetan, askotan ziurtasun falta eta etsipena sortzen da irakasle-rian. Lanbide edo ikasketen aukeraketan ere oso aldaketa gutxi ematen ari da, neskentzat eta mutilentzat propioak diren arlo estereotipatuak oso errotuta daudelako pertsona guztietan. Irakasle askok aukeraketa hauek naturalak direla uste dute, oso gutxi dira kulturaren eragina hemen ikusten dutenak. Hori dela eta, irakasleriaren prestakuntzan lan gehiago egin behar dela uste dugu (ikusi 13. laburpen-laukia).

4.1.5. Espazioaren erabilera

4.1.5.1. Patioaren erabilera

Atal honetan espazioaren erabilera aztertu nahi dugu. Eskolako patioan suertatzen diren egoeren berri jaso nahi dugu; hau da, gelaz kanpoko orduetan neska eta mutilak elkarrekin edo bereiz aritzen diren eta baita ere haien jolasek ezaugarri prototipikorik izaten duten ere aztertu nahi dugu. Horretarako irakasleriari galdetu diogu ea zer ikusten duten gai honi buruz. Erantzunen artean nabaria da neska eta mutilen partetik espazioaren erabilera ezberdina dela eta gehienbat futbola dela espazio gehien okupatzen duena, mutilen jarduera mota izaten delarik. Etapaz etapa eskolako patioetan zer gertatzen den aztertzen hasi garenean irakasleek erantzunek harritu gaituzte, izan ere futbolaren jarduera Haur Hezkuntzako etapatik sartuta baitago jolastokietan, eta mutilen jarduera dela azpimarratzen dute. Ezaguna da beraz lehenadibiziko adinetan bereizgarria den ekintza bat eskoletan. Modu horretan ere mutilek futboleko jokatzeko espazio gehiena hartzen dute.

“ Mutilek gehiago okupatzen dute: futbol zelaia, kantxak, patioaren erdi-gunea... eta neskak normalean alboetan (orokortuz)” (0104 HH LH Gi)

Jarduera honek, gainera, neskei eta mutilei ezartzen zaizkien rola markatzen ditu etapa goiztiar honetan; **mutilak aktiboagoak**, kirolean **eta neskak pasiboagoak**, eserita edo solasean.

“*Generalmente los chicos juegan al fútbol y las chicas pasean o se sientan y hablan*”. (2014 DBH Em)

Mutilen eta nesken arteko distantzia hartzea etapa honetan hasten da; gutxieneakoak dira neskak eta mutilak elkarrekin jolasten duten jolastokiak, irakasleek aipatzen dutenez.

“*Nik baietz esango nuke, baditugu saskibaloian eta futbolearen aritzen diren neskak. Eta nire gelakoak adibidez: beraien artean neska-mutilak jolas ezberdinetan aritzen dira*”. (0825 HH LHEm)

Modu naturalean elkarrekin jolasten ez dutenez hezkuntza zentro batzuek **esku hartze programa** bat martxan jartzen dute, eta kasu hauetan bai jolasten dutela elkarrekin, baina modu espontaneoan oso gutxitan.

“*(...) lo utilizan igual. Hay una programación para el juego...*” (0604 HH LH Em)

Lehen Hezkuntzako etapan mutilen protagonismoa eta **futbolaren nagusitasuna jolastokietan** nabarmenagoa da. Erantzunen gehiengo batek adierazten du **jolastokiaren espazioa mutilena** dela, eta batez ere futbolearen jolasteko. Neskak ikusezinak bihurtzen dira.

“*Los chicos preferentemente fútbol. Las chicas quedan invisibles*”. (0606 LH Em)

“*Argi eta garbi futbola jolasten den gunea mutilena da*”. (2018 LH Em)

“*Nahiz eta neska batzuk kirol guneak erabili batzuetan, leku horiek “mutilentzako” modukotzat hartu ohi dira (saritan), adibidez*”. (0828 Gi)

Eta ez bakarrik futbolera jolasteko, **orokorrean beste kirolak egiteko** edo beste jarduera fisikoak egiteko mutilek okupatzen dute toki gehiena.

“*Askotan nahastuak dauden arren, mutilak gehiago ibiltzen dira kirolean*”. (0110 LH Gi)

“*Futbola da nagusi. Zelaietan neskak ia ia ez dute jolasten. Saski baloian, neskak eta mutilak*”. (0515 LH Gi)

Hau da, jolastokiaren espazioa **eremu maskulinoa** da, irakasleek adierazten dutenez kirol espazioak eta eremu zabalenak mutilentzat dira.

“*En el polideportivo sobre todo son los chicos los que lo usan para jugar al fútbol*”. (2024 LH Em)

“*Mutilek futbol zelaiak eta frontoia...Kirol-esparruak. Neskak bazterretan, eserlekuetan...*” (2122 LH Em)

Neskek jolastokian espazio gutxiago erabiltzen dute eta beti pasiboagoak diren jarduerak egiteko, gehienbat hitz egiteko.

“*Las niñas ocupan menos espacio. Se agrupan y hablan. Los chicos juegan, ocupando los campos*”. (0511 LH DBH Em)

“*Neska gehienak paseatzen ibiltzen dira patio osoan zehar. Mutil gehienak, berriz, porteria inguruetan aritzen dira*”. (2022 LH Em)

Irakasleek aipatzen dutenez mutilek eta neskek **ez dute elkarrekin jolasten**, bakoitza bere aldetik doa.

“*Ez dituzte berdín erabiltzen. Neskak eta mutilak normalean, ez dira elkarrekin jolasten*”. (3024 LH Gi)

“*Pilotan mutilak eta ping-pongean ere. Neska asko, paseoan, hitz egiten, harrapaketat, ezkutatzean,...*” (0905 LH Em)

Kasu batzuetan, gutxiengoetan, **neskek ere mutilen jardueretan** parte hartzen dute.

“*Se utilizan por igual. Hay más niños en el campo de fútbol, pero no hay problema cuando juegan las niñas (por ejemplo)*”. (2602 LH Gi)

“*Normalean leku gehiago futbolerako, baina gero eta neska gehiagok jokatzén dute futboleán*”. (2612 LH Em)

Irakasleriaren zati batek **ez du ikusten beharrezkoa** jolastokiko dinamikan parte-hartzea. Ez dute ezer arrarorik sumatzen.

“*En las horas de patio el juego es libre, por lo que cada cual puede elegir qué hacer*”. (3037)

“*Eskola honetan hausnarketa egin dugu honen inguruan, horrela zikloka txandatur doaz espazioak eta bertan futbolerako gai espazio librea ere badago. Gainera jolasen mailegu zerbitzua dugu, aukerak eskaintzen ditugu: goma, soka, txapak, tenis, boleiball, indiaka, mikado...*” (0601 LH Em)

Irakasleek **gizartearen eragina** dela eta horregatik jolastokietan ere jarduera estereotipatuak eta espazioaren okupazio asimetrikoa ematen dela uste dute.

“*Baina gustuen arabera izaten da. Kulturalki matxismoak eragindako ohiturak daude eta horregatik erabilera desberdina ematen diote batzuek edo besteek*”. (0827 LH Gi)

“*Futbolaren diktaduraren menpe daudela esan dezakegu, mutilak futboleán eta beste guztiak beraien beldur*”. (2705 LH DBH Gi)

Bigarren Hezkuntzako etapa honetan **ikasleek jolastokia gero eta gutxiago** erabiltzen dute jolasteko; hala ere, Lehen Hezkuntzan bezala, espazioa okupatzen denean mutilen futbole-rako izaten jarraitzen du.

“Orokorrean gutxi jolasten da patioetan, eta gutxi jolasten dute, gehi-  
netan mutilak, futbola edo saskibaloira baina neskaren batek nahi badu  
ere jolasten du”. (1501 DBH Em)

“Mutilek okupatzen dute patioaren portzentaje handi bat, eta gehi-  
netan jolas “matxitoak” edo indarra erabiltzeko jolasak egiteko. Neskek,  
aldiz, patioaren zati txiki bat erabiltzen dute, mutilek soberan uzten  
dutena”. (1820 DBH Batx LbdH)

Orokorrean jolastokietan **mutilen jarduerak** mugimenduarekin edo kirolarekin erlazio gehia-  
go izaten dute, eta **neskenak gehiago eserita egotera**, solasaldietan eta mutilei begira.

*Mutilek nahiago dute patioa jolasteko erabiltzea eta neskak, berriz, ez  
dute hainbeste kirolik egiten, nahiago dute denbora hitz egiten eman”.*  
(1813 DBH Em)

*“Neskak lasai egoten dira hitz egiten eta mutilak edo kirola egiten edo  
indar-jokoekin”.* (1822 DBH Em)

*“Ez dituzte berdin erabiltzen. Neskek, normalean, hitz egiten dute eta  
mutilek zerbaitetara jolasten dute (saskibaloia, futbola,..)”.* (1836 DBH Em)

*“Mutikoak esparru gehiago hartzen dute. (Oso mugikorrak dira); nes-  
kak beste eran erabiltzen dute esparrua”.* (1846 Batx Gi)

Irakasle batzuek **normalizat** hartzen dute banaketa hau eta ez dute ezer arrarorik ikusten  
jolastokiko dinamika hauetan.

“Estos espacios los utilizan los niños y las niñas según sus aficiones o  
intereses”. (1705 Batx Gi)

*“Berdintasuna eta berdin erabiltzea ez dute zerikusirik. Neskek beraien  
nortasuna mantendu dezakete eta beharko lukete, gustu eta sentsibili-  
tate ezberdinak baitira neska eta mutilen artean orokorrean. Eta zer?”*  
(1801 Bat DBH Em)

*“Mutilek kirola egiteko espazioak kontrolpean dituzte (baina neskek ere  
ez dute interes handirik)”.* (1814 Batx DBH Em)

Beste irakasle batzuek, aldiz, bai ikusten dutela **desoreka bat** badagoela eta zerbait egin  
beharko litzatekeela.

“Mendebaldean patioaren 3/4ak mutilek (3. eta 4. mailakoak) indarrez  
hartu dituzte eta ikasle txikiak eta neskak baztertuta gelditzen dira

*txoko bazterretan. Zaintzen dugun irakasle batzuk horren inguruan solastu gara” (1802 DBH Em)*

*“Patioan ikusten dena gizartearen islada da; beraz, neskek eta mutilek ez dituzte berdin erabiltzen jolas-lekuak eta patioak” (1805 Batx DBH Gi)*

14. laburpen-laukia

Espazioaren erabilera jolastokian

Kategoria		Erantzunen laburpena
HH	<b>Jarduera bereizgarria: Futbolaren hasiera goiztiarra</b>	Futbola mutilen jarduera bereizgarri bezala oso goiz sartzen da jolastokietan
	<b>Rol ezberdinen hasiera</b>	Rol ezberdinak ezartzen dira etapa honetan: Mutilak aktiboagoak, neskek pasiboagoak
	<b>Oso gutxi jolasten dute elkarrekin</b>	Mutilen eta nesken arteko distantzia etapa honetan hasten da, jolas ezberdinak
LH	<b>Futbolaren nagusitasuna</b>	Mutilek gehienbat futboleant aritzen dira, neskek ikustezinak dira
	<b>Jolastokia eremu maskulinoa</b>	Jolastokien espazioa mutilena da, mutilek eremu zabalak behar dituzte kirol jarduerak eta jolasak egiteko
	<b>Rol estereotipatuak egonkortzen dira</b>	Mutilak aktiboagoak eta neskek pasiboagoak
	<b>Neskek transgresoreak</b>	Rolak aldatzekotan neskek dira mutilen jardueretan parte hartzen dutenak, transgresorak direnak
	<b>Irakasleriaren zati handi batek onarpena “natural”tzat</b>	Irakasleek normala ikusten dute rol banaketa hau, eta ez dute genero estereotipoak somatzen
	<b>Irakasleriaren gutxiengo batek kontzientziazioa</b>	Irakasleriaren batzuk genero estereotipo hauek eta asimetriak detektatzen dituzte jolastokietan
DBH	<b>Jolastokiaren erabilpen urriagoa</b>	DBH-ko ikasleek gero eta gutxiago erabiltzen dute jolastokia jolasteko
	<b>Mutilen eremua</b>	Jolasten duten kasuetan jolastokiaren espazio zabalena mutilek erabiltzen dute futbolerako, neskek eserita gelditzen dira
	<b>Irakasleriaren onarpena “natural”tzat</b>	Irakasleriaren gehiengoak naturala ikusten du erabilpen hau eta ikasleen interes “naturalak” errespetatu behar direla defendatzen dute
	<b>Irakasleriaren zati batek desoreka ikusten du</b>	Irakasleriaren gutxiengo batek jolastokiaren erabilpenean desoreka bat dagoela ikusten du eta zerbait egin beharko litzatekeela pentsatzen du.

**Laburbilduz:** Eskolako lehen etapatik, Haur Hezkuntzan, espazioaren erabilera ezberdina da nesken eta mutilen aldetik. Mutilak futbolearen aritzen dira jada eta espazio gehien okupatzen dute. Neskak, bestalde, futbol zelaiaren inguruan ibiltzen dira, edo eserita, eta hitz egiten pasatzen dute jolastokiko denbora. Elkarrekin jolasten badute zentroetan plangintza bat dagoelako da, hezkuntza zentroaren esku-hartze kontzientea egiten denean. Lehenengo etapan nabarmenagoa da mutilen protagonismoa futbolearen, eta neskak ia-ia ikusezinak bihurtzen dira jolastokietan. Mutilak gainera futbolearen bakarrik ez, beste jarduera aktiboagoetan ere aritzen dira, nesken jarrerak ordea pasiboagoak izaten jarraitzen dute. Espazioaren okupazio asimetriko horren aurrean irakasleen jarrerak ezberdinak dira. Batzuek normaltzat hartzen dute egoera hau, eta ez dute ezer arrarorik ikusten, mutilen eta nesken jarrerak naturalak direla pentsatzen dutelako. Beste irakasle multzo bat kontzienteagoa da gizartearen eraginaz eta zerbait egin beharko litzatekeela uste du. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasleek gutxiago erabiltzen dute jolastokia, baina erabiltzen dutenean aurreko etapetako egoera bera edo modu erradikalagoan izaten da. Orduan bai, mutilak futbolearen eta neskak mutilen begira edo txutxumutxuka aritzen direla. Hemen ere irakasleen jarrera bi motatakoa da, zerbait naturala dela pentsatzen dutenak eta desoreka bat ikusten dutenak. Azken hauek zerbait egin beharko litzatekeela uste dute nahiz eta zaila ikusten duten (ikusi 14. laburpen-laukia).

#### 4.1.5.2. Jolasen ezaugarriak

Neskak eta mutilak aritzen diren jolasak nolakoak diren eta horietan ezberdintasunak dauden ere galdetu diogu irakasleriari. Hurrengo atal honetan irakasleek eman diguten informazioa aztertzen dugu. **Haur Hezkuntzako etapan** bi motatako jolasak daude, **irakasleek proposatuta eta zuzendutakoak**, eta **era naturalean haurren artean sortzen direnak**. Lehendabiziko multzoan, irakasleek proposaturikoak, jolas kooperatiboak eta kirolarekin erlazionatutakoak topatzen ditugu.

“Denok parte hartzekoak eta kooperatiboak”. (0910 HH LH Em)

“Por ejemplo se les ha propuesto jugar al baloncesto”. (2014 DBH Em)

“Gehienetan irakasleak proposatutakoak. Hala ere gutxi egiten dugu aspektu horretan”. (0104 HH LH Gi)

Baina gehienetan haurrek beren kabuz, era naturalean jolasten dute.

“Era naturalean. Soka saltokan adibidez, badira neskak eta mutilak. Egia da bestalde, beraiek elkartzen direla jolasteko. Neska gutxi jolasten dira futbolearen baina egon badira”. (2615 HH Em)

“Harrapaketatara, futbola...amatxo-aitatxo” (0404 HH Gi)

“Beraien kabuz, nire kasuan, adibidez: gomako jolasak, “polis y cacos”. (0825 HH LH Em)

**Lehen Hezkuntzako etapan** nagusitzen diren jolasak edo jarduerak era naturalean sortzen dira, hemen irakasleen parte-hartzea txikiagoa da, eta parte hartzen duten kasuetan futbolaren eragina gutxitzeko egiten da. Horretarako “**baloi gabeko egunak**” antolatzen dira, kasu batzuetan horrelako ekintzetan asko sinesten dute eta beste zentroetan etsituta daude jada.

“Gutxitan irakasleek proposatzen ditugu, euskararen astean edo horrelako egun berezietan. Jolasak ez dira hainbeste aldatu. Futbola, saskibaloia, harrapaketa, dantza egitea...” (0205 LH Gi)

“El profesorado este curso ha propuesto otros tipos de juegos para que no sea el fútbol el rey. Ha dado alternativas”. (0606 LH Em)

“Hilabetean behin irakasleak proposatutako jolasak egiten dituzte. Asteazkenetan, baloirik eta pilotarik gabeko eguna da, beste zerbaitetan jolastu behar dute”. (0904 LH Em)

“Librea da. Lehen baloirik gabeko eguna egiten genuen. Orain ez”. (0601 LH Em)

“Mutilak futbolaz. Neskak paseoan. Batzuetan tutoreak bultzatzen du elkarrekin jolastea edota ikasleren bat onartzea”. (0407 LH Em)

**Era naturalean** jolasten dutenean **mutilek futbola edo bestelako kirolen** bat egiten dute gehiago.

“Mutilenak aktiboagoak dira eta izerdituta bueltatzen dira gelara. Neskenak, berriz lasaiagoak dira” (2022 LH Em)

“Es algo que los propios alumnos eligen. Normalmente los chicos juegan al fútbol (en contadas ocasiones también las chicas y han sido muy aceptadas)” (1101 LH Em)

“Naturalean suertatuak. Eta hor bai ikusten dela mutilak baloiko jolasetara jotzen duela”. (0817 LH Em)

“Gehienetan era naturalean suertatuak: soka-saltoan (gehienetan neskak), harrapaketan (neskak eta mutilak), saskibaloian (neskak eta mutilak), eskubaloian gehienetan baloi-errea (neskak eta mutilak), futboleant (gehienak mutilak)”. (0829 LH Em)

**Nesken kasuan ez jolastea** ere azpimarratzen da.

“Neskek ez dute jolasten. Mutilei era naturalean suertatzen zaie”. (2012 DBH LH Em)

“5. mailatik aurrera jolasak ezberdintzen hazten dira: futbola, soka-saltoa, ez jolastu neska gehienek kasuan...” (2601 LH Em)

“Mayoritariamente surgen de manera natural: pilla-pilla, fútbol, juegos de contacto (los niños): las niñas hablan, bailan”. (0502 LH Em)

Eta **elkarrekin jolasten** dutenean neskak mutilen jolasetan integratzen direlako izaten da, baina ez alderantzizko norabidean.

*“Mutilek kirola dute nahiago (ez denek), oro har beste mutilekin. Irakasleek bultzatuta neska batzuk nahasten dira mutilekin jokoan”.* (0828 Gi)

**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan**, nahiz eta mutilen eta nesken **jolasak ezberdinak** izan eta haien artean erlaziorik ez egon, **irakasle askok natural ikusten dute** eta ez dute parte-hartzeko beharrik ikusten.

“Mesedez, Bigarren Hezkuntzan gaude. Gu ez gara sartzen haien jolasak proposatzera. Modak egoten dira”. (1801 Batx DBH Em)

*“Zertan jolastu beraiek erabakitzen dute. Portaera naturala (genetikoa) ala kulturala den ala ez... batek daki. Nire ustez, biek daukate eragina”.* (1843 DBH Gi)

*“Neskek ez dute jolasten; Mutilei natural ateratzen zaie”.* (2013 DBH Em)

*“Surgen de manera natural. Son diferentes en función de los gustos de cada uno”.* (3006 DBH Em)

*“Normalean haiek erabakitzen dute eta horretan ez dut sumatu arazorik”* (1503 DBH Gi)

Nesken eta mutilen **jolasak ezberdinak** dira eta ez dute elkarrekin jolasten.

“Mutilak beti baloi baten inguruan elkartzen dira, futboleko edo saskibaloian jolasteko. Oso gutxitan elkartzen dira neskak eta mutilak elkarrekin jolasteko”. (3009 DBH Batx Gi)

*“Natural” sortzen dira. Mutilak futbola, neskak bolei eta txutxu-mutxuka”* (1407 DBH Gi)

*“Se organizan deportes pero la selección y la elección sí surge de manera natural, son más activos los chicos en los juegos deportivos”.* (1413 DBH Em)

*“En general los chicos juegan más a juegos violentos y las chicas prefieren conversar, pero siempre hay particularidades”.* (1701 Batx DBH Em)

*“Beraiek proposatuak (era naturalean suertatuak). Mutilen jolasak bortitzak, indarra erabiltzekoak. Neskak txutxu-mutxuka...”* (1820 DBH Batx LbdH)

*“Modu naturalean suertatutakoak dira baina estereotipatuak (futbola, saskibaloia). Baina beste batzuetan (sokasalto eta harrapaketa jolasak) mutil eta nesken parte-hartzea orekatua da edota pentsa daitekeenaren kontra, mutilek gehiago jolasten dutela esango nuke”.* (2610 DBH Gi)

Neskek eta mutilek **elkarrekin jolasteko** irakasleek jardueren antolaketa parte hartu behar dute.

“*Neskak eta mutilak jolas partekatuetan egiteko irakasleek bultzatu behar dute normalean*”. (1411 DBH Em)

“*Naturalak gehienak, kirolak. Baina badaude proposatutakoak ere, horiek kirolak dira, baina taldeak mistoak izan behar dira*”. (2219 DBH Em)

“*Badira joko batzuk noizean behin antolatutakoak. Herri-kirolak adibidez*”. (1502 Batx DBH Em)

Nahiz eta batzuetan irakasleek jarduerak antolatzen dituzten, horrekin **estereotipoak gehiago indartzen** dituzte, mutilen jarduerak indartzen dituztelako, futbol partiduak, kirol txapelketak

“*Surgen de manera natural, aunque se suelen realizar competiciones deportivas*”. (1401 DBH Gi)

“*El fútbol surge y los profes lo organizan*”. (1409 DBH Em)

“*Modu naturalean suertatuak normalean, nahiz, txapelketa ezberdinak antolatzen diren noizbehinka nahi duenak parte hartzeko*”. (2217 DBH Gi)

“*De manera natural y a veces hay liguitas deportivas designadas*”. (2406 DBH Batx Gi)

15. laburpen-laukia

Jolasen ezaugarriak

Kategoria		Erantzunen laburpena
HH	Jolas espontaneoak	Beraien kabuz, era naturalean jolasten dutenak (sokasaltoa eta harrapaketa gehienbat...)
	Irakasleen parte hartzea txikia	Irakasleek proposatutako jolas gutxi (kooperatiboak...)
LH	Mutilek jarduera fisikoko jolasak	Mutilak gehienbat futboleant aritzen dira
	Neskek ez dute jolasten	Mutilen aldean neskek gutxiago jolasten dute eta haien denbora hizketan edo paseatzen ematen dute gehiago
	Elkarrekin jolastekotan neskek dira mutilen jolasetan integratzen direnak	Irakasle batzuk bultzatuta neska batzuk mutilen jokoetan parte hartzen dute, baina alderantziz ez.
	Irakasle jolasetan parte hartzea oso puntuala da	Bakarrik futbolaren eragina gutxitzeko “baloi gabeko egunak” edo horrelako ekintzak antolatzen dituzte
DBH	Irakasle askok natural ikusten dute mutilen eta nesken jolas ezberdinak	“Neskek ez dute jolasten, mutilei natural ateratzen zaie” pentsatzen dute
	Neskek eta mutilak jolas ezberdinetan parte hartzen dute	Ez dute elkarrekin jolasten. Mutilak= futbola eta neskek = sokasaltoa
	Neskek eta mutilak elkarrekin jolasteko irakasleen parte hartze antolatuta ematen denean gertatzen da	Irakasleek elkarren arteko jolasak bultzatzeko kirolak planteatzen dituzte (fulbola, saskibaloia...), talde mistoak egiten dituzte.
	Irakasleen parte hartze honek genero estereotipoak gehiago indartzen dituzte	Kirol txapelketak gehienbat planteatzen direnean mutilen eskakizunak hartzen dituzte kontuan baina ez neskenak

**Laburbilduz:** Haur Hezkuntzako etapan bi motatako jolasteko erak ikusten dira, era naturalean hurrek sortzen dituzten jolasak eta irakasleek proposaturikoak, gehienbat jolas kooperatiboak. Hurrengo etapan, Lehen Hezkuntza etapan, irakasleek gutxiago parte-hartzen dute jolasen proposamenean eta hurrek beren kabuz erabakitzen dute zertan jolastu. Mutilen artean jolas gogokoena futbola izaten jarraitzen da. Nesken kasuan gutxiago jolasten dutela azpimarratzen dute irakasleek, eta batzuetan irakasleek bultzatuta neskek mutilen jolasetan sartzen dira, gehienbat, kirol jardueretan. Derrigorrezko etapan rolak eta estereotipoak barneratuagoak daude, eta ez bakarrik ikasleen artean, irakasle askok ere natural hartzen dute jolastokietan mutilak etengabe aritzea futboleant eta neskek eserita egotea. Hezkuntza zentro batzuetan jolastokietan neska eta mutilen artean elkarrekintza eta jarduera komunak bultzatzeko hainbat jarduera antolatzen dituzte, baina horiek normalean mutilen jarduerak izaten dira: futbola, saskibaloia, herri kirolak, txapelketak, “ligillak”; azken finean, mutilen gustukoena direnak, nesken interesak edo aritzeko erak kontuan izan gabe (ikus 15. laburpen-laukia).

## 4.2. EZTABAIDA TALDEETAN LORTUTAKO IRAKASLEEN EMAITZAK

Irakasleen eztabaida taldeen analisisa egiteko 31. taulan agertzen den kategoria sistema erabili da. Azterketarako tresna hau erabili da eztabaida taldeetan jaso den informazioa antolatzeke eta jaso diren ahotsak sailkatzeko. Kategoria sistema hori izango da atal honen diskurtsoa gidatzen duen gidioia.

### 31. taula

#### Irakasleen eztabaida taldeak analizatzeko erabili den kategoria-sistema.

DIMENTSIOAK	KATEGORIAK	AZPIKATEGORIAK	
<b>4.2.1. Politika: aukera berdintasun politikak</b>	4.2.1.1.	Zabalkundea eta eragina	
	4.2.1.2.	Ikastetxeen rola	
<b>4.2.2. Zer da hezkidetza?</b>	4.2.2.1.	Definizioa	
	4.2.2.2.	Proiektu hezkidetzailleak: ikastetxeak hezkidetzaren inguruan egiten dituen ekintzak, jarduerak, proiektuak...	
	4.2.2.3.	Ikastetxeen beharrak	
<b>4.2.3. Eskolaren eredu hezkidetzaillea</b>	4.2.3.1. Irakasleen rola	4.2.3.1.1.	Hizkuntzaren erabilera
		4.2.3.1.2.	Material didaktikoak
		4.2.3.1.3.	Ikasgelaren kudeaketa: parte hartzea eta lidergoa, tutoretzak, eta bestelakoak
		4.2.3.1.4.	Curriculumean txertatzea
	4.2.3.2.	Irakasleen parte-hartzea	
	4.2.3.3.	Irakasleen prestakuntza	
	4.2.3.4.	Desberdintasunak detektatzeko sentiberatasuna	
	4.2.3.5.	Ikasleak orientatzea	
	4.2.3.6.	Familien rola	
	4.2.3.7.	Eskolaren errealitatea	
4.2.3.8.	Atzerapausoak		
<b>4.2.4. Genero rolen adierazpenak eta interakzioak</b>	4.2.4.1.	Nesken eta mutilen arteko jokaera-diferentziak	
	4.2.4.2.	Nesken eta mutilen diskurtso-diferentziak	
	4.2.4.3.	Bikote harremanak	
	4.2.4.4.	Lanbide-aukeraketak	
	4.2.4.5.	Sare sozialak eta komunikabideak	
<b>4.2.5. Espazioaren erabilera</b>	4.2.5.1.	Patioaren erabilera eta espazioaren banaketa	
	4.2.5.2.	Jolasen ezaugarriak	

Gero sistema kategoriala agertuko da taula batean (bakarrik aipatuta erabili dituzun kategoriak, eta zuri propio bezala agertu zaizkizun azpikategoria guztiak) eta gero beste guztia, informe interpretatiboa ahotsak integratuta daudela (beti egin dugun bezala).

## 4.2.1. Emakume eta gizonen berdintasunerako politikak

### 4.2.1.1. Politiken zabalkundea eta eragina

Irakasle eta zuzendariekin egindako eztabaida-taldeetan erakundeetatik bultzatzen diren berdintasun politikek ikastegietan eragina duten galdetzen dugunean, batzuek komentatzen dute **ezagutzen direla** baina ez dela erraza jakitea noraino iristen diren:

“*Hombre! ezagutu ezagutzen ditugu, baina gero noraino ailegatzen diren edo noraino praktikara eramateko erraza izango den... Gu saiatzen gara kontaktuan egoten eta ahal dugun neurrian bai*”. (E/T/140305/Irakasleak/1/em)

Halere, badago sentsazio orokor bat zenbait gauzez ez direla ohartzen eta zenbait kanpainak ez dutela oihartzun handirik ikastetxeetan. Beraien ustez, ez da sentsibilizatorik ez dagoela, baizik eta, ez direla denera iristen, eta lehenetasunak markatzen dituztenean agian hezkidetza ez dela lehenengoa izaten.

“*Nire sentsazioa da, zenbait gauzez ez gara enteratzen. Egunerokotasunean sartzen zarenean eta hainbeste gauza etortzen zaizkigunez egunero, aukeratu behar da, eta aukeratzen duzuna da benetan premiazkoena. Eta segun ze oihartzun, zenbait kanpainak ez daukate oihartzun handirik ikastetxeetan. Ni ziur naiz seguraski egongo direla mila gauza gehiago, baina ez gara enteratzen. Eta ez da sentsibilizatorik ez dugulako, nik uste dut gure ikastetxean oso sentsibilizatuta gaudela histori honekin, eta segur aski parte hartuko genukeela histori gehiagotan ere, baina ez zaizkigu heltzen*”. (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Egunerokotasunean sartzean, eta hainbeste gauza etortzen zaizkienez, aukeratu behar dutenaren sentsazioa, eta aukeratzen dutena dela benetan premiazkoena. Kontua da erakundeetatik etenik gabe kanpainak bultzatzen ari direla (garraioarena, bizikletarena, birziklatzearena...). Kexu dira, ekintza puntualak izaten direlako eta “modaka” joaten direlako.

“*Adibidez baita ere, erakundeetatik bultzatzen diren gauzak batzuetan modaka doaz: Garraioarena eta bizikletarena, birziklatzearena eta etortzen zaizkizu gauza pilo bat*” (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Bai Gasteizko Udaletik, bai Eusko Jaurlaritzatik eta Arabako Foru Aldunditik (Gazte Kontseiluaren bitartez) bultzatu diren **hainbat kanpaina** gogora ekartzen dituzte erakargarriak eta eraginkorrak izan zirelako beraien ustez. Horien artean, gogoratzen du irakasle batek duela urte batzuk Udalak martxan jarritako kanpaina bat lanbide ezberdinak generoarekin lotuaz egina eta nahiko erakargarria izan zena ikasleentzat, baina oso puntualtzat jotzen dute.

“*Duela urte batzuk egon zen kanpaina bat Udalak antolatzen zuena, lanbide ezberdinak generoarekin lotuta, eta nahiko erakargarriak izan ziren ikasleentzako. Baina gelditu zen ekintza puntuala bezala*”.

(ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Gogoratzen dute Gazte Kontseiluko jendea, talde indartsu bezala, Gobernuko subentzio bat zuena materialak prestatzeko eta eskoletan interbentzioak egiteko.

“*Garai batean guk asko erabiltzen genuen Gazte Kontseiluko jendea, hor zegoen talde potente bat, oso gazteak ziren eta gainera beraiek zeukaten Gobernuko subentzio bat prestatzeko materialak eta egiteko interbentzioak. Asko joaten ziren ikastetxeetara eta lan egiten zuten ikasleekin, eta horiek bai zeukatela eragina, kriston eragina. Orain erabiltzen dugun material asko beraiek prestatutakoak dira, eta oso aurreratuta zegoen material hori baina beraien eragina askoz gertukoagoa zen. Beraz ikasle ohien arteko elkarketa hori oso garrantzitsua da*”.

(ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

**Eusko Jaurlaritzak abian jarri duen egitasmoarekin** oso pozik azaldu dira. Jaurlaritzak aurkeztu eta onartu duen Hezkidetza Plana oso garrantzitsua ikusten dute eta iruditzen zaie aukera ona izango dela hainbat gauza aurrera eramateko. Euren ustez, eskoletan orain arte egiten dena, ekimen pertsonalen arabera izaten da. Zehar lerro bezala kontsideratua izan da, balioen gaia, baina ikastetxe askotan ez da agertzen lehenetsuneko lerroa bezala Urteko Planetan edo Plan Estrategikoetan. Jaurlaritzako Hezkidetza Planak plano pertsonal hori gainditzen duela baloratzen dute. Orain Hezkidetza ikastetxe guztietan landu beharko da eta ez bakarrik horren inguruko sentsibilizazio berezia duten ikastetxeetan. Gainera, lehenetsuneko gaia dela aipatzen dute eta plangintzarekin batera, bitartekoak eta baliabide ekonomikoak jarriko direla espero dute.

“*Horregatik niri iruditzen zait oso garrantzitsua Eusko Jaurlaritzak onartu berri duen Hezkidetza plana. Ez da egongo ikastetxe jakin batzuk duten edo ez duten sentsibilitate horren arabera, horrez gain, bitartekoak jarriko dira, baita baliabide ekonomikoak ere. Eta beste aldetik, hau aurrera eraman behar dela ikusarazi behar dugu, lehenetsuna duela eta eragina izan behar duela*”.

(ET/T/140305/Irakasleak/2/Gi)

Hezkidetza programazioan txertatzeko beharra ikusten dute. Aipatzen dute, beste gai batzuekin, IKTak kasu, indar asko eta baliabide ugari jarri zirela Administrazioaren aldetik eta oraingo Hezkidetza Plana aurrera atera nahi badute, baliabideak, indarra eta formazio aukerak eskaini beharko dituztela.

“*Aprobetxatzea hemen eta erakundearekin gaudenez, ba IKT programa martxan jarri nahi zutenean, gai horretan, indar pilo bat eta baliabide pilo bat eman zuten hori bultzatzeko. Administrazioak berak ea zer ematen digun. Zuk adibidez esan duzu, txertatzea programazioetan, nik gogoratzen dut garai batean derrigorrezkoa zela IKT-ko ikaste-unitate guztietan txertatzea ze IKT-ko baliabideak erabiltzen genituen. Ba halako bat. Administrazioak nahi badu hau bultzatu, ba bere indarra ere*”.

*jarri behar du bere partetik: Baliabideak, indarrak, formazio aukerak eta dena delako horiek*". (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Baina, batez ere, Hezkidetzaren plan batek behar duen seriotasuna eta derrigortasuna ikusten diote Jaurilaritzaren Hezkidetzaren plan pilotuari. Ez da ikastetxe edota batzuek duten borondateaz hitz egiten, beharraz, nahitaez eskola hezkide bihurtu beharraz demokrazia bermatzeko. Eta, inportanteagoa dena gainera, bitartekoak jartzea plana eskolak aurrera eramanez dezan eta eraginkorra izan dadin.

Horrelako egitasmo bat aurrera ateratzeko, premiazkoa iruditzen zaie **erakundeen arteko elkarlana eta koordinazioa** egotea, sinergiak egotea egiten diren eskaintzen artean, bestela eskoletan zoratu egiten direla aipatzen dute.

“*Eta gero ahal bada erakundeen arteko koordinazioa. Orain martxan baldin badago programa bat Hezkuntza Saitetik, gero Udalak ere parte har dezala baina bueno, modu komunean, ez bata alde batetik eta bestea bestetik... Beraien artean ba lotura edo koordinazio bat egotea, ze batzuetan programa batzuk daude baina beste programa batzuk daude ez dakizula nork kudeatzen duen ze programa. Eta hainbeste gauza ateratzen direla ba buen*”. (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

*“Eske iruditzen zaigu horrela egin behar dela lan. Administrazio guztiak koordinatu behar dira ez gu matraka emateko, bakarrik koordinatzen dira horretarako, baizik eta gu laguntzeko”*”. (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Oso ondo baloratzen dute Hauspoa proiektuan orain arte egindakoa. Proiektua garatzeko elkarlana egon da Jaurilaritza eta Udalaren artean eta ikastetxeen beharrezko diren entzuteko eurekin bildu dira. Iruditzen zaie hori izan behar dela bidea:

“*Orain, gaur ikusi dugu eta poztu egin gara ze Hauspoa<sup>1</sup> dela eta, Hauspoa proiektuan sartuta dauden ikastetxeoi eman digute aukera bat, orain Udalak badirudi aporteratu dezakeela zer edo zer programa horretan ere eta badirudi kontsultatuko digutela. Hori ba eskertzekoa da*”. (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

*“Hauspoak ahalbidetzen du, espazio berri bat zabaltzeko eta Udalak ere eragin dezake. Suposatzen da ikastetxeak egongo direla irekita asteaz zehar ere ordutegi zabalago batean eta orduan Udalak aukera paregabea dauka eragiteko”*”. (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Erakundeen arteko elkarlanaz gain, garrantzitsua iruditzen zaie harremana estutzea ikastetxeen artean eta hirian egon daitezkeen beste eragile batzuen artean. Besteak beste, Gizartetxeekin, elkarteekin, Institutioekin, e.a, sarean lan egitearen onurak nabarmentzen dituzte. Adibide moduan sukaldaritza-tailerra edo nesken kirola aipatzen dituzte.

1 Informazio gehiago link honetan: <http://www.eitb.com/eu/bideak/osoa/1431850/bideoa-euskadiko-13-institutuk-hauspoa-proiektua-jarri-dute-martxan/>

*Em: “Eta gero kirolak eta eskalada eta hori, Udalak dauka. Guk sukaldaritza tailerra daukagu baina oso sukalde txikia, orduan ba alboan daukagun kriston sukaldea eta uzten badigute perfektu”.*

*Em: “Lehen ez dut esan baina guk eskaintza berezi bat egin dugu neskontzat kirola egiteko, auzoko Elkarte batekin “Radis” deiturikoa. Kirola bultzatzen duen Elkarte bat eta bakarrik da neskontzat, hain zuzen ere ikusten dugulako Neskak kirola egiteari lehenago uzten diotela. Eta egiten dugu DBH eta Zikloetako Neskak eta bueno, zabalik dago ere kanpoko auzoko jendearentzat. Eta gu ari gara pixka bat sarean funtzionatzen auzoko Gizartetxearekin. Tailerrak egiten, eta gure ikasleak hara joaten dira... eta ez daukagu Hauspoa baina. Eta ondo, ze haiek bezeroak dituzte gurekin eta guk ere baliabide batzuk, nik uste dut hori bilatu behar dela”.* (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Eta horren guztiaren gainetik, argi daukate ere, goi mailako erakundeen ardura dela programa batzuen galbahe hezkidetzaillea egitea, gerora gainera programa hauek erakargarrienak eta morbo handiena sortzen dutenak direla kontuan izanik ikasleriarentzat.

“ Agian, berdintasun politiken inguruko galderari itzulita, esan dezagun, goi mailako agintariak Hezkidetzaren galbahetik pasa beharko lukete telebistako programazioko hainbat saio, gero gehien gustatzen zaizkiena, gehien erakartzen dituztenak, morbo handiena dutena eta eredu okerrenak eskaintzen dituztenak”. (ET/T/140305/Irakasleak/2/em)

#### 4.2.1.2. Ikastetxeen rola

**Eskolaren papera** dela eta, galdetzen zaienean ea zer paper edo zer funtzio bete behar dituen eskolak hezkidetzari begira, oro har, garbi dute funtsezkoa dela eskolaren papera.

Ikastetxeen lehen zeregina eskola-komunitate guztiaren sentsibilizazioa izango litzateke: irakasleak, ikasleak, familiak eta ahal bada, eskola ingurunea sentsibilizatzea. Izan ere, denak jendartearen partaide gara eta otu gabe hain barneratuta ditugun rola eta sinesmenak erreproduzitzen ditugu modu inkontzientean. Hortaz, kontzientzia hartzen laguntzea eta sentsibilizazio lana izan daitezke eredu berri bat eraikitzen hasteko oinarria.

“ Nik uste dut eskola, azken finean, gizartearen parte dela, eta beraz, gizarteak ez badu aukera berdintasuna bermatzen edo ikusten badugu akats batzuk daudela maila horretan edo benetan ez dagoela emakume eta gizonen arteko berdintasun hori, orduan, eskola, nekez izango da isolatutako gunea non hori ez den existitzen. Eskola saiatu behar da, heziketatik, lehenengo neska eta mutilekin, eta ondoren helduekin, saiatu behar da desberdintasun horiek ezabatzen kontzientziazio lan bat egiten, nik uste dut hori izan behar dela bere zeregina”. (ET/T/140305/Irakasleak/2/gi)

Eskola jendartearen zutabe garrantzitsua da, pertsonak formatzen ditu eta pertsona horiek bere ekarpena egiten dute. Jendartearen isla da hezkuntza, eta jendartearen berdintasunik ez badago, nekez egongo da eskolan. Beraz, eskolaren roletako bat lehenik umeekin eta

gero helduekin ezberdintasunak ezabatzea litzateke, kontzientzia hartzea eta horretan jendartea heztea. Eskolaren rola eskola-komunitatea hau sentsibilizatzeaz haraindi, irakasleak hezkidetzan formatzean eta hezkidetzarekiko zuzendaritza-talde sentibera izatean aurreikusi behar da. Zuzendaritza-talde eragile batek egin beharko lukeena ez litzateke izan behar irakaslea behartzea, motibatzea baizik. Horiek dira ikastetxeek bete beharko litzuketen rolak; gerora ordea, oso rol ezberdinak bete dituzte eta horietako batzuk aipatzen dira jarraian.

***Ikastetxeen esperientziei*** dagokienez, eztabaida taldeetan parte hartzen dutenen artean sentsibilitate desberdinak daudela ikusten da, agian ikastetxe batzuetan orain dela denbora asko dutelako Hezkidetzaren ikuspegi edo kezka hori eta beste batzuetan, aldiz, orain arte ez delako horrelako sentsibilitaterik egon. Eskola gehienetan esperientzia puntualak egiten direla aipatzen dute. Emakume egunaren bezperetan edo beste egun jakin batzuetan edo, bestela, zerbait larria gertatzen denean.

*Em: “Bereziki askotan izaten da, zoritxarrez, egun berezitan. Igual oraintxe gauden bezala emakume egunen bezperetan edo beste egun jakin batzuetan. Oso gauza puntualak izaten dira nire ustez”.*

*Em: “Eta gero ba igual, zer edo zer larria gertatzen bada ba gu bai jotzen dugula norbait ekartzera. Baina bai, normalean bai”.*

*Em: “Ni adibidez “Herriartasuneko” irakaslea naiz eta badaukagu gai bat hori jorratzeko ere, baina berez gaian sartuta dagoelako”.*

(ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Esperientzia gehienak puntualak izaten diren arren, ekarpen ugari azaldu dira parte hartu zuten eskolen artean. Interesgarria iruditu zaigu horietako batzuk hona ekartzea. Ikastetxe batean aipatzen dute bi urtetan zehar “Pentazitate”aren ereduarekin lanean aritu zirela eta irakasleen sentsibilizazioan oso lagungarria izan zela, izan ere, eredu horretan Hezkidetzak indar handia hartzen duelako.

“Gero ere egon ginen urte pare batean lan egiten “Pentazitate” ereduarekin non horrek izugarritzko indarra hartzen duen. Eta horrek batez ere balio izan zuen irakasleak sentsibilizatzeo gai honen inguruan. Zeren nik ez daukat pertzepzio hori non pentsatzen dudan irakasleak sentsibilizatuta daudela. Pentsatzen dut irakasleak ez direla jabetzen zenbait gauzetan, ba askoz gehiago kontutan hartu beharko genukeela”.

(ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Ikastetxe batzuek beren hezkidetzak jarduna antolatzen dute eta gero kanpotik zer edo zer ea egokitzen den ikusten dute, eta egokitzen bada, ikastetxera eramaten dute. Beren esperientziatik erakundeek antolatzen dutenerantz jotzen dute. Hartaz, Emakunderekin behin baino gehiagotan egin dute lan, Emakundetik jendea ekarri dute ikasleekin egoteko edo irakasleekin egoteko, baina gaia oso egun gutxitan jorratzen dela, egun jakin batzuetan urtean zehar, eta batzuetan hor geratzen da. Gai horiei jarraipena egiteko, tutoreak izan behar dira gai horren bideratzaileak, askotan tutorearen baitan geratzen da eta ez da behar bezala lantzen.

“Baina gure ustez, guk planifikatzen dugu gurea eta gero jotzen dugu ea zer edo zer egokitzen den eta, egokitzen bada, ba ekartzen dugu. Osea,

*aldrebes egiten dugu, gure esperientziatik jotzen dugu hara. Emakunderekin lan egin dugu behin baino gehiagotan, jendea ekarri dugu Emakundetik gure ikasleekin egoteko edo gurekin egoteko, baina oso gutxitan*". (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Tutoreen garrantzia askotan aipatzen da, eurak izaten baitira gela barruan zer egin edo zer ez egin erabakitzen dutenak.

“*Eta gero gure eskolan adibidez tutoreak izaten gara pentsatzen dugunok zer egingo dugun eta zer ez. Gu, lehen hezkuntzakoak, ez hainbeste, baina DBHn adibidez aukera gehiago daudela, ba horrelako gauzak askotan saiatzen gara egiten edo lantzen.* (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

*“Gurean ere gai honi buruz, batez ere, tutoreak arduratzen dira, Nahiko programan parte hartu genuen ere”.* (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Ikastola batek aipatzen du “Tutoretza Plana” dutela etapa guztietan horrelako gaiak lantzeko; aitortzen du, halaber, hezkidetzak DBHn nahiko indarra hartzen duela. Emakunden dauden materialetatik saio batzuk hartu eta aurrera eramaten zituzten. Esaten dute kanpainak ez dituztela jarraitzen, ez dutela astirik jarraipena emateko.

“*Guk berez ikastolan egin genuen ‘Tutoretza Plana’ etapa guztietan eta egia esan hezkidetzaren lerro bat landu egiten zena, eta gainera batez ere DBHn nahiko indarra hartzen zuena. Horrekin ba garai horretan, hasieran, Emakunderen aldetik sari bat eta guzti eman ziguten hezkidetzaren bultzatzeagatik ikastolan. Baina gero kanpainak eta ez ditugu jarraitzen, irakasleen aldetik ere ez da ikusten garrantzi handia ematen diogula horrelako kanpainari. Orduan batez ere, badaukagu ‘Tutoretza Plana’ bat non horrelako jarduerak egoten diren*”. (ET/T/140305/Irakasleak/1/em).

Beste eskola batzuetan Hezkidetzaren bizikidetzarekin oso estu lotuta agertzen da.

“*Bizikidetzari oso lotuta, nik uste dut ikastetxe askotan Bizikidetzaren aspaldian lantzen ari garela eta ikuspegi hori (hezkidetzarena) beti presente egon dela*”. (ET/T/140305/Irakasleak/2/gi)

Legeak, LOGSEK edo HSAOL-ek (Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Legea) berdintasun-arduradun bat eskatzen du eskoletan eta honen inguruan gutxi egin dela diote, askotan ezagutza faltagatik nahiz eta legearen beharrezkoa izan.

“*Berdintasunaren Ordezkararen figura Eskola Kontseiluan, LOGSEren (edo HSAOLren) garaitik jasota dago baina, nik uste dut, orokorrean orain dela bi edo hiru urte arte ez dela hasi figura hori ezartzen ikastetxeetan, nahiz eta legeak horrela agindu. Suposatzen dut, beno gure kasuan eta beste kasu askotan ez genekielako. Ze, noski, LOGSE totxo bat zen eta denok oso ondo ikasita genuen alderdi curricularra baina beste aspektu batzuk...*” (ET/T/140305/Irakasleak/2/em)

Berez, Berdintasun Ordezkaría Eskola Kontseiluko kidea izan behar da baina ez da derrigorrezkoa irakaslea izatea. Hala ere, oso zaila ikusten dute aita, ama edo ikasle bat izatea eta irakasle arrunt batentzat ere, izan ere legeak ezartzen dituen funtzioen zerrenda oso luzea baita. Ikastetxe batean erabili duten formula aipatzen dute.

“*Figura legala badago, Eskola Kontseiluko ordezkaría bat izan behar da, baina hasteko, ez da ezta irakaslea izan behar. Legeak esaten du Eskola Kontseiluko kidea izan behar dela. Noski, konplikatua egiten da gurasoen aldetik norbait ateratzea eta ikasleen aldetik, ba, ere bai. Baina noski, ikusten genituen ardurara eta funtzio batzuk ezinezkoak zirenak betetzeko. Hau da, pertsona horrek zaindu ditzake gauza batzuk, kezkatu daiteke, baina irakasle normal batek bere klase orduak ditu eta bere egunerokotasuna. Hori jartzen badidate, osea, nik Eskola Kontseilutik dimititzen dut*”. (ET/T/140305/Irakasleak/2/gi)

Partaideen ustetan, legea oso handizalea da baina badira oso interesgarriak diren esperientzia batzuk. Kasu batean, *bikote hezkidetzalea* izendatu dute. Hau da, ardurara hori Eskola Kontseilukideak diren aita eta emakume irakasle batek hartu dute. Horrez gain, Berdintasun Batzordea eratu dute lan horietan laguntzeko. Beste kasu batean, Berdintasun Ordezkaríak Bizikidetzako arduradunarekin batera egiten du lan hori.

*Em: “Oso anbiziosoa eta luzea”.*

*Em: “Guk gure kasuan, “bikote hezkidetzalea” dira. Hau da, ordezkaría dago, Eskola Kontseiluko aita bat, eta gero dago irakasle bat Eskola Kontseiluko partaidea dena ere. Hala ere bi pertsonen artean..., gero badago atzean batzorde bat laguntzen eta horrela baina hala ere, ez gara iristen”.*

*Gi: “Orainxe bertan Bizikidetzaren arduradunarekin konpartitzen ari naiz lan horiek, bestela ezinezkoa izango litzateke”.* (ET/T/140305/Irakasleak/2)

Ikastetxe guztien egoera, ordea, ez da hain baikorra hurrengo ahotsean agerian gelditzen den bezala.

“*Konplikatua da, nik uste dut gai konplikatua dela. Nire ikastetxean adibidez aipatzen zenuten figura hori ez dago, funtzionatzeko edo koordinatua izateko modu hori, ez da existitzen*”. (ET/T/140305/Irakasleak/2/gi)

Ahaleginak ahalegin eta hutsuneak hutsune, guztiak bat datoz jorrazten ez diren hainbat arlo aipatzerakoan. Adibidez, esaten dute emaitza akademikoen oso jarraipen zehatza egiten dela. Azken urteetan Jaurlaritza emaitza akademikoko guztiak generoa kontuan izanik ematen dituen arren ikastetxeetan ez dituzte bereizten nesken eta mutilen emaitzak. Ikastetxeetan kontziente dira emaitza akademikoko generoaren ikuspegitik aztertzeak izugarritzeko aldea dakarrela baina horren inguruan ez omen da lan berezirik egiten.

“*Adibidez azken urteetan Jaurlaritza ere ematen dizkigutenez emaitza akademikoko guztiak generoa kontuan izanik, ba guk horri ez diogu inoiz*

*arretarik ipini. Baina hasten bazara emaitza akademikoak aztertzen generoaren ikuspegitik, dago izugarrizko alde bat. Orduan alde bat baldin bada horrek esan nahi du lan egin beharko genukeela modu batean edo bestean, eta puntu horretan ez gara sartzen”.* (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Gauza bera gertatzen omen da jarrera desegokien jarraipenarekin: sexuen arteko diferentziak ez dira aztertzen eta, aztertzen ez direnez, ez dira ikusten dauden ezberdintasunak, ezta horien sorrera zein den ere. Eta horrek esan nahi du neska-mutilekin lan egin behar dela modu ezberdin batean eta hori ez dela egiten.

“*Gero egiten badiogu jarraipena bizikidetza planari, ba beti egiten da jarrera desegokien jarraipena, baina hor ere orain arte ez dugu kontuan hartu ze ezberdintasuna dagoen generoaren aldetik, eta horrek esan nahi du gure neska-mutilekin lan egin behar dugula modu ezberdin batean eta ez dugu egiten. Orduan nik uste dut lehenengo gauza falta zaiguna dela benetan kontzientea izan hori horrela dagoela, eta emaitza akademikoak dira oso ezberdinak. Eta orduan gauza batzuetan lan egin beharko genukeela modu ezberdinean Neska eta mutilen artean”.*

(ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Aipatzen dute zentroetan horretaz kontzientea direla, eta gauza batzuk, agian, beste modu batean egin beharko liratekeela horrelako ezberdintasunik ez egoteko. Taldeak generoaren arabera antolatzeak aukerari buruzko eztabaidek ere, lekua izan dute hainbat ikastetxeetan baina ez da oso garbi ikusten aukera hori. Edonola ere, hausnarketa merezi duten gaiak direla iruditzen zaie.

“*Eduki ditugu ikastolan eztabaidak irakasleen artean eta zuzendaritza talde barruan, taldeak egiten dituzunean, ea ez ditugun egin behar taldeak generoka; ba neskek ez hartzeko idazkari paperak eta beste... Orduan nik uste dut oraindik hor oso berde gaudela, ez dugulako kontzientzia hori ere hori gertatzen zaigula. Gero pasatzen dizkigutenean emaitzak ba guk: “Ala! Zelako...” orduan hori zuzentzeko gauzaren bat egin beharko genuke. Jarrera desegokietan problematika oso ezberdina da eta ez da lan egiten modu ezberdinean. Beraz, ba guk orain hartu dugu pixkat zuzendaritza aldetik intentzioa gehiago lantzeko, baina batez ere pentsatzen dugulako orain arte ez diogula gaiari heldu behar bezala”.* (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Agerian geratu den bezala, ikastetxeetan egiten diren ahaleginak ugariak eta modu askotarikoak dira baina, zentro bakoitzaren esku gelditzen da ekimen bat edo beste aurrera eramatea. Aipatzen dute gaur egun ez dagoela ezer hezkidetzarekin konpromisoa hartzera behartzen duena.

“*Ez dago ezer hezkidetzan engaiatzen behartzen zaituena eta horrela lantzen da: “zuk eta zuk hizkuntza zaindu beharko duzu bidaltzen ditugun oharretan eta zuk kontuz erabiltzen dituzun abestiekin, ez erabili ez dakit zein urteetako...” Hori adibidez nire ikastetxean ez da horrela. Uste dut, ez dakit nori esker, gero eta jende gehiago ekartzen du moti-*

*bazioa etxetik, eta eskerrak! Baina noski, zuri atera ahal zaizuna da, orduan oso arriskutsua da, ze bakoitzari iruditzen zaiguna... ba hori!”.*

(ET/T/140305/Irakasleak/2/em)

Ikastetxean gai batzuekiko sentsibilitatea baldin badago erraza dago hezkidetzaren edota berdintasunaren gaia lantzea; kasu honetan elkarbizitzaren gaiarekin erabat lotua azaltzen da. Ikastetxe batzuek aipatzen dute euren ibilbidean bazegoela gai hori eta horrek asko lagundu diela. Bestetik aipatzen dute testuinguru administratibo legala edukitzea inportantea dela gauza hauek aurrera ateratzeko. Jaurlaritza dela, Udala dela.

Orain, agian, politika jakin batzuekin eta Administrazioaren laguntzarekin bidea samurragoa egingo zaie. Garrantzitsua iruditzen zaie Hezkuntza Sailaren lehentasunezko lerroen barruan agertzea, horrela lortuko da hainbat ikastetxeetan aurrera eramateko beharra sortzea. Horrela lortuko da ikastetxeko politika bat izatea, jarraitu behar den dinamika bat.

“Gure kasuan bazegoen aurretiazko sentsibilitate hori, baina egongo dira zentroak, non agian ez duten inoiz planteatu eta lerro nagusi horien artean agertu direnean ba, martxan jartzeko akuilua izan daiteke. Beti laguntze du testuinguru adiministratibo legal bat egoteak, askotan oso bakarrik sentitzen zarelako hainbat ekimen aurrera ateratzeko, orduan instituzioen aldetik hori bultzatzea eta landu beharreko lehentasunezko eremua izateak beti laguntzen du”. (ET/T/140305/Irakasleak/2/em)

Azkenik, garrantzitsua jotzen dute ikastetxe bakoitzaren diagnosis izatea (ikerketa honetatik atera daitekeena) aurrera egiteko.

“Azterketa eta ekintza zehatzak antolatzea ikasturte osoan zehar (ikastetxe bakoitzaren diagnostik abiaturata) ez dadila egon irakasleen borondatearen menpe edo sentsibilizazio mailaren menpe... ez dugu zerbait puntuala nahi, interesgarriagoa iruditzen zaigu arazoaren sustraietara joatea”. (ET/LO/140305/Irakasleak/2/gi)

16. laburpen-laukia

**Irakasleen eztabaida taldetan Aurkera Berdintasun Politiken inguruan esandakoa**

Kategoria	Erantzunen laburpena
<b>Politiken zabalkundea eta eragina</b>	Ikastetxeetan Aukera Berdintasunerako Politikak ezagutzen dituzte baina zenbait kanpainak ez dute oihartzunik. Eskaintza oso zabala denez, aukeratu behar da eta batzuetan hezkidetza ez da lehentasuna. Irakasleek Erakundeei kritika egiten diete: deialdiak “modaka” egiten dira, ez dute jarraikortasunik. Irakasleek Erakundeen arteko koordinazioa eta elkarlana eskatzen dute Eskola eta horren ingurunean dauden baliabide eta eragileekin sareak sortu behar dira
<b>Ikastetxeen rola eta esperientziak</b>	Ikastetxeek funtsezko rola dute Hezkidetzari begira baina egiten den lanean ezberdintasun handiak ikastetxeen artean Ikastetxeen lehen zeregina: eskola-komunitatearen sentsibilizazioa Zereginetako bat: jendartea heztea eta ezberdintasunak ezabatzea, lehenik umeekin eta gero helduekin Eskoletako esperientziak gehienbat egun puntualekin lotuta daude Bizikidetzeta edo Hiritartasuna bezalako irakasgaietan lantzen da. Lanketa tutorearen esku gelditzen da
<b>Jaurlaritzako Hezkidetzeta Plana</b>	Plana ezagutzen dute eta oso garrantzitsua iruditzen zaie Orain arte eskoletan egiten dena ekimen pertsonalen arabera da. Planak maila pertsonala gainditzen du eta ikastetxe guztietan landu beharko da. Positiboa iruditzen zaie lehentasunezko ildoan agertzea
<b>Egiteke ikastetxe guztietan</b>	Emitza akademikoen azterketa eta jarrera desegokien jarraipena sexuen arabera: dauden ezberdintasunak ezagutu eta horien sorrera zein den aztertu

**Laburbilduz**, Politiken zabalkundea eta eragina dela eta, oro har, berdintasunerako politikak ezagutzen dituzte eta zentroetara iristen dira. Kritikatzen dute ikastetxeetara iristen diren eskaerak “modaka” doazela, birziklapena, garraioa... eta, batzuetan, Erakunde desberdinek egiten dituzten eskaerak ez datozela bat (ikus 16. eta 17. laburpen-laukia).

Eskatzen dute Erakundeen arteko koordinazio eta elkarlana euren eskaintza eta eskaerak egiteko orduan. Garrantzitsua ikusten dute sareak sortzen joatea eskola eta ingurunean dauden baliabide eta eragileekin.

Eusko Jaurlaritzak aurkeztu duen Hezkidetzeta Plana ezagutzen dute eta ongi baloratzen dute. Plana garatzeko beharrezkoa iruditzen zaie ikerketa honetan egin den diagnostia zentro bakoitzari itzultzea.


Ikastetxeen rolari dagokionez, garbi dute eskolaren papera funtsezkoa dela Hezkidetzari begira, lehenengo lana eskola-komunitatearen sentsibilizazioa litzateke. Eskolen esperientziak, gehienbat, puntualak izaten dira egun jakin batzuei lotuak. Orain dela urte batzuk hainbat

esperientzian parte hartu zuten. Gaur egun edo ez da lantzen edo Bizikidetzeta eta Hiritartasuna bezalako irakasgaitan lantzen da. Lanketa tutorearen esku gelditzen da.

Eusko Jaurlaritzak Hezkidetzeta gidan jasotzen denaren arabera, *Eskola leku pribilegiatua da al-daketa handiak hasteko, baina berak bakarrik ezin dio lan horri heldu, beste erakunde eta gizarte eragile batzuen laguntza formalagoa behar du, baita hurbileko hezkuntza-komunitatearen zuzeneko laguntza ere.* (Eusko Jaurlaritzeta, 7). Orain arte hemen esandakoak bat datoz ideia horrekin.

### 17. laburpen-laukia

#### Aukera Berdintasun Politiken inguruan



## 4.2.2. Hezkidetza

### 4.2.2.1. Definizioa

Egungo eskola hezkide den jakin nahian eta definizio honek zer esan nahi duen zehaztu aldera definizio ezberdinak baina antzekoak jaso ditugu. Badakigu kontzeptua zer den, baina kontzeptu horretatik eskola bakoitzak oso modu diferentean edaten du. Horrela, argi ikusten da hezkidetza pertsonak beti modu berdinean tratatzea dela: hizkuntzan, tratuan, aukerak eskaintzerakoan:

“*Es un tratamiento por igual a las personas en todo. Simplemente cuando echas una bronca a un niño o a una niña que sea igual desde abajo, desde infantil, hasta arriba. En ese sentido, yo no sé si las escuelas son coeducativas.*” (ET/T/140305/Irakasleak/2/em).

“*Tratamiento por igual a las personas, coherencia, formación interna, algo positivo....*” (ET/LO/140305/Irakasleak/2).

Hezkidetza lantzea ezinbestekoa ikusten dute, ikerketak faltan botatzen dituzte honen inguruan, zer begiratu, noiz eta nola jakin nahi dute; begirada horren atzean, horren molde-  
ra ikusten dute hezkidetza, eskola bakoitzak dituen beharretara eta egoeretara egokitutako kontzeptua bezala. Bide horretan argibide gutxi eta zehatzak eskatzen dituzte hezkidetza bidean:

“*Hezkidetza, azkenean, zer begiratu behar dugun jakitea da, nora eta nola begiratu, begirada formatu behar da lehenengoz, eta gero jakin beharko genuke zer egin horren aurrean. Sentsibilizazioa aztertu zer gertatzen den aztertzeke. Jakin zer egin.*” (ET/LO/1403051/Irakasleak/1/em)

Argi ikusten dute Udaletxearen erronka sentsibilizazio hori jasotzea eta aztertzea dela, beraz, diagnosi onena litzateke.

“*Irizpideak eta ibilbideak markatu zer egin behar den jakiteko*”. (ET/LO/1403051/Irakasleak/1/em)

### 4.2.2.2. Proiektu hezkidetzailleak

Baina eskoletan hezkidetzaren inguruan zehatz-mehatz zer egiten den jakin nahi izan dugunean oso esperientzia diferenteak antzeman ditugu. Badira hezkidetza egitasmoa martxan dutenak, horiek, lehenik, egoeraren analisisa egin dute eta genero kontuetan oharkabean pasatzen diren gauzez jabetu dira: materialak, espazioak, testu libururak.

“*Hicieron un análisis de distintos aspectos antes de hacer el proyecto. Se dieron cuenta de aspectos que pasaban desapercibidos, materiales, espacios, libros de texto... Es necesario hacer un análisis de situación concreto, con datos encima de la mesa, lo que hay en cada centro, que opciones se ofrecen al alumnado, lo que tenemos, lo que se hace... también con la violencia*”. (ET/LO/140305/Irakasleak/2).

Hezkidetzta oso urrun sentitzen duten irakasleak dituzten eskolak daude. Zentzu honetan pentsatzen dute irakasleria ez dagoela kontzientziatua eta eskolan inplikaziorik ez dagoela eta hezkidetzaren kontua bideratzea zuzendaritzari dagokiola. Inplikaziorik ez dagoen eskolatan oso gauza pertsonala bezala lantzen da hezkidetzta, borondatearen edota gogoaren baitan. Kasu hauetan ez dira ezta emakumearen inguruko ospakizunak garatzen ere:

“*Este tema está en el aire, no hay implicación, es todo a nivel personal, aunque cada vez hay más gente*” (ET/LO/20140305/Irakasleak/2).

*“En mi centro no se hacen campañas del día de la mujer o del día de la No Violencia. Si es que es un tema que está un poco en el aire, estamos un poco así, como descoordinados. Entonces es a nivel personal”.*  
(ET/T/20140305/Irakasleak/2).

Egitasmoak edukitzetik, inplikaziorik ez izaterako erdibidean, beste eskola multzoa dago, modu puntualan, Emakumearen egun batzuen bueltan Hezkidetzta lantzen dutenak, baina hezkidetzta egituratu beharra ikusten dute. Ikastetxe bakoitzaren diagnostia egin ostean, egituratu ekintza konkretu batzuk eta hau ez dadila izan irakasle talde baten sentsibilizazioaren baitan gertatzen den zerbait. Ekintzak egituratu nahi dira arazoaren oinarria jo nahi delako. Ez dira gauza puntualak nahi:

“*Si no vamos a la raíz del asunto y decir: “Vamos a estructurar esto, y vamos a poner estas cuatro fechas concretas; pero además eso se lo vamos a comunicar a los Coordinadores de Etapa y ellos a su vez a los Tutores y se va a dedicar una hora el 8 de marzo en todas las asignaturas, o en una, en la de Tutoría”* (ET/T/140305/Irakasleak/2).

*“Que yo sepa no vamos a hacer nada especial para este 8 de Marzo. Y puede parecer un poco sorprendente, pero es que si que se van haciendo cosas, se hacen en Bachiller, pero no está estructurado. Entonces mira, vamos a resetear, sabemos dónde estamos, a partir de ahí: “objetivo para este año, ya establecer una serie de acciones concretas y que se comuniquen al Claustro”. Y a partir de ahí, de direcciones pedagógicas, Coordinadores de Etapa y etcétera, pues transmitir las”.* (ET/T/140305/Irakasleak/2).

#### 4.2.2.3. Ikastetxeen beharrak

Ikastetxeek hezkidetzta lantzeko oso behar diferenteak dituzte, batzuk sentsibilizazio faltaz mintzo dira, besteak irakasleen formakuntza ezaz, material egokiak izateaz. Behar hauek eztabaida osoan zehar azaltzen joan dira. Halere, oso ondo iritzi diote Jaurilaritzaren programa pilotuei beharrak ondo kontenplatuak daudelako. Azaldu diren behar batzuk honakoak dira:

“*Guk adibidez tailerrak ditugu baina ez daukagu baliabide nahikorik.*”  
(E/T//140305/Irakasleak/1/em)

*“Algunos ya se han puesto en marcha, ya han puesto programas. Pero claro, al final los recursos son limitados y llegan hasta donde llegan. Porque algunas cosas que solicitas te dicen: “No, que solo teníamos posibilidad de 12 centros. Presupuesto”.* (E/T/140305/Irakasleak/2).

Gai honen inguruan eskolek dituzten beharrez mintzo garelarik lerro batzuk oso inportanteak nabaritu dira eztabaida taldeetan. Alde batetik, formazioaren beharra ikusi da, beste aldetik, programazioan integratzeko beharra, beste aldetik materialak landuta etortzearen beharra... hainbat gauza agertu dira. Eta agian, ekimenak egin behar badira, interesgarriena izango litzatekeela ikerketatik irteten diren behar horietatik abiatzea, edozein proiektu edo edozein gauza egin behar bada.

18. laburpen-laukia

Eskola hezkidetzaillearen eredia

Kategoria	Erantzunen laburpena
<b>Hezkidetzaren definizioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Berdintasunean eta koherentzian hezteaz gain, irakasleen formakuntza da, izan ere, zer begiratu noiz eta nola jakin behar dute.</li> <li>- Begirada formatu behar dute.</li> </ul>
<b>Ikastetxearen beharrak; ikastetxeak hezkidetzaranzko bidean hainbat behar dituzte</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- irakasleak genero arloan formatu beharra;</li> <li>- hezkidetzaren programan sartzea;</li> <li>- material egokiak aukeratzea eta prestatzea;</li> <li>- egiten diren tailer eta egitasmoetan baliabideak izatea;</li> <li>- hezkidetzaren lanetan parte hartzen duten erakundeekin sarean eta modu koordinatuan lana egitea;</li> <li>- hezkidetzaren <i>curriculum</i> sartzea</li> </ul>
<b>Proiektu hezkidetzailleak: ikastetxeak hezkidetzaren inguruan egiten dituen ekintzak, jarduerak, proiektuak...</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hezkidetzaren oso fase ezberdinetan aurkitzen da Gasteizen.</li> <li>- Lehenak, hezkidetzaren irakasleengandik oso urrun dagoen, oso inplikazio gutxi ikastetxeak lirateke;</li> <li>- bigarrenak, Kanpainak eta egitasmo puntualetan parte hartzen duten ikastetxeak baina egitasmo hauek gehiago egituratu beharra sentitzen dutenak eta azkenik, hezkidetzaren programan sarturiko ikastetxeak eta hezkidetzarekin harreman handiago dutenak.</li> </ul>

**Laburbilduz,** Irakasleentzat, hezkidetzaren berdintasunean eta koherentzian hezteaz gain, zerbait positiboa da eta oso lotua irakasleen formakuntzarekin, izan ere, zer begiratu, noiz eta nola jakin nahi dute; begirada lantzea delako eurentzat hezkidetzaren. Begirada formatu ostean, zer egin jakin beharko lukete eskola hezkide izan dadin haratago doan kontzeptua.

Irakasleen ikuspegitik ikastetxearen rola oso lotua daude beharrek eta hezkidetzaren kontzeptuarekin. Horrela, hezkidetzaren oso fase ezberdinetan aurkitzen da Gasteizen, irakasleen aburuz. Lehenak, hezkidetzaren irakasleengandik oso urrun dagoen, oso inplikazio gutxi ikastetxeak lirateke; bigarrenak, Kanpainak eta egitasmo puntualetan parte hartzen duten ikastetxeak baina egitasmo hauek gehiago egituratu beharra sentitzen dutenak eta, azkenik, hezkidetzaren programan sarturiko ikastetxeak eta hezkidetzarekin harreman handiagoa dutenak.

Ikastetxeak hezkidetzaranzko bidean hainbat behar dituzte, irakasleak genero arloan formatu beharra; hezkidetzaren programan sartzea; material egokiak aukeratzea eta prestatzea; egiten diren tailer eta egitasmoetan baliabideak izatea; hezkidetzaren lanetan parte hartzen duten erakundeekin sarean eta modu koordinatuan lana egitea; hezkidetzaren *curriculum* sartzea (ikus 18. laburpen-laukia).

### 4.2.3. Eskolaren eredu hezkidetzaila

Hezkidetzaz zer den aspaldian definitua dago baina, oso eremu zabala denez, bakoitzak bere moduan ulertzen du. Partaide guztien ekarpenak bildu ditugu Eskolaren eredu Hezkidetzaila zer den hobeto ulertzeko. Hori galdetu dugunean erantzunak hainbat ardatzen ingurukoak izan dira: **irakasleen rola, Irakasleen parte-hartzea eta prestakuntza, desberdintasunak antzemateko sentiberatasuna, familien rola, eskolaren errealitatea zein den eta egon diren atzerapausoak eta ikasleen orientazio ez sexista**. Horiek denak aztertuta eredu hezkidetzailerantz pitin bat hurbildu garelakoan gaude. Datozen orrialdetan, kategoria horietan guztietan jasotako informazioa antolatu eta jorratu dugu.

#### 4.2.3.1. Irakasleen rola

Eztabaida-taldeetan, Hezkidetzaz dela eta, irakasleen eginkizunari buruz galdetzen zaienean ematen dituzten erantzunak honako kategoria hauetan sailkatu ditugu: **Irakasleen rola, Hizkuntzaren erabilera ez sexista, baliabide didaktikoen erabilera, gelaren kudeaketa eta curriculumean txertatzea**.

Berdintasunaren gaia kontuan hartuta, **Irakaslearen rola** dela eta uste dute jokatu beharreko papera argi dagoela, horretan lagundu behar du irakasleak, estereotipoak ekiditen, diskurtsoa zaintzen e.a. Hala ere oso zaila iruditzen zaie nola egin hori.

“Zein paper argi dago, ba horretan laguntzea. Eta estereotipo horiek ekiditen... baina asuntua da nola egin hori”. (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

“Orain gaudela berriro ere Diagnostiko baten aurrean, Berrikuntza Planean, ba esaten duzu: eta honi heltzeko zer gauzak egin behar dira? Zer bultzatu behar da? Orduan ba bueno, hasten zara pixkat koziente izaten, baina zer gauzak egin edo zer proposatu hobekuntzak bezala zaila”.

(ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Iruditzen zaie irakasleak, orokorrean, kontzientzia hori badutela baina oso integratuta dituztela hainbat sinesmen eta ohitura, funtzionatzeko moduak. Horrez gain, hedabideen bidez heltzen zaizkien mezuek ere, eragina dute eurengan. Azken finean, irakasleak pertsonak dira eta zaila da momenturo buruan izatea zein izan behar den diskurtso edo jokaera egokia.

“Nik uste dut kontzientzia hori gehienok dugula, agian batzuetan ez gara kontziente, baina nahiz eta kontzientzia hori izan eta buruan izan horrela izan behar dela ez dugu asmatzen, edo momenturo ez dugu buruan hori. Dugu ba hori, kanpoko informazio guztia, komunikabideak, gudan ere eragina dute. Eta batzuetan ere ez dakigu gure diskurtsoa izango den erabat egokia, edo gure hitz egiteko era ere. Ze batzuetan harrapatzen duzu irakasle bat eta “Zer ari zara esaten?” Eta igual teoria maila ere denok daukagu oso ondo, zer egin behar dugun eta nola hitz egin behar dugun, baina bat-batean, urduri-urduri zauden momentu batean harrapatzen bazaituzte zer ez duzun esango”. (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Errazagoa iruditzen zaie programa jakin bat landu behar denean, jarduera jakin batzuk egitea e.a. baina hori baino askoz gehiago da ikuspegi hezkidetzaila izatea. Ikusten dute irakasgai

guztietan landu beharreko zerbait izan behar dela, baina azkenean, ez dakitenez oso ondo nola bideratu, Tutoretza saioetan edo Herritartasuna bezalako irakasgaietan lantzeko geratzen dela eta hor ere, egunerokotasunean sortzen diren gai desberdinak direla medio, saio hori galtzen dela eta ez dela lanketa berezirik egiten.

“Ni zurekin bat nator, azkenean egunerokotasunean gai pila bat etortzen dira eta azkenean ikasgai guztietan landu beharko genukeen gauza bat da, baina uzten ditugu horrelako gauzak “Tutoretza” edo “Herritartasuna” edo estilo horietako ikasgaietan lantzeko. “Herritartasunak” badu ere zer emana, baina beraiek ere programazio bat dute eta hori jarraitzen dute. Segur aski hezkidetzaren puntu bat ere beti hor egoten da, baina uzten ditugu beharbada tutoretzetarako eta askotan ba astean saio bat izanda egunerokotasunak jaten du, eta nahiz eta antolatuta eduki gauza batzuk, ba bueno, askotan hor desagertzen dira. Eta nik uste dut, nik nabaritzen dudana, behintzat nik daramatzadan urteak, lanketa berezirik ez dela egiten hezkidetzaren inguruan. Ba bueno, lehen aipatu dudan bezala, egun jakin batzuetan zerbait lantzen da baina igual momentu horretan tokatu delako, irakasle bateri bururatu zaio-lako edo ikasle edo kasu batzuetan guraso bati, baina ez dela hainbesterrarte”. (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Orain Jaurlaritzak onartu duen Hezkidetzaren planarekin gai horrekiko aurrerapausoak emango direla uste dute.

*Em: “Guri segur aski, Jaurlaritzatik etorri zaigun planaren barruan... Hortik etorri daiteke zer edo zer ezta?”*

*Em: “Orain gure asmoa da berpiztea, datorren ikasturteari begira berpiztea asunto hori”. (ET/T/140305/Irakasleak/1)*

Jasotako informazio hauetan oso garbi azaltzen da irakasleek duten prestakuntza beharra baina gai horri 3.1.3 puntuan helduko diogu berriro.

#### 4.2.3.1.1. Hizkuntzaren erabilera ez sexista

Esaten dute berdintasuna hasten dela hizkuntzaren erabilpen ez sexistarekin baina oso zaila dela irakasleak horretaz kontzientzia izatea. Batzuetan eguneroko borroka bihurtzen da jendeak ez duelako ikusten horrek duen garrantzia.

“Garrantzitsua da hori, zergatik den garrantzitsua transmititzea. Jendeak esaten du: ‘Jo, oso luzea egiten da oharra (maskulinoa eta femeniinoa erabiliz)’ ‘Beno, bale, berririo azalduko dizut (zergatik egin behar den)’. Itxaroten ari naiz jendeak ulertzea zergatik den garrantzitsua”. (ET/T/140305/Irakasleak/2/em)

Gaztelarako departamentuetan batez ere jarrera itxia izaten dute maskulinoa eta femeni-noaren erabilera dela eta. Azkenean ukitu ezinak diren hainbat eremu daude eta horregatik oso zaila bihurtzen da gauzak aldatzea.

“Gaztelaniako Mintegiak gotorleku bihurtzen dira zeren eta, Real Academia de la Lengua Española delakoak esaten duenez maskulinoak femeninoa barneratzen duela ba, borroka bat da. Hori, azken batean, agian da iceberg-etik ikusten da eta beste guztian hezkidetzailleak eta parekideak bagara, tira, ez litzateke hain larria izango. Baina, klaro, azkenean joaten zara hainbat mugarri ukitzen eta horiek ez dira horrela, hain bat-batean erortzen”. (ET/T/140305/Irakasleak/2/em)

Hala ere, badira irakasleak, egunerokotasunean hizkuntzaren erabilpen ez-sexista egiten saiatzen direnak baina iruditzen zaie zerbait falta dela, familiekin elkarlana besteak beste. Bestela oso erraza da kontraesanetan ibiltzea etxean eta eskolan ematen diren mezuetan.

“Saiatzen zara. Nire kasuan asko gertatzen zait... ba aurrera eramateko gauza asko geratzen zara ba, zer edo zer gehiago faltatzen zaidala nire ustez. Nahiz eta ekiditen saiatzen zaren, ba mutilek edo neskek zer edo zer esaten dutela ba ‘Saiatu mesedez gauza horiek ez esaten’. [...] Baina hala ere behar dugu gehiago, eta ez bakarrik irakasleok, baizik eta nire ustez baita familiengan laguntza ere beharrezkoa izango zen. Ze askotan nahiz eta zu egon egun osoa txapa ematen ‘Benga ez egin hori, ez esan hori...’ ba erantzuten dizute: ‘Ba eske nire aitak etxean esaten du...’ Saiatzen zara, baina zaila da”. (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Batzuetan zuzendaritzatik bultzatu nahi da baina borroka gogorra bihurtzen da eta batzuetan ia-ia etsitzekotan egoten dira. Eta hizkuntza bakarrik izango balitz eta beste eremu guztietan Hezkidetzaren ikuspuntutik lan egingo balitz, nahiz eta gai oso garrantzitsua izan ez litzateke arazorik egongo baina susmoa daukate ez dela horrela izango.

“Hizkuntzarekin ere etengabeko borroka dugu. Ni zuzendaritzan nago eta borroka bat da, oso nekatuta nago ia-ia toaia botatzeko moduan. Bale, hizkuntza bakarrik izango balitz, iceberg-aren muturra bakarrik bada, ez da. Baina ez da hori bakarrik eta gainera, eske niretzat garrantzitsua da, oso garrantzitsua da kontuan izatea”. (ET/T/140305/Irakasleak/2/em)

Berdintasuna hizkuntzaren erabilpen ez sexistarekin hasten da, baina zerbait falta dela ikusten da. Irakasle guztien inplikazioa eta familien laguntza behar da, bestela ez da ezer lortuko.

#### 4.2.3.1.2. Material didaktikoen erabilpena

Puntu honi buruz galdetzerakoan ikusten da ez dagoela hausnarketa handirik erabiltzen diren materialen inguruan. Gauza asko hartzen omen dira kontuan testuliburuak aukeratzekoan esate baterako, baina, oraindik ere, beste asko ez dituzte kontuan hartzen. Ikastetxe mailan eta baita pertsonal mailan ere hausnarketa egiteko beharra aipatzen dute.

“Badira hainbat gauza oharkabean egiten ditugunak. Prestakuntza jasotzen duzun arte eta begiratzen hasten zaren arte, espazioetatik hasita, espazioen banaketa, materialak, erabiltzen diren liburuak. Nahiz eta testuliburua ez izan material bakarra, eh? Gero eta osagarri gehiago

*erabiltzen ditugu baina badira gauza batzuk ileak tente jartzen dizkizutenak. Noski, testuliburu bat aukeratu duzunean arreta jarri duzu edukien kalitatean, banaketa, bazterretan apuntatzeko eta egiteko tokia duten. Baina agian ez duzu arreta jarri eduki batzuk laguntzeko erabiltzen diren argazkietan edo irudietan. Orduan ba, esaten genuena, hainbeste gauza daude zaindu beharrekoak direnak! Azkenean da bidean egotea, prozesuan egotea gauzez konturatuta, hausnarketa hori egin ikastetxe bezala eta gero, noski, pertsonal mailan ere”. (ET/T/140305/Irakasleak/2/em)*

Geletan jartzen diren bideoak, esate baterako, ez dira aukeratzen hezkidetzaren betaurrekoak ipinita eta sarritan estereotipoak errepikatzen dituzten bideoak jartzen dizkiete haurrei.

“*Ez dago zehaztuta, izan ere gauza asko dira, nik ikusten ditut gaur egun oraindik jartzen diren bideoak eta ikaratu egiten naiz. Asmo txarrrik gabe, baina beno, Disneyren filma horiek guztiak, halakoak direnak eta dituzten mezu subliminalak direnak dira. Hezkidetzari begira, badira filma asko ez datozenak bat nire ustez eman beharko litzatekeen ereduekin. Erabiltzen diren abestiak, ipuinak... Nik bai uste dut hori oraindik egiten dela eta sentsibilizazioa ez dagoen bitartean jarraituko du”.*

(ET/T/140305/Irakasleak/2/em)

Berriz ere, prestakuntza falta eta sentsibilizazioa beharra aipatzen dituzte. Bi aspektu hauek aintzat hartu beharko dira egoerari buelta eman nahi bazaio.

#### 4.2.3.1.3. Ikasgelaren kudeaketa

Gelaren kudeaketaz hitz egiterakoan aipatzen dute ikastetxeetan bizirik egon dela Hezkidetzaren gaia baina Jaurlaritzak atera duen planari esker berriro heldu diotela gaiari baina gehienetan tutoretzetan egiten dela.

*Em: “Nik uste dut lehen komentatu dizuedana. Egon da pixka bat latente, eta orain Hezkuntzak orduak banatu dituela, programa berriak... hasi gara berriz”.*

*Em: “Baina gehiena tutoretzetan da, eta hori ez da”.* (ET/T/140305/Irakasleak/1)

Irakasle batzuek esaten dute ikuspegi hezkidetzalea jartzen dutela lantzen duten gai guztietan eta nahiz eta gauza txikiak izan, nolabaiteko jarrera bat garatzen dutela ikasleek.

“*Ni neu bai. Nire ikasleak beti daude zain ea zer edo zer gertatzen den ea zer esaten dudan. [...] Ia beti gai hori jorratzen dut eremu guztietan klase guztietan, beti ikuspegi hori jartzen dut. Baina bueno, nik uste dut barrez hartzen dutela baina gero esaten didate. Aurreko egunean topatu nituen ikasle ohi batzuk eta esan zidaten: ‘Badugu orain Unibertsitatean irakasle bat eta horrek esaten digu [...] zuk bezala.’ ‘Aiba!, agian zuk ezagutzen duzu.’ Pentsatzen dute emakume guzti horiek nik ezagutzen ditudala. [...] Baina bueno, hori kontagiatu egiten da baita ere. Hasten zara eta gero besteek hartu behar dute nolabaiteko jarrera, ia badakite*

*zer gertatzen den eta esaten dute: ‘Bueno, nik ez dut esango denok beza-la baina...’ Nik uste dut horrelako ekintza txikiak badirela ere. Batzuetan ia-ia barregarriak baina bueno’.* (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Ikasleen parte hartzeari buruz hitz egiten dutenean, neskek, mutilek baino gehiago parte hartzen dutela aipatzen dute eta neskak izaten direla liderrak.

“*Neskek parte hartzen dute, mutilek baino gehiago. Eta lidergoa klase-tan, nire gelan adibidez neskak dira liderrak, eta egiten dute mutilekin nahi dutena’.* (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Arazo bat jartzen dute mahai gainean, mutilen protagonismoa gehiago izaten dela protagonismo “txarra” zarata egiteko eta taldea apurtzeko. Nahiz eta azkarrak izan sarritan nota txarrak ateratzen dituzte ez dutelako behar beste ikasten. Neskek gehiago ikasten dutela esaten dute. Izan daiteke neskak helduagoak direlako eta hitz egiteko erraztasun handiagoa dutelako, kontua da ia maila guztietan neskak nagusitzen direla.

“*Eske... gero hori egia da, eta zuk aipatu dituzun retizentzia batzuk hortik doaz. Neskak dira helduagoak, heltzen dira lehenago gehienak. Orduan nagusitzen dira geletan mutila baino gehiago, gainera berba errazagoa daukate esateko, komunikatzeko, plazaratzeko bere iritzia eta dena. Badaukate berba gehiago, osea, hor ez dago gakoa, bertan gertatzen den... ez dago. Nagusitzen dira neskak gehienbat, maila guztietan, gainera nik esango nuke maila gehienetan, agian bigarren Batxilergoan gutxiago’.* (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Bitxia bada ere, Batxilergoko bigarren mailan aldatzen da joera hori. Zaila da horren arrazoia zein den jakitea, baten batek emakumeen “kristalezko sabaia” apuntatzen du.

*Em: “Bigarren batxilergoan ez dakit zergatik ia isiltzen dira gehiago, edo parte hartzen dute gutxiago, baina beste mailatan neskak nagusitzen dira argi eta garbi. Eta da helduagoak direlako, gehiago hitz egiten dute, orduan hizkuntza garatuagoa daukate plazaratzeko edozein iritzia edo edozein sentimendua edo haserrea. Berba gehiago daukate, jariatutasun gehiago daukate. Orduan ez dago hor arazoa, ez dakit non dagoen arazoa baina ez dago hor’.*

*Em: “Izango da betiko kristalezko sabai hori ezta? Gara gaitetzke bai-na...”* (ET/T/140305/Irakasleak/1)

Aipatzen dute gero eta gehiago hitz egiten dela segregazioaz arazo horiei konponbidea emateko. Oraingo eredia nesken ezaugarrietara bideratuta dagoela esaten omen da gero eta gehiago eta irakasle batzuek ez dakite nola jokatu. Argibide zehatzak beharko zirela uste dute.

“*Nik gero eta gehiago entzuten dut, eta gero Ugarterekin komentatu dugu behin baino gehiagotan, gero eta gehiago entzuten dut igual bueltatu behar genukeela segregatzera. Eske badago, ni ez nago ados horrekin eh, hori da “como punto de partida”. Baina gero eta gehiago*

*entzuten da eskola sistema edo eskolaren itxura neskontzat bideratuta dagoela, egon behar dira hainbat ordu eserita, geldirik eta ez dakit zer. Egokitzen gara nesken ezaugarriak, egokitzen gara gehiago daukagun sistemarekin. Eta klaro, ez dakit, ni momentu honetan nago kaos batean horrekin zeren aplikatu ditugun hainbat interbentzio, jarduera eta diskurtsoa eta abar, ez daudela egon behar ziren emaitzak. Hainbeste indarra, hainbeste buelta eta hain...” (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)*

Segregazio hitzak ikara sortzen du partaideen artean eta aipatzen da agian irtenbidea ez dakigula oso ondo zein den baina, banatu gabe, erantzun desberdinak eman behar zaizkiela neska eta mutili. Aipatzen da klase batean gaitasun desberdinak egoten direnean berdin tratatu ezin diren moduan, neska eta mutili ematen zaien erantzuna ezin dela berdina izan baina bai gela berean egonda.

*Em: “Lehen aipatu duzuna eta egia da, arrazoa daukazu. Adibidez neurri zuzentzaileak, homogeenak, horregatik hitz egiten dut segregazioaz. Nik aipatu dut “segregazio” hitza apropos, ze momentu batean gaude... ez dakit nola deitu baina desberdin tratatu behar ditugu”.*

*Em: “Ba nik uste dut, banatu gabe zuzendu behar zarela ezberdin. Zuk klase batean ere gaitasun ezberdinak dituzunean ezin dituzu berdin tratatu. Eta mutili eta neskei ezin diezu berdin eskatu, erronka berdinak ipini. Erronka ezberdinen aurrean erantzuten dute, beraiek tratatzeko modua ezberdina izan behar da...” (ET/T/140305/Irakasleak/1)*

Irakasleon iguripenen arazoa ere mahairatzen dute. Berriz ere, prestakuntza eta lan pertsonalaren beharra gelditzen da agerian.

*Em: “Eta gure espektatibak ez dira aldatzen beraiekiko?”*

*Em: “klaro, klaro, berak esan du lehen. Gu gara gu, o sea han gaude, estereotipo guztiekin”. (ET/T/140305/Irakasleak/1)*

#### 4.2.3.1.4 Curriculumean txertatzea

Orokorrean oso garrantzitsua jotzen dute Hezkidetzak lantzea. Gure gizartean emakumearen egoera hobetu den arren, asko falta da egiteko, batez ere, kontuan izanda gero eta ikasle gehiago dagoela emakume eta gizonen arteko berdintasunaren diskurtsoa hain garatuta ez dagoen beste kulturen parte direnak. Lantzeko moduari dagokionez, hoberena iruditzen zaie programazio guztietan Hezkidetzari buruzko edukiak sartzea.

*Em: “Niri gustatuko litzaidake esatea Institutuetan Hezkidetzak lantzea oso inportantea iruditzen zaidala, eta batez ere gurea bezalako Institutuetan. Emakumearen egoera aldatu da, gizartean emakumearen papera gero eta hobeago dago, baina oraindik beste kultura askoetan hori ez dago barneratuta. Gurean ere eh, oraindik falta da asko. Eta bai, nik pentsatzen dut Institutuetan landu behar dela. Eta lehen komentatu dugun bezala programazioan sartzen badugu hobeto”.*

*Em: “Iguel ez da Hezkidetza programa bat egitea baizik eta programa guztietan hezkidetza zelan sartu”. (ET/T/140305/Irakasleak/1)*

Iruditzen zaie eskoletan aukera asko galtzen direla gaia jorratzeko. Testu liburuek sarritan aukera ematen dute hausnartzeko, kritikatzeko eta aukera horiek ez dira behar beste aprobetxatzen horrelako diskurtsoak egituratzeko. Gainera, programazioetan ez da sartzen ikuspuntu hau, eta hala egiten bada, inizatiba puntualak eta pertsonalak izaten dira. Ez badugu lortzen hau era ofizialean sartzea, azkenean pertsona puntualen ekimenak izango dira eta ez da ezer aldatuko. Curriculumetan sartzen bada interesa ez duen irakasleak ere, zerbait jarri beharko luke honen alde ere, eta ekimen puntual horiek ez lirakeke galduko.

“ Hala ere aukera asko desprobetxatzen dira orokorrean. Orain alabarekin ikusten ditut testuliburuak eta esaten dut: ‘Nola ez dute aprobetxatzen gai hau, maitasuna, literatura... zergatik ez dute aprobetxatzen gehiago?’ Irakurtzea, interpretatzea. Eta hori da nire gaia, azken finean programazioetan halako ikuspuntua sartzea. Eta horrela Hezkidetza programa ez da beharrezkoa izango. Eta hori da helburu, nik uste dut inportanteena, akademikoan txertatzea. Ze azkenean eskola akademikoa da batez ere, gainontzekoa hor dago eta inportantea da., baina ez badugu hor sartzen izango da azken finean asmoa, interesa, pertsonaren arabera... baina hor duzu. Ekintzekin ere bai, hainbat ekintza ez badira ezartzen programazioetan, ohiko programazioetan, beti egongo dira pertsonen menpe. Orain hori dago eta demagun nik Institutu horretatik alde egiten dudala, zer gertatuko da? Ez da ezer gertatuko, mantenduko da. Hori da interesgarriena. Orduan beste baliabide bat: programazioetan ezartzea. Saiatu behar da nolabait jendea konbentzitzen ‘Ale ba ya, daukazu sartuta’.

(ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Irakasle batzuek pentsatzen dute irakasgai batzuetatik errazagoa dela Hezkidetzaren ikuspuntutik lan egitea, adibidez, literaturatik, baina materialen gainean ez dago inongo kritikarik eta gai hori hartzeko modukoa da. Oso interesgarria litzateke eguneroko ekintzetan hainbat irizpide zehaztea eta tresnak ematea egunerokotasunean aplikatu ahal izateko, irakasleak azken finean ahal duena egiten duelako.

*Em: “Txertatzen baldin badugu programazioan errazagoa izango zen eta horregatik bilatuko genuke materiala hori garatzeko eta egongo zen lotuta bata bestearekin. Bitartean gelditzen da boluntarismoaren eskuetan. Gero ikasgai batzuk “se prestan mas que otras” gai hori lantzeko, nik literatura ematen dut eta oso erraza daukat. Sexismoari buruz hitz egiteko, hezkuntza sexistari buruz hitz egiteko beti dakar aukera hori egitea, hor dago. Klaro, matematikako bati esan behar diozu eta tresnak eman behar dizkiozu hori lantzeko bere ikasgaietan. Eta normalean erretizentzia dago irakasleen artean horregatik, ez Tutoretza orduetan edo Herritartasunean edo ekintza jarduera puntualetan, parte hartzeko denok prest daude. Baina gero esaten badiezu zure ikasgaietan nola landuko eta helduko zenioke gaiari eta orduan astindu behar dituzu irakasleak”.*

*Em: “Gutxi gora behera tresnak emanda ematen badiezu, gutxi gora behera pixkat moldatzeko bakarrik errazagoa izan daiteke. Azkenean gauza pila bat daudelako, ez da bakarrik gai hau, gauza pila aplikatu behar dituzu. Alde batetik eta bestetik ari zaizkizu gauzak esaten eta azkenean irakasleak egiten du ahal duenean”.* (ET/T/140305/Irakasleak/1)

#### 4.2.3.2. Irakasleen parte-hartzea

Orain arte ikusi dugun bezala gaur egun, gai hau ez da normaltasunez lantzen curriculumaren barruan. Atal honetan jaso ditugun erantzunen arabera, irakasleek kurtso hasieran elkartzen direnean ekintza bereziak prestatzen dituzte baina, Lehen Hezkuntzan Institutioetatik iristen diren eskaintzen artean ez da egoten aukera askorik Hezkidetzaren gaia lantzeko eta lehen-tasuna ematen zaie iristen zaizkien bestelako eskaintzei, adibidez, birziklapenari. Dirudienez, kanpoko laguntza ezinbestekoa dute oraindik irakasleek Hezkidetzaz lantzeko. Aurreko puntu batzuetan gertatzen zen bezala, agerian gelditzen da prestakuntza ezinbestekoa dela gai honi aurre egiteko.

*Em: “Bueno kasu honetan, ba ekintzak adibidez gu normalean kurtso hasieran biltzen gara irakasleok eta saiatzen gara baita ba irteerak eta gauza horiek antolatzen. Eta orain dela, adibidez, bi urte uste dut egin genuela. Atera zen horrelako ikastaro bat, eta ziren sei ordu gutxi gora behera. Eta egon ginen hor klase oso lanean neskak alde batetik eta mutilak beste alde batetik, udaletxetik prestatutako ikastaroa zen. Baina zer gertatu zen azkenean? Ba sei ordu zirela, sei orduz etorri behar zirela, eta hori, eta batzuk hasi ziren kexatzen ordu asko zirela. Eta askotan garrantziko gauzak albo batera uzten ditugu, eske sei ordu dira, ba igual saio gehiago”.*

*Em: “Hala ere behin bakarrik egin dugu eta askotan ez dugu aukerarik, igual gure errua da ez informatzeagatik oso ondo, baina gu adibidez lehen hezkuntzan ekintzak prestatzerakoan gai hau jorrazteko ba askotan ateratzen dira irteerak. Aurten adibidez birziklapenarekin lotutako, ba garrantzitsua denez orduan mota honetako ekintzak. Baina adibidez gai hauek normaltasun bat daukatenez ez daukate horrelako aukerarik egiteko adibidez hainbeste gauza. Eta askotan lehen hezkuntzan ba gutxiago lantzen da, DBHkoekin agian agertzen dira gauza gehiago nire ustez behintzat”.* (ET/T/140305/Irakasleak/1)

Jaurlaritzak onartu duen plana dela eta, badirudi irakasle batzuek gehiegizkoa jotzen dutela datorren eskaera eta buruz buru egonda kexu agertzen direla. Beti egon behar da pertsonaren bat “tiratzen” duena eta proposamen zehatzak egiten dituen. Gero bakoitzaren jarrera eta momentuaren arabera erantzuna desberdina izango da.

“Aizu a ber, a ber gure artean, baina zuk ez duzu uste...?” eta horregatik klaro konturatu naiz (gehiegizkoa iruditu zaiela), bestela uste dut inork ez lukeela esango horrelakorik. Bueno bai, bagaude eta planteatu ez dudanean ba jendeak betiko jarrera ona: “Egingo dugu hau? Bale, Zer

*nahi duzu? Ezin dut! Edo, Ahal dut! Edo, Bakarrik hau! Edo, Nahi baduzu hau ere!” Bakoitzak bere egoeraren arabera, eta oso jarrera ONA, ez naiz kexatzen bat ere ez. Baina bai hori entzun dut”.* (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Onerako edo txarrerako irakasleek beren burua behartuta ikusiko dute Hezkidetza lantzeko. Bakoitzak bere modura eta dagoen lekutik egingo du baina lana bideratua egongo da.

“*Orduan ya behartuta sentitzen zara. Eman behar duzun beste irakasgai bat da. Beti joango da lotuta ulertzeko duzun era edo moduarekin. Batzuetan behartzen gaituzte gauza batzuk egiten baina zu ez bazaude oso konbentzituta egiten ari zarenarekin, gero ez duzu berdin transmititzen. Baina hau oinarritzkoa da, o sea, berdintasun politika bat arautua eta modu jakin batean bideratua”.* (ET/T/140305/Irakasleak/2/em)

#### 4.2.3.3. Irakasleen prestakuntza

Atal honetan jaso ditugun erantzunen arabera behin eta berriz agertzen da prestakuntzaren beharra dutela irakasleek.

“*Nik uste dut kontzientzia hori badaukagula, baina igual ez dakigu nola egin aurre. Neska: Nik uste dut behar dugula formakuntza, ze irakasle teko moduak izan behar dira ezberdinak. Ze oso ezberdin erantzuten dute”.* (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Hala ere, garbi dute ez dutela formakuntza teorikorik nahi. Diskurtso teorikoa oso ondo eza-gutzen dute eta ondo dago, baina praktikara eramateko orduan etortzen dira zailtasunak. Tresnak eskatzen dituzte, jarduteko protokoloak, desberdintasunezko egoeren aurrean begirada hezteko eta egunero praktketan erabiltzeko.

“*Hori da niretzat, formakuntza egotekotan jakitea: “a ber, zeintzuk izango lirateke, a ber, protokolo batzuk gauzak egiteko. Halako gauza bat gertatzen bada, zein urrats eman behar, eta nola”. Eta hainbeste problema badaude, ba detektatzeko horiek ere. Zeri begiratu? Azkenean begiradaren heziketa da eta begirada hezten badugu ya badakigu nola begiratu, nora begiratu, zeri eman garrantzia, zeri ez. Hori jakinda hurrengoa izango da jakitea nola kudeatu jakite hori, eta nola kudeatu ekintzak.*

*“Hori da formakuntza, eta batzuetan nik entzuten dudanean formakuntza esaten dut: ‘Ba, berriro esango al dugu zer den estereotipoa, zer den generoa, zer den Hezkidetza?’ Eske nik irakurri dut jadanik asko eta irakurri ez duenak, ba hor du. Baina halako ekintza praktikoak nola egin, eta hori egitea aurkitzen baduzu jakin behar duzula zer edo zer, ia ikasiko duzu. Baina nola egin? Zertan nabarituko duzu? Horrelako zerbait gertatzen denean, gerta daiteke horrengatik izatea, bale, aztertu orduan”.* (ET/T/140305/Irakasleak/1/gi)

Aipatzen dute iaz egin zela ebaluazio diagnostikoa eta etxeko lanak konpartitzeko orduan dituzten jarrerak zeintzuk ziren neurtzen zen, e.a. Hor ere gabezia bat ikusten dute irakasleen artean; izan ere, gauzak aldatzeko ikasleen kompetentzia mailan lan egin beharko luketela ikusten dute. Baina askotan, ez dakite hori aldatzeko eta lantzeko zer egin behar den.

“*Eta iaz egin zen Ebaluazio Diagnostikoa eta hor agertzen zen kompetentzia bat, eta kompetentzia horren barruan dago hezkidetzaren kontua. Orduan zuk ikusten baduzu ze gauzak neurtzen zituzten hor, hor agertzen zen ea ze jarrera zuten egoera ezberdinen aurrean, eta etxeko lanak konpartitzeko eta... Eta gu oso kozianteak ez ginen azkenean horrelako gauzak neurtzen zirela edo zer gauzak egin behar dituzun kompetentzia horiek, kompetentzia mailan, ez diskurtso teoriko mailan. Hobetzeko ezta, ze diskurtso teorikoa erraza da baina hori aldatzeko zer egin behar den....”*(ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Alde horretatik, Jaurlearitzako plana oso ondo baloratzen dute. Izan ere, plan horrek aurreikus-ten du hiru urteko epean irakasle guztiek, gutxienez, 10 orduko prestakuntza jaso beharko dutela. Oso garrantzitsua iruditzen zaie hori, bestela norbait ibili behar da beti besteengandik tiraka.

“*Niretzat, gakoetako bat, prestakuntza da eta Plan horrek aurreikusten du hiru urtetan Klaustroko irakasleen % 100ak gai honen inguruko 10 orduko prestakuntza jasoko duela gutxienez. Oso garrantzitsua da hori, zergatik? Azkenean beti bidaltzen dugulako Ordezkarari edo Ikasketa Burua. Eta gero irakasleengandik eta ikastetxeko beste langileengandik tiraka ibiltzea oso zaila da. Denok dakigu zein den heziketa zentro batean egunerokoa, alde guztietatik gainditzen gaituena, horregatik niretzat ezinbestekoa da”.* (ET/T/140305/Irakasleak/2/gi)

Plana aurrera eramateko irakasleen prestakuntzaz gain, sentsibilizazioa behar da eta gai horrekiko kezkatuta dagoen Zuzendaritza Talde baten inplikazioa. Euren ustez, sentsibilizazioa prestakuntzaren eskutik dator eta hortik etorriko da bakoitzaren konpromiso maila.

“*Iruditzen zait sentsibilizazioa formakuntzaren eskutik doala. Gure ikastetxean adibidez, prestakuntza klaustro guztiak jaso du. Gertatzen dena da gero bakoitzak gure iragazkiak edo gure filtroak dituela. Orduan hor dago nolabait gai hau dinamizatzen duen batzordean egiteko lan bat, baina horretaz gain, bakoitzaren lan pertsonala eta konpromiso maila”.* (ET/T/140305/Irakasleak/2/em)

Zentzu horretan ondo baloratzen dute Planaren barruan jasotzen ari diren prestakuntza, hor baitago parte bat, bakoitzak bere buruari begiratzekoa eta hainbat eredu zalantzan jartzeko baliagarria dena.

“*Egiten hasi garen formakuntzan, adibidez, badago parte bat zeure buruari begiratzeko eta batzuetan gatazkan jarri behar dituzu hainbat sinesmen edo bizi izan dituzun hainbat gauza edo jaso dituzun heziketa ereduak edo, zuk, zeuk, zeure seme-alabei edo ikasleei transmititzen diz-*

*kiozun ereduak. Eta noski, beti rol eta estereotipo sexistak errepikatzen ari zarenaren inkontzientzia horretatik, jakina, inork ez du hori egiten konbentzituta". (ET/T/140305/Irakasleak/2/gi)*

Prestakuntza beharrezkoa ikusten dute eskemak apurtzeko eta hizkuntza komuna bilatzeko eta, hortik aurrera, errealitatearen azterketa sentsibilizazio horretatik egiteko. Bestela konturatu gabe, etengabe arituko gara genero rola eta estereotipoak errepikatzen.

“*Nik uste dut formakuntza beharrezkoa dela zeure eskemak zalantzan jartzeko. Bestela, bakoitzak eduki dezakeen sentsibilizazioa oso pertsonala da. Eta baita ere Hezkidetzagatik ulertzen duguna, hortik hasi gara, ezta? definitzen Hezkidetzagatik bakoitzak zer ulertzen duen. Zeren galdetzen badigute ea modu desberdinean hezten ditugun neskak eta mutilak, inork ez du kontzienteki egiten desberdintasunean heztea, baina noski, inkontzienteki, esaten genuena, normalizat jotzen ditugun gauza asko errepikatzen egon gaitezke. Orduan, hori detektatzeko modu bakarra jendea prestatzea da eta formazio horretatik sortzen da sentsibilizazioa. Errealitatearen azterketa egiten da, hezkidetzaren presenteko dagoen eremuak aurkitzen dira, bai antolamenduan, bai espazioen erabileran edo bai curricularrak. Orduan nik uste dut formakuntza gakoa dela sentsibilizazio horretarako". (ET/T/140305/Irakasleak/2/gi)*

Prestakuntza, sentsibilizazioa eta egoeraren azterketa egiteaz gain, beharrezkoa ikusten da ikastetxeetan urteko ekintzak planifikatu eta urtez urte finkatzeko, irakaslearen gogoaren esku ez gelditzeko Hezkidetzaren lanketa.

“*Prestakuntza, egoeraren azterketa eta esan dezagun hirugarren unea izango litzateke esatea "goazen ikasturtean zehar egin behar ditugun ekintza zehatzak egituratzea". Hortik aurrera, errutina bat izango genuke baina egituratuta geldituko litzateke, ez litzateke geldituko irakaslearen gogoaren edo gai honekiko duen sentsibilizazioaren arabera". (ET/T/140305/Irakasleak/2/gi)*

Orain arte esandakoaren arabera ematen du diskriminazio egoerak antzemateko prestakuntza eta sentsibilizazioa izanda, errealitatearen datuen azterketa eginda eta urtero ekintza batzuk finkatuta, irakasleak gai sentitu beharko liratekeela hainbat egoera identifikatzeko eta horiei aurre egiteko, bai gela barruan, kanpoan, irakasleen artean edota ikastetxeko beste eremu batzuetan. Baina hori dena ez da nahikoa ez bada ulertzen hezkidetzaren hezteko garrantzia eta hori ez egiteak izan ditzakeen ondorioak

“*Hori eta heztearen garrantzia azaltzea. Zuk azaldu dezakezu nola identifikatzen den edo zein egoeretan ematen diren diskriminazioak [...]. Baina, zergatik? Zeren zuk ez baduzu benetan ulertzen zergatik den garrantzitsua, jendeak ez badu ikusten zergatik den garrantzitsua ezin dugula jarri filma bat non printzea datorren printzesa salbatzera, hilero filma berdina edo antzekoa... Zergatik da hori garrantzitsua? Nire ustez ondoren etorriko litzateke formakuntza, identifikatzea ze egoera mota,*

*ze filma edo mezu mota, patioaren ze alde... baina lehenengo jakitea zergatik Ikastetxeak eta jendarateak lehentasuna eman nahi dion gai horri. Ze ondorio eduki ditzake hori ez egiteak? Zer ikusten ari gara orain?”*

(ET/T/140305/Irakasleak/2/em)

Argi dago eskolak gai horretan duen garrantzia, egiten dituen edo egiten ez dituen gauzak direla eta. Eta ezer egiten ez bada, gaur ematen diren hainbat egoera bere horretan jarraitzeko oinarriak ipintzen ari gara. Hori ulertzen ez bada, ez dago ezer egiterik eta oraindik badago jendea Hezkidetzaren garrantzia ulertzetik urrun dagoena.

“*Egoera batzuetan, ez dut esango drama handiak, baina badira egoera batzuk egiten duzunaren ondorio zuzena direnak, o sea, hondar ale bat gehiago zara gauza guztietan. Orduan zure ekintzak, bai ez dela kausa-ondorioa, baina laguntzen du gaur egun ematen diren hainbat egoera mantentzen. Orduan beno, hori dena minimizatu daiteke, nik uste dut garrantzitsua dela jendeak hori ulertzea eta kasu horretan jendeak motibazioa edukiko luke: ‘Bale, zer egin dezaket?’ ‘Ez dakit, prestatu, nola hobetu dezaket?’ Baina nik uste dut oraindik badagoela jendea Hezkidetzaren garrantzia ez duena ulertzen, ulertzetik urrun dagoena”.*

(ET/T/140305/Irakasleak/2/em)

Halaber, adituek diote gatazka guztiak genero ikuspegia daukala nahiz eta hasiera batean inongo harremanik ez duen. Ona litzateke gatazka guztiak beti ikuspegi horretatik begiratzen hastea hurrengo ekarpenean jasotzen den bezala.

“*Berritzegunean egin genuen formakuntza batean aholkulariak eta kanpotik ekarri zituzten pertsonak esaten ziguten gatazka bakoitzak genero ikuspegia daukala. Nahiz eta, itxuraz, gaiagatik edo gertatu denagatik hasieran iruditu inongo erlaziorik ez duela. Animatzen gintuzten gatazka guztiak beti ikuspegi horretatik begiratzera, izan ere kontua ez da jakitea mutilak direla... ez dakit, ageriago adierazten dutela agresibitatea eta neskek hitzaren bitartez adibidez, hori izan baitaiteke kasu arruntena. Baizik eta badirela gatazka asko oharkabeen pasa daitezkeenak baina horietan ere, funtsean generoa giltzarria izaten da”.*

(ET/T/140305/Irakasleak/2/em)

#### 4.2.3.4. Desberdintasunak detektatzeko sentiberatasuna

Orokorrean uste dute sentsibilizazioa badagoela baina feminismoaren kontrako jarrera kritikoak ere badira, gizarte edo gaur egungo ereduarekin, mutilek ez dakitela beren papera zein den esaten dutenak. Horien ustez, hori izango litzateke mutilen emaitzak baxuagoak izateko arrazoia.

“*Nire institutuan, nire ikuspegitik, orokorrean sentsibilizazio hori badago. Baina jarrera kritikoak ere badaude, esaten dutenak: ‘Eta mutilak, ez dira sentitzen oso ahul egoera honetan? Ez dakite nola kokatu’. Aurreko egunean bildu nintzen gurasoekin eta sorpresa! Gauza bera esan*

*zuten. Beraz nik ez dakit, sentsibilizazioa hori ez da. Orduan bai, orokorrean bai, bataz besteko gehiengoa horrelakoa da; pentsatzen dute eta egiten dute modu horretan. Eta bueno gero ekintzak ateratzen direnean berehala agertzen dira: ‘Eta egin dezaket hau?’ eta egiten dugu berehala [...] Eta, Zuk aipatu dituzun emaitzak, mutilek ateratzen dituzten emaitzak orokorrean baxuagoak dira, ez da hori izango problema baten ispilua? Ez da izango orain ez dakitela zein den beraien papera? Nola egin behar dugu dagoen problema saihesteko baina aldi berean horrelakorik ez sortzeko? Eta hortik doaz irizpide kritiko horiek. Hori da nik jasotzen dudana’.* (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Beste aldetik, aipatzen dute kasu batzuetan ez dagoela inongo sentsibilizaziorik. Egia da zehar lerroak zeudenean egiten zirela ekintzak, eta gutxi gora behera lantzen zela, baina irakasle bakar batzuk ez daude horretan, berdintasunaren bidean. Eta beste batzuk aipatzen dute hezkidetzaz lantzean ez ote den kontrako efektua lortuko. Beste aldetik,

“*Baina batzuk ez daude horretan, jarrera hori ez dago. Azkenean hezkidetzaz jarrera da, ez da besterik, hortik abiatzen da eta ez badago hori... jarrera nik batzuetan ez dut ikusten. Ez dut ikusten aurkakoa! Baina bai galdera egiten dut kritikoki: Eta ez dugu horrekin lortuko agian kontrako efektua?’* (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Hor gelditzen da galdera hausnarketarako. Taldean sortzen den beste hausnarketa bat da, nahiz eta jarrera egokia izan, badirela gauza pila bat pasa egiten zaizkigunak. Puntu horretan eztabaida bat sortzen da ea zer den zailagoa gauzez konturatzea edo konturatu ondoren esku-hartzea egitea.

*Em: “Inklusio agresibitatezko jokaerak detektatzeko. Zeintzuk diren agresibitatezko jokabideak bestelakoak ere eta zeintzuk diren tartean generoko estereotipoak daudela. Ez dakit nola esan, hori detektatzeko gai ikusten garen eta gero...”*

*Em: “Pasatzen zaizkigu gauza asko”.*

*Em: “Horretan eta bestetan ere, osea, ezinezkoa da gauza guztietara heltzea. Eta askotan ematen duzun erantzuna mila aldiz ez da egokia, eta gero konturatzen zara “baina ze astakeria!”. Eta formakuntza beharra noski, horretan eta mila arlotan ere, baina hezkidetzan ere bai”.*

*Em: “Agian konturatzea ez da zailena, begiratzea dugu guk. Erne bagaude, batzuetan ez dugu ikusi nahi. Babestu behar dugu geure burua, batzuetan jakin eta gero zer egin. Klaro, eske zer egin, bai, klaro, umeak klasean ez daude zintzilik, badaude... lotura asko dituzte eta edozein problemarekin topo egiten duzunean lotura horiei aurre egin behar eta klaro, adibidez hori, mutil batek eduki baditu problemak ikasgelan, klaro, ikasgelan hori isilarazteko momentu batean lortzen da. Baina hor benetan dagoen sufrimendu horri aurre egiteko, laguntza emateko, pues*

*besteekin hitz egiten duzu 'Zuk ere bai ikusi duzu? A ber eta zer?' 'Ba nik ezagutzen dut bere familia' Eta hor ari gara orientatzailearekin... ahalegin guztiak. Baina..."*

*Em: "Ba niri zailagoa iruditzen zait konturatzea. Ni konturatzean ez zait iruditzen zaila interbenitzea. Badago zailtasunak interbenitzeko, baina nik ikusten dut zailagoa askotan konturatzea. Eske ez dugu ikusten".*

(ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Desberdintasunak ikusten dira puntu horretan Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren irakasleen artean. Bigarren Hezkuntzako irakasleek aipatzen dute materiarekin arduratuta egoten direla beti eta irakasten duzun arloaren arabera oso zaila dela ikasleen artean egoten diren hika-mikez konturatzea.

*Em: "Bigarren Hezkuntzan zoaz zure klaseak ematera, eta gero beste bat, eta gero beste bat... azkenean ez zara konturatzen tutorea dagoela ordu gehiago".*

*Em: "Zenbat irakasle ez dira konturatzen ezta harremanik dagoen! Ba konturatzen da gehien enroilatzen dena, tutorea, beti hika-mikan dabilena... Baina hainbat irakasle ez dira konturatu ere egiten harreman bat dagoenik".*

*Em: "Ba esan dudana, ba nahi ez dutelako, eske ez dakit".*

*Em: "Hombre nahi, nahi... Dinamika beste bat da, eh? Bigarren Hezkuntzan..."*

*Em: "Baina irakasleak denari begiratzen dio, ezta"*

*Em: "Bai baina imajina ezazu materia oso atzeratuta daukazula eta egunero-egunero zoazela benga, benga!. Ze harreman? Hor ez dago ez harremanik ez ezer. Gero bale, ba tutoretza orduetan, Herritartasunean"*

*Em: "Irteeretan ikusten dituzu gauza pilo bat. Baina askotan klasean zaudela oso oinarrizkoena, zuk esaten duzuna. Eta batzuk hori ere ez".*

*Em: "Klaro hizkuntzetan, Filosofian, Literaturan igual aukera gehiago daukazu beraien arteko elkarrizketak... baina matematika! Fisika"*

(ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Taldean aipatzen da ikastetxean irakasle guztiak sentsibilizatuta daudela esan ahal izateko Zuzendaritza izan behar dela horren bultzatzailea, bestela oso zaila da klaustro osoa sentsibilizatuta egotea.

“*Nik uste dut egon daitekeela langileagoaren portzentaje bat sentsibilizatua dagoena. Baina uste dut baita ere, zentzu horretan nabarmenduko*

*den ikastetxea edo, orokorrean, bai sentsibilizatuta dagoela, zuzendaritza izan behar dela tiratzen duela. Hau da, zuzendaritzak bultzatu behar du sentsibilizazio hori iristea klaustroko kideengana. Bestela oso zaila da behetik, egituraren beste maila batzuetatik horretara iristea”.*

(ET/T/140305/Irakasleak/2/gi)

#### 4.2.3.5. Ikasleak orientatzea

Eztabaida-taldeetako partaideek uste dute euren ikastetxetan lan handia egiten dela, nolabait, ikasleek estereotipotik at aukera dezaten aurrerago ikasiko dutena, dela Karrera bat, dela lanbidea izango dena baina, hala ere, duten eragina txikia dela uste dute.

*Em: “Lan ikaragarria egiten dugu horretan, eh?”*

*Em: “Ikusita norberaren nortasuna edo balioa edo zertarako balio duen, ba bai”.*

*Em: “Nik uste tresnak. Nik uste erabiltzen dugun tresnak ez dutela balio, momentu honetan ez du balio. Ez dauka inolako eraginik, ni sartuta nago mobida honetan hirugarren eta laugarren mailakoekin eta ez dago modurik heltzeko, ez dago. Nahiz eta komentatu ze garrantzia duen... Total momentu honetan berdin da ze karrera egingo duzun! Langabeziara joango zarete denok argi, egin nahi duzuen!, gustoko duzuen! Baina ez dago modurik. Estereotipo horiek bai benetan dira gizarteko estereotipoak eta horren kontra egiteko falta zaigu tresna bat edo modu bat”.* (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Arazo bat jartzen dute mahai gainean, umeak gero eta babestuago daude baina gero eta lehenago erabaki behar dute oraindik euren irizpidea garatu gabe dutenean. Orduan ohikoena estereotipoetara jotzea izaten da, erabakia hartzeko momentuan ez baitakite zer aukeratu

“Gero badago ere, gero eta babestuago daude umeak eta gero eta lehenago hartu behar dituzte funtsezko erabakiak. Aurreratzen ditugun erabakiak gero eta gehiago. Sistema bera, orain LOMCErekin adibidez, hirugarren mailan ya jakin behar dute nora joan behar duten. Orduan gero eta babestuago, erabakiak hartzeko gero eta txikiagoak dira edo nortasun gabekoak dira eta gero eta lehenago hartu behar dituzte erabaki horiek. Orduan irizpide propioa oraindik formatu gabe daukate eta ya erabaki behar dute zerbait, eta kasu honetan adibidez etorkizunari begira. Orduan nora jotzen dute? Ba estereotipoetara. Hori da errazena, sinpleena, edo gurasoek aholkuren bat ematen badute, etxean entzun badute zerbait, errazagoa da”.

(ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Batzuek uste dute egiten dena baino askoz gehiago egin dezaketela baina askotan tresnak falta zaizkiela.

“Nik uste dut askoz gehiago egin genezakeela edo egin litekeela. Batzuetan tresnak falta zaizkigu. Guk ere pentsatzen dugu... ez gara konturatzten ‘Ah ba hori egin dezakezu! Edo beste hori ere!’ Ez gara konturatzten”.

(ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

lido horretan, beste ikastetxe batzuetan egin dituzten hausnarketak konpartitzen dira. Irakasleen papera garrantzitsua ikusten da askotan klasean pentsamoldeak apurto ditzakeelako baina eurengana iristeko, beraingandik hurbil dauden pertsonak hurbildu behar dira ikastetxeetara, lanbide desberdinetako jendea. Interesgarria jotzen dute lanbide desberdinetako emakumeak eramatea eta horietako batzuk ohiko eremuetan ez dauden emakumeak izatea.

“*Gu pentsatzen ari gara, baina igual klaro, gu beste maila batean kokatzen gara, haiengandik hurbil egon daitekeen jendea benetan hara joatea eta erakustea ‘Ba ni abokatua naiz, eta ez dakit zer...’ edo horrelakoak erakustea. Baina klaro, gu beste neurri batean gaude. Eta esatea ‘Ni atera naiz hemendik eta berdin dio, aukera izan dut, ikasi egin dut eta bueno, orain bide hau topatu dut’ Baina beste maila batean gaude”.*

*“[...] lehen esan duzunarekin, baliabide bat izan daiteke kanpoko esperientziak, kanpoko jendeak kontatzea eta lanbide ezberdinetako emakumeak adibidez, eta gizonezkoak baita ere. Emakumezko ohiko eremuetan ez daudenak, horiek ere lagungarriak izan daitezke”.* (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Modu berean, aurreko urteetako ikasle ohiak euren esperientziak kontatzera joatea ikasleengana iristeko modu egokia izan daitekeela uste dute.

*Em: “Nik pentsatzen dut irakasleak paper oso garrantzitsua daukala nahitaez, klasean zaude eta askotan pentsamoldeak apurto behar dituzu. Baina adibidez guk Zikloak dauzkagu eta ari gara Zikloetako ikasleak erabiltzen, Zikloetako ikasleak DBHko ikasgeletara. Eta pentsatzen dugu oso egokia dela, ez direlako heldu batzuk baizik eta tarteko batzuk hurbilago daude haiengandik. Bueno ba horretan gabilta eta egia esan egin dituzten ebaluazioak oso egokiak dira”.*

*Em: “Guk ere ikasle ohiak ekartzen ditugu. Ikasle ohiak etorri hitz egitera. Eta askotan ikasleek beraiek ere esaten dute askoz aberasgarriagoa dela, gertuago ikusten dituztelako. Gu azkenean gara irakasleak, helduak, eta guk esaten duguna.... Gainera, beraiek dauden lekutik bertatik pasa direnek kontatzen dutenean, nik uste dut gehiago iristen zaiela”.* (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

#### 4.2.3.6. Familien rola

Irakasleen eztabaida taldeetan ez da askorik esaten familien rola inguruan. Esaten dute, pertsona helduek jaso dugun heziketarik oso barnetatuta ditugula generoko rola eta rol horiek transmititzen dizkiegula gure txiki eta gazteei. Normalean ez gara horretaz jabetzen eta, jabetuz gero ere, horrekin apurtzea oso zaila gertatzen zaigu. Hurrengo ahotsean arazo hau oso garbi azaltzen da.

“*Adibidez, gaur beste gai bat sartuko dut, aita batekin ere. Familia horretan bera da alabaren arduraduna, neska adolozente bat eta beraien arteko komunikazioa oso zaila da. Orduan bazeuden gauza batzuk berak esaten zidala ezin zizkiola bere alabari izan, ezin zion hitz egin, markatu behar zuen eta azkenean txokatu egiten zuten eta oihuka hasten ziren.*

*Berak ezin zion esan muga guzti horiek jartzen dizkiola maite duelako, lehenengo, hori badakigulako, ulertzen da horrela dela eta bigarrena, bera aita delako, ez ama. Orduan batzuetan gatazka asko egoten dira non, funtsean, rola barneratua dugun. Berak esaten zidan “ez da ez niokela esan nahi, ezin dut, niri ez zait ateratzen esatea”. Gatazka honen funtsean genero ikuspegia dago edo sinesmen sistema bat markatzen dizuna zuk emakume edo gizon bezala egin dezakezuna”. (ET/T/140305/Irakasleak/2/gi)*

#### 4.2.3.7. Eskolaren errealitatea

Askotan eskolan darabilgun diskurtsoa eta ikusten dutena ez datoz bat. Hori agerian gelditzen da klaustroen osaketa aztertzen dugunean hurrengo ahotsean oso ondo adierazita dagoen bezala. Saiatzen gara esaten sexu bereizketarik ez dela egon behar ikasketak edo lanbidea aukeratzekoan baina ingurutzen dituen errealitateak beste gauza bat erakusten die.

*Em: “Gure ikastetxean Haur Hezkuntzatik DBHra ditugu ikasleak. Hitz egiten ari ginen nola doazen lanbideak generoaren arabera baina nire ikastetxeak ematen duen eredia ikusita bakarrik.... Aztertzen baduzu nola gauden kokatuta emakume eta gizonak klaustroan, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako Lehenengo Zikloan denak emakumeak gara, Lehen Hezkuntza osoan gehienak emakumeak dira ere”.*

*Em: “Egia da saiatzen garela transmititzen, lanbide bat aukeratzekoan, ez litzatekeela egon behar sexuaren araberako desberdintasun hori, baina gero gu, eskolaren antolakuntzatik ematen dugun eredia.... Nire eskolan, mutikoei, maila jakin batzuetara igo arte ez die klaserik ematen gizon batek. Orduan beraiek...”*

*Em: “DBHn aldatzen hasten da, mutil gehiago daude neskak baino”.*  
(ET/T/140305/Irakasleak/2)

Nahiz eta DBHn gizonezkoen presentzia emakumezkoena baina handiagoa izan, Institutuetako Mintegiak begiratzen baditugu banaketa ere oso desorekatua izaten da. Gizon gehienak zientzietan daude eta literatura, hizkuntza eta antzeko mintegietan emakumeak dira nagusi. Gure diskurtsoa eta ikasleek ikusten dutena, berriz ere, ez datoz bat.

*Em: “Guk daukagu bueno, gizon guztiak daude zientzietan, eta orduan gero ikasleak begiratzen dira zure ispiluan. Orduan hartzen dituzte ereduak eta berdin da zer esaten duzun, zuk egin egiten duzuna beste gauza bat da. Esan nahi dut, esan al dugu egin nahi duguna baina gero egin egiten duguna ba hemen ikusten da”.*

*Em: “Ikusten dutenaren arabera askotan egiten dute”.*

*Em: “Hori da bizitzen dutena, ba orduan. Neskak bilatzen zaituzte eta aurkitzen dute bere eredia eta jabetu nahi dute zure bidea edo bestearena, edo bestearena, baina beti horretan islatuta. Eta gure eredian, ingeniariak ba beti izango dira mutilak”.*

*Em: “Bueno, hori ari da pixka bat aldatzen”.*

*Em: “Guk daukagu talde bat, Teknologikoak eta beste bat Biosanitario eta beste bat Letretakoa”.*

*Em: “Eta Biosanitarioan denak neskak; Letretakoak ere gehienbat neskak eta gero Teknologikoan...(mutilak)”. (ET/T/140305/Irakasleak/1)*

Zuzendaritza taldeen osaketa begiratzan badugu beste hainbeste gertatzen da, baina ez bakarrik ikastetxeetan. Bestelako enpresetan, botere postuetan nagusiki gizonak egoten dira

*Em: “Zuzendaritza taldean, zuzendaria gizona da, zuzendari pedagogikoa gizona da ere. Egon dira zuzendari emakumeak ere, ez da orain bezala beti izan baina egia da irakasle taldean dagoen emakume kopuruarekiko orain zuzendaritza taldean % 50 gizonezkoak direla eta % 50 emakumezkoak”.*

*Em: “[...] Baina hori da dagoena, zuzendaritzako postuetan, ez bakarrik ikastetxeetan, enpresetan ere, gizon gehiago ikusten dira postu horietan eta beheko postuetan, emakumeak. Eta guk, izan dugun heziketarik honantz jo dugu eta ni Haur Hezkuntzan nago baina bai ikusten dut oso zaila dela”. (ET/T/140305/Irakasleak/2)*

#### 4.2.3.8. Atzera pausoak

Batzuetan elkarriketatutako irakasleen artean atzera pausoak egin diren sentipena dago. Aipatzen dute gai hauek gehiago jorratzen zirela duela urte batzuk, duela 10 bat urte, sentsibilizazio handiagoa zegoela. Gauza asko egiten zituzten prestakuntza mailan eta baita praktikara eramateko plangintzak ere. Orain faltan botatzen dute garai hartan zegoen dinamika eta mugimendua, baina horrelako lana ez da inoiz bukatzen eta egunerokotasunean agertzen diren beharrei aurre egiteko lanean jarraitu behar da.

*Em: “Ni, nire esperientziatik, duela hamar urte edo sentsibilizazio gehiago zegoen nire ustez. Sentsibilizazio gehiago zegoen eskolatan gai honekin, hezkidetzan. Ez dakit, agian garai horretan modan jarri zen eta bultzakada bat eman zen”.*

*Em: “Gu ere ibili ginen “Pentazitate” kontuarekin eta prestatu genuen Tutoretza-Plana maila guztietan, hezkidetzan ardatz bat zela eta. Eta nahiko kontzientziatuta geunden garai horretan, orain nik faltan botatzen dut. Ematen du momentu batean bultzakada ikaragarria eman genuela, eta ibili ginen, eta bueno ya eginda dago. Eta klaro ez gara koziante hori ezin dela, ez dago bukatuta, inoiz ez da bukatzen. Osea egin behar dugu etengabe”.*

*Em: “Eta agian ba berak esan duen bezala, hainbeste kontu etortzen zaizkigu eskolara, ba joaten zara lehentasunak ematen bata eta besteari eta gelditu da... momentu honetan nik nabaritu dut gai hau dagoela... ez dela lehentasunezko gai bat, bai materialari begira, bai liburuei begira.*

*Garai horretan ibili ginen aztertzen liburuak, egin genituen diagnostikoak ikastetxean, murgildu ginen, formazio berezi bat egin genuen gai horretan, ordu pilo bat sartu genituen. Momentu honetan gelditu da”.*

(ET/T/140305/Irakasleak/1)

19. laburpen-laukia

**Eskolaren eredu hezkidetzalea irakasleen ustez (eztabaida taldeetan)**

Kategoria	Erantzunen laburpena
<b>Irakasleen rola</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Irakaslearen papera argi dute irakasleek: lagundu behar du, estereotipoak ekiditen, diskurtsoa zaintzen...</li> <li>– Egunerokotasunean ikuspegi hezkidetzalea txertatzeko zailtasunak dituzte.</li> <li>– Ikuspegi hezkidetzalea izatea jarduera edo programa jakin bat aurrera eramatea baino askoz gehiago da.</li> <li>– Hizkuntzaren erabilera dela eta,</li> <li>– Berdintasuna hizkuntzaren erabilpen ez-sexistarekin hasten da baina oso zaila da irakasleek horretaz kontzientzia izatea.</li> <li>– Jarrera kontrajarriak daude ikastetxean bertako irakasleen artean, batez ere, gaztelerako mintegietan.</li> <li>– Irakasle guztien inplikazioa eta familiekiko elkarlana ezinbestekoa da.</li> <li>– Oso ondo azaldu behar zaie irakasle eta familiei zergatik den hain garrantzitsua hizkuntzaren erabilera ez-sexista.</li> <li>– Material didaktikoak direla eta,</li> <li>– Hezkidetzak ez da izaten ardatza ikastetxean material didaktikoak aukeratzeko orduan eta sarritan jartzen diren bideoak edo kontatzen diren ipuinak estereotipo sexistak errepikatzen dituzte.</li> <li>– Ez dago hausnarketa handirik erabiltzen diren materialen inguruan.</li> <li>– Hausnarketa ikastetxe mailan eta pertsonal mailan egin beharko litzateke.</li> <li>– Prestakuntza falta eta sentsibilizazio beharra nabarmentzen dute.</li> <li>– Ikasgelaren kudeaketari dagokionez,</li> <li>– Aipatzen dute irakasleak ikuspegi hezkidetzalea erabiltzen badu, nola-baiteko jarrera garatzen dutela ikasleek, "kutsatu" egiten direla.</li> <li>– Hezkuntzako etapa guztietan neskek parte gehiago hartzen dute gela barruan baina hori aldatu egiten Bigarren Batxilergora iristen direnean. Horren zergatia ikertu beharko litzateke.</li> <li>– Mutilen protagonismo "txarra" aipatzen dute, zarata egiteko eta taldea apurtzeko. Sarritan, nahiz eta azkarrak izan emaitza akademiko eskasak ateratzen dituzte.</li> <li>– Neska zein mutileri arreta hobeago eskaintzeko "segregazioaz" hitz egiten hasi dira hainbat ikastetxetan baina hitz horrek ikara sortzen du partaideen artean.</li> <li>– Ezinbestekoa ikusten da Hezkidetzaren gaiak curriculum ofizialean txertatzea, bestela pertsonen borondatearen arabera gelditzen da horren lanketa.</li> <li>– Kontua ez da Hezkidetzak programa bat egitea, baizik eta, programa guztietan Hezkidetzak zelan sartu pentsatzea.</li> <li>– Interesgarria litzateke eguneroko ekintzetan hainbat irizpide zehaztea eta egunerokotasunean aplikatu ahal izateko tresnak ematea irakasleei.</li> </ul>

Kategoria	Erantzunen laburpena
<b>Irakasleen parte hartzea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Nabarmentzekoa da Hezkidetzaren lanketa kanpotik iristen diren eskaintzekin lotzen dutela, kanpoko laguntza behar dutela gaiari heltzeko.</li> <li>- Irakasleen esanetan kanpaina gehiagi iristen dira ikastetxeetara.</li> <li>- Irakasle batzuk gehiegizkoa jotzen dute Jaurilaritzako Planean datorren eskakizuna baina onerako edo txarrerako irakasle guztiek beren burua behartuta ikusiko dute Hezkidetzeta lantzeko.</li> </ul>
<b>Irakasleen prestakuntza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Prestakuntza beharra askotan agertzen da euren hitzetan. Oso garrantzitsua iruditzen zaie baina ez dute prestakuntza teorikorik nahi.</li> <li>- Ezinbestekoa da gaia lantzeak duen garrantziaz kontzientzia hartzea eta da klaustro osoa formatzea.</li> <li>- Tresnak eskatzen dituzte, jarduteko protokoloak, desberdintasunen aurrean begirada hezteko eta eguneroko praktikan erabiltzeko.</li> <li>- Hainbat urrats proposatzen dituzte: lan pertsonala eta sentsibilizazioa, eskolako egoeraren azterketa eta urteko ekintzen plangintza urtez urte finkatzen joateko.</li> </ul>
<b>Desberdintasunak detektatzeko sentiberatasuna</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Orokorrean sentsibilitatea badago</li> <li>- Batzuetan zaila izaten da diskriminazioez konturatzeko eta ondorengo esku-hartzea (Batez ere DBH eta Batxilergoan, material gehiago zentratzen direlako harremanetan baino).</li> <li>- Zuzendaritza taldea izan behar da horren bultzatzaile.</li> <li>- Ahots kritiko batzuk mutilen emaitza akademikoekin eta jokaerekin kezkatuta agertzen dira</li> </ul>
<b>Ikasleak orientatzea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan handia egiten da Institutuetan eremu horretan baina tresna ego-kiak falta zaizkie. Ikastetxeetan esperientzia berriak martxan jarri dira eta zabaltzeko trukatzeko beharra dago.</li> <li>- Aipatzen duten beste zailtasun bat: umeak gero eta babestuago daude baina gero eta lehenago erabaki behar dute zer bide hartu, zer ikasi e.a. oraindik euren irizpidea garatu gabe dutenean.</li> </ul>
<b>Familien rola</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Familian oso barneratuta ditugu generoko rola eta gure txiki eta gazteei transmititzen dizkiegu</li> </ul>
<b>Eskolaren errealitatea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Askotan, erabiltzen dugun diskurtsoa ez dator bat ikasleek ikusten eta bizitzen duten ereduarekin, adibidez, emakume eta gizonezko irakasleen banaketa etapaka begiratzen badugu edo DBHn, letra edo zientzietako mintegien osaketari erreparatzen badiogu.</li> <li>- Oso zaila da barneratuta ditugun rola apurtzea.</li> </ul>
<b>Atzerapausoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Azken hamarkadetan, berdintasunaren gaien atzerapausoak egon direnaren sentipena dago irakasleen artean.</li> </ul>

**Laburbilduz;** Eskola eredu hezkidetzaillea dela eta, honako ideiak azpimarratuko genituzke: Irakasleek berdintasunaren inguruan **kontzientzia** izan arren, oso integratuta dituzte hainbat sinesmen eta ohitura eta hezkidetzarena hain eremu zabala izanik, zaila egiten zaie egunerokotasunean ikuspegi hezkidetzaillea izatea. Egunerokotasunean ez dakite oso ondo nola bideratu. Itxaropentsu agertzen dira Jaurilaritzaren Hezkidetzeta Planarekin. (Ikusi 19. laburpen-laukia)

**Hizkuntzaren erabilera dela eta,** borroka handia dago eskolan bertan, irakasleen artean eta, sarritan, mezu kontrajarriak ematen dira eskolan eta etxeetan gai honen inguruan.

Funtsezkoa ikusten da gai hori zergatik den hain garrantzitsua ondo ulertzea. Irakasle eta familien laguntza ezinbestekoa da emaitzak ikusi nahi badira.

**Materialak aukeratzeko orduan**, Hezkidetzaz ez da izaten ardatza. Eta sarritan klasean jartzen diren bideoak edo kontatzen diren ipuinak e.a. genero estereotipoak errepikatzen dituzte. Prestakuntza eta sentsibilizazioa ezinbestekoa da gai honekiko.

**Gela barruan** neskek gehiago parte hartzen dute eta ia maila guztietan nagusitzen dira. Hori aldatu egiten da Bigarren batxilergoan. Interesgarria litzateke horren zergatia aztertzea. Neska zein mutileri erantzun egokiagoa eskaintzeko “segregazioaz hitz” gero eta gehiago hitz egiten dela aipatzen dute baina hitz horrek ikara ematen du eta aukera arriskutsua ikusten da parte-hartzaileen artean.

**Hezkidetzaren lanketa dela eta**, erronka ikusten da Hezkidetzaren gaiak era ofizialean curriculumean sartzea. Bestela, pertsona puntualen ekimenetan geldituko da. Ez da Hezkidetzaz programa bat egitea, baizik eta Hezkidetzaz irakasgai guztietan zelan sartu behar den pentsatzea. Boluntarismotik atera eta lan egiteko moduak finkatzera igaro behar da.

**Irakasleen parte-hartzea dela eta**, kexu dira gauza gehiegi iristen direla eskoletara. Modu berean, aipatzen dute Lehen Hezkuntzarako eskaintza gutxi dagoela Erakundearen aldetik Hezkidetzaren inguruan. Nabarmena da, kanpotik iristen diren eskaintzekin lotzen dutela Hezkidetzaren lanketa. Onerako edo txarrerako, oraingo Jaurlearitzako Planarekin behartuta egongo dira gaia jorratzera.

**Hezkidetzaren inguruko irakasleen prestakuntza**, oso garrantzitsua iruditzen zaie baina ez dute prestakuntza teorikorik nahi. Iruditzen zaie ezinbestekoa dela klustro osoa formatzea eta hainbat pauso ematea proposatzen dute: lan pertsonala eta sentsibilizazioa, eskolako egoeraren azterketa eta urteko ekintzen plangintza urtez-urte finkatzen joateko. Horretaz gainera, ezinbestekoa iruditzen zaie gaia lantzearen garrantzia ondo ulertzea.

**Irakasleen sentsibilizazioa dela eta**, orokorrean sentsibilitatea badago baina sarritan zaila izaten da, batez ere DBH eta Batxilergoan, diskriminazioez konturatzeko eta ondorengo esku-hartzea. Oraindik ere irakasle batzuk ez daude Hezkidetzaren bidean eta ahots kritikoa batzuk ere badira mutilen emaitza akademikoekin eta jokaekin kezkatuta agertzen direnak. Eraginkortasuna izateko Zuzendaritza taldea izan behar da horren bultzatzaile.

**Irakasleen orientazioari dagokionez**, Lan handia egiten da Institutuetan eremu horretan baina erabiltzen diren tresnak ez dira agian egokiak. Ikastetxeetan esperientzia berriak martxan jarri eta ezagutzeko beharra dago.

**Eskolaren errealitateari dagokionez**, argi geratu da, askotan erabiltzen dugun diskurtsoa eta ikasleek ikusten eta bizitzen duten ereduak ez datozela bat. Barnetatuta ditugun rolen apurtzea oso zaila dela. Orokorrean, irakaskuntzan, azken hamarkadan Berdintasunaren gaian atzerapausoak egon diren sentipena dago eztabaida-taldeen parte hartu duten irakasleen artean.

## 4.2.4. Genero rolen adierazpenak eta interakzioak

### 4.2.4.1. Nesken eta mutilen arteko jokaera-diferentziak

Diagnosiaren erronketako bat eskolan irakasleek genero asimetria hori nola detektatzen duten ikustea da. Izan ere, Generoa eskolan oso modu diferentean aurkezten da. Hala erakusten eta esplizitatzen dute irakasleek, agerraldi diferente hau portatzeko era diferenteetan antzematen dela. Jarrera oso diferenteak begitatzten dituzte eta desegokiak direnean ez dakite oso ondo zer egin, izan ere, lana oso modu diferentean egin behar baita. Orain arte jarraitu den irizpidea arazoei modu integralean erantzutearena izan da eta orain kontu honekin galdera ikurra zabaltzen da. Nola erantzun?

“*Ze lehen zen dena integratu modu berean, baina eske agian ez da modu horretan egin behar*” (ET/LO/140305/Irakasleak/1/em).

Eta zalantzaurrean ez jakintasuna, formazio beharra ikusten dute irakasleek:

“*Gatazkaren aurrean ere, ez dira irtenbide ezberdinak hartzen, haien jokabideak berdinak ez direnean. Alde batetik ere, formazioa falta zaigu, ez dakigu zer egin hainbat egoeren aurrean, jarrera desegokiak diferenteak dira nesketan eta mutiletan eta botere mota ezberdina lantzen dute*” (ET/LO/1403051/Irakasleak/1/em).

Nahiz eta ikusi ezberdina dela, nahiz eta jakin teorikoki zer ari den gertatzen, ez dakite zer egin horren aurrean. Aldez aurretik ikasleekin ez da sentsibilizazio lanik egin eta zailagoa ikusten dute erantzukizuna izatea behin gauzak eginda daudela; ez da prebentzio lana egiten, eta behin gertatuta, ez dituzte tresnak horri aurre egiteko. Zailagoa da konturatzea zer pasatzen ari den, eta gero batzuetan zailtasunak daude esku-hartzeak egiteko. Mutilek agresibitate berbala altua dutela diote eta batzuetan fisikoa ere bai, nesken agresibitateaz ohartzea zailagoa dela, batzuetan gauzak ezkutuan egiten baitituzte. Mutilen indarkeria agerian gelditzen da eta gehienetan indarkeria erabiltzen dute horrelako gatazketan erantzuteko:

“*Mutilekin zein neskekin gertatzen dira istiluak baina neskenak mingarriagoak dira. Lehen hezkuntzan arruntagoa da haserretzea edo osti-koka hastea eta neskek min psikologikoa egitera doaz, sibilinoagoa da.*” (ET/LO/1403051/Irakasleak/1/em)

Iraintzeko moduan ere, mutilen artekoak eta nesken artekoak ere oso diferenteak direla diote. Mutilen artekoak antzematen errazagoak dira, baina nesken artekoa askoz ilunagoa da, zailagoa da. Eta askotan horretaz ez dira konturatzen:

“*Horretaz konturatzen zara iristen bazaizu txiripaz ez dakit zer norbaitek esanda, orduan konturatzen zara. Ze ematen du ez dela ezer gertatzen baina azpitik dagoena da tela marinera*” (ET/T/140305/Irakasleak/1)

Lehen Hezkuntzan horrela izaten da, mutilak haserretzen dira beraien artean eta igual batak besteari ostikada bat ematen dio eta bi ordu geroago ahaztuta. Baina nesken artean mina poliki-poliki joaten dira egiten eta hori askoz zailago da tratatzen ze min hori ezberdina da. Indarkeria honen guztiaren atzean genero zantzuak ikusten dira.

“*Hay muchos conflictos que pasan desapercibidos y tienen clave de género. Por ejemplo, tenían que preparar una coreografía, y hubo una pelea entre dos grupos por un espacio (uno de chicos y otra de chicas), cada uno daba sus razones, pero debajo había una lucha de poder... Sin que sean expresiones muy claras, hay una temática de género*“ (ET/LO/140305/Irakasleak/2).

Ikusten da neskak mutilen indarkeria bereganatzen ari direla, maskulinizatzen zentzu horretan, arroxaz zena urdintzen.

“*Lo femenino se está ‘abatiendo’ y las chicas adoptan roles masculinos (peleas...), grandes niveles de agresividad. (...): Como el tema del color rosa, se descartaba el rosa, lo femenino, pero el azul se generalizaba*” (ET/LO/140305/Irakasleak/2).

Beraz, agresibitatea ez da mutilena soilik, neskak ere bereganatzen ari dira eta afektibitatearen kontua ahultzen, femeninoa baztertzen ari da eta rol maskulinoak indartzen, baina indarkeriari loturiko rolak.

“*Esas peleas que antes solo se veía en chicos y que en las chicas era impensable, las chicas era gritarse o tirarse de los pelos un poco. Pero yo creo que sí que se están dando niveles de agresividad*” (ET/T/140305/Irakasleak/2).

Ikasleak handitzen doazen neurrian, diferentziak areagotzen doaz, eta indarkeriaren kontuarekin esaten dute haur txikiak ez duela onartzen jotzen duen laguna. Handitzen doazen neurrian, ordea, indarkeriaren kontrako gaitzespena ez da hain argia. Eta bikote nerabeen harremanetan berriro ere agertzen da mutiko matxote gaiztoa eta indartsuaren irudi desiratua.

Indarkeria alde batera utzita, nesken eta mutilen ohiko portaerak ere oso diferenteak dira. Bi urteekin umeek portaera eta jarreraren inguruan badute dagoeneko ibilbide bat. Eta ibilbide horretan familia eta ingurua dago. Jolasteko moduan, jarreraren nahiz portaeran badituzte diferentziak neska mutilak, halere, 2 urteko gelan ez dira gerora jolasean eta portaeran ikusiko diren agresibitateak ikusiko, ezta gerora nesken eta mutilen artean antzemango diren ezberdintasunak igarriko ere. Baina, Haur Hezkuntzan hasten dira neska eta mutikoen portaera batzuk indartzen edo mozten. Oso modu diferentean kontsolatzen da mutiko bat edo neska bat.

“*El infantil es un punto clave de hacia dónde se potencia o se cortan ciertas actitudes en niños y en niñas, se consuela diferente a un niño que a una niña. Yo y mis compañeras esto lo vemos claro, que sí que existe pero que viene condicionado por lo que se refuerza fuera*” (ET/T/140305/Irakasleak/2).

“*Con 5 años los chicos empiezan a pedir balones, no tienen portería pero ya piden balones, se apropian de los balones. Tienden al balón*” (ET/LO/140305/Irakasleak/2).

Eztabaidan kontatu da ume koxkor baten esperientzia bat, Hezkidetzan aditua den baten 3-4 urteko iloba batena. Ume hau eskolaurrean, berdintasun giro batean hezia da. Hau da, roletan hezi gabea. Oso afektiboa, musu asko ematen dituen mutikoa. Eta parkera ateratzen hasi zenean nonbait igarri zuen beste mutikoen kontrako jarrera, hain inguru hezkidea ez dutenen jarrera.

“ *En el momento en el que le escolaricen va a ser marcado por esas cuadraturas sociales que ya empieza a percibir cuando se relaciona en el parque”. Entonces, ¿Qué hay una parte innata? Sí, pero posiblemente sea mucho más pequeña que la parte aprendida, la parte de exposición social tanto del entorno familiar como luego lo que reciben en el colegio, no solo por parte del profesorado porque en el colegio están en contacto con otros niños que a su vez traen otras mochilas familiares*”.

(ET/T/140305/Irakasleak/2).

Helduagoak direnengan, eta portaerei lotuta, neskek hitz egiteko beharra dute, lagunekin hitz egiteko momentua bilatzen dute. Mutilek zerbait fisikoa behar dute eta neskek beste gauza batzuk ere baloratzen dituzte.

“ *Mutilek pentsatzen dute epe laburrera, eta hori ikusten da ebaluazioetan ere*”.

(ET/T/ 140305/Irakasleak/1).

Etorikin asko dauden ikastetxeetan are eta nabariagoak dira nesken eta mutilen arteko portaerak. Oso markatuta daude neskek egin ditzaketen gauzak eta mutilak egin ditzaketenak. Adibidez igeritokira joatean, neskek ezin daitezke joan, esaten dute bere gorputza ezin dutela erakutsi beste jendearen aurrean. Eta haiei galdetuta eta zergatik mutilak bai: “beraiek gaizki egiten badute, nik ez dut zertan gaizki egin”. Zikloak ere badaude eta oso banatuta daude Osasun Zikloetara emakumeak joaten dira eta emakumeak dira gehienak hezkuntzan, osasun arloan. Gizarte Integrazioan hasi dira mutilak pixka bat ikusten, baina oso banatuta dago.

#### 4.2.4.2. Nesken eta mutilen diskurtso-diferentziak

Oro har atzerapauso bat ikusten da diskurtsoan. Ikasleak ez dira batere kritikoak eta nahiz eta gazteak izan, eta nahiz eta suposatu teoria mamituta izan behar dutela, hala ere, askotan agertzen dira arrazonamendu oso atzerakoiekin...

“ *Ni saiatzen naiz haiekin hitz egiten eta hausnartzen eta daude ba orain dela ba nik esaten diet aurre-historian bezala batzuk. Oso gazteak dira eta ikusi dute, eta lan egin dugu, eta gauza asko, baina hala ere, nik esaten diet “Como los trogloditas” ba hori.*

“*Adolescentes como mis abuelos” Jarrera dela eta*”.

(ET/T/ 140305/Irakasleak/1/em)

Euren diskurtsoa ikusten denaren inguruan mediatizatua dago eta ikusten dena errepikatzen dute. Paradoxikoa bada ere oraindik galde dezakete, ezkonduak daude? kontrakoa fraudea balitz bezala, hori entzuten dutelako, eta agian etxean gurasoak ezkondu gabe daude. Lehen Hezkuntzan hori ikusten bada, ba Bigarren Hezkuntzan are eta okerrago. Eta atzerapauso bat da.

“Yo mi sensación es que entre los chavales sí que ha habido un cierto retroceso, yo creo que nuestra generación éramos mas reivindicativos en ese sentido, no sé si poner la palabra más feminista, porque feminismo no es necesariamente coeducación. Pero yo por ejemplo, en la época en la que yo estudiaba todas hablábamos de: “Vamos a seguir estudiando, para tener una independencia económica” Aunque luego quisieras tener tu familia, pero tú te veías autónoma en ese sentido no te veías dependiente de. Pues yo ya me encontrado con chavalitas que te dicen: “No, yo me voy a casar y ya trabajara él”. Bueno ahora lo de trabajar no lo dice nadie, porque está la cosa como está.

*Mutila: Yo creo que a ellos les ha tocado ser la generación que habéis roto con el rol tradicional. Entonces sí que para eso habéis tenido que pelear muchísimo más, entonces sois más conscientes de ello. Y lo que hay ya es una segunda, una tercera generación que ya no lo ve.*

*Neska: Con otros profesores también se ve ese retroceso, como ese sentimiento de autoafirmación.*

*Neska: Por temas de los celos, temas de control de pareja“*

(ET/T/20140305/Irakasleak/2)

Bestetik, ikusten da diskurtsoan femeninoa ezabatzen doala eta maskulinoa indartzen, portaeretan ikusi dugun bezala, neskak rol femeninoak ahuldu nahian dabilta eta rol hegemonikoarekin gehiago ezkondu.

“Porque lo femenino a lo mejor siempre ha estado un poco devaluado ¿no? Entonces igual la propia mujer o la propia chica entre lo masculino y lo femenino, si lo masculino implica una cierta hegemonía, poder, liderazgo etc. Pero en vez de recuperarlo con lo femenino y reivindicarlo, se ha desterrado.” (ET/T/140305/Irakasleak/2)

#### 4.2.4.3. Bikote harremanak

Generoaren agerpena harremanetan ere ikusi nahi izan dugu eta bikote harremanak nola eraikitzen diren ikertu. Azken urteotan edo azken bi edo hiru urteotan, hirugarren-laugarren mailan gehienbat, badaude neska eta mutilen arteko harreman afektibo oso kontrolatzaileak. Gero eta gehiago. Baina beraiek normaltzat hartzen dituzte, ez diote garrantziarik ematen. Amodio erromantikoaren ideia hori indartzen da, eta gainera beraiek ez dute arriskutsu bezala ikusten. Irakasleek aipatzen dute beraiek ere ez direla horietaz jabetzen nahiz eta izan kasu batzuk nahiko larriak, harreman arriskutsuak. Irteeretan eta patioan ikusten dira harremanak, gela normaletan ez horrenbeste. Nesken sententzioa “asko maite nauena”ren sententzioa da. Irakasleek serieen eragina aipatzen dute, telebistako serieen eragina. Uste dute serie pilo bat ikusten dutela, baina ez laugarren mailan daudenean, baizik eta lehenago, 12, 11, 10 urterekin non estereotipo hori sartzen ari den etengabe. Orduan beraiek normaltzat hartzen dituzte amodiozko manifestaldi horiek.

“Konturatzera koan batzuetan, inoiz ez da oso berandu baina, berandu da, laugarren mailan oso berandu da”. (ET/T/ 140305/Irakasleak/1).

Gainera Facebook-en normalean asko mintzatzen dira, eta telebistako serie merkeetan erabiltzen diren estereotipo guztiak errepikatzen dira. Bikoteetan sekulako kontrola ikusten da, eta batzuk ez dira horretaz jabetzen. Harreman hauek noiztik has daitezkeen asimetrikoak eta arriskutsuak izaten detektatzea eta prebenitzea irakasleen beste gitekoa da.

“*Uno de los temas que nos preocupa son esas primeras relaciones amorosas en donde a veces hay riesgos un poco ya serios de ciertos roles y ciertas desigualdades, pues puedan llevar a una primeras elecciones erróneas que luego vayan marcando futuras elecciones cada vez más en esa línea, y que a lo mejor en el tiempo terminan en agresiones*”.  
(ET/T/140305/Irakasleak/2).

“*Neska: Nosotros este año por ejemplo, hubo así un poco que pelearlo, pero al final alguna baja tuvieron y: “Uy que bien, nos has tocado al final” Hicieron un programa que se titulaba: ¿Te atreves a quererme? E iba un poco en dirección de lo que comentábamos antes, de esas primeras relaciones amorosas en donde ya se empiezan a ver algunos síntomas de alarma pero como no llegan a lo que todos entendemos por violencia no pasa nada. Incluso muchas veces pues se interpreta como prueba de cariño o de amor. No le gusta que vaya con una falda muy corta porque le quiere mucho. Y lo piensas un poco, y eso no lo decíamos casi ni en nuestro tiempo.*” (ET/T/20140305/Irakasleak/2/neska).

Eta irakasleentzat oso ulergaitza da nola txikitari indarkeria gaitzesten zuen ume hori handitzen doan neurrian indarkeria agerraldiekin ez den harritzen eta zurrumbilo horretan sartzen den. Baina hortxe aurkitzen dute irakasleek indarkeriaren onarpenaren agerpena, barneratua izatean eta indarkeria edota eraso bezala ez onartzean.

“*Bueno pues por ejemplo el que te miren el móvil, que te controlen quien te está escribiendo, a ver hasta qué hora has estado conectado al Was-sap.... y bueno esto también chicas hacia chicos, no necesariamente solo...*” (ET/T/140305/Irakasleak/2)

#### 4.2.4.4. Lanbide-aukeraketak

Genero asimetria agresibitate eta afektibitate agerpenetan, ez ezik, ikasleek egiten dituzten ikasketa aukeretan ere oso agerian geratzen den kontua da eta rolak ezinbestean markatu eta indartzen den ueña bilakatzen da. Eta hor irakasleek zer esan eta egin handia dute. Hautagaiak, hautazko materialak hautatzerakoan Laugarren mailan edo Batxilergoan markatzen dira diferentziak: Letrazko taldeak dira neskak gehienbat eta Teknologia edo Zientziako taldeak Batxilergoan mutilak gehienbat. Mutil batek benetan letretatik joan nahi badu erdi-konbentzitzen aritu behar da, gainera gurasoak ere horrekin bat etorri behar dira. Ikasleria erdiak FP egiten duten ikastetxeen kasuan diferentziak oso nabariak dira.

“*A la hora de simplemente elegir una FP vemos unos ciclos en el que mayoritariamente con alguna excepción son todo hombres y también justo lo contrario. Incluso el profesorado dice: “Oye, que si te vas a mecanizado tienes un trabajo en la industria que vas a ganar el doble que si eres auxiliar de enfermería*”.” (ET/T/140305/Irakasleak/2)

Unibertsitatean justu kontrakoa gertatzen ari da, izan ere, egun orobat femeninoa da Unibertsitatea, Ingeniaritzen eremua kenduta. FPetan gertatzen denaren alderantzizko fenomeno bizi du Unibertsitateak. Eta ez du balio esateak 16 urterekin mutilak astokiloagoak direla eta neskek arduratsuagoak eta Batxilerra egiten dutela. Buelta eman eta geure buruei galdezka hasi beharko ginatke:

“*Oye, pues algo especial tenemos que hacer con los chicos ¿no? Para responder ante ese fracaso escolar”. Eso lo debe analizar la escuela en su conjunto, porque sí que lo vemos, tenemos unos datos demoledores en ese sentido*”. (ET/T/140305/Irakasleak/2).

Baina gauzak zerbaitetan aldatzen ari dira. Ikastetxe batek kontatzen du bere esperientzia eta esaten du eurek betidanik FP ziklo bat izan dutela, txiki-txikitatik FP ziklo bat tradizionalki oso femeninoa izan dena, Haur Hezkuntzaren zikloa, haurtzaindegia edo Haur Eskoletako goi teknikaria izateko eta egun, halaber, Haur Hezkuntzako Graduarekin hainbat konbalidazio egiteko balio duena. Lehen urteetan ez zegoen mutiko bat bera ere, azken promozioetan badaude hiru mutil 20ko taldeetan.

“*A nivel de elección yo creo que todavía se siguen manteniendo bastante ciertos roles. Por ejemplo dentro de lo que son las elecciones de itinerarios científico-técnicos y biosanitarios, pues normalmente son más las chicas las que eligen el biosanitario y mas los chicos digamos dentro de la opción de ciencias, que eligen el científico-técnico. Y bueno, ¿Chicas que quieran hacer ingeniería?. Un 25%. ¿O chicos que quieren hacer Medicina? Bueno medicina tiene otra connotación, pero bueno, ¿chicos que quieren hacer enfermería? Pues ya hay, pero son más las chicas.*” (ET/T/140305/Irakasleak/2).

Ikastetxe batek adierazten du euren kasuan zenbat eta maila altuagoa orduan eta berdintasun handiagoa gertatzen dela, eta oso ikastetxe handia dela. “Heldutasun gehiago?

“*No sé, no me atrevo a decir, pero es gradual, de tal forma que no hay tanta diferencia en los Ciclos Superiores en matriculas en lo que es chicas y chicos, industriales y de servicios. Existe la diferencia eh, pero la tendencia es desde el “PCBI” cambia, los porcentajes cambian, es curiosoísimo.*” (ET/T/140305/Irakasleak/2)

Goi mailako Lanbide Heziketa aukeratzen duenak lan munduari begira gauzak argiago dituela diote, baina adin bereko neska mutilak eta Unibertsitaterako hautua egiten ari direnak ez daukatela hain argi. Ez dago portzentajerik estatistika orokor batzuk ateratzeko, FPtik pasatzen direnak portzentaje baxuagoak dira. Batzuk bi urteko Goi Formazioa egin eta Unibertsitatera joaten dira, beste batzuek unibertsitatean ikasketak egin ondoren Goi Mailako Formakuntza teknikoa egiten dute.

Baina ikasketa-aukeraketan familiak ere zer esan handia du. Erabakietan familietako botereak agertzen dira. Ikusten da oraindik orain etxean esaten denak edota familiak esaten duenak edo nahi duenak izugarrizko eragina duela berdintasun politketan nahiz genero kontuetan.

“*zuk ikasle bat daukazu ikasgelan eta horko harremana nahiko librea da baina bat batean agertzen da erabakitzeo momentua eta hor agertzen dira putre guztiak.*” (ET/T/zuzirak1/14/03/05).

Gainera gaur egun ikasleak babestuagoak daude, ikasleen orientazio atalean berriro ikusiko dugun bezala, eta aldiz, erabakitzeko guneak geroz eta lehenago hasten dira, geroz eta lehenago erabakiak hartu behar dituzte. Askotan irizpide propiorik gabe hartu behar dute zerbait eta askotan hartzen dute beste batek nahi duena, edo errazagoa dena edo estereotipoak markatzen duen horretara joaten dira.

Irizpide edo aholku estereotipatuak gainditze arren, normalean Lanbide Heziketako ikasketak ez dituzte egin nahi, eta etorkinen kasuan, helburua beste bat da, Derrigorrezko Hezkuntza bukatzea nahikoa da.

Irakasleek gauza gutxi egin dezakete telebistak duen eragin txarraren aurrean, diskurtsoak kriminalak dira, eta haiengandik gertu dauden pertsonak erakartzea lortzen dute, eredu-garriak izan daitezke telebistan agertzen diren antiheroi horiek. Eredu transmititzailea da, eta nahiz eta irakasle oso feminista horren aurrean egon, ezer gutxi egin dezake.

“*Ikasleak begiratzen dira gure ispiluan, nahiz eta gizon bat egon eta beste guztiak emakumeak izan ikusten dute nola erabiltzen dugun hizkuntza, eta ikusten duten horren arabera mutilak ingeniariak izan behar direla geroz eta arruntagoa izaten ari da, eta neska biosanitario horretan eta profila oso ezberdina da, jarrerak eta lan egiteko moduak ere oso ezberdinak dira.*” (ET/LO/140305/Irakasleak/1/em)

#### 4.2.4.5. Sare sozialak eta komunikabideak

Generoaren agerraldia sare sozialetan ere gertatzen da eta nola gertatzen den esplikatzeko da hurreneko paragrafoetan.

“*Las redes sociales dentro de sus múltiples potencialidades son otra vía para seguir perdurando ciertos roles, ciertos sexismos e incluso ciertas violencias*”. (ET/T/140305/Irakasleak/2)

Gai honen inguruan, oro har, beldurra dago: alde batetik irakasleriaren formakuntza faltaz kontu honen inguruan, eta bestetik lege hutsune handia dagoelako indarkeria digitalaz. Ez dago protokolorik hezkuntzan, delituak gertatzen ari dira Whatsapen bidez, Berritzegunee-tatik araudiak martxan jarri beharko lirake, interbentziorako protokoloak diseinatu. Instituzioek zerbait egin beharko lukete honen inguruan jazarpen digitala ekidite aldera baina ez dago ezer eta ezin da kontrolatu eskolatik. Nola denuntziatu? Nola tratatzen dira delitu digitalak eremu penalean? Mugikorra 24 orduz erretira daiteke, baina gero itzuli egin behar da. Gainera eskolak ezin du eskolaz kanpo gertatzen dena kontrolatu.

Sare sozialaren dimentsioaz mintzo dira, sareak nola hedatzen diren. Arazo sozial txiki bat dena sare sozialen eraginez erraldoia bihurtu daiteke. Lehen ez zen hori gertatzen, ahoz esaten eta hedatzen ziren irainak, jazarpenak eta orain sareetan taldeak dauzkate, igual Whatsup taldeak maila osoko izenak ditu. Horren bidez jende guztia arazo minimo batez jabetzen da; eta hor edonork parte hartzeko eskubidea du, eta esan lezake nahi duena, erantzun... Izugarri korapilatzen da. Eta horren aurrean irakasleak zer egin dezake? Lehenengo enteratu eta gero mezuaren nondik norako guztia osatu, ia ezinezkoa dena.

“*Problema berdina da. Bikote batean baldin badago halako harreman bihurria, edo kontrola... ez dakit, nik ez dut hain zaila ikusten nabaritzea. Baina gero klaro, hika-mika guzti horiek...*” (ET/T/140305/Irakasleak/1/em)

Gauza bera baimenik gabe sarera igotzen diren argazkiekin. Sareetan hedatzen doan indarkeria ez da sobera ezagutzen, eta teknologia berrien tailerretan ikusten da hortik etor daitekeen indarkeria gehiago esplizitatu beharko litzatekeela eta ikasleak interneten hedatzen den indarkeria mota identifikatzen ikasi beharko lukeela. Badirudi indarkeria fisikoa iritsi arte ez dagoela indarkeriarik. Eskolak zailtasunak ditu antzemateko eta gurasoek ere askotan ez dira jabetzen eta jabetzerakoan ez dakite oso ondo zer egin.

“*Los padres dicen: “Igual no denuncio porque es peor para la chavala el chaval...” Pero es un delito, si te hubiesen dado una paliza seguramente hubieses denunciado. Bueno, es complicado y yo creo que es una sugerencia a instituciones, un protocolo me parecería adecuado.* (ET/T/140305/Irakasleak/2).

Eskolan, lehen aipatu bezala deus gutxi dago protokolo aldetik, mugikorraren inguruan dekretuak esaten du 24 orduz erretira daitekeela. Dekretuak ikastetxetik mugitzen laguntzen du eta esaten du zeintzuk diren jarrera desegokiak, zeintzuk diren grabaeak elkarbizitzarako edota oso larriak. Baina oso larriak izan daitezkeen horien irakurketa alegala izan daiteke. Kontu handiz egin behar dira irakurketak. Eta indarkeriaren gaia begi-bistan jartzen da behin eta berriro, telebistan nahiz sareetan emakumearen irudia erasogune bihurtzen delako:

“*Es la imagen de la mujer la que está en juego. Bueno, habrá casos en los que también sea algún chico el que se siente en esa situación tan delicada. Pero todos los casos que al final nos llegan son chicas que han sido grabadas en situaciones delicadas*” (ET/T/140305/Irakasleak/2)

Esplizitatzen dute ez daukatela indarkeria hau salatzeke protokolorik berehala martxan jartzeko, ez dakitela noiz daukaten salatzeke obligazioa. Elkarbizitzaren ikuspegitik ez dago gauzatua irakaslea grabatzeak zer ekar dezakeen penalki edota ikaslea grabatzeak eta Interneten zintzilikatzeak:

“*Pero es que empezamos a rozar lo que son delitos realmente, y recogidos en el código penal. Y los centros educativos no tienen por parte de Delegación de Educación pues bueno: “Éste es el protocolo que tenéis que seguir”. Eso es, unos protocolos, en este tipo de situaciones*”. (ET/T/140305/Irakasleak/2)

Sare sozialetan eta komunikabideetan, femeninoa gainbeheran dago diskurtsoaren atalean ikusi dugun gisan, maskulinoa indartsuago azaltzen da. Maskulinitatean eragin handia dute komunikabideek. Batez ere, emakumearen irudia asko erabiltzen da telebistan objektu bezala, gaindosian azaltzen da eta ezer gutxi egiten da kontra.

“*Un ejercicio que hicimos el año pasado, o que nos representaron, fue ver a lo largo de la jornada un niño, una niña de ocho o diez años en televisión a qué está expuesto. Entonces ya no se trata solo de esa franja de decir... sino dibujos animados etc. Se analizaba cosas que dices: “Bueno!”. Si te paras a ver con ellos lo que ven, hay algunos también que son francamente... no sé si la palabra es denunciables pero de decir: “¿Nadie ve? ¿Nadie ve esto antes de proyectarlo?”. Incluso en series de dibujos animados aparentemente inocentes los contenidos que a veces aparecen*” (ET/T/140305/Irakasleak2)

Ikasleek dena ikusten dute (MTV, Sálvame.) Saio hauen aurrean Komunikabideetan galbaheak egin beharko lituzkete erakundeek. Publizitatea eta programak kontrolatu. Berdintasun politikak martxan omen daude baina saio horiek ikusterakoan atariko haizea dira, programa osoak daude denuntziatzeko modukoak direnak. Guk eskolan ezer gutxi egin dezakegu: iragarkiak analizatu, jarrera kritikoak eraiki mutil eta neskekin telebista aztertuz. Dena den telebista itzal daiteke, ordenagailua, mugikorra, interneta, sare sozialak ezin dira kontrolatu: Twiterra eta Youtubea ezin dira kontrolatu.

20. laburpen-laukia

Generoko adierazpenak eta interakzioak

Kategoria	Erantzunen laburpena
<b>Nesken eta mutilen arteko jokaera-diferentziak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Agresibitatea neska mutilen portaeretan agerikoa eta diferentea dela diote.</li> <li>- Portaera diferenteak erantzun diferenteak eskatzen dituztela eta eskolaren jardueran badagoela erantzun integralak emateko joera.</li> <li>- Beraz, ezjakintasuna aipatzen da agresibitate agerraldien aurrean erantzun ahal izateko.</li> </ul>
<b>Nesken eta mutilen diskurtso-diferentziak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Balore femeninoak devaluatzen ari direla balore maskulino hegemonikoaren alde.</li> <li>- Horrela, neskak maskulinizatzen ari direla indarkeriari dagokion arloan aipatzen da behin eta berriro.</li> </ul>
<b>Bikote harremanak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bikote harremanetan aipatzen da DBHko laugarren mailan hasten direla bikote harremanak eta kezkatuak daudela lehen harreman horietan rol batzuk eta ezberdintasun batzuk azaltzen hasten direlako.</li> </ul>
<b>Sare sozialak eta komunikabideak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sare sozialetan ere indarkeria zantzuak ikusten dituzte eta ez dute protokolorik ezta jazarpen digitalaren inguruko informaziorik irakasleek.</li> <li>- Informazio faltaz eta lege hutsuneaz beldur dira.</li> </ul>
<b>Laburpen- aukeraketak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasketa aukeraketan aipatzen dute, oro har oraindik orain, al-daketa handirik ez dela gertatu eta FPak, betiko moduan, mutilen hautua direla eta Unibertsitatea emakumeena, eta honetan Inge-niaritzak eta karrera teknikoak mutilenak segitzen dutela izaten.</li> </ul>

**Laburbilduz,** Generoaren aurkezpena agresibitate/afektibitateari dagokionez, oso modu dife-rentean azaltzen dela diote irakasleek gelan (ikus 20. laburpen-laukia), oso modu dikotomi-koan: mutikoena oso fisikoa eta agerikoa dela eta neskena askoz ere sibilinoagoa, ikusten ez dena. Agresibitate honen kudeaketaren aurrean, ezjakintasuna aipatzen dute, izan ere, portaera diferenteek erantzun diferenteak eskatzen dituztela eta eskolaren jardueran badagoela erantzun integralak emateko joera. Beraz, ezjakintasuna aipatzen da agresibitate agerraldien aurrean.

Agresibitatearen inguruan ñabardura bat azaltzen da, izan ere, balore femeninoak ahultzen doazela diskurtsoan nahiz portaeretan balore maskulinoen alde. Balore femeninoak deba-luatzen ari direla balore maskulino hegemonikoaren alde. Horrela, neskak maskulinizatzen ari direla indarkeriari dagokion arloan aipatzen da behin eta berriro. Neskak, hartaz, mutilen indarkeria fisikoa nahiz diskurtsiboa bereganatzen ari dira, maskulinizatzen zentzu horretan, arroxaz zena urdintzen. Afektibitatearen kontua, aldiz, femeninoarekin lotzen denez ahultzen,

debaluatzen, maskulinoari eta indarrari atxikitako semantikaren aldekoa postuan.

Ikasketa aukeretan aipatzen dute, oro har oraindik orain, aldaketa handirik ez dela gertatu eta FPak, betiko moduan, mutilen hautua direla eta Unibertsitatea emakumeena, eta honetan Ingeniaritzak eta karrera teknikoak mutilenak segitzen dutela izaten. Irakasleen jarduna ikasleen ogibide aukeraketan apenas ez dela igartzen; komunikabideak eta erreferenteak emulatzen dituzte ikasleak eta familiaren eragin handia da ikasketa aukeraketan eta betiko rolen erreproduzioa gertatzen da.

Bikote harremanetan aipatzen da DBHko laugarren mailan hasten direla bikote-harremanak eta kezkatuak daudela lehen harreman horietan rol batzuk eta ezberdintasun batzuk azaltzen hasten direlako, lehen aukeraketa okerra izanik; etorkizuneko hautuen marra finka dezakeen ustea dute, luzera erasoetan bilaka daitezkeen harremanak aberastuz. Atzerapausoa ikusten da, maitasun erromantikoaren agerpena, 10, 11, 12 urteetan telebistatik edan dutena.

Sare sozialetan ere indarkeria zantzuak ikusten dituzte. Emakumeen irudia, batez ere, nahiz mutilena sareetan zabaltzen; eta ez dute protokolorik ezta jazarpen digitalaren inguruko informaziorik irakasleek. Informazio faltaz eta lege-hutsuneaz beldur dira irakasleak. Kode penalean jasotzen diren delituak ikusten hasiak dira ikastetxeak eta ez dute Hezkuntza Ordezkaritzatik protokolorik horrelako egoeretan egin behar dutenaren inguruan..

## 4.2.5. Espazioaren erabilera

### 4.2.5.1. Patioaren erabilera eta espazio-banaketa

Espazioaren erabilpena aztertzen den gauza da. Espazioen azterketa egin da zenbait ikastetxeetan futbola kirol hegemonikoa ez izateko eta beste ekintza batzuk bideratu nahi direlako, beste espazio batzuk eraiki nahi direlako: pin-pon mahaiak, espazioak txandaka kurtso ezberdinak erabiltzeko, bankuak hitz egiteko, boleibol zelaia. Badira espazio konpartituak. Espazioak non mutilak futbolean dabilzan eta neskak begira dauden. Elkarrekin jolasteko proposamenak. Liburutegia kartetan jolasteko, hitz egiteko. Baina, ikastetxe batzuetakoek diote Liburutegia babesleku bilakatzen ari dela erlazionatzeko gogorik ez dutenentzat

“*Mutilek ez dakitenez hain ondo erlazionatzen edo hitz egiten, kirola da aitzakia bat. Batzuk joaten dira liburutegira, guk atsedendietan irekita daukagu. Ari gara planteatzen ia egokia ote den, ze batzuek ari dira erabiltzen liburutegia babesleku moduan; ez erlazionatzeko edo beldurra diotenez ateratzeari eta ba joaten dira liburutegira*”. (ET/T/140305/ Irakasleak/1/em).

Zenbait mutilek gauza bera egiten dute kirolarekin. Hitz egiten ez egoteko edo ez dakitenez zer egin harreman horretan, ba kirola egitea eta futbolean egotea oso ihesbide erraza da.

“*Nire Institutuan mutilak egoten dira patioan jolasten baina, patioan badago futbol zelaia, badago saskibaloia, baina badaude beste gune batzuk ere non egon daitezkeen hitz egiten, baina bueno, nahiago dute bazter batean. Eta egokitu dugu leku bat eta ipini ditugu mahai batzuk*”

*politak, koloretakoak eta horra joaten dira bai neskak eta bai mutilak, ze mutil guztiek ez dute jolasten futbolera. Eta hor elkartzen dira bai neskak eta bai mutilak”* (ET/T/140305/Irakasleak/1/em).

*“Nosotros una de las cosas que abordamos fue un poco también el análisis de los espacios. Sí que es cierto que a veces la estructura arquitectónica no es tan fácil de modificar, porque a veces implica entre otras muchas cosas pues recursos y... Entonces lo que intentamos fue que no fuese solamente el fútbol el deporte hegemónico, que hubiera también canchas de baloncesto”* (ET/T/140305/Irakasleak/2).

Halere, gutxi dira futboleko ibiltzen diren emakumeak eta baloia eta pilotaren ingurumarian mutilak dira jaun eta jabe. Gastu ekonomikoengatik, gainera, ezin da nahi den guztia egin, halere, zenbait ikastetxetan martxan jarri dira neskentzako eta mutilentzako espazio bateratuak, jolas-leku bateratuak; espazioen txandakako erabilpena futbolerako nahiz saskibaloirako, beti ere, apurtu nahian neska mutilak espazioen erabilpenerako duten joera dikotomikoa.

Mutilak baloiarekin edo pilotarekin lasai daude eta patioaren eta kanpoaren beharra dute; neskek, aldiz, hitz egitearen aldeko apustua egiten dute, sozializatzearen aldekoak dira:

“Nire alabak futboleko jolasten du, Lehen Hezkuntzan jolasten zuen patioan futboleko, eta DBHra Institutura joatean ez. “Eta zergatik ez duzu jolasten?” “Eske ez daukagu denborarik”, nik uste dut lotsa dela alde batetik eta bestetik ere ez daukatela horren beharra, nahiago dute elkarrekin egotea sozializatzen.” (ET/T/140305/Irakasleak/1).

Espazioen erabilpenen araudirik duten galdetzerakoan ezezkoa izan da erantzun borobila. Patioak mutilek hartuta daukate Lehen eta Bigarren Hezkuntzan. Patio-erdia futbol zelai handi bat da eta saskibaloirako zati handi bat da. Neskek, lehen esan dugun moduan, lotsagarri gelditzeko beldur handiago dute, halere, kirola egiten dute osasuntsua delako. Baina, ikastetxek kanpo egiten dute kirola. Badago, beraz, neska mutilak elkarrekin patioa partekatzen jartzeko nahia eta beharra ikastetxeren aldetik halere:

“Nuestro patio es un patio normal, normal de lo de antes. ... sí que hay canastas también pero no hay nada de turnos, se ve el balón por todos los sitios. De hecho en infantil los niños, sobre todo los de cinco años, más pequeños no, empiezan a pedir balón. No tienen ni portería ni nada, en infantil tienen su espacio con unos columpios y juegan a dar balonazos más que otra cosa. Pero sí que es verdad que igual sacas un par de balones a compartir y el juego que tienen las niñas al que tienen los niños es completamente diferente. Los balones al final se los han apropiado los niños y ya no hay más. Eso invade el patio.” (ET/T/140305/Irakasleak/2).

Eta espazio hau hain arautua dagoenean, hain hegemonikoki maskulinoa denean elkarren arteko liskarrik sortzen da? Normalean ez, lehen esan bezala mailaka egokituak daudelako. Batzuetan neskek eta mutilek batera jokatzeko dute, beste kurtsoetan mutilak jokatu eta nes-

kek begiratzten dute. Eta hortxe sortzen da nahigabe ere rolen ekoizpena nahiz eta erabilitako estrategiak berdintasuna izan xedetzat.

*“Entonces hay que trabajar con ellos, pues a lo mejor desde otras perspectivas, o con otras situaciones. Pero bueno, lo de introducir otro tipo de deportes y marcando espacios también para esos deportes sí que ha sido interesante, y juegan chicos y chicas. No está tan marcado...”*

(ET/T/140305/Irakasleak/2)

#### 4.2.5.2. Jolasen ezaugarriak

Oro har ikusten da eskolan neska mutilak elkarrekin jolasean jarri nahi badira ere, mutilak alde batetik pilotaren atzetik, eta neskek bestetik doazela zerbait lasaiagoa baten bila. Hormonaz hitz egiterakoan esaten da urteen diferentziaz gain, neska- mutil nerabeen artean behintzat alde handia ikusten dela eta hormona horiek oso modu diferentean erretzen direla. Hitz egin da dantza eta musika gorputz heziketa edo kirolarekin lotzeaz eta erantzunetan ikusi da futbola garaile izanik ere, neskek oso gustura hartzen dutela musika eta dantzaren kontua gorputza mugitzeko, mutikoak ere horretan jarrita ondo sentitzen direla.

#### 21. laburpen-laukia

#### Espazioen erabilera

Kategoria	Erantzunen laburpena
<b>Patioaren erabilera</b>	<p>Espazioaren kudeaketaren inguruan, oraindik patioa mutilena dela diote, baloia eta porteriak nagusitzen dira espazioaren kudeaketan eta neskek hitz egitera dedikatzen dira.</p> <p>Halere, eskola neska-mutilek elkarrekin jolas dezaten etenik gabe proposamenak egiten ari da</p>

**Laburbilduz,** Espazioaren kudeaketaren inguruan, oraindik patioa mutilena dela diote, baloia eta porteriak nagusitzen dira espazioaren kudeaketan eta neskek hitz egitera dedikatzen dira. Halere, espazioa aztertzen da zenbait ikastetxeetan futbola kirol hegemonikoa ez izateko eta beste ekintza batzuk bideratu nahi direlako, beste espazio batzuk eraiki nahi direlako: pin-pon mahaiak, espazioak txandaka kurso ezberdinak erabiltzeko, bankuak hitz egiteko, voleibol zelaia. Badira espazio konpartituak. Espazioak non mutilak futboleant dabiltzan eta neska begira dauden. Elkarrekin jolasteko proposamenak (ikusi 21. laburpen-laukia).

### 4.3. IKASLEEN EZTABAIDETAN LORTUTAKO EMAITZAK

Ikasleen eztabaida taldeen analisia egiteko ere bost dimentsioetan banatu dira emaitzak: berdintasun politikak, hezkidetzaz, eskolaren eredu hezkidetzaz, genero rolen adierazpenak eta interakzioak, eta espazioaren erabilera. Kategoria-sistemaren bidez analisia egiten dugu (informe osoan egitura bera mantendu da-eta, eta era berean kategoria-sistemaren bidez antolatzen ditugu emaitzen kapituluaren atalak (ikusi 32. taula).

32. taula

**Ikasleen emaitzak analizatzeko erabili den kategoria-sistema.**

DIMENTSIOAK	KATEGORIAK	AZPIKATEGORIAK
<b>4.3.1. Politika: aukera berdintasun politikak</b>	4.3.1.1. Zabalkundea eta eragina	
<b>4.3.2. Zer da hezkidetzaz?</b>	4.3.2.1. Definizioa	
	4.3.2.2. Proiektu hezkidetzailleak: ikastetxeak hezkidetzaren inguruan egiten dituen ekintzak, jarduerak, proiektuak...	
<b>4.3.3. Eskolaren eredu hezkidetzaillea</b>	4.3.3.1. Irakasleen rola	4.3.3.1.1. Material didaktikoak
		4.3.3.1.2. Ikasgelaren kudeaketa: parte hartzea eta lidergoa, tutoretzak, bestelakoak
	4.3.3.2. Irakasleen prestakuntza	
	4.3.3.3. Desberdintasunak detektatzeko sentiberatasuna	
	4.3.3.4. Ikasleak orientatzea	
	4.3.3.5. Ikasleen beharrak	
<b>4.3.4. Genero rolen adierazpenak eta interakzioak</b>	4.3.4.1. Nesken eta mutilen arteko jokaera-diferentziak	4.3.4.1.1. Estereotipoak
		4.3.4.1.2. Irudi fisikoa
		4.3.4.1.3. Klaseko parte-hartzea eta arduren banaketa
	4.3.4.2. Harremanak	4.3.4.2.1. Bikote-harremanak
		4.3.4.2.2. Berdinen arteko harremanak
	4.3.4.3. Sare sozialak eta komunikabideak	
	4.3.4.4. Lanbide-aukeraketak	
<b>4.3.5. Espazioaren erabilera</b>	4.3.5.1. Patioaren erabilera	
	4.3.5.2. Jolasen ezaugarriak	
	4.3.5.3. Espazioaren banaketa	

Arestian esan dugun bezala, analisi-tresna oinarria izan da ahotsak sailkatzeko eta puntu honen diskurtsoa gidatzen duen gidoia ezartzeko.

### 4.3.1. Politika: aukera berdintasun politikak

Emakume eta gizonen arteko berdintasuneko kanpainei buruz eta aurrera bultzatu diren ekimenei buruz hitz egiten dutenean erakundeek egiten duten zabalkuntzari buruz hitz egiten dute soilik.

#### 4.3.1.1. Zabalkundea eta eragina

Zentro batzuetan egindako aukera berdintasun politikek eragina izan dute irakaslerian. Zehazki ikasleek eskolan egindako bat aipatzen dute, **Eusko Jaurlaritzako Hezkidetza proiektua**, eta tratu txarren inguruan egindako formazioa, nahiz eta proiektu horren inguruan daukaten ezagutza nahiko murriztua izan, gehiago jakiteko interesa adieraziz.

“*Pues... ez dakit, hemen hitz egin digute horri buruz hainbatetan baina zehazki zertaz datzan ez dakigu asko. Orain egon naiz hitz egiten irakaslearekin gehiago osatu beharko litzatekeela, nik uste*”. (ET/T/Ikasi/140305/ikasleak/1/em).

Horren harira, komentatzen dute **hezkidetza proiektuak gehiago zabaldu** beharko liratekeela informazioa ez baita iristen irakasleria guztira, askotan irakasle konkretu batzuen esfortzuaren menpe geratuz.

“*Nik uste dut hezkidetza proiektua askoz gehiago zabaldu beharko litzatekeela zergatik hemen institutuan oso jende gutxi daki institutua hezkidetza proiektuaren barruan dagoela, eta hori askoz gehiago zabaldu beharko litzateke edo zehaztu zer den... zeren guk psikologia ematen dugulako eta irakaslea kezkatzen delako, baina nik uste dut mundu guztiak ez dakiela, eta adibidez eskola kontseiluan aurkeztu zenean proiektua ez zuten zehazki azaldu guraso eta irakasle guztiei zehazki zer den*”. (ET/LO/140305/ikasleak/1/em)

Nolanahi ere, programa hauek eragina izan dute. Euren laguntzaz emakumearen eskubideak defendatzearen eta **berdintasunaren alde egiteko garrantziaz** konturatu direla azpimarratzen dute eta gaur egun oraindik emakumea gutxietsia dagoela.

“*Ba eskubideetan berdintasuna izatea, betidanik emakumea zapaldua izan dela eta hori dela txikitatik jaso duguna, eta horrekin geratzea inportantea dela gure eskubideak defendatzeko eta gurasoengan eta gizarterengan hori dela jaso duguna, gutxiago balio gara, babestuak izan behar dugula. Eskola honetan gai hauek lantzen dira, hemengoek Eusko Jaurlaritzako Hezkidetza proiektu batean parte hartzen dugulako. Gero ere, berdintasuna ez dagoela tratu txarretan ere jaso dugu, leku askotatik jasotzen dugu hori, supuestamente badakizu ez duzula hori izango, eta juridikoki gizonak uste duela emakume baino gehiago dela*”. (ET/LO/140305/ikasleak/1/em)

Azkenik, aipatu behar da egindako eztabaida talde guztien artean bakarrik batean erantzun diotela aukera berdintasun politikaren inguruko galderari, beste taldeetan isiltasuna izan da erantzuna (ikusi 22. laburpen-laukia).

22. laburpen-laukia

Ikasleen eztabaida taldetan politiken inguruan esandakoa

Kategoria	Erantzunen laburpena
<b>Zabalkundea eta eragina</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Bakarrik eztabaida talde batek erantzun du galdera hau (besteetan ixiltasuna).</li> <li>– Eusko Jaurlaritzako Hezkidetza proiektua eta tratu txarren inguruan egindako formazioa ezagutzen dituzte</li> <li>– Proiektu hauen inguruan ezagutza nahiko murriztua: zabalkundea ez da orokorra (irakasle konkretu batzuen eskuetan geratzen da) eta informazioa ez da irakasleri guztiari iristen .</li> <li>– Nahiz eta egoera hau eman, programa hauek eragina eduki dute: berdintasunaren alde egiteko garrantziaz konturatu dira</li> <li>– Gehiago jakiteko interesa adierazten dute</li> </ul>

4.3.2. Zer da hezkidetza?

Hezkidetzari buruz definizioa ematen dute eta baita komentatzen dute zeintzuk diren eza-gutzen dituzten proiektu hezkidetzailleak.

4.3.2.1. Definizioa

**Berdintasuna definitzeko** momentuan gehienek aukera eta eskubide berdinak arlo guztietan edukitzea bezala ulertzen dute, azpimarratuz bai gizonak bai emakumeak berdinak direla, nahiz eta desberdintasun fisikoak aipatu.

“Ba eskubide berberak izatea eta azkenean aukera berberak ematea lan arloan edo ikasketa arloan eta arlo guztietan”. (ET/T/140403/Ikasleak/2/em)

“Azken finean izateko aukera berdinak, zeren azkenean nolabait berdina gara. Fisikoki agian ez baina azkenean ez gizonak ezta emakumeak ez dira besteak baino hobeak”. (ET/T/140403/Ikasleak/2/em).

Berdintasun hau trataeran pertsonen arteko harremanetan eskatzen eta ulertzen dute, eta hori betetzea aldarrikatzen dute ere.

“Igual Gimnasia klasean, batzuetan ikusi dugula ba neskei esaten dietela egiteko gauza bat eta mutilei beste gauza bat. Ba hori ez da berdintasuna adibidez. Berdintasuna izango litzateke adibidez ba denek gauza bera egitea eta egin ezin duenak, neska edo mutila izanda, ba lagundu edo zerbait.” (ET/T/140403/Ikasleak/2/em)

Gaztelaniazko taldeetan berriz, ez dute erantzun zehatz bat ematen, galderaren aurrean isiltasuna dago. Bakarrik erantzuten dute baietz entzun dutela sexu indarkeriari buruz hitz egiten galdera espezifiko horren aurrean.

“Dn: ¿Habéis oído hablar de igualdad entre mujeres y hombres, en la tele en algún programa, en casa, coeducación...? (...) (Nadie contesta). ¿No os suena de nada la igualdad entre hombres y mujeres? (Pausa, se ríen y se callan) (...) Si no habéis oído hablar nunca, tenéis que decir que no habéis oído hablar nunca de la igualdad entre géneros, de la igualdad de la mujer y el hombre. ¿Habéis oído hablar de malos tratos? .Em, Gi: Sí (respuesta general).” (ET/T/140410/Ikasleak/3)

### 4.3.2.2. Proiektu hezkidetzailleak: ikastetxeak hezkidetzaren inguruan egiten dituen ekintzak, jarduerak, proiektuak...

Ikastetxeen arabera desberdintasun handiak daude hezkidetzaren lantzeko momentuan. Alde batetik ikasle batzuk aipatzen dute akzioak, muralak e.a. egiten dituztela baina benetan **hezkidetzaren ez dela egunerokoan klaseetan jorratzen**.

“Mural asko eta gauza asko baina gero ez dute ezer egiten. O sea, klaseetan ez dugu gai hori jorratzen, adibidez guk orain arte ez dugu ikasi Feminismoa, ez dugu ezer eman, hori ez da ikasten DBH edo Batxilergoan eta nik uste “menos pancartitas” eta gauza gehiago irakatsi”. (ET/T/140305/ikasleak/1/em)

Kontra, beste batzuk irakasleek **gaia asko lantzen dutela** azpimarratzen dute baina ez dutela entzun (ezetza esplizitua jasoz talde batzuetan eta isiltasuna besteetan) eskola barruan edo Udaletxe mailan hezkidetzaren aldeko kanpainak egin edo egiten direla,

“Institutuan ekintzak egin ditugu eta gainera urte honetan eta joan den urtean asko landu dugu gai hau, irakasleek asko hitz egin dute honi buruz. Egin ditugun adibidez dantzak eta horrelako gauzak”. (ET/T/140403/Ikasleak/2/em).

## 23. laburpen-laukia

### Ikasleen eztabaida taldeetan hezkidetzari buruz hitz egindakoa

ZER DA HEZKIDETZA?	
<b>Definizioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Bakarrik euskarazko taldeetan erantzun da galdera</li> <li>– Aukera eta eskubide berdinak arlo guztietan edukitzea bezala ulertzen dute.</li> <li>– Emakumeak eta gizonak berdinak dira(nahiz eta desberdintasun fisikoak egon)</li> <li>– Berdintasuna trataeran eta pertsonen arteko harremanetan eskatzen eta ulertzen dute.</li> </ul>
<b>Proiektu hezkidetzailleak: ikastetxeak hezkidetzaren inguruan egiten dituen ekintzak, jarduerak, proiektuak...</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Bi iritsi kontrajarriak:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Akzioak , muralak e.a egiten dira baina benetan hezkidetzaren ez da egunerokoan klaseetan jorratzen</li> <li>• Kontraz: gaia asko lantzen da (azpimarratzekoa da hau diotenez ez dutela entzun eskolan edo udaletxe mailan hezkidetzaren aldeko kanpainak egiten direnik).</li> </ul> </li> </ul>

Definizioa eta proiektu hezkidetzaillearen inguruko usteak 23. laburpen-laukia jasota daude.

### 4.3.3. Eskolaren eredu hezkidetzalea

Puntu honetan irakaslearen rolari buruz, edo irakasleek eduki beharko lituzketen ezagutzaz, eta prestakuntzaz hitz egingo dute, baina baita ere ikasleek behar duten orientazioaz eta beraien beharraz hitz egiten dute.

#### 4.3.3.1. Irakasleen rola

Irakasleen rolari buruz hitz egiten dutenean arreta guztia ikas materialak eta gelaren kudeketan jartzen dute, beste aspektu batzuk alhora utziz, adibidez, hizkuntzaren zaintza.

##### 4.3.3.1.1. Material didaktikoak

Klasean erabilitako materialak direla eta, faktore desberdinengatik ikasleek sexistak bezala identifikatzen dituzten batzuk daude.

Alde batetik liburuetan topatzen den **emakumeen presentzia eskasari** buruz hitz egiten dute, hezkidetzaren proiektuetan aipatzen den berdintasuna, geletan modu oso desorekatuan islatzen dela azpimarratuz. Ikasgai gehien material didaktikoek ez daukate erreferentzia femeninoak, hau da, ez dituzte zientzialari, idazle, matematikari... emakumeen aipamenik aurkitzen erabiltzen dituzten liburuetan. Baita normalean edozein liburuan agertzen diren argazkietan mutilen presentzia oso handia eta neskena, kontraz, oso txikia dela aipatzen dute. Honen harira mutila izateak ikaskuntza batzuetan erraztasunak ematen dituela esaten dute.

“*Agian zientzialari batzuk famatuak dira mutilak izateagatik eta horrek, ikaskuntza batzuk izatean erraztu egin dio baina matematikako edo lenguako liburu batean adibideetan horrelako desberdintasunik ez luke egon behar.*” (ET/T/140305/ikasleak/1/em)

Emakumearen rol estereotipatuak islatzen dituzten liburuez eta adibideez ere hitz egiten dute, azpimarratuz holakoek betiko estereotipoak (emakumeak femeninoagoak izan behar direla edo beti bere janzkerari buruz ari direla pentsatzen...) jakitera ematen dutela modu inplizitu batean

“*Ingelesko klasean geunden eta liburua zabaldu genuen eta gaia zen modari buruz, eta grabazio bat jarri ziguten eta gizon batzuk eta emakume bat zeuden eta gizonak esaten zion emakumeari gonak janzteko edo hankak oso politak zituela, edo horrelako zerbait... eta erakutsi beharko zituela. Eta niri behintzat ez zitzaidan oso egokia iruditu hori jartzea. Eta inork ez zuen ezer esan klasean, inorrek ez zuen ezer eta ni haserretu nintzen eta harritu nintzen horrekin.*” (ET/T/140305/ikasleak/1/em)

Egoera hauen aurrean eztabaidetan parte hartu duten ikasleek ez dira isilik gelditu: irakasleei euren deserosotasuna komentatu diete nahiz eta onartu behar izan gelako klase-kide gehienek ez dutela horrenbesterako hartu beraiei desegokiak iruditu zaizkien adibide edo egoera horiek. Irakasleek, ikasleen esanetan, ez dute kontsideratu jarritako adibideak iraingarriak zirenik baina kasu batzuetan adibide horiek ez dituzte berriro erabili beste klaseetan.

“*eta ez nuen klasean esan baina gero irakaslearekin hitz egin nuen eta esan zidan barregarria iruditzen zitzaizela eta bakarrik horregatik jarri zuela eta*

*gero esan zidaten beste gelakideek ez zuela berriro jarri, bakarrik jarri zuen gure klasean baina hala ere...*” (ET/T/140305/ikasleak/1/em)

Honen harira zalantzan jartzen dute material didaktikoak aukeratzeko erabiltzen diren irizpi-deak.

“*Irakasle batzuk ez dute ezer egiten, arraroa da zerbait egitea eta egin beharko genituzke horrelakoak, baina nork esaten du zein pertsona ezagutu behar ditugun, hori aztertu beharko litzateke.*” (ET/LO/20140305/Ikasleak/1)

Hala eta guztiz ere badaude hezkidetzaren alde egiten duten irakasleak, baina beraiek dioten bezala irakaslearen arabera da eta ...

“*beste irakasleak ez dute horrelako gauzarik egiten, ez dago hedatuta irakaskuntza sisteman*” (ET/T/140305/ikasleak/1/em).

Hezkidetzaz lantzen duten irakasleek, alde batetik, liburuek ematen duten zeharkako ikuspegi aztertzen (emakumearen presentzia, emakume eta gizonen arteko rolen ezberdintasuna, e.a.) eta bestetik emakumeen papera azpimarratuz, laguntzen diete.

“*Psikologia klasean liburuak aztertzen ari gara matxismoaren bila. Lehenengo mailako liburutik hasi dira eta begiratzen ea zenbat aldiz agertzen diren emakumeak eta gizonak, eta zein postutan, zein lane-tan, zer egiten, boteretsuak diren argazkietan edo ez... eta horrela.*” (ET/T/140403/Ikasleak/2/em)

*“Emakumearen egunean joan ginen informatikako gelara eta bakoitza ordenagailu baten eta lehendabizi galdetu zigun ea ezagutzen genituen emakume zientzialariak eta agertu zen Mari Curie bakarrik eta gero eman zigun zerrenda bat emakume zientzialariekin eta guk bilatu behar genuen nortzuk ziren, pixka bat historia, bizitza, xehetasun batzuk eta zientziari buruzko zein arlotan eta... behintzat arlo horretan emakume uste baino gehiago direla eta jakinarazi zigun berak.”* (ET/T/20140305/ikasleak/1/gi).

#### 4.3.3.1.2. Ikasgelaren kudeaketa: parte-hartzea eta lidergoa, tutoretzak, bestelakoak

Irakaslearen papera ikasgelaren kudeaketan aspektu desberdinen arabera komentatu dituzte. **Irakaslearen tratuari** buruz iritziak desberdinak dira. Batzuk berdintasuna sumatzen dute, beste batzuk, kontrara, desberdintasuna. Honen arrazoia batzuk emakumezkoak edo gizonezkoak izateari erantzen diote beste batzuk, berriz, pertsonen arteko desberdintasunari, generoa alde batera utziz.

“*Hala ere, pertsonen arabera izaten da ezberdina. Baina ikasgela barruan ere ez gaituzte tratatzen berdintasunean.*” (ET/LO/20140305/ikasleak/1)

Desberdintasuna ez dute bakarrik irakasleek beren artean duten tratuan ikusten, beraiek ere irakasle bakoitza desberdin tratatzen dutela diote. **Irakasleei buruz duten kontzeptuaz**, eta beraz irakasleen lidergoaz, hitz egiterakoan iritziak ere kontrakoak dira: batzuk generoan oinarrituz eta besteak pertsonen izaeran.

“ Adibidez nik uste dut gelara etortzen denean gizonetzko eta emakumezko bat irakasle bezala, emakume edo gizona izatea ez dela berdina, emakumeak ez direla inposatzen, eta gizonak direla gehiago exijitzen dutenak eta hori da kontzeptu bat” (ET/T/140305/ikasleak/1/em)

“Nik uste dut pertsonaren arabera dela. Ba daude andereñoak direla estriktoagoak eta badaudela beste gizonak eta emakumeak direla hainbeste edo gehiago. Nik uste dut hori ez dela sexuaren arabera, baizik eta pertsonaren arabera, nik denetarik ikusi dut ikastetxe honetan” (ET/T/140305/ikasleak/1/gi)

**Klaseko taldekatzeak** normalean irakasleak egiten dituela diote oro har eta askotan erabiltzen den irizpidea dela...

“ No quiero veros a los de siempre juntos” (ET/T/140410/Ikasleak/3/em).

Hala eta guztiz klase guztietan ez da horrela. Azpimarratzen dute heziketa fisikoko klasean taldekatzeak generoaren arabera egiten direla.

“ Gimnasia edo heziketa fisikoan esaten dute “bueno, emakumeak hobeto jarri talde honetan eta egin zuen artean”, eta nahiko nabaria zen, hori penagarria zen, eta oso desberdin egiten zuen. Esaten zuen “bi talde egingo ditugu, gizonak alde batetik eta emakumeak beste batetik” eta, zergatik ezin dugu jolastu elkarrekin?”. (ET/T/140305/ikasleak/1/em)

Gainera ez bakarrik taldekatzeak ekintza fisikoak ere generoaren arabera prestatuak daudela salatzen dute.

“ Asko nabaritzen da prestatzen diren ariketak batzuetan neskentzako bideratutak daudela eta beste batzuetan mutilentzat, adibidez, errekreotant egiten ditugu hainbat ekintza eta batzuetan daude mutilei zuzenduta eta beste batzuetan neskei zuzenduak”. (ET/T/140305/ikasleak/1/em)

#### 4.3.3.2. Irakasleen prestakuntza

Irakasleen prestakuntza dela eta bi iritzi kontrajarri daude. Ikasgeletan sexismoa ez dagoela pentsatzen duten ikasleen artean, irakasleak hezkidetzan hezteko prestatuak daudela diote.

“ Sí, yo creo que sí, que con eso no se tolera ni una, yo creo”. (ET/T/140410/Ikasleak/3/gi)

Hala eta guztiz badirudi nahasten dutela hezkidetzan hezteko prestakuntza edukitzea eta sexismoaren aurrean tolerantzia 0 edukitzea. Kontraz, besteek kontsideratzen dute irakas-

leak oro har ez daudela prestaturik. Pentsatzen dute hezkidetzeta gaien interesatuak dauden irakasleak formatuak egongo direla edo behintzat berdintasunaren alde egingo dutela. Interesatuak ez daudenak, berriz, ez dute prestakuntza hau edukiko.

“ *Berdintasunez irakasteko ere formakuntza bat izan behar dute eta guztiek ez daukate formakuntza hori eta ez daude interesatuta formakuntza hori jasotzeko, nik uste dut guztiak ez daudela interesatuta. Oso interesatuta daudenak nik uste dut badutela edo behintzat saiatzten direla formakuntza hori izaten, edo horren alde egiten*”. (ET/T/140305/ikasleak/1/em)

Honetaz gain, prestakuntza eskas honen beste arrazoi batzuk ematen dituzte: irakasleak ere ez direlako berdintasunean hezi eta, bestetik, ez dutelako gaia ezagutzen.

“ *Ez, ez dira hezi beraiek berdintasunean ere*” (ET/T/140305/ikasleak/1/gi)

### 4.3.3.3. Desberdintasunak detektatzeko sentiberatasuna

Ikasleen esanetan nahiz eta gurasoengan eta eskoletan berdintasuna sustatzeko saiakerak egin, gaur egungo gizartean **gizon eta emakumeen arteko desberdintasun** nabariak daude. Zehazki, emakumeak “zapalduta” daudela diote

“ *Desberdintasunak? gizon eta emakumeen artean? Ez emakumea gaur egungo gizartean eta betidanik izan da zapalduta*”. (ET/T/140305/ikasleak/1/em)

Irakasle eta zuzendarien esanetan, ikasleek badakite zer den politikoki egokia eta honen arabera erantzungo dute zuzenean galdetu ezker

“ *Bai gainera diskurtsoa eginda dago. Ikasleek badakite diskurtsoa ‘Politicallymente correcto, perfectamente’. Hau da, zuzenean galdetzen badiezu, zuzenean erantzungo dizute erantzun behar dena*”. (ET/T/140305/irakasle/em)

Hala eta guztiz **sentiberatasun oso desberdinak topa daitezke**. Alde batetik badaude oso kontzientziatuak dauden ikasleak eta irakasleak; bestetik eta kontrara, genero indarkeriarik ikusten ez dituztenak ere bai.

“ *Gero ere gauza bitxi bat gertatu zitzaigun Ingeles klasean baita, eta gainera irakaslea emakumea da. Listening bat egiten ari ginen eta gaia zen arropari buruzkoa eta gizon bat eta emakume bat ari ziren hitz egiten. Emakumeak esaten zuen: ‘Ba ikusi ditut praka batzuk denda batean igual erosten ditudala’ eta esaten zuen gizonak: ‘Eta zergatik prakak? Erosi gona, hobia delako, femeninoagoa delako’ ‘Eta zergatik?’ ‘Ba oso hanka politikak dituzulako eta horrela erakutsi ahalko dituzu’. Eta emakumeak listening-ean ez zuen ezer esaten, esaten zuen: ‘Bueno eske ez dut mujeres desesperadas bezala ibili nahi...’ Baina bakarrik hori, ez zuen defendatu. Eta hor listening-a bukatu zen. Jendeak normalki hartu zuen eta irakaslea baita, eta lagun batek eta biok esan genuen: ‘Aizu, nola*

*jarri dezakete hau Ingeleseko liburu batean Batxilergoko klaserako?’ eta irakasleak esan zuen: ‘Hau ez da matxismoa’. Hau ez al da matxismoa? Zur eta lur geratu ginen. Antza ohearekin kontsultatu zuen eta hurrengo egunean etorri zen eta esan zuen: ‘Barkatu, ba bai, matxismoa da, nahi baduzue gutun bat idatziko dugu argitaletxera’ eta klaseko jendea oraindik, neskak barne, ez zuten nahi idatzi, esaten zuten hori ohikoa zela, matxismoa ez zela. Orduan nik uste dut gauza horiek baita klasean ikasten direla.” (ET/T/20140403/Ikasleak/2)*

Hala eta guztiz, neska eta mutilen arteko **erlazioak orain sexu desberdintasunik gabe** bizitzen dituztela diote. Lagun-erlazio hau helduagoak egiterakoan lortu dutela aipatzen dute. Lehenengo kurtsuetan, berriz, lagunak euren sexu berdineko pertsonen artean zituzten soilik; mutilak, nesken kasuan, amodiozko erlazioak mantentzeko pertsonak bezala ikusten zituzten, beraz beraiekin ezartzen ziren erlazioak ez ziren parekoenak, bata bestearekiko lotsa eta inpresionatzeko nahia aitortuz.

“*Nik orain ere bai, baina lehen, ez. Lehen mutil bat ikusten nuen ‘era como alguien con quien ligar o algo así’, eta orain ez. Tristeza da baina duela urte batzuk nire lagunak neskak ziren eta mutilak ziren zerbait ‘como algo para impresionar’ eta orain mutilekin neska bat izango balitz bezala kontaktzen dizkiot, gauzak gainera erlazioa askoz hobea da lagun moduan, sexu diferentziaziorik egin gabe, ezberdintasunak txikiak baitira”.* (ET/T/140305/ikasleak/1/em)

*“Orain lagunekin ez dugu desberdinketa hori egiten eta txiki txikiak garenean ezta baina badago adin tarte bat, 1. DBH kurtsotik 4.era badagoela desberdinketa bat, lotsa bata bestearekiko, hori bai nabaritzen dela”.* (ET/T/140305/ikasleak/1/em)

Nahiz eta laguntasun hau aipatu, neskak, eskolan, mutilak diren klase kideen partetik **komentario, txiste eta jokabide sexistak** jasotzen dituzte maiztasun altuarekin. Komentario hauen aurrean batzuetan ez dute ezer egiten, isiltzen dira, beste batzuetan, berriz, aurre egiten diete. Hala eta guztiz azpimarratzen dute komentario hauek ez daudela intentzio txarrez eginak, mutilak ez direla konturatzeko iraingarriak direla...baina nahiz eta momentuan arrazoia eman neskei joera hau errepikatu egiten dela.

“*Baina jendeak batzuetan egiten ditu komentarioak, batez ere mutilek, mutil batzuek, inkoszienteki egiten dizute broma bat baina gero analizatzen duzu ‘el transfondo del mensaje’ eta esaten duzu ‘¡joder! ¿qué me ha dicho?’, baina horrela da... esaten dizute ‘¡toma!, te doy 5 € y me haces algo’ y ‘¿cómo, perdona?’ ...o sea esas cosas son ¡¡¡ajjjj!!!! como sexistas, o sea cómo que me das 5 €, como si fuera una prostituta, pues esas cosas son como comentarios sexistas, eta batzuetan pues tienes que tragar”.* (ET/T/140305/ikasleak/1/em)

*“Nik horrelakoak ez ditut jaso baina entzun bai eta batzuetan nahiz eta niri zuzenduta ez egon bai erantzun diodala ea zertara datorren*

*hori esatea, eta ez dira konturatzen hor zerbait txarto dagoela eta jarraitzen dute, esaten dute bala bale baina hurrengoan jarraitzen dute”.*

(ET/T/140305/ikasleak/1/em)

Esan bezala, txiste edo komentario matxista hauek aintzat ez hartzeak eta arazo bat bezala ez kontsideratzeak dakarte ondorio bezala irakasleriari ez informatzea.

“*No se dan cuenta pero porque nosotros no consideramos que se tengan que dar cuenta porque yo me estoy dando cuenta que ese chiste es machista pero no me estoy sintiendo atacada porque conozco lo suficiente la gente que me rodea.*” (ET/T/140410/Ikasleak/3/em)

...nahiz eta ikasleen esanetan...

“*Hombre, algo ha tenido que escuchar pero nunca se ha creado ningún problema.*” (ET/T/140410/Ikasleak/3/em)

Eta badirudi ikasleen arteko erlazio arazoak generotik at ematen direla. Bulling-aren inguruan galdetzean esaten dute ez dutela kasurik ezagutzen, ez dagoela horrelako kasurik.

“*Dn: ¿No ha habido casos de Bulling y... ¿Lo conocéis? Em: No, es que no sale nada. Dn: ¿No? Em: Es que no sabemos...*” (ET/T/140410/Ikasleak/3)

Zehazki klaseko taldekatzei buruz eta horien artean dauden liskarren aipamena egiten dute, esanez gero eta gehiago komentatzen ari direla klase kideen arteko egoera hauek:

“*Nosotros últimamente lo hemos estado comentando mucho que en las clases más pequeñas cada vez vienen más malas personas por así decirlo, que en una misma clase hay como tres grupos y hay guerras entre los tres grupos*” (ET/T/140410/Ikasleak/3/em)

Izan ere, “persona txar” baten definizioa eskatzerakoan bullying-aren definizioa ematen dute, eta bullying-aren deskribapena, nahiz eta beraiek “izendapen” hori ez eman:

“*Como mala persona me refiero a que tienes a alguien que es un compañero tuyo y aunque le estés viendo mal sigues atacándole.*” (ET/T/140410/Ikasleak/3/em)

*“Em: Pues, no sé que haya alguien en clase que se crea superior al resto y haga comentarios con eso. Cuando por ejemplo esos comentarios van hacia ti, eso es lo que te molesta y si eres tú el que lo estás haciendo y pues no te molesta. Gi: (...) por ejemplo que si llegan mensajes a una persona solamente, y que haya gente que no le defienda, de cada uno de nosotros y que haya gente que no le defienda o que no opine lo contrario no se ponga al mensaje.”* (ET/T/140410/Ikasleak/3)

*“Tampoco se puede considerar Bullying, o bueno yo no lo considero ... Hay por ejemplo momentos que se nota mucho que hay una persona que*

*siempre está diciendo haciendo comentarios de otra persona que pueden hacer daño, si sabes que esos comentarios hacen daño, pues Cállate ya porque no tienes por qué decir eso delante de toda la clase, si quieres decirle algo, habla con esa persona y punto, no hace falta que meta a todo el mundo porque luego empieza todo el mundo a reírse, y si tu eres esa persona puede que te duela. (...). Hay comentarios que a veces se hacen sobre una persona que en realidad no te ha hecho nada”.* (ET/T/140410/Ikasleak/3/em).

#### 4.3.3.4. Ikasleak orientatzea

Ikasleek orientazioari buruz hitz egiterakoan erreferentzia egiten diote karrera bat aukeratzeko jasotzen duten laguntzari. Badirudi nahiz eta familiaren kontseiluak jaso ere, hemen elkartasuna eta familiaren animoak maiz aipatzen dira, batez ere eskolan laguntzen eta bideratzen dituztela. Azalpenetan ingeniari-tza aipatzen da familiaren gustukoaren karreraren artean, bai nesken bai mutilen kasuan, baina baita ikasleek gustukoa dauzkate informatika, arkitektura edo maisu-maistra ikasketak, adibidez.

“*El colegio nos ayuda bastante a la hora de elegir dónde podemos estudiar. Porque yo por ejemplo en mi casa mi madre sabe lo justo sobre los temas de las carreras y entonces ella tampoco me puede aconsejar mucho, está a mi lado en lo que yo quiera decidir y me lleva a cualquier lado para ver universidades y cualquier cosa pero yo he recibido más consejos del Colegio porque ellos tienen más visto todo”.* (ET/T/140410/Ikasleak/3/em)

Hala eta guztiz aipatzen da gustu pertsonalak ez direla ikasketa batzuk edo beste batzuk aukeratzeko arrazoi bakarra. Eskolan ematen dieten informazioaren barruan tituluaren balorazioa ere kontuan hartzen dela.

“*Askotan pertsonak ez dute aukeratzeko tituluak nahi dutenagatik, askotan esaten diete zer hartu titulu guztiak ez daudela berdin baloratuta, Ikasketa batzuk hobeto bideratuta daude, askotan titulu izateari garrantzi gehiegi ematen zaio. Laguntza eman nahi digute karreretara bideratzeko, eta bideratzen gaituzte (medikuntza, ingeniari-tzara...)”.* (ET/T/140305/ikasleak/1/em).

#### 4.3.3.5. Ikasleen beharrak

Ikasleek bi proposamen argi egin dituzte: Udaletxeko Emozioen tailerrak berreskuratzea eta klaseko eztabaidak egitea. Emozioen Tailerra, oso interesgarria kontsideratzen dute sexismoaren kontra eta berdinen arteko erlazioak hobetzeko tresna bezala: sentimenduak lantzeko neska eta mutilen artean eta beste pertsonen rolean sartuz enpatia lantzeko.

“*Adibidez Emozio Tailerrean erabiltzen ziren ere beste pertsonak ulertzeko. Orduan jartzen zinen beste pertsonen postuan. Hori oso ona da sexismorako eta matxismorako.”* (ET/T/140403/Ikasleak/2/em)

*“Ez dakit pertsona moduan edo gizarte moduan aurrera joatea da, eta hori ere bai ona da. Zu beste pertsona baten lekuan jartzen bazara ba ya eboluzio bat izan da. Orduan hori gehiago egingo bagenu nik uste dut hobeagoa izango zela”.* (ET/T/140403/Ikasleak/2/em)

Honen harira diote gizonezkoek ez dutela euren sentimenduei buruz hitz egiten; ez daukatela neskak daukaten erraztasuna sentimenduak kudeatzeko. Zehazki, adierazten dute mutilek beldurra dietela sentimenduei eta beraz interesgarria izango litzakeela guztiok batera alde hau gehiago lantzea.

“Mutilek nolabait daukate beldurra mutilen aurrean emozioak esaterakoan. Eta neskak ba ireki ginen eta hasi ginen... eta asko inplikatu ginen”.

 (ET/T/140403/Ikasleak/2/em)

*“Gainera sentimenduek ez daukate sexurik, azkenean, sentimendu bat sentimendu bat da. Mutilekin hitz egitean sentimenduei buruz, saiatzea, agian zerbait lortzen da, mutilak beldurra galtzea edo. Beti pentsatu izan da: “Ez zara indartsua sentimenduak erakusten dituzulako” Ba ez, beldur hori kentzea berdina izateko, adibidez: “Nik sentimenduak adierazten ditut eta horregatik naiz indartsua”.* (ET/T/140403/Ikasleak/2/em)

Harago joaten dira, baieztatuz gizonezkoen agresibitatearen atzean sentimenduen adierazte eza dagoela eta beraz alderdi honetan lortutako hobekuntzek beharbada indarkeria kontrolatzen lagunduko luketela ere.

“Jotzen duten gizonak da sentimenduak adierazten ez dakitelako, hase-  
rrea hitz egiten ez dakitelako adierazten eta orduan jotzen dute. Irakas-  
ten badiezu hitz egiten eta sentimenduak adierazten eta esaten: “Hase-  
rre nago” edo “Hau gertatzen zait” agian indarkeria pixkat geldituko  
da.”

 (ET/T/140403/Ikasleak/2/em)

**Eztabaida taldeak** direla eta euren proposamena foro bat sortzea izango litzateke, gatazka edo arazoak guztion artean konpontzeko. Aitortzen dute tutoretzetan posible izango litzakeela horrelako gaiak lantzea baina espazio eta momentu hau ez dutela sentitzen aproposena bezala.

“Tutoretza dago baina da momentu bat zuk zure iritzia emateko baina zuk nahi baduzu, ez da etortzen irakaslea eta esaten du: ‘Ba hitz egingo dugu asteari buruz eta kontatu...’ Ez. Zuk zalantza bat edo zerbait esan nahi baldin baduzu ba esaten duzu, baina ez baduzu ezer esateko ba etxerako lanak egiten dira.”

 (ET/T/140403/Ikasleak/2/em)

Eskolaren eredu hezkidetzailea, ikasleen iritzi, hobetu beharra dago. Hala nola, irakasleen prestakuntza eta sentiberatusuna areagotu eta orientazio zerbitzuak hobetu (24. laburpen-laukia).

24. laburpen-laukia

**Eskolaren eredu hezkidetzalea ikasleen iritziz**

ESKOLAREN EREDU HEZKIDETZAILEA	
<b>Irakasleen rola</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– <b>Material</b> didaktiko batzuk sexistak bezala identifikatzen dituzte: emakumearen presentzia eskasa dagoelako edo rol estereotipatuak agertzen direlako.</li> <li>– Liburu batzuk ematen duten zeharkako ikuspegi hau, irakasle gutxi batzuen laguntzaz aztertu dute.</li> <li>– Klase kide eta irakasle gehienek, berriz, ez dituzte material hauek iraingarritzat hartzen eta beraz ez dute zalantzan jartzen bere egokitasuna.</li> <li>– Irakasleek ikasleekiko duten tratuari buruz bi iritzi kontrajarriak: batzuk tratu berdintsua eta besteak ez-berdintsua sumatzen dute (kasu honetan batzuk sexuari eta besteek pertsonen arteko desberdintasunari egozten diote).</li> <li>– Desberdintasunak ematen dira ere ikasleek irakasleekiko duten tratuan eta kontzeptuan: batzuk generoari egotziz eta beste batzuk pertsonaren izaerari.</li> <li>– Klaseko <b>taldekatzeak</b> oro har irakasleen eskuetan daude:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• normalean sexua ez da irizpidea</li> <li>• baina Gorputz Hezkuntzan sexua da askotan irizpidea ez bakarrik taldekatzeak egiteko, baizik eta jarduera fisikoak egiteko ere.</li> </ul> </li> </ul>
<b>Irakasleen prestakuntza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Bi iritzi kontrajarri:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakasleak hezkidetzan prestakuntza dute (ikasle hauek pentsatzen dute ikasgeletan ez dagoela sexismorik)</li> <li>• Irakasleak oro har ez dute prestakuntzarik, zehazki, esaten dute bakarrik prestatuak daudela hezkidetzan gaian interesatuak dauden irakasleak</li> </ul> </li> </ul>
<b>Desberdintasunak detektatzeko sentiberatasuna</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Oro har, harremanak sexu desberdintasunik gabe bitzen dituzte (ez lehenengo kurtsoetan bezala) baina neskek komentario, txiste eta jokabide sexistak jasotzen dituzte sarritan.</li> <li>– Ikasleen sentiberatasunak oso desberdinak dira: batzuk oso kontzientziatuak daude (emakumeak “zapalduak” daudela diote) eta beste batzuk berriz, ez dute genero indarkeriarik identifikatzen (mutilen komentarioak ez direla matxistak eta ez daudela intentzio txarrez eginak diote).</li> <li>– Arazo berdina ematen da bullying-aren aurrean: nahiz eta eman (egoe-rak deskribatzen dituzte) ez dute bullying bezala identifikatzen</li> </ul>
<b>Ikasleak orientatzea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Karrera bat aukeratzeko jasotzen dute familiaren eta eskolaren laguntza</li> <li>– Ez dirudi sexuaren arabera egiten dutenik euren aukeraketa: gustu pertsonalak eta tituluen balorazioa kontutan hartzen dute.</li> </ul>
<b>Ikasleen beharrak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Bi proposamen egiten dituzte, eskolaren laguntzarekin gauzatzeko:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Emozioen tailerra: sexismoaren kontra (bortizkeria eta sentimenduak kudeatzeko) eta berdinen arteko erlazioak hobetzeko tresna bezala.</li> <li>• Eztabaida taldeak: irakasleen laguntzaz, gatazka eta arazoak guztion artean konpontzeko foroa</li> </ul> </li> <li>– Biak, elkarrekin ideiak eta iritziak konpartitzeko baliagarriak direla eta beraz elkarbitzita hobetzeko bideak diote.</li> </ul>

Beste posibilitate bat ikaslea tutorearengana joatea da, baina arazoa ez da klasean konpontzen eta beraien esku gelditzen da, nahi badute, klasean azaltzea. Honen aurrean euren proposamena izango litzateke guztion artean eztabaidatzea irakasleen laguntzarekin, metodologia hau txikitatik ezarriz lagungarria ikusten baita norberaren eta gizartearen garapenerako

“Gatazka bat badago azkenean joaten zara zu bakarrik tutorearengana eta norbaitek ikusten bazaitu lotsatuta moduan geratzen zara. Azkenean zu joaten zara, hitz egiten duzu hor eta gero hortik ateratzen zara eta klasera joaten zara, eta klasean beti bezala egongo zara. Arazo larri bat badaukazu berarekin bakarrik hitz egiten duzu eta listo, ez da gero klasean lantzen. Hitz egin beharko zenuke orientatzailearekin eta gero klasera joan eta: ‘talde honetan horrela sentitzen zait eta hau gertatzen zait’. Orduan hori pixka bat bultzatzea onuragarria izango litzateke.”  
(ET/T/140403/Ikasleak/2/em)

Ikasleek aipatzen dute elkarrekin ideiak eta iritziak konpartitzen ikasi behar dutela, azken finean elkarbizitza hobetzen, beraz, laguntza behar dutela eskolaren aldetik, denbora eta medioak jarriz.

#### 4.3.4. Genero rolen adierazpenak eta interakzioak

Puntu honetan azpimarratuko dituzten aspektuak zerikusia dute nesken eta mutilen arteko diferentziekin, bai irudi fisikoa dela, bai jokabideak, bai estereotipoak direla eta; zer nolako harremanak sortzen diren bere artean, zuzenean eta sare sozialetan eta zeintzuk diren lanbiderako orientazioak.

##### 4.3.4.1. Nesken eta mutilen arteko jokaera-diferentziak

Ikastetxeko ikasgela zein pasilloetan batzuetan hainbat egoera deseroso ematen dira non ikasleek lekuz kanpoko komentarioak identifikatzen dituzten; kasu honetan, komentario sexistatzat hartzen direnak. Hauek normalean mutilek neskei egindako komentarioak dira. Badirudi batzuetan intentzioa ez dela emakumea gutxiestea. Hala ere, azpimarratu beharra dago, bai neska zein mutilen partetik pertzepzio ezberdinak jasotzen direla.

“Son esos chistes que haces para hacer la gracia, no para hacer daño a nadie y que en real idad son machistas, y que está descalificando a la mujer aunque en realidad no lo hace con esa intención y no piensa lo que está diciendo. En mi clase también se ve de eso.” (ET/T/140410/Ikasleak/3/Gi)

Gazteek adin desberdinetan jarrera desberdinak agertzen dituzte, eta testuinguruaren arabera estimulatuak izan daitezke modu batean edo bestean jokatzeko. **Bigarren hezkuntzako** etapan badirudi horrelako jarrera ez-erosoak hasierako etapetan ematen direla, eta ez horrenbeste **Batxilergoan**. Izan ere gazteek ez dituzte **diskriminazio sexistarekin** lotzen, mutilek egiten dituzten zurrumuruak besterik ez direla aipatzen da.

“Batzuetan bai entzuten dituzula horrelako komentarioak mutilen partetik zuzenean ez dituzula entzuten baizik eta beste pertsonenganako komenta-

*rioak entzuten dituzu baina ez beti diskriminazioekin lotuta, batzutan bai, baina...entzuna, xurrumurruak...”* (ET/T/140305/Ikasleak/1/Em)

Hala ere, horrelako komentarioen aurrean **erreakzioak** ezberdinak dira, batez ere nesken aldetik, batzuetan paso egitearenak, bestetan erantzutearenak... baina ikaslearengan aztarna utzi dezaketen komentarioak izan daitezke.

“*Askotan bulaka hasten gara, tampoco me convierto enpera, pero me piko y me enfado como una niña pequeña. Saiatzen naiz zerbait esaten, ez naiz oso ondo sentitzen gordetzen badut, eta horrela esaten dudanean lasaiago gelditzen naiz. Norekin konpartitzen dudana? Lagunekin eta amarekin.”* (ET/LO/140305/Ikasleak/1/Em)

Klasean egiten diren **komentario** hauek, gehienetan mutilen partetik egiten dira, nesken ganako erreakzioak lortzeko, beraien atentzia lortzeko, edo beste lagunen aurrean ondo geratzeko. Baina gertaera hauek ere diskriminazio-egoerak sortzen dituzte mutilen artean, **botere-harremanak**, beraz, bi norabideetan ematen dira.

“*Em: Batzuetan esaten dute zerbait klasean ea zeinek barre egiten duen eta begiratzen dute...*

*Em: Baina normalean izaten zen zerbait prestatuta zeukatela. A tal hora una gracia. Bai, hori egiten zuten eta: ‘Bueno, ba bale’.*

*Em: Agian gu gazteagoak ginenean esan ere ez genuen egiten, baina orain gure artean edo koadrilaren artean komentatzen dugu, baina mutilek uste dut ez dutela esaten. Beraientzat gordetzen dute eta listo.*

*Em: Beti daude: ‘A ver si encajo’. Klasean, pentsatzen dutena esaten dutenean beti daude erne ea lagunak zelako aurpegia jartzen duten. Zerbait gaizki esaten badute ba bakartuta geldituko direla uste dute. Eta egia da, zeren eta gure kurtsoan gertatu zen zegoela mutil talde nahiko handia eta kurtsoa bat arraroa zena baztertu zuten eta botatzen joan izan dira. Eta orduan taldea orain geratu da txiki-txikia eta kanpoan geratu dira pentsatzen zutena esaten zutenak eta horrelakoak. Orduan orain beldur dira eta klasean hitz egiterakoan da: ‘A ver quien piensa’... aurpegi hori... ez dut esango ez!”* (ET/T/140403/Ikasleak/2)

Horrelako egoeren aurrean, edo horrelako **arazoak konpontzerako** orduan, ikasleek modu ezberdinetan bideratuko lukete prozesua. Batzuen aburuz irakasleak zerbait egin beharko luke.

“*Entzuten duzu mutilen partetik komentario sexistak, eta horrelako egoeren aurrean irakasleak ez dutela ezer egiten.”* (ET/LO/140305/Ikasleak/1/Em)

Beste batzuk, aldiz, **arazoaren larritasunaren** arabera, lagunen artean konpontzea nahia-go dute irakaslearengana jo aurretik. Izan ere heldutasun nabarmena adierazten dute ikasle batzuk, gatazken aurrean zer esana badutelako.

“Gi: Nik uste dut lehenengoa dela bakoitzak lagunekin hitz egin eta larria baldin bada irakaslearekin.

*Em: Arazoaren arabera beti, zeren arazoa izan daiteke irakaslearekin edo momentuan sortutakoa edo ez dakit.*

*Em: Agian gure artean da edo gure artean hitzegiteko edo klasean suertatu da eta irakaslearekin hitz egiten dugu momentuan.*

*Em: ¡Hombre!, normalean batxilergoan gure artean sortutako arazoak ez diogu zertan irakasleari esan behar ezta?” (ET/T/140305/Ikasleak/1)*

**Sexismoaren** esanahiaz galdetzen denean, definizio ezberdinak jasotzen dira. Batzuetan oso azaleko egoeratan oinarritzen diren definizioak aipatzen dira, bestetan, modu sakonago batean aztertutako egoerak izaten dira. Izan ere, hitz honek eskubideak, berdintasuna eta diskriminazio bezalako terminoak ekartzen ditu gazteen burura.

“Bagara ezberdinak baina lortu behar da berdintasuna eskubideetan. Fisi-koki ezberdinak garela eta ez dugu berdinarik izan nahi. Nahi dugu berdintasunean ezberdinak izatea, eta sexista izatea da gonak gabe emakumea ez dela horren femeninoa esatea.” (ET/T/140305/Ikasleak/1/Em)

**Jarrera sexistak** uste baino ugariagoak izaten dira ikastetxe baten barruan eta harreman maila ezberdinetan, ikasleen artean, edo ikasle-irakasle harremanean. Jarrera hauek gehienetan estereotipoetan oinarrituta daude, eta hauekin egiten den erabilpena mingarria izan daiteke hainbat kasutan.

“Em: Niri adibidez zerbait komentatzen ari garenean, ba lehen esan dudana ingeleseko zera hori..., ni behintzat oso minduta sentitzen nintzen, ikusten nuelako niri asko afektatu zidala hori ikusteak eta beste klase-kideek ez ziren ezta konturatu ere egin eta niri hori mingarria irudituz zitzaidan, eta niri beste zerbait esatea eta niri horrek molestatzea eta bestek esatea ‘ez da hainbesterako’. Eta niretzako bazen, eta oso gaizki sentitu nintzen. Horrelakoak ez dira inoren gustukoak.

*Em: Daukanean zure buruzko iritzi bat, ‘zu zara horrelakoa egoera batean eta gero ez duzu balio honetarako, honetarako eta honetarako’, eta zaitut kontuan hartuko, ez naiz ondo sentitzen kasu horietan, ari direlako etiketak jartzen momentu zehatz batean gertatu den zerbaitekin, eta ez dut batere ondo ikusten.” (ET/T/140305/Ikasleak/1)*

**Komentario sexistei** aurre egitea errazagoa omen da klase kide bat denean, baina beldurrik edo segurtasun faltak nabarmenak dira irakaslearen jarrera sexistei aurre egiteko.

“Em: Ezer ez esateak da berdinarraitzea. Azkenean ezer egiten ez baduzu ba denak berdinarraituko du. Baina uste dut zerbait esatean, asko aldatzen da pertsonaren arabera, baina zurekin konfiantza duen pertsona bat bada, klaseko lagun bat adibidez, agian bai moztuko dela

*eta hurrengoan birritan pentsatuko duela. Baina irakasle bat izatean agian izango da zuretzat txarra gero. Adibidez nik gimnasiako irakasleari ez nioke ezer esango, bestela gero agian arazoetan sartzen zara. ¡Ojala! horrela ez izatea, baina...” (ET/T/140403/Ikasleak/2)*

**Etiketak**, aurreiritziak, epaiketak... zoritxarrez, hauek nahiko ohikoak izaten dira adin gazteetan, adin hau garai sentsiblea da eta etorkizunerako, aztarnak utz ditzakeelako.

“*Em: Etiketa bat jartzen dizutenean, guztiak badakite eta hori aldatzea oso zaila da, frustrazio sentsazioa duzu eta, ez zara gai sentitzen duzuna aldatzeko edo gainditzeko.*

*Jendeak barre egiten duenean mingarria da oso.*

*Em: Bai, juzgatu egiten zituztela, jendeak duela ideia bat zutaz, ez zarela horrelakoa egoera honetan, situazio honetan eta horrela egoera guztietan, ezin dituzula gauzak ondo egin beste aspektu batzuetan.*

*Din: Eta zer egiten duzu horren aurrean?*

*Em: Ezer ez. Nik esaten badut zerbait eta ez banaute kontuan hartzen ‘pues qué hago’, zeren eta etiketena oso gauza zaila da.” (ET/T/140305/Ikasleak/1)*

Antza denez, ez da erraza “etiketekin” bizitzea, eta are gutxiago **komentario sexistei** aurre egitea.

“*Gustatuko litzaidake horri aurre egitea, baina ni askotan geratzen naiz shock moduan eta gero hasten zara pentsatzen eta horri bueltak ematen eta esaten duzu: “Ba hau eta bestea esango nioke”. Baina momentuan agian ez dut espero. Zerbait txikia baldin bada ba agian bai, baina larriagoa bada normalean ez duzu espero eta horri erreakzionatzea zaila da.” (ET/T/140305/Ikasleak/1/Em)*

Oraindik ere agerian geratzen dira gela barruko **sexismo jarrerak**, batez ere mutilen partetik.

“*Em: Pasaden urtean etorri zen Ingelesekoa elkarrizketa bat ematera eta esan zuen: ‘Neska hitza entzuten duzuenean zer etortzen zaizue burura?’ eta esan zuen kide batek: ‘La fregona’. Eta txarrena izan zen mutil guztiak barrezka hasi zirela, batek esan zuen baina beste guztiak barre egin zuten.*

*Em: eta aurten ere niri kide batek esan zidan, hartu zuen nire betaurrekoen kutxa eta hartu zuen garbitzeko kontua eta hor zegoela jolasean bat batean botatzen dit eta esaten dit: ‘Toma limpia mujer’ Eta ni harrituta geratu nintzen. Momentuan geratzen zara shock moduan ez duzulako espero eta ez duzu erreakzionatzen.” (ET/T/140403/Ikasleak/2)*

Okerrena da hori aldatzea zaila antzematen dutela neskek.

“*Din: Nola erreakzionatuko zenukete horrelako egoeren aurrean?*

*Em: Ni shock moduan geratzen naiz, saiatzzen zara agian zerbait esaten baina momentuan agian ez zaizu ateratzen.*

*Em: Ezertarako, ze ez dute aldatu nahi.”* (ET/T/140403/Ikasleak/2)

#### 4.3.4.1.1. Estereotipoak

Badirudi gizartean sakonki barneratuta dauden **estereotipoek** min handia egiten dutela. Baina estereotipo horiek kalte handikoak izan daitezke bai neska bai mutilentzat ere; izan ere emozioak adieraztea eta mutila izatea, antza denez, ez da kudeatzeko lan erraza.

“*Em: gure kurtsoko mutil askok irudi bat egin dute, eta irudi hori erasotzen saiatzzen bazara beraientzat oso gogorra da hori. Ez dute ahul geratu nahi besteen aurrean.*

*Din: Ahulezia bezala ikusten da emozioak adieraztea?*

*Em: Bai. Eta hori gertatzen da txikitatik esan dizutelako mutilak ez dutela negar egiten.”* (ET/T/140403/Ikasleak/2)

Hazten garen heinean gizartearen estereotipoen kutsaduratik ihes egitea oso zaila omen da, eta hainbat jarrera osasuntsu galdu egiten dira bidean.

“*Azkenean txikitan guztiek egiten dute negar, berdinak dira, baina gero hazten joaten zarenean bakoitza bere itxura edo babesleku modua egiten du eta gero hori apurtzea nahiko zaila da.*

*Neska: Jotzen duten gizonak da sentimenduak adierazten ez dakitelako, haserrea hitz egiten ez dakitelako adierazten eta orduan jotzen dute. Irakasten badiezu hitz egiten eta sentimenduak adierazten eta esaten: ‘Haserre nago’ edo ‘Hau gertatzen zait’ agian indarkeria pixkat geldituko da.”* (ET/T/140403/Ikasleak/2/Em)

Ikasleen hitzak aztertuz, badirudi gizona izateak abantailak dituela, hainbat gauzatarako, emakumea izatearekin konparatuta.

“*Nik esango nuke bidea errazagoa dela mutilentzat. Emakumeenganako presioa oso nabaria dela, sexu ezberdintasunak oso nabariak dira, eta gainera beti ailegatzen zaizkigu mezu antzekoak lapidazioak eta torturak bestelako herrialdeetan batez ere emakumeekin ematen dira.”* (ET/LO/140305/Ikasleak/1/Em)

*“Ez luke ezertan inongo bentaja edo desbentaja izan behar. Ez dakit gizona izanda uste dut gauzak errezagoak direla, azkenean postu bat edo zeredozer lortzeko bidea errezagoa da.”* (ET/T/140305/Ikasleak/1/Em)

Desabantailazko egoera honen aurrean, ikasle batek argi dauka zein izango litzatekeen honetarako konponbidea, hezkuntza.

“ [...] nik uste det gizartea aldatu beharko litzatekeela, neurri zehatz bat hartzea baino, adibidez hezkuntzatik hasten bagara gizartea moldatuz edo gauza horiek ez litzatekeela zertan aldatu behar, hau da, neurri bat hartu ordez gizarreak buruan eduki beharreko gauza bat dela.”  
(ET/T/140305/Ikasleak/1/Em)

#### 4.3.4.1.2. Irudi fisikoa

**Irudi fisikoa** garrantzi handia dauka aurretik aipatutako jarrera sexistak, etiketak, eta diskriminazio egoerak areagotzen. Gazte batzuek aitortu bezala, besteek zer pentsatzen duten inporta zaie, baina azpimarratu egiten dute beste hau ere: norberak bere buruaz pentsatzen duenak garrantzi handia duela.

“ Em: Niri berdina. Baina nik adibidez besteek pentsatzen dutena inporta zait, ez asko baina bai. Baina gehiago arduratzen didana da nik pentsatzen dudana nitaz, eta horretan bai pixka bat exigenteagoa naizela.

*Em: Adibidez gertuen daukazu jendea zer pentsatzen duen gehiago inporta zaizu. Azkenean jende hori inporta zaizulako eta bere iritzia orokorrean inporta zaizulako. Gero besteek pentsatzen dutena ba, % 100-ean ez baina, gutxi gora beherako irudia ematea edo...*

*Em: Ni saiatzen naiz ezetz, baina azkenean bai daukala eragina nigan.*

*Din: Zerk dauka eragina?*

*Em: Ba askotan etxean nagoenean saiatzen naiz ez ematen garrantzia handia besteek pentsatzen dutenari, baina gero klasean nagoenean ba bai. Klasean edo kalean begiratzen ari banaute ba...*

*Din: Ba normala da... Besteen begiradak, iritziak... azkenean ez gara bakarrik bizi eta beti gaude kontaktuan eta interakzioan besteekin. Gu besteen begiradaren aurrean nola gauden, ba askotan egiten zaigu beharrezkoa ondo sentitzea eta ondo sentitze hori izan daiteke irudiaren aldetik ondo egotea, edo gorpuzkera aldetik hobeto edo okerrago egotea, edo osasuntsuago edo ez hain osasuntsu egotea.” (ET/T/140403/Ikasleak/2)*

Modak eta irudia bat datoz egungo gizarrean eta honek diskriminazioa ekar dezake. Bigarren hezkuntzako etapetan, badirudi **lehenengo zikloak** direla arazo hau ageriago uzten dutenak.

“ Nik uste dut hori gertatzen dela txikiagoak direnean, lehenengo edo bigarren mailan. Zeren hori azkenean guk ere egin dugu, baina gero konturatzen zara eta pentsatzen duzu: ‘Aber, zergatik diskriminatuko dut pertsona bat nola janzten den arabera’. Ba ez, nik uste dut hori ematen dela baina lehenengo mailan eta horrela, gero ya konturatzen zara.

*Din: Zer da zuentzako garrantzitsua pertsonetan? Edo lagunengan?*

*Em: Izaera, janzkera ez.” (ET/T/140403/Ikasleak/2/Em)*

*”Uste dut garrantzi gehiegi ematen diogula, inporta zait gehiegi zer esango duten besteek, batez ere, esaten dutenean ‘ala, ¡qué culo está echando esa!’ zergatik ezin dira neska izan lodiak? Neska izan behar dira argalak? Presio soziala dator neska perfektua izan behar dela ematen duelako, argala, polita... eta leia dut nik aktorea izan nahi dut baina ez dut horrelakoa izan nahi, gainera nik ez dut inongo antza telebitako neskeekin. Aldizkarietan ematen duten informazioa arazo batean sartzen gaituzte, baina sartzen gaituzte nahita.” (ET/LO/140305/Ikasleak/1/Em)*

*”Se juzga más a una persona por si está gordo, por si no está gordo por ejemplo.” (ET/T/141004/Ikasleak/3/Gi)*

Irudi fisikoaren inguruan mutilek sarritan neskei komentarioak harrokeriarekin egiten dizkiete, eta neskek ere komentarioak egiten dituzte bestelako intentzioarekin.

“ *Bueno, yo creo que también en eso, los chicos somos más burros para eso, ¿eh?, la verdad.*

*Em: Yo creo que las mujeres somos más “lo hacemos”, que nosotras si vemos a una mujer también la comentamos igual que si vemos a un hombre. (ET/T/140410/Ikasleak/3/Gi)*

Irudi fisikoari erreferentzia egitea modu negatiboan edo irudi fisikoarekiko komentario deserosoak egitea ohikoa omen da testuinguru konkretuetan. Adibidez **Gorputz Hezkuntzako klaseak** eszenatoki aproposak izaten dira irudi fisikoari erreferentzia egiteko.

“ *Em: adibidez gimnasia Cooper-en testa edo egiten geundela eta bueltak ematen geundela bazeuden bi mutil lesioengatik edo dena delakoarengatik egiten ez zeudela. Bazegoen beste neska bat tiranteekin lasterka egiten, eta titiek gora eta behera egiten zioten eta behin pasatzen zela guztion geunden puntutik, ba bi mutil horiek hasten ziren behin eta berriro ‘Boing, Boing, Boing’. Lehenengoan besterik gabe, bigarrenean begi txarrak jarri eta besterik gabe, laugarrenean hasi zen: ‘¡Pero es que sois subnormales!’ eta horrelakoak. Behar duzu pixkat pentsatu, behin gertatzen bada aparte uzten duzu baina ya laugarrenean erreakzionatzen duzu.*

*Em: Nik konparaketak oso gaizki eramaten ditut, ez ditut aguantatzen.” (ET/T/140403/Ikasleak/2)*

Gorputz Hezkuntzako klaseetan irakaslearen jarrera sexista identifikatu izan da kasuren batean.

“ *Ba egiten genuenean gimnastika eta horrelakoak, potroa saltatzeare-*

*na eta horrelakoak, ba neskak sokasaltoan ibili behar ziren. Ez zuen behartzen baina: “Bueno, zuek nahi baduzue sokasaltoan ibili”. Eta gero beste batzuetan egiten zituen taldeak badmintonean jokatzeko eta jartzen zituen onenak esan dezagun eta ziren mutil guztiak elkarren artean jokatzeko eta gero neskak beste aldean haien artean jokatzeko, txarragoak zirelako.* (ET/T/140403/Ikasleak/2/Em)

Kirola egiteak onura asko ekartzen ditu, hala nola, harreman sozialen areagotzea, osasun fisiko eta mentalaren hobetzea... baina **kirolak irudiarekin** duen harremanari ere garrantzi handia ematen zaio, eta hau nabarmena egiten da gazteen artean. Kirola egiteko arrazoiak ezberdinak dira, irudi fisikoa arrazoi bat delarik.

“ *Gi: Yo para pasarmelo bien y entrenar. Chica: Con las dos cosas pero supongo que más con la apariencia.*

*Gi: Apariencia, olvidar, relajarte un poco del exterior y olvidar un poco lo que pasa alrededor.*

*Din: ¿La salud?*

*Gi: Sí.*

*Din: ¿la salud mental?*

*Em: La salud, la evasión”* (ET/T/140410/Ikasleak/3)

Irudia abiapuntutzat hartuta, mutilek zerrendak egiten omen dituzte neskei puntuazio hobea goa edo okerragoa ematen.

“ *Em: Lehen asko gertatzen zen, orain dela urte bat edo bi urte, klaseko mutilak egiten zituzten zerrendak neskekin: ‘De cuerpo: esta un 8, esta un 6; de personalidad: esta...’ eta gero ematen zizuten zerrendak eta esaten zizuten: ‘Es que esta tiene mejores tetas pero es que el culo de esta es más bonito’. Eta pasatzen zuten klase osotik.”* (ET/T/140403/Ikasleak/2)

Dirudieneg egoera hauek harremanak jokoan jartzen ditu klasean, bai nesken artean bai eta neska eta mutilen arteko harremanetan ere.

“ *Em: Hori egiten zuten lehenengo mailatik aurrera, orduan pentsarazten zizun baina ez genuen ezer egiten. Gainera mutil guztiak ziren, eta zu sartzen bazinen mutil guztiakin ba ez zeunden guztiz seguru ea neska guztiak jarraituko zizuten ala ez, edo zu bakarrik geratuko bazinen edo... inoiz ez zaude ziur. Orduan bakarrik geratzen bazara mutil guztien aurrean eta neskak ez bazaituzte jarraitzen haien eskubideak defendatzeko azkenfinean ba gaizki geratzen zara.”* (ET/T/140403/Ikasleak/2)

Baina **irudia eta auto-kontzeptua** eskutik doaz normalean, eta gazte garaian egoera hauek ondo kudeatzea garrantzitsua da. Izan ere ezagunak dira irudi fisikoarekin harreman estua duten gaixotasunak, anorexia, bulimia...

“ *Em: Me gusta verme cada vez mejor a mí, porque yo me siento bien.*

*Gi: Sí bueno yo creo a todos nos importa también lo que piensen pero, al final lo que cuenta es lo que pienses tú de ti mismo.*

*Em: [...] no te lo imaginas hasta que de repente lo ves, quiero decir, tú ves a la persona y la ves bien hasta que de repente un día te enteras y no sé, piensas en qué le ha podido pasa para llegar a ese extremo o qué ha estado él viviendo por dentro que no se vive desde fuera.*

*Gi: Yo conocí a una chica que era bulímica también y la verdad es que lo pasaba fatal o sea, incluso intentó suicidarse una vez, o sea a mí me parece lamentable que la gente diga esas cosas porque luego no se dan cuenta del daño que hace.” (ET/T/140410/Ikasleak/3)*

Baina ezin da ahaztu irudia eta osasuna batzuetan ez datozela bat, eta egungo gizarteko komunikabideek mezu desagokiak ematen dituztela honen inguruan.

“ *Neska bat polita denean baina potoloa, aurkitzen du mutila argaltzen denean. Eta gero arazoak sortzen dira anorexia edo bulimia. Gustatu zait uztea jaten argaltzeko, baina horrenbeste obsesionatzen gara!!! Eta azkenean burua ukitzen dizu. Ez zaigu osasuna kezkatzen baizik eta irudia.” (ET/LO/140305/Ikasleak/1/Em)*

#### 4.3.4.1.3. Klaseko parte-hartzea eta arduren banaketa

Gela barruko **taldekatzeez** hitz egiterakoan, kasu batzuetan irakasleak berak egiten dituela adierazten zuten ikasleek, bestetan aldiz ikasleek berek aukeratzen dute bikotea edo laguna lan egiteko.

“ *Batzuetan esaten dute: “Jarri nahi duzuen moduan”, baina normalean irakasleak.” (ET/T/140403/Ikasleak/2/Em)*

**Parte-hartzea** dela eta bi iritzi kontrajarri agertu dira: batzuk aske sentitzen dira parte hartze-ko; besteak, kontran, ez. Ezezkoen artean, azpimarratzen da iritzi pertsonal bat plazaratzean klaseko kideek daukaten jarrera ezezkorak isiltzera bultzatzen dituela.

“ *Nik uste nahiko askeak garela alor horretan, irakasleak bideratzen du elkarrizketa, ni behintzat aske sentitzen naiz nahi dudana esateko”.*  
(ET/T/140305/ikasleak/1/Em)

*“Bueno, ni horrela-horrela. Gure adinean badagoela presio bat atzean. Ni batzuetan ez naiz sentitzen libre gauzak esateko zergatik iruditzen zait jendea datorrela nire gainera eta niri hori ez zait gustatzen. Esatea gauza bat eta ‘yo creo esto’ eta jendeak esatea ‘¡ala!, pero ¿qué dices?’, eta niri batzuetan horrek molestutzen nau. Nik uste dut zaila dela zure printzipioren kontra doan zerbait entzutea, emakumearen arloan, politika arloan, berdin zait, oso zaila dela ez saltatzea, baina saltatzen denez*

*eta orduan esaten dut bueno ‘me callo’ nik uste dut badagoela errepre-  
sioa klasetan, nire sentimendua da”. (ET/T/140305/ikasleak/1/Em)*

Zailtasun hau ez da generoarekin lotzen baizik eta ideien “desberdintasunarekin”.

“*Denak. Hori ez da neskak izateagatik, ideiak. Nik uste dut esaten denean  
zerbait pixka bat ezberdina denek saltatzen dutela. norbaitek esaten  
duenean gauza bat zerbait desberdina botatzen garelara bere gainean”*  
(ET/T/140305/ikasleak/1/Em)

Eta berdin parte hartzearen aldetik:

“*...Ba nik esango nuke, gure klasean baita hezkidetzak dela eta erraztasun  
gehiago dagoela hitz egiteko, nik uste dut batzuk betikoak hitz egiten  
dute eta beste batzuk edo galdetzen diezu zuzenean edo ez dute hitz egi-  
ten”. (ET/T/140305/ikasleak/1/Em)*

**Lidergoaren** kasuan lider zehatz bat ez dagoela komentatzen da. Bai aipatzen da beraiengan konfidantza duten pertsonak gehiago hitz egiten dutela eta lidertzat edo hartu ahal direla, baina berdin izaten direla neskak edo mutilak.

“*Nire kuadrilan badago pertsona bat zerbait proposatzen duen  
bakoitzean jendeak jarraitu egiten diola karisma duelako, eta nire gelan  
badago neska bat pertsonalitatea duela eta jendeak kasu egiten diola  
baina ez da neska edo mutilen arazoa baizik eta neska honek pertsona-  
litate berezia duelako eta gauzak era berezi baten azaltzen duelako. Nik  
uste dut bere pertsonalitatearengatik dela, nola esaten dituen gauzak  
eta nola egiten dituen gauzak, besteek jarraitzen dutela berak dioena”.*  
(ET/T/140305/ikasleak/1/Em)

Hala ere, eta nahiz eta lider baten figura ez errekonozitu, badirudi badaudela paper hori betetzen duten pertsonak

“*Gure klasean adibidez 15 gara eta 12 neska gara eta batzuetan entzuten  
da mutil baten ahotsa eta beste batzuetan neska batena.” (ET/T/140305/  
ikasleak/1/em)*

**Parte-hartzea** ordea, izaeraren arabera dela adierazten dute, horrela, batzuetan neskak edo bestetan mutilak.

“*Nik uste dut hori askotan izaeraren arabera dela. Batzuk hitz egite-  
rako orduan daukate konfiantza gehiago edo gehiago gustatzen zaie hitz  
egitea edo iritzia ematea, eta beste batzuk agian gutxiago edo lotsatia-  
goak direlako edo pasatzen dutelako.” (ET/T/140403/Ikasleak/2/Em).*

Bestetik, klaseko arduren banaketari dagokionez, ikasleen iritziz nahiko parekatuta azaltzen da **ordezkarien banaketa** neska zein mutiletan. Gainera ordezkariaren papera garrantzitsutzat ikusten dute, batez ere informatzeko zein laguntzeko emateko helburua duenean.

“Oso gustora egin genuen lana eta errespetuarekin beti. Azkenean da laguntzeko gauza bat, zu hor zaude arazoetan laguntzeko edo zerbait nahi badute laguntzeko, zure ardura da hori ikustea.” (ET/T/140403/Ikasleak/2/Em).

**Ardurak eta eginkizunen banaketan** ez da genero desberdintasunik sumatzen. Laguntza eskatzen denean edo libreki erabakitzen da, prest dagoenak edo nahi duenak laguntzen du, edo irakasleak zuzenean esaten die zer eta nork egin behar duen. Parte-hartzea libre denean edo lanen banaketa egiten denean talde baten barnean, interesen, gaia eta nahiaren arabera egiten dutela diote, generoa aipatu barik.

“Batzuk egongo dira prest parte hartzeko gai batzuetan, beste batzuk beste gaietan eta beste batzuk gai guztietan” (ET/T/140305/ikasleak/1/em)

Ikasleek pertsonen “klasifikazioari” buruz hitz egiten dute baina emakume edo gizonekin lotu gabe.

“Gure eskolan uste dut daudela “como clasificaciones” daude batzuk di-rela onak en esto, dituztela ideiak argiak eta beste batzuk ez dituztenak gauzak hain argiak eta ez dutenak gauza asko esaten “porque les toman por el pito del sereno”. (ET/T/140305/ikasleak/1/Em)

Gela barruan ohikoa da **arazoak** egotea klase kideren batek **istiluak** sortzen dituelako, eta ikasleek esan bezala, askotan mutilak dira istilu horiek sortzen dituztenak.

“Berdin zaie guztia. Ez dute izorratzen klasea baina ere ez dute parte hartzen.” (ET/T/140403/Ikasleak/2/Em).

“Sí, en mi clase hay siete chicos, y los siete siempre están liándola”.  
(ET/T/140410/Ikasleak/3/Em)

Badirudi hortaz, arduren banaketaz eta klaseko giroaz hitz egiten denean, ikasleek ez dutela beren burua ikusten honetan zuzeneko papera dutenik.

“Em: Generalmente la que se ocupa de eso es la tutora, de que tengamos una buena clase y de que tengamos una buena relación...”

Em: No sé, yo creo que la única responsabilidad que tenemos por así decirlo en cada clase es el delgado, por lo demás no tenemos muchas más tareas.” (ET/T/140410/Ikasleak/3)

#### 4.3.4.2. Harremanak

Puntu honetan berdinen arteko harremanak (kideen artekoak) eta bikote barruan gertatzen diren harremanak ezberdindu dira, beraiek ere ezberdintzen dituztelako.

#### 4.3.4.2.1. Bikote harremanak

Bikote harremanak, neska eta mutila bikotea denean, sarri entzun ohi da batzuk **botere-harremanetan** oinarrituta daudela. Izan ere, oraindik horren isla agertzen da ikastetxeetan, gazteen artean.

“*Institutuan badagoela bikote bat eta mutilak daukala neska kontrolatuta. Beti begirutzen dizkio elkarrizketak, wassapak mobilean, norekin geratzen den... Gero ere ez dio uzten lagunekin geratzen, berarekin bakarrik geratu behar da. Halakoak, eta azkenean jo ez du jo egin baina dauka kartzelatuta moduan eta ez dio bera izaten uzten, libre modukoa izaten uzten. Orduan niretzako hori ere bai tratu txarrak dira.*”  
(ET/T/140403/Ikasleak/2/Em)

**Kontrola** ulertzeko garaian, modu askotakoa izan daiteke, baina zoritxarrez ohikoena mutilak neskarenganako kontrola adieraztea izaten da.

“*Kontrola. Hori bai ikusten dela. Normalean bikote bat dagoenean mutilak ez dio uzten lagunekin egoten. Eta hori nik uste dut dela gehiena ikusten dena. Nire ustez 13 edo 14 urteko bikoteetan ikusten den gehiena da. Kontrola, eta hori oso txarra da. Azkenean 14 urteekin kontrol hau badaukazu, 29 urteekin izango da okerragoa eta 30 urterekin ba...*”  
(ET/T/140403/Ikasleak/2/Em).

Nola ez, komunikabideek, eta kasu honetan telebistak hau areagotzen lagundu dezake. Dirudienez, genero bortizkerian emakumeek eramaten dute alderik txarrena.

“*Em: Nik ikusten ditut gehiago mutilak. Bueno, ez ditut kasu asko ikusten baina adibidez telebistan ematen digutena igual ez da beti egia edo ez digute ematen den-dena, baina ikusten da mutilek tratu txar gehiago egiten dituztela.*”

*Din: Zergatik uste duzue?*

*Em: Historian zehar izan direlako boteretsuak kakotxen artean. Beti izan dira beraiek indarra erabili dutenak eta emakumeak ez dira inoiz agertu, bueno guk ez ditugu inoiz ikasi liburuetan. Eta inoiz ez da irakatsi emakume batek indarra erabiliz zerbaite lortu duela. Orduan horrek egiten du gizonak boteretsuago sentitzea, eta gero kanpoan ba hori erakutsi behar dute.* (ET/T/140403/Ikasleak/2)

**Tratu txarrez** hitz egiten denean, sarri zigor fisikoarekin erlazionatu egiten da, baina jakin badakigu beste hainbat bortizkeria motarekin lotuta dagoela; eta gazte batzuek hau horrela identifikatzen dute.

“*Em: Normalean jendeak uste du tratu txarrak direla ya eskuetara ailegatzen direnean, jo dionean edo horrela. Baina azkenean tratu txarrak ere dira oihukatzen dionean pertsona batek beste bati. Igual ez*

*da hain zorrotza baina bai direla tratu txarrak. Eta azkenean egunero oihukatzen badiozu pertsona bati horrek bere eragina dauka, eta hori tratu txar bat da.*

*Em: Ba normalean gizona modu batean edo bestean indarkeria erabiltzen duenean emakumearengana eta emakumea gutxiesten duenean eta horrelakoak. Gero emakumeak pentsatzen du ez duela behar izan izan behar duena. Eta hori da tratu txarra niretzat.*

*Em: [...] uste baino egoera gehiago daude, eta gainera batzuetan benetan jende gaztea da horretan hasten dena.” (ET/T/140403/Ikasleak/2)*

#### 4.3.4.2.2. Berdinen arteko harremanak

Bigarren hezkuntza eta batxilergoko ikastetxeetan, ikasleek urtetako harremanak bizitzen dituzte, eta batzuetan harreman hauek bortizkeriazko egoerekin daude kutsatuta.

“*Em: Orain igual ez asko, baina bai egon zirela lehenengo mailan. Apur bat igota datozela eta borrokak eta abar. Baina beti ziren neskak neska baten kontra eta mutilak mutil baten kontra, ez ziren mistoak.*

*Em: Eta askotan borrokatzen ziren ba mutilak egin badio ez dakit zer neskari ba bere nobioa borrokatzen zen mutil horrekin.*

*Em: Aurten ez da gertatu. Gu lehenengo mailan eta bigarren mailan geundenean agian astero.” (ET/T/140403/Ikasleak/2)*

Antza denez, Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloan borrokak batzuetan programatuak izaten ziren. Honek harrokeria indartu egiten zuen, izan ere besteen aurrean boterea edo lidergoa garrantzitsua zen.

“*Em: Esaten zuten: ‘Ni zu jotzeko intentziona daukat, baina dakidanez irakasleak etorriko direla geratuko naiz ondo baina gero ez da ezer geratuko’. Arro bezala geratzen direla: ‘Soy super chungo’.*

*Em: Hori lehenengo mailako mutil eta neskentzako oso inportantea zen. Azkenean jende guztia joaten zen, edo gehiengoa. Orduan zen Institutuko gertakizuna bezala. Ondo geratzen bazinen edo txarto geratzen bazinen mundu guztiak ikusten zuen, orduan hori, ondo geratzea edo txarto geratzea, eragina handia zuen.” (ET/T/140403/Ikasleak/2)*

#### 4.3.4.3. Sare Sozialak eta Komunikabideak

Sare sozialek eta komunikabideek egun mezu asko igortzen dituzte, eta hauek ondo interpretatzea garrantzitsua da. Esate baterako, gizonaren irudi fisiko indartsuak boterea eman dio urtetan zehar gizonari, eta hori gizartean islatu egiten da. Irudi hau, antza denez, tratu txarrekin erlazionatuta antzematen dute gazteek.

“*Em: Historian zehar izan direlako boteretsuak kakotxen artean. Beti izan dira beraiek indarra erabili dutenak eta emakumeak ez dira inoiz agertu, bueno guk ez ditugu inoiz ikasi liburuetan. Eta inoiz ez da irakatsi emakume batek indarra erabiliz zerbait lortu duela. Orduan horrek egiten du gizonak boteretsuago sentitzea, eta gero kanpoan ba hori erakutsi behar dute.*

*Em: horrek ez du kentzen emakumeak ere daudela tratu txarrak egiten dutenak, baina gehien ikusten dena mutilak dira.”* (ET/T/140403/Ikasleak/2)

Gizona edo emakumea izateak abantaila edo desabantailak ekar ditzake. Batzuen aburuz, indarrak zerikusi handia du honetan, ahula eta indartsuaren rola oso definitua agertzen delarik.

“*Em: Ateratzeko orduan emakumea da hauskorragoa moduan. Ez diogu bostak arte utziko ze igual biolatzen dute. Baina mutila izatea, ba ya indartsua da eta defendituko da.*

*Em: Baina hori azkenean nolabait irakasten digute txikiak ginenetik. Rolak dira, neskak dira “Las Barbis” eta mutilak ba gihardunak. Ideia horiek sartzen dizkigute buruan eta azkenean ba agian hasten zara pentsatzen eta esaten duzu: “Ba igual egia da...”* (ET/T/140403/Ikasleak/2)

Kirolaren arloan ere argi islatzen da komunikabideetan zeinek duen garrantzia, gehienetan gizonaren papera kirolean indarra daukalako emakumearen paperaren aurrean.

“*Baina hori ikusten da kirol arloan profesionalak direnak azkenean mutilak arrakasta handiagoa daukate. Telebistan ez dituzte nesken futbol partiduak botatzen. Gero azkenean ba eragina dauka ere profesional moduan edo...”* (ET/T/140403/Ikasleak/2/Em)

Gizonen nagusitasunak komunikabideetan pentsaraz dezake, gazteen iritziz, mutilak hobeak direla.

“*Gizartean baino gehiago ba adibidez txikia zarenean eta kirola egiten duzunean, nik adibidez futbola egiten nuen, eta bueno, futbola egitea neska batentzat orain dela bost urte arraroa moduan zen. Eta gainera nire taldean bakarrik mutilak zeuden eta ailegatu zen momentu bat nik esan nuena: ‘Pues igual mutila izatearena hobea da’. Niri ez zidaten uzten futbolera jokatzeko. Neska nintzenez, beste talde batera joan behar nintzela edo futbola utzi. Eta orduan ba ailegatu zen momentu bat ni, 8 urterekin, esan nuena: ‘Jo!, ba mutila izatea kirol munduan ba hobeto da’. Pena bat da baina momentu honetan horrela da.”* (ET/T/140403/Ikasleak/2/Em)

Telebistan agertzen diren mezu ezkutuak identifikatzea ez da batzuetan erraza, zoritzarrez, oso barneratuak daudelako. Iragarki sexisten aurrean gazte batzuen artean pentsamendu kritikoa nabarmendu egiten den bitartean, beste batzuek ez dute hausnarketa handirik egiten.

“ *Em: Suele aparecer como mucho en tareas de cas y cosas así.*

*Em: Sí, los anuncios suelen ser bastante machistas.*

*Gi: Bueno, yo creo que la televisión es, que hay bastante igualdad.*

*Em: Yo también creo.”* (ET/T/141004/Ikasleak/3)

Komunikabideez aparte, sare sozialek eragin handia dute egungo gazteen erlazionatzeko moduan. Sare sozialen erabilpen egokiak ez du zertan inolako ondoriorik ekarri behar, ordea, erabilpen desegokiak egoera deserosoak eta bortitzak ere susta ditzake. Gazteek Twenti, Twitter eta horrelako kontuen erabilpen ezkutua azpimarratzen dute behin eta berriro. Hauen bidez mehatxuak egitea erraza omen da, borrokak antolatzea... Nolanahi ere, gazte batzuk argi dute hau komunikatzeko bide desegoki bat dela, ausardia alde batera uzten duena eta erreala ez dena.

“ *Em: Gu lehenengo eta bigarren mailan geundenean Twenty zegoen hor indarrean eta mezu pribatuetan eta horrelakoetan asko laguntzen zuten baztertze edo. Nik bigarren mailan jaso nuen mezu bat, nire klaseko baten mezu bat, esaten: ‘Hilko zaitut’ eta horrelakoak.*

*Em: Zu ez zoaz norbaiti aurpegira esatera ‘Hilko zaitut’. Zuk mezu bat bidaltzen duzu eta errazagoa da. Orduan mezuak bidaltzea, Wassapa, Twittera, eta horrelakoak ba izugarri errazten du.* (ET/T/140403/Ikasleak/2)

Hortaz, teknologia berriek mota ezberdinetako erasoak erraztu egiten dituzte eta hauek min handia egin dezakete.

“ *Em: Las redes sociales facilitan las discusiones porque la gente no tiene que dar la cara. Es más fácil que haya un grupo que vaya todo el rato contra una persona porque no tiene que dar la cara porque están detrás de una pantalla, porque pueden tener un perfil falso perfectamente.*

*Em: hay gente que igual no le afecta, pero luego hay gente que lo pasa verdaderamente mal también.*

*Em: Yo tengo una amiga que en un principio estaba en un grupo, una cuadrilla y luego tuvieron problemas y casi toda la cuadrilla insultándola por ask y por twiter y le llamaban cualquier tipo de cosas y mi amiga se sentía fata, porque las personas que pensaba que eran sus amigas vio que de repente le dan cuchillazos por la espalda.*

*Gi: Se utilizan en las redes sociales de forma abusiva yo creo mensajes de este tipo. No se deberían utilizar de esta manera.” (ET/T/141004/Ikasleak/3)*

Adin gazteetan horrelako egoerak askotan ez dira salatzen, beldurra dutela adierazten dute ikasle batzuek.

“*Em: lehenengo mailan ikusten baduzu pertsona bat gaizki pasatzen ari dela nolabait nahi duzu pertsona hori laguntzea baina agian laguntzen baduzu ba pentsatuko duzu: “Besteak ere nire aurka etorriko dira, eta orduan nahiago dut aparte egon”.* (ET/T/140403/Ikasleak/2)

Hala ere, argi uzten dute sare sozialen erabilpen desegokia gazteagoak zirenean ematen zela gehienbat eta ez batxilergoan.

“*Em: Gure adinean ez, baina gazteagoak ginenean, bai, mehatxuak zeuden Twentin, onegia da mehatxuak egiteko.*

*Em: Igual gazteagoak ginenean bai, ez nik zuzenean baina gazteagoak ginenean sare sozialena zen pasada bat, Twentiak eta, jendearen artean mehatxuak zeuden, era askotako mehatxuak eta, oso erreza da sare sozialetik mehatxuak egitea, errazegia da.” (ET/T/140305/Ikasleak/1)*

Sare sozial zein komunikabideek emakume eta gizonaren eredu distorsionatua agertzen dutela aitortzen dute ikasleek. Gizartea aldatzeko lehenengo pausoa hortik hasi beharko litzatekeela aipatzen dute gazteek; baina hezkuntzaren garrantziari ere egiten diote erreferentzia.

“*Em: Momentuz komunikabideetan ez dituzte emakumeak diren hainbat eredu ateratzen, beti ikusten ditugu postu altuetan gizonak, eta emakumeak pixka bat ezkutuan gelditzen dira, eta hor emakumea eredu bezala jartzeak pausu bat ematea izango litzateke.* (ET/T/140305/Ikasleak/1)

*Neska: Nik uste dut azkenean heziketa dela garrantzizkoena eta hori modu batean edo bestean, agian gurasoek ez dizute esaten hau edo bestea, baina zuk zeuk ikusten duzu eta adibidez Edurnezurin ba beti da berdina. Edota kotxeetako albisteetan beti agertzen dira neskak garbitzen. Beraz zuk agian kontzienteki ez baina hori barneratzen duzu.”*

(ET/T/140403/Ikasleak/2)

#### 4.3.4.4. Lanbide aukeraketak

Lanbide aukeraketetan beti ateratzen da lelo bera, boterezko lanpostuak gehienbat gizonek okupatzen dituztela adierazten dute gazteek, eta era berean ezer ez aldatzea nahiago duela jendeak.

“*Gi: [...] en los cargos de las empresas todo son hombres la mayoría, los altos cargos.*” (ET/T/141004/Ikasleak /3)

*Em: emakume asko ere ez dute nahi emakume bat boterean ikustea. Azkenean jendeak nolabait nahi du emakumeak gehiago izatea baina gero gauza aldatzerakoan ez dute ezer egiten. Eta nahiago dute gauzak izan diren bezala jarraitzea.*” (ET/T/140403/Ikasleak/2)

Badirudi oraindik estereotipoak gainditu gabe daudela beraien ustetan; ba omen dira lanpostu batzuk sozialki emakumearentzat edo gizonarentzat zuzendutakoak direnak.

“*Idazkaria, hori beti izan da neskentzat. Eta gizonak ba zuzendariak eta ingeniariak eta horrela. Hori esaten dizute ya txikitatik. Mutil bat ikusten baduzu kaletik neskekin “a papas y a mamas” jolasten eta bera izan nahi du ama. Eta gero lana bilatzen dute eta txikitatik mutilak ba joan behar dira bulego batera lan garrantzitsuak egitera eta neska ba izan behar du idazkaria edo horrelako zerbaitea.*” (ET/T/140403/Ikasleak/2/Em)

*“Esan nahi digute eta buruan sartu nahi digute lan batzuk daudela mutilentzat propio eta beste batzuk neskentzat direla, fontaneroa, mekanikoa ez direla neskak ikusten eta irakaslearen irudiarekin askotan emakume bat dago. Errore bat da, baina ezberdin bisualizatzen ditugu. Haur Hezkuntzan irakasleak neskak dira, dependientak neskak dira; fontaneroak, ordea, mutilak. Analizatzen dut zergatik den hori nire buruan eta kulpaduna sentitzen naiz, ez dakit zergatik ez dugun beste eredu bat ikusten.”* (ET/LO/140305/Ikasleak/1/Em)

Lanbide bat aukeratzeko garaian, zaintzarekin harremana duten lanpostuak emakumeen gustukoak izaten jarraitzen dute, hala nola, medikuntza, albaitaritza, hezkuntza...

“*Gi: a los hombres igual se interesan más en esta ciencia y las mujeres igual en medicina, o en profesorado igual si que predomina más la mujer que el hombre.*” (ET/T/140410/Ikasleak/3)

*Em: Nik lan soziala egin nahi dut, baina presioa jaso dugu eta printsazea izatearen gaia oso zabalduta dagoela esan daiteke.*” (ET/LO/140305/Ikasleak/1)

Gurasoen aurreiritziak eta gizartearen aurreiritziak ardura bat dira gazteentzat beraien etorkizuna aukeratzeko garaian...

“*Em: Guk nolabaiteko presioa daukagu zeren azkenean batxilergoa pasatu behar dugu, unibertsitatea, zergatik? nik esaten badut nire etxean Lanbide Heziketako gradu medio bat egin nahi dudala, ez dakit nola hartuko luketen, zergatik?...*” (ET/LO/140305/Ikasleak/1)

Baina gazte batzuegan beren gustu pertsonalek indar handia daukate, eta baliteke horretan familiaren laguntza nabarmena izatea.

“*Din: Estudiando. Y trabajando cómo te ves tú, en qué te ves trabajando, ¿haciendo teatro?*

*“Em: Sí, porque es lo que me gusta al final, donde disfruto y me lo paso bien... y si no, pues en una bodega.”* (ET/T/140410/Ikasleak/3)

Sozialki lan batzuk beste batzuk baino balorazio hobea jasotzen dute, eta gutxiesten diren lanbideak kasu batzuetan dira emakumeak okupatzen dituztenak. Bestetik, badirudi emakumea haurdun geratzea arazo bezala antzeman daitekeela kasu batzuetan.

“*Em: Pues cajera, o trabajar en ¿un pendepi? o en cualquier cosa de esas no está muy bien valorado.*

*Gi: Sí, luego también que los de ciencias siempre miran por encima del hombro a los de letras y eso es verdad.*

*Gi: [...] la mujer llegada a una edad se puede quedar embarazada y esos son unos meses que no puede trabajar y entonces eso les cuesta más caro.”* (ET/T/140410/Ikasleak/3)

Ikasleen harremaneei buruz hitz egiten denean irudi fisikoaren kezka, estereotipoak eta bikote harremanen kezka izan dira etengabe aipatu dituztenak. (Ikusi 25. laburpen-laukia).

25. laburpen-laukia

**Generoko interakzioak ikasleen iritiz**

Kategoria	Erantzunen laburpena
<p><b>Nesken eta mutilen arteko jokaera-diferentziak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Diskriminazio sexistarekin lotutako jarrerak Bigarren hezkuntzako hasierako zikloan ematen dira gehienbat.</li> <li>- Jarrera sexistak ugariak izaten dira ikastetxe barruan eta harreman maila ezberdinetan.</li> </ul> <p><b>Estereotipoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizarteko estereotipoen kutsaduraz ihes egitea oso zaila da.</li> <li>- Badirudi mutila izateak abantailak dituela.</li> <li>- Ikasle baten aburuz, honetarako konponbidea, hezkuntza da.</li> </ul> <p><b>Irudi fisikoa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Irudi fisikoak garrantzi handia du jarrera sexistak, etiketak, eta diskriminazio egoerak areagotzen.</li> <li>- Gorputz Hezkuntzako klaseak eszenatoki aproposak izaten dira irudi fisikoari erreferentzia egiteko.</li> <li>- Irudi fisikoa eta auto-kontzeptua eskutik datoz, eta ikasleek identifikatzen dituzte honekin harremana duten gaixotasunak (bulimia, anorexia).</li> </ul> <p><b>Klaseko parte-hartzea eta arduren banaketa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bi iritzi kontrajarrariak: batzuk aske sentitzen dira parte hartzeko, besteak aldiz, ez.</li> <li>- Zailtasun hau ez da generoarekin lotzen baizik eta ideia “desberdintasunarekin”. Norberaren izaerak ere garrantzia du.</li> <li>- Ardurak eta eginkizunen banaketan ez da genero desberdintasunik sumatzen.</li> </ul>
<p><b>Harremanak</b></p>	<p><b>Bikote harremanetan</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Batzuetan, neska-mutil harremanak botere harremanetan oinarrituta daude.</li> <li>- Kontrola ulertzerako garaian, ohikoena izaten da mutilak neskarenganako kontrola adieraztea.</li> <li>- Tratu txarrak ez dira soilik zigor fisikoarekin erlazionatzen, gazteek bestelako bortizkeriarekin ere identifikatzen dute.</li> </ul> <p><b>Berdinen arteko harremanak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bigarren hezkuntzako lehenengo zikloan batzuetan borroka programatu egiten dira</li> <li>- Boterea eta lidergoa garrantzitsua da garai horretan.</li> </ul>
<p><b>Sare sozialak eta komunikabideak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikabideetan ahula eta indartsuaren rola oso definitua agertzen da. Ikasleen hitzetan, horrek eragiten du gizonak botere suago sentitzea.</li> <li>- Gizonen nagusitasuna komunikabideetan, batez ere kirol arloan, pentsa arazi dezake mutilak hobeak direla.</li> <li>- Iragarki sexisten aurrean gazte batzuen artean pentsamendu kritikoa nabarmentzen da; beste batzuek ez dute hausnarketarik egiten.</li> <li>- Sare sozialen (Twenti, Twiter...) bidez erraza omen da mehatxuak egitea, borroka antolatzea...</li> <li>- Gazte batzuek argi dute sare sozialak komunikatzeko bide ezegokia direla, ausardia alde batera uzten duena eta erreala ez dena.</li> </ul>
<p><b>Lanbide-aukeraketak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Botereko lanpostuetan gehienbat gizonak dira burua.</li> <li>- Lanbide bat aukeratzeko garaian, zaintzarekin haremana duten lanpostuak jarraitzen dute emakumeen gustukoak izaten (medikuntza, albaitaritz, hezkuntza...)</li> <li>- Gurasoen aurreiritziak eta gizartearen aurreiritziak ardura bat dira gazteentzat beraien etorkizuna aukeratzeko garaian.</li> <li>- Gutxiesten diren lanbideak kasu batzuetan emakumeek okupatzen dituztenak dira. Emakumea haurdun geratzea arazo bezala antzeman daiteke.</li> </ul>

### 4.3.5. Espazioaren erabilera

Eskoletako jolas-tokietako espazioaren erabilera beti egon da baldintzatuta honek zeukan banaketara. Izan ere, eskola gehienetan futbol eta saskibaloiko zelaiak dira espazio gehien hartzen dutenak, eta espazio horiek okupatzen dituzten pertsonak dira patioaren jabe egiten direnak nolabait.

“ Seigarren mailan neskak ematen genuen buelta bat patio osotik eta mutil gehienak zeuden saskibaloian edo futboleko jolasten horko zatian eta askotan pasa behar ginen handik eta mutilak baloiari eman eta.... jotzen bazizuten pues ‘mala suerte’ eta hor ibili behar zinen como... ‘corre, corre, corre’ eta jada pasatzen ginen eta han beraiek zuten autoritatea, eta besteak pasatzen ginen mailegatutako tokitik.” (ET/T/140305/Ikasleak/1/Em)

“Hombre, pues la mayoría del patio está ocupado en canchas de baloncesto o campos de fútbol.” (ET/T/140410/Ikasleak /3/Em)

“Dagoeneko ez dugu jolasten, ateratzen gara aireatzera eta hitz egitera. Institutuan ekintzak antolatzen direnean jendeak beti egiten du berbera. Suposatzen da apuntatu behar zarela eta normalean kiroltan mutilak dira, mutilak taldetan sartzen dira eta ez dute neskeengan pentsatzen ez bada behartuta daudela nahastera. Batxilergokoak atera gaitzke kanpora eta askotan ateratzen gara deskonektatzeko. DBHkoak gelditzen dira. Neskak bueltaka ibiltzen dira patioan, eta mutilek jolasten dute, askotan neskek sortetzen dituzte mutilen baloiak, mutilak horretan autoritatea zuten horretan.” (ET/T/140305/Ikasleak/1/Em)

Hala ere, neska batzuek ez dute berentzat espezifikoa den espazio baten beharra sumatzen.

“ Dn: Y las chicas, ¿encontráis espacio suficiente en el patio, ya que está ocupado como decíais por el baloncesto, el fútbol, es posible que os guste o no el baloncesto y el fútbol y si fuera que no, veis alguna necesidad para poder acoger un espacio para vosotras para lo que os pueda gustar o sentís que os gustaría que hubiera algo que no hay?

Em: No, no.” (ET/T/140410/Ikasleak/3)

Espazioen banaketa kasu batzuetan adinaren arabera egiten da eskoletan, ikasleen hitzetan, modu horretan adinak markatzen du autoritatea.

“ En el patio por lo menos a la hora de coger el campo de fútbol o canasta, va por edad.” (ET/T/140410/Ikasleak/3/Em)

Bestetik, patioko orduetan egiten diren joko eta kiroltan ikasleak kexatu egiten dira, batzuetan taldekatzeak neskak edo mutilak izaten direla; eta era berean, aurreikusi egiten dela neskak mutilen aurka jokatzeko desabantailak ekartzen dituela.

“ Em: Aurten ere gertatu da. Patioan txapelketak antolatzen dira eta futbol txapelketa bat zegoen. Esan zuten: ‘Mutilak alde batetik eta neskak...’

*Hau da, bakoitzak bere taldea egiten du. Orduan gura lagunak neskak egin zuten talde bat eta gero jolastu behar zutenean, bakarrik neska talde bat zegoenez ez zuten jokatu. Eta dago tabloi moduko bat eta dago orri batean talde guztien izenak eta beraiena ez da agertzen. Eta beste orri batean partiduen emaitzak eta nesken taldean arrosaz agertzen da: ‘Ez dute jokatu’. Beraiek kexatu egin ziren eta esan zuten: ‘Guri ez zaigu inporta mutilen aurka jokatzeari’, baina ez dute jokatu eta ez dute jokatu.*

*Em: Eta gero mutikoak futboleko ari ziren bitartean gimnasioan aerobic jarri zuten neskentzat.” (ET/T/140403/Ikasleak/2)*

Bestelako alternatibak ere bilatu izan dira institutuan neskek parte hartu dezaten. Baina alternatiba horiek gutxienekoak izaten dira.

“*Egun batean bakarrik antolatu zuten klase bat defentsa pertsonalerako eta bakarrik neskentzako. Eta joan ginen batzuk irakasle batengana galdetzera zergatik bakarrik neskentzako eta esan ziguten erasoak jasaten dituztenak neskak direla, ez mutilak. Hori zure aurpegira esatea ez da oso eroso. Baina ez zuten mutilak uzten hor sartzea.” (ET/T/140403/Ikasleak/2/Em)*

Neskei galdetu egiten zaienean normalean zer egiten duten patioetan, elkarri dantzak erakusten dizkietela adierazten digute, edota kanpora ateratzen direla esertzera.

“*Orain dantzatzen hasi gara. Gure mailan badauzkagu hainbat neska dantza egiten dutenak, euskal dantzak, eta pixka bat erakusten digute patioetan. Hori egiten dugu normalean, edo bestela kanpora ateratzen gara eta esertzen gara hor eguzkia hartzera, baldin badago.” (ET/T/140403/Ikasleak/2/Em)*

#### 4.4. GURASOEN EZTABAIDA TALDEETAN LORTUTAKO EMAITZAK

Atal honetan, gurasoen eztabaida taldeetan lortutako emaitzak aurkeztuko ditugu 33. taulan dagoen sistema kategoriala jarraituz, aurrekoekin zerikusia handia izan arren, batetik bestera beti aldatzen da zerbait eta kategoriaren bat ez da agertu edo besteren bat sortu da. Horretarako, aita-amek adierazitako ikusmoldeak hartuko ditugu aztergai, eta hezkidetzaren inguruan isuri dituzten iritzien berri emango dugu.

33. taula

**Gurasoen iritziak analizatzeko erabili den kategoria-sistema.**

DIMENTSIOAK	KATEGORIAK	AZPIKATEGORIAK
<b>4.4.1. Aukera Berdintasun Politikak</b>	4.4.1.1. Zabalkundea eta eragina	
	4.4.1.2. Ikastetxeen rola	
	4.4.1.3. Familien rola	
<b>4.4.2. Zer da hezkidetzatza?</b>	4.4.2.1. Definizioa	
	4.4.2.2. Ikastetxeen beharrak	
	4.4.2.3. Proiektu hezkidetzailleak: ikastetxeak hezkidetzaren inguruan egiten dituen ekintzak, jarduerak, proiektuak...	
<b>4.4.3. Eskolaren eredu hezkidetzaillea</b>	4.4.3.1. Irakasleen rola	4.4.3.1.1. Hizkuntzaren erabilera
	4.4.3.2. Familien rola	
	4.4.3.3. Familien parte hartzea	
	4.4.3.4. Familien formazioa	
	4.4.3.5. Eskolaren errealitatea	
	4.4.3.6. Atzerapausoak	
	4.4.3.7. Ikasleak orientatzea	
<b>4.4.4. Genero rolen adierazpenak eta interakzioak</b>	4.4.4.1. Nesken eta mutilen arteko jokoera-diferentziak	
	4.4.4.2. Nesken eta mutilen diskurtso-diferentziak	
	4.4.4.3. Lanbideak: Lan hautaketa	
	4.4.4.4. Sare sozialak eta hedabideak	
<b>4.4.5. Espazioaren erabilera</b>	4.4.5.1. Patioaren erabilera	
	4.4.5.2. Espazioaren banaketa	

**4.4.1. Aukera berdintasun politikak**

Gurasoek berdintasun politikei buruz hitz egiten dutenean aipatzen dute erakundeen rola, ikastetxeena eta familiaena, aurrekoetan azken hori ahaztu zaien arren.

**4.4.1.1. Berdintasun politikak: zabalkundea eta eragina**

Gurasoek ez dute ezagutzen erakundeen lana gai honetan eta beharrezkoa ikusten dute haien lanaren berri izatea eta familiei begirako ekimenak zeintzuk diren jakitea bi aldeen arteko lankidetzan aritzeko. Bada ezagutzen eta aipatzen duten plan bat, *Gizonduz* da. Eta horrekin lotuta aipatzen dute erronka garrantzitsua dela gizonen rola lanketa (orain arte emakumeen rolari begira jardun delako bereziki). Gizonduz bezalako kanpainak maskulinitate

eta feminitateei buruzko hausnarketa bultzatzen dute, rol parekideak sustatuz. Berdintasun politikak emakumearen inguruan garatu dira eta gizonek egin beharreko lana botatzen dute faltan zenbait gurasok.

“ *Las políticas de igualdad ponen mucho foco en la mujer. Se olvidan del foco masculino. Trabajar también que puedan desarrollar sus sentimientos. Trabajar la autoestima de los chicos en este sentido. Bascular esa fuerza*”. (ET/LO/140319/Guraso/1/Em)

Gaur egun hezkidetzarekin lotuta ikastetxeetan zer lantzen den aipatzen dute, baita zer landu behar den ere. Tratu txarrak, manipulazioa eta jazarpena dira batez ere lantzen diren arloak, aukera-berdintasunarekin batera. Parekidetasunerako bidean oraindik oinarrizko arlo batzuk egokitu gabe daudela diote, eta honetan etxean egindako lana ere funtsezkoa dela.

“ *En mi centro estamos en la escuela de padres y todos los años tratamos el tema de la igualdad y hacemos unas charlas (...) y claro cuando te llegan a esas charlas y te dicen que las chicas se siguen dejando meter en el acoso de sus novios, y todas esas cosas pues te quedas un poco como 'jo', y nos asustamos porque los nuestros al fin y al cabo son todavía pequeños, pero decimos ¡jo! Tan poco hemos cambiado? Tan mal seguimos estando todavía con la historia ésta? Yo, la verdad es que me asusta un poco el tema. En el colegio estamos intentando trabajarlo también desde las aulas y yo creo que el profesorado también se implica mucha en esta historia (...) en cuanto hay un conflicto de género, lo atacan, van a por ello, van a solventar la historia.*” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

Gaiaren lanketari buruzko iritziak ere bota dituzte: Gauzak ez dira hainbeste aldatu, baina hain txarto geundenez benetan egindakoa baino gehiago egin dela dirudi. Edonola ere, jarre-rak beste arlo batzuetan asko aldatu direla ikus daiteke (ariketa fisikoa, tabakoa, birziklapena) eta horrek erakusten digu honetan ere posible dela denboraren laguntzarekin.

“ *Si se piensa bien en cómo han cambiado las cosas por ejemplo en la actividad física, o cómo han cambiado las actitudes frente al tabaco, o el reciclaje, que son cosas bastante objetivas, también pueden hacerse cambios en este tema, el tiempo también ayuda.*” (ET/LO/140319/Guraso/1/Gi)

#### 4.4.1.2. Berdintasun politikak: Ikastetxeen rola

Ikastetxeen lana berdintasunean heztea da guraso baten arabera, baina hori definitzea ez da hain erraza bere ustez.

“ *[El rol de los centros educativos en relación al género debería ser] educar en igualdad, pero claro ¿qué es eso? Claro definir eso es tela marinería, pero yo...*” (ET/T/140319/Guraso/1/Em)

Baina gaur egun ikastetxeetan beste gai batzuk lantzen dira eta hezkidetzari buruzko materiala, eta gaia bera, zaharkituta geratu da. Soilik interesa dutenak joaten dira gai hau lantzera, bere bila.

“En este momento en los centros se están trabajando más temas ligados a cuestiones de consumo, del uso del móvil, y sin embargo, para temas de género que se trabajaron mucho hace unos años, hay que ir a buscar material viejo.” (ET/LO/140319/Guraso/1/Em)

“Les tienes que decir que vas a hacer lo mismo que el años pasado.”  
(ET/T/140319/Guraso/2/Em)

Batez ere Haur Hezkuntzan lantzen da gai hau, neska eta mutilen rolekin, jolas eta jostailuekin. Lehen Hezkuntzatik aurrera beste gai batzuek hartzen dute zentraltasuna. Guraso baten arabera LHtik aurrera hezitzaileen araberakoa da hezkidetzaren lanketa eta eremu guztiak lantzea oso zaila da.

“Tengo un peque de 2 años y los juguetes no son sexistas, ni los juegos... (en el colegio), empezarán por ahí. En los institutos es más difícil saber las políticas..., porque los críos no cuentan lo que se hace en los colegios. Creo que sí que hay actuaciones pero no creo..., son puntuales, más relacionadas con el tutor o tutora del centro. O situaciones puntuales en el aula..., pero lo demás en el PEC no. Solamente hay 5 líneas de coeducación, depende de las personas. Estoy en la Comisión de Convivencia y hay bastantes trabas. Si tienes suerte con las personas bien, sino no. Es difícil. Hay muchas zonas oscuras.” (ET/LO/140319/Guraso/1/Gi)

#### 4.4.1.3. Berdintasun politikak: Familien rola

Familien rolaren garrantzia azpimarratzen dute, bertan hasten delako etorkizuneko herritarren hezkuntza eta sozializazioa, eta etxetik etxera egoera aldatu egiten da. Badaude gaiarekin kontzientziatuta dauden gurasoak eta ikastetxearekin lankidetzan dabiltzanak gai honen lanketa egiteko, gurasoen eskolaren bidez adibidez.

“Creo que la base fundamental es la familia y que realmente nos lo tenemos que creer. Al final cuando hablas de estos temas te atienes a lo que tú conoces en el entorno, porque yo veo muy diferente como llevamos estas cosas mi chico y yo (...) Bueno que lo que mis hijos están viendo en el día a día, no es lo mismo que lo que están viendo mis sobrinas en casa de mi hermano y mi cuñada. Porque mi hermano ha sido educado por mi madre, y no se ha cuestionado como yo, y por mucho que intenta cambiar todo eso que recibimos lo tiene mucho más arraigado que lo que lo pueda tener yo. Y eso que ha tenido dos hijas, y ha tenido también que pelear con ello, pero es diferente.” (ET/T/140319/Guraso/1/Em)

Politiken zabalkundearen inguruan gurasoek aipatu zituzten kezkek 26. laburpen-laukian jaso dira.

## 26. laburpen-laukia

## Politiken zabalkuntza gurasoen iritziz

## Politiken zabalkuntza gurasoen iritziz

- Gurasoek ez dute erakundeen lana ezagutzen eta interesa dute familiei begirako politiken berri izateko, haiekin lankidetzaz ezinbestekoa delako.
- Egungo ikastetxeetan aukera berdintasuna eta biolentziaren prebentzioa lantzen dira bereziki, eta gurasoen arabera gizonen rola lanketa da heldu beharreko erronka berria.
- Hezkidetzaren lanketa zaharkituta geratu da askorentzat eta ikastetxeetako proiektuen zehar lerroa izanik hezitzaileen esku eta haien borondatearen arabera geratu da gai honen lanketa.

## 4.4.2.1. Hezkidetzaz: Definizioa

Hezkidetzaz definitzerakoan zailtasunak dituzte gurasoek. Denek dakite zeri buruz ari diren, baina gero definizio lausoak marrazten dituzte. Batzuentzat gaitardutako gai bat da, iraganean landutakoa, berdintasunarena, eta gehienek biolentzia matxistarekin identifikatzen dute, tratatu txarrekin. Aurreko atalean ere agertu den gaia da hau eta planetan helburu nagusietako batekin lotuta dagoena.

“*Cuando te dicen esa palabra dices... y eso qué es, porque yo ya no educo, sino coeduco... yo también pertenezco a una escuela de padres del instituto, y por ejemplo, a la hora de elegir los temas, ese no salió, salieron los típicos, los de toda la vida, pero la coeducación no salió. Y la (...) psicóloga (...) nos dijo que había un repunte de la violencia, y nos animo a que no estaría mal que cogiéramos uno de esos temas, del sexismo, la violencia, o el maltrato (...) Los padres (...) el tema de la coeducación, es un tema que no nos lo habíamos planteado, (...) ni se me había pasado por la cabeza, pues eso, estás pensando en la adolescencia, la autoestima, no sé qué, no sé cuántos... pero coeducación...*” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

“*A mí me pasa como a mi hija que (...) decía: ¡jo! ¡qué pesada otra vez viene esta tía!, ¡qué pelma...! y venga que las mujeres somos iguales, pues ¡claro!.. que no somos menos que somos iguales, pues claro... pero a estas alturas ¿me vas a venir a convencer que las mujeres somos iguales que los hombres?, pues, sí... Cuando nos vienen hablar de igualdad nos parecen las personas pelmas, pero mi entorno me dice que las cosas no están superadas.*” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

Berriro agertzen den beste gai bat gizonen rola lanketaren beharra da. Hau ere planetan agertzen den helburu nagusietako batekin lotura duena da, sexu/genero aniztasunarena, sexu/genero sistemak arautzen dituen genero identitateak berrikusteko beharrarekin lotzen baita. Feminismoak emakumeen rola egindako lanaren aurrean gizonen egin beharrekoa ikusten dute guraso batzuek, berdintasunera heltzeko bai emakumeek eta bai gizonen egin behar dutelako berrikusketa eta berregokitze bidea. Emakumeen rola berrikusketaren ondorioz berdintasunerako bidean emakumeek egindako lanean asertibotasuna, eta are gehiago, oldarkortasuna ikusi dutela diote, botere harremanaren orekatzean emakumeek gizonen ezaugarriak hartu dituztelakoan, eta negatiboki baloratzen dute aldaketa hau. Zailtasunak agertzen zaizkie honen aurrean, bi generoen arteko desoreka berritaz hartzen dute.

“Si yo incluso con mi hija (...) me encuentro perdida, porque yo he luchado por un tema que no sé cómo tengo que actuar ahora, con todo esto de los chicos y de las citas por internet, yo veo que en general son ellas las que llevan la voz cantante, les hemos dicho venga al poder, y nos encontramos con unas chicas que hacen mogollón de cosas (...) y ahora los que me preocupan son los chicos, que son los que no saben qué hacer. Igual, lo de la coeducación deberíamos también replantearlo para ayudar a que los chicos se recoquen y encuentren su sitio. (...) parece que nosotros hemos tenido muchos motivos por los que luchar y reivindicar y que los chicos se encuentran perdidos.” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

“Pero hay una edad ahora, de ESO, que las niñas están siendo agresivas con respecto a los niños a unos niveles... pero es que yo creo que se está entendiendo mal esto, parece que tenemos que darle la vuelta a la tortilla en todo, en mi empresa hay más mujeres fumadoras que hombres fumadores, y con las jóvenes, el tema de beber alcohol, e incluso robos, o agresiones... las mujeres se están subiendo al carro, pero en el peor de los sentidos, se están queriendo igualar en esos niveles, y la cosa no debería ir por ahí.” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

Honen ondorioz eta aurrekoarekin lotuta, berdintasuna ulertzeko modu desberdinei buruz ere hitz egiten dute. Asertibotasunez eta biolentziaz irudikatzen dute emakume gazteengan. Berdintasuna eta rolen aldaketaz, trukaketaz, iraultetaz identifikatzen dute portaera berr hau. Eta ez dituzte begi onez ikusten emakumeek lortutako aurrerapauso horiek, indarren iraulteta bezala interpretatzen baitituzte, generoen arteko botere harremana eta emakumeen kontrako diskriminazioa sexuz aldatzera joango balitz bezala.

“Además estamos caminando hacia una mal entendida igualdad. Vamos más a la parte más negativa de la igualdad. Las mujeres copiamos los modelos más masculinos para intentar igualarnos, caminamos hacia la aceptación de roles más violentos.” (ET/LO/140319/Guraso/1/Em)

#### 4.4.2.2. Hezkidetzaz: Ikastetxeen beharrak

Gurasoek ez dute esplizitatu ikastetxeek hezkidetzaz lantzeko behar dutena, gorago familiarekin lankidetzaz aipatzen dute eta gai eta kezka zehatzak mahaigaineratu dituzte. Modu argian adierazi duten beharra hurrengo da, emakume askeen erreferentziak behar direla aipatu dute, estereotipoak gainditzeko beharraz aritzean.

“No hay muchos modelos importantes de mujeres en los centros educativos. Hay que trabajar para quitar condicionamientos, para poder elegir desde la libertad. Aunque luego quizás se vea que es biológico, pero...” (ET/LO/140319/Guraso/1/Em)

### 4.4.2.3. Hezkidetzta: Ikastetxeetako egitasmoak

Ikastetxeek dituzten proiektuei buruz hitz egitean hezkidetzta zeharka lantzen dutela diote eta honen arriskuaz ohartzen dira, hau da, azkenean irakasleen borondatearen araberrako lanketa egiten dela diote.

“ Yo creo que se trabaja en general de forma transversal en los centros, o sea, se trabaja en todas las asignaturas, se trabaja ... depende de la implicación de cada centro y de cada profesor, se trabaja de una manera transversal que yo creo que está muy bien, pero que también corres el riesgo de que se diluya, y de que no se trabaje de una manera específica, que (...) queda un poco en manos de todo el profesorado del centro, al final no haya nadie que trabaje solo eso o que tome la iniciativa en esas cosas (...) A no ser que sean actividades específicas.” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

Oro har eskola ez dela hezkidetzaillea uste dute batzuek. Gorago esan bezala, batez ere Haur hezkuntzan lantzen dela esaten dute, gero materiek, irakasgaiek hartzen dutelako garrantzi handiena eta ikasleen emaitza onen helburuak. Era berean ahalik eta goizen hasi beharreko lanketa dela diote, DBHn agertzen diren bikotearenganako menpeko jarrera batzuk hasieratik saihestearren adibidez.

“ El modelo de escuela que tenemos no es coeducativo. Yo creo que en mi colegio en infantil (...) se lo curran mucho más, ya cuando empiezan en primaria, relajan mucho más la historia, pero en infantil, yo creo que van a por ello. Luego ya en primaria empiezan con materia y al final solo tienen una hora de tutoretza o dos a la semana y entonces, tampoco pueden currar mucha historia.” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

“ Pero es que claro, luego según van pasando los cursos y van mirando a la universidad, yo creo que es muy complicado, solo ven materia, materia y materia, y las notas, en cuanto les hablas de otra cosa...” (ET/T/140319/Guraso/2/Gi)

“ Yo lo que veo fundamental es trabajarlo desde infantil, porque si es cierto que luego llegan a la ESO y suceden cosas como (...) que llegan y dicen de su novio, ¡jo! ¡Fíjate cuántos mensajes me ha mandado! ¡jo, es que fíjate cuánto me quiere! ... ¡perdona!, eso no es querer, ahí te están controlando... pero ellas lo viven como con ilusión y eso es terrible, y cuanto antes se trabaje eso mucho mejor.” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

Lehen Hezkuntzan egiten den lanketari buruz ikasleen arteko kooperazioari esker uzta jasotzen ari dela dio guraso batek. Ikasleek kontzientzia maila bat badutela dio kontu batzuekin. Baina jazarpenaren gaia, adibidez, lanketa zaileko kontua dela dio. Isiltasun handia da goelako honen inguruan.

“ Mi percepción es que dentro del aula si es coeducativa. En educación primaria es cooperativo. Tienen 6 semanas en las que hacen grupos

*mezclando niños y niñas. Se crea una relación, un ambiente muy positivo en la clase. Por ejemplo, un problema de acoso hace años tuvo muy buena respuesta por parte de las familias y del centro. Salvo el tema del patio, dentro de la clase hay muy buena relación entre niños y niñas. Por ejemplo, con 7 años las niñas ya cuestionan temas que oyen, que las mujeres ganan menos...” (ET/LO/140319/Guraso/1/Em)*

Gurasoen definizioa hezkidetzari buruz hiru ideietan laburbildu daitezke (ikusi 27. laburpen-laukia).

## 27. laburpen-laukia

### Hezkidetza gurasoen iritziz

#### Hezkidetza gurasoen iritziz

- Hezkidetza zer den badakite gurasoek, baina definitzea, zehaztea, kostatzen zaie.
- Batzuentzat gaindituta dago eta beste batzuentzat biolentziaren prebentzioan datza honen lanketa ikastetxeetan.
- Berdintasuna ulertzeko modu desberdinak daude eta batzuek ez dituzte begi onez ikusten emakumeek emandako aurrerapausoak, gizon-emakumeen arteko botere harremanean indarren irauketa bezala interpretatzen baitituzte.

### 4.4.3. Eskolaren eredu hezkidetzaila

#### 4.4.3.1. Irakasleen rola

Irakasleek jokatzeko duten rol profesionalen inplikazio maila ezberdinak antzematen direla diote gurasoek. Inplikazio hau ikastetxetik ikastetxera alda daiteke, gelatik gelara, bai eta gaitik gaira ere. Hezkidetzaz ari garen honetan ere inplikazio maila ezberdinak daude aita-amen ustez. Hala, irakasleek ardura handiz jokatzeko dutela dioten iritzirik jaso dugu, irakasleen lanari aitorpena emanez.

“ *El profesorado se implica mucho en estos temas, y cada vez que sale un problema lo tratan*” (ET/LO/140319/Guraso/1/Em)

Hezitzaile profesionalak diren irakasleek rol erabakigarria jokatzeko dute. Alde horretatik, arestiko inplikazio maila ezberdinak gogoan, irakasleek hezkuntza sistemak dituen erronkak lortzen lagundu behar dute, hezkidetzaren helburu nagusiak barne. Hori dela eta, guraso batzuek adierazi dute irakasleengandik profesionaltasun pedagogikoa espero dutela, eta berdintasunean hezteko irakasleen eginkizun nagusietako bat dela.

“ *... del profesorado se espera algo más. ¿Cuál sería el rol? Educar en igualdad*” (ET/LO/140319/Guraso/1/Em)

#### 4.4.3.1.1. Irakasleen hizkuntza

Oro har irakasleek hizkuntza zaintzeko dutela aipatu dute aita-amek, (kalean ez bezala) hizkera ez sexista erabiltzeko ahaleginak egiten dituztela oharturik. Nolanahi ere, haien rol profesionala egoki betetzen ez duten irakasleak topa daitezke. Izan ere, eztabaida taldeetan

bildu dugunez, zenbait irakaslek ez dute bereizten gelan ari diren edo bestelako testuinguru informalago (ez-profesional) batean, eta jardun desegoki horiek ondorioak ekar ditzakete-la ohartarazi dute. Azken batean, hizkuntzari dagokionez ere, irakasleek profesionaltasunez jokatu beharra dutela azpimarratu dute.

“ *El profe no puede decir ciertas cosas que diría con sus amigos en el bar, ya que está delante de adolescentes. Yo creo que ahí tiene que controlar el lenguaje*” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

Hizkera sexistaren auzia agertu denean, gurasoak beti aritu dira gaztelaniaren kasuan; hau da, ez dugu Gasteizko hezkuntza sisteman nagusiagoa den euskararen inguruko aipamenik bildu. Hala, gaztelaniaren erabilera ustez sexista ahotan hartu dutelarik, maskulino generikoaren (o/a) kontuan zentratu da debatea, eta irakasle batzuek maskulino generikoa lasai erabiltzen dutela salatu dute aita-ama zenbaitzuek. Beste guraso batzuek, ordea, maskulino generikoa erabiltzea hezkidetzaren kontrakotzat jo behar ote den zalantza agertu dute, eta bestelako estrategia erretorikoak bilatzea nekagarria izan daitekeela esan dute.

#### 4.4.3.2. Familien rola

Esan dezagun kategoria hau izan dela denetan emankorrena, alde handiarekin. Izan ere, familiek familiez jardun dute bereziki eztabaida taldeetan, aldez aurretik ere espero zitekeen moduan. Jasotako emaitzen arabera, familia da edozertarako eredu: etxean egiten eta ikusten denak ondorio nabarmenak ditu seme-alaben heziketan. Familiek euren mundu-ikuskerara proiektatzen dute etengabe egunerokoan, ohartuta eta ohartu gabe. Alde horretatik, aldaketaren oinarria familia da: familietan gertatu behar da hezkuntza eredu aldaketa, jendartea benetan aldatuko bada.

“ *La base fundamental del cambio son las familias, y nos lo tenemos que crear*” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

Egungo familietan hainbat eredu ezberdin aurki daitezke, tradizionalagoak nahiz berritzaileagoak. Tradizionalagoak har daitezkeenen artean, hezkidetzaren aldarriek ez dute indar handirik; berritzaileagoak har daitezkeenen artean, aldiz, genero berdintasunean hezteko desioa nabaria da. Hala eta guztiz ere, euren burua azken familia hauen artean kokatzen duten gurasoek zenbait kontraesan suertatzen zaizkiela aipatu dute: mendez mendeko tradizio sexistak errotik ezabatzea oso zaila da eta, nahi gabe ere, oso barruan diraute oraintsu arteko moldeek eta edukiek.

“ *Es algo que lo tenemos muy dentro y nos traiciona*” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

Zernahi gisaz, familia batzuetan dena ez da beti bat, eta gurasoen arteko aldea nabarmena izaten da zenbaitetan, hezkidetzaren inguruko alderdiei dagokienez. Horrelakoetan, guraso batzuk harritu egin dira haien bikotekideek izandako jarrerekin edota isuritako komentarioekin etxean, seme-alabekin.

Gurasoek etxean zer-nola egiten duten aritu direlarik, zentzu komunaren aldarria jaso dugu. Nolabait esateko, kontzepzio teoriko landuagoak alde batera utzita, sinesmen pertsonal handia dute batzuek, etxeko lanetan eta kontuetan ere justizia egin beharra dagoela. Modu argi eta bidezko batean banatu behar dira zeregin komunak.

“ *Yo aplico el sentido común casero. ¿Cuál es ese? El de si barro yo, barre el padre, barre la niña y barre el niño*” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

Behin baino gehiagotan aipatu dute hezkidetzaren aldeko balizko aldaketaren eragin-eremua murrizta dela. Nolanahi ere, eta batzuetan zer-nola egin beharko litzatekeen zalantza agerutuagatik ere, hainbat aita-amak ahalegin pertsonalak egiteko hautu irmoa egina dutela aitortu dute. Esate baterako, ama batek azaldu du berak literatura unibertsaletik datozen “betiko” ipuin horiek (Edurnezuri, Mari Errauskin, Txano-gorritxo,...) moldatu izan dituela etxean konartzeko orduan, horretarako hainbat zailtasun izan baditu ere.

Neska-mutilen afektibitateaz eta agresibitateaz ari zirela, generoen inguruko estereotipoez gainera, bestelako faktore batzuk ere kontuan hartu behar direla adierazi dute. Hartara, familiaren egitura bera erabakigarria izaten da seme-alaben jokamoldeetan.

“ *El tema de la afectividad dependerá también de como están las familias: no es lo mismo una familia estable que una que se está descomponiendo o esté ya descompuesta*” (ET/T/140319/Guraso/1/Gi)

#### 4.4.3.3. Familien parte-hartzea

Hezkidetzarekiko ardua handia aitortua duten zenbait aita-amek desio argi bat adierazi dute: Eskolak ere norabide berean jardutea bere eginbehar hezigarrian. Hala ez gertatzera, etxean egiten den hezkidetzaren aldeko lanak ez du segida egokirik izango ikastetxean, eta familiaren eremuan gauzatzen diren saiakerak indargabetuta edo, areago, ezerezean gera daitezke.

“ *Me interesaría que la escuela llevara la misma línea que llevo yo*” (ET/T/140319/Guraso/1/Em)

Era berean, ikastetxeetan egiten diren ahaleginek familien laguntza eta babesa izan behar dituzte, hezkuntza komunitateak aurrera joko badu. Hala ere, badirudi familiak oso lanpetuta daudela eskuarki eta, beraz, ez dutela gehiegi parte hartzen komunitate horretan. Gurasoek esana duten legez, familien parte hartze apal orokorrak gora egiten du batez ere arazoak agertzen hasten direnean. Nolanbait, hainbat familiek esku hartzen dute ageriko problemen kasuan bakarrik, egoerak edota ikastetxeak berak hala eskaturik, eta ez eguneroko martxan.

“ *Como estamos muy preocupados, ni nos preocupamos. Cuando existen algún problema nos acercamos*” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

#### 4.4.3.4. Familien formazioa

Familiak oso lanpetuta daudela eta, ez bide dago gurasoak formatzeko baldintza egokirik. Gainera, gurasoek berek jakitera eman dutenez, hezkidetzaren gaineko kezka oso txikia da gaur egunean eta, hortaz, generoen inguruko gaietan prestakuntza jasotzeko eskaria urria da, bai eta ikastetxeetan antolatzen diren guraso eskoletan ere. Badirudi momentu konplexu batean bizi garela eta gaurko aita-amen kezka nagusiak beste batzuk direla. Arestian aipatutako egoera horretan, familien formazioa benetan auzi konplikatu dela uste dute.

“ *La formación de las familias, eso es difícilísimo*” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

#### 4.4.3.5. Eskolaren errealitatea

Familien rolen atzetik, honako kategoria hau izan da bigarren emankorrena eztabaida saioetan. Oro har, eskolaren errealitatea errealitate ugariz osatua dagoela nabarmendu dute, eta

hezkuntza sisteman alde handiak egon daitezkeela agerian utzi dute. Errealitate ñabar horretan hainbat kontraesan eta paradoxa suertatzen dira, maiz ohartzen ez bagara ere. Esate baterako, hezkidetzaren gaineko kezka txikiaren ondo-ondoan daude genero bortizkeriak indar batean dirauela dioten datuak eta albisteak.

“ *La demanda en cuestiones de género no es muy grande, y sin embargo, cada día se ve en las noticias historias relacionadas con la violencia de género*” (ET/LO/140319/Guraso/2/Em)

Eskolaren errealitatearen konplexutasuna gelatik gelara suertatzen diren aldeetan mamitzen da baita ere. Gelen araberako errealitatea hartu dute hizpide gurasoek, eta, hala, seme-alaba bat baino gehiago dutenek oso egoera ezberdina ezagutu dute bertatik bertara, hezkidetzaren aldetik. Hainbat faktorek esku hartzen dute gela batean arazorik gerta (ez) dadin. Horiek behar bezala aztertzea zaila izanik ere, aldi berean egoera ugari gerta daitezkeela onartu dute.

“ *Yo creo que depende mucho de las clases. En la clase de mi hijo mayor no había ningún problema. Sin embargo, el problema yo lo he visto en la clase de mi hijo el pequeño*” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

Gelen araberako errealitate horretan, ez da jazarpen edo eraso gehiegirik gertatzen, nahiz eta hainbat kasu konkretu aipatu dituzten. Esan daiteke, gurasoen jardunean jaso duguna aintzat harturik, jazarpen problemak bakanak ohi direla gehienetan. Hala eta guztiz, gelaren batean arazo larriak ere gertatzen dela adierazi dute eta, beraz, oso kasu kezagarriak direla.

Egungo Eskolaren errealitatea zein den hobeto ezagutu ahal izateko, ikuspegi orokorra esku-ratzeko zailtasunaz eta komenigarritasunaz mintzatu dira, norberaren kasuistikak alde batera utzita. Beste arlo batzuetan gertatu den bezala, hezkidetzaren arloan ere aldaketak egon izan dira azken 20-30 urteotan, eta, printzipioz, aldaketek funts handiagoa hartzen segituko dute hurrengoetan ere. Nolanahi ere, aldaketa sakonagoak eta estrukturalak txertatzeko denbora beharrezkoa dela aipatu dute; mendeetako tradizioa dago oinarrian eta, alde horretatik, ezin da urte gutxitan ehundaka urtetako egoera hori irauli. Aurrera egiteko asmoz, erdiesteko moduko helmuga apalak ezartzearen alde agertu dira, bidea urratsez urrats ibiltzearen alde.

“ *Hay que ir poniéndose metitas. Pero necesitamos tiempo, que tampoco nos lo podemos cmoer todo en una sola generación*” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

Ikastetxeetan aritzen diren hezitzaile asko eta asko emakumeak dira. Haur Hezkuntzaren eta-paren kasuan datuak ezin argiago mintzo dira: ume txikien zaintza eta heziketa emakumeen afera da, funtsean. Sarri askotan gertatzen denez, Eskolaren ispiluan islatzen da jendartea, eta zenbait gurasok Haur Hezkuntzako irakasle gizonak mesfidantzaz hartzen omen dituzte, hain zuzen ere, gizonetakoak direlako, ume txikiak behar bezala artatzeko ez-gai ikusiak.

“ *En Educacion Infantil la mayoría del profesorado es mujer, hay pocos hombres. Un día hablando entre las madres sobre que les había tocado un profesor en la gela de 2 años comentaban: no se, ya veremos como sale*” (ET/T/140319/Guraso/1/Em)

#### 4.4.3.6. Atzerapausoak

Aldaketak egunerokoan finkatuta ikusteaz jardun dute behin baino gehiagotan, bai eta horiek jendartean txertatzeko erritmo motelaz ere. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna

dagoeneko lortua denaren ideia ez dela batere lagungarria agertu dute aita-amek. Izan ere, gure jendartean batzuetan berdintasunaren itxura eta sentsazioak dauden arren, oraindik ezberdintasun handiak daudela aitortu dute. Hain zuzen ere, formazko berdintasun hori atzerapauso nagusia gerta daiteke egunero suertatzen diren desorekak konpontzeko, baldin eta arazorik ez dagoela pentsatzen bada ere.

“*Yo pensaba que eso ya se había acabado, pero cuando oyes en la tele que mujeres y hombres no cobran igual, me quedo verde*” (ET/T/140319/Guraso/2/Gi)

#### 4.4.3.7. Ikasleak orientatzea

Maiz, ikastetxeetan ikasleentzako orientabide egokirik ez dagoela aipatu dute. Badirudi, irakasleekin egin eta egiten ari den bezala, orientatzaileekin ere antzeko zerbait egin beharko litzatekeela, gurasoen iritziz. Hartara, erakundeek heldu beharreko erronka bat aipatu dute: ikastetxeetako orientatzaileak formatzea, hezkidetzaren aldeko irizpideak euren aholkularitza-jardunean txerta ditzaten eta, hala, ikasleek benetan ikasi nahi dutena ikasteko aukera erreala izan dezaten, nesken kasuan bereziki.

“*Se deberían trabajar en los centros educativos otros criterios diferentes de los de las familias, para que puedan elegir, habría que tener más cuidado con las chicas que con los chicos y potenciar que elijan lo que les gusta*” (ET/T/140319/Guraso/1/Gi)

Ikasleak ondo orientatzeko, baina, badago bestelako arazorik: ikasketen bukaeran inoiz iritsiko den lan-mundua. Izan ere, hezkuntza sisteman ikasleei ematen zaizkien orientabideak gorabehera, lan-mundua moldatu ezean, oso zaila gerta daiteke hezkidetzan aurrera egitea, hots, orientabideak eta errealtateak bat egin beharko lukete nolabait. Munta handiko problematikatzat hartu dute gurasoek, lan-munduan ohitura sexistak indar betean daudelakoan.

“*Yo creo que pueden elegir cualquier estudio. Pero si luego, porque el mundo laboral es lo que es, no la contrata nadie... porque luego en el mundo laboral todo está muy marcado*” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

Gurasoen ustetan, lanbideei buruz eskoletan ematen diren ereduak ez dira oso hezkidetzai-leak (ikusi 28. laburpen-laukia).

#### 28. laburpen-laukia

##### **Ikastetxeen ere du hezkidetzaila gurasoen ustez**

##### **Ikastetxeen ere du hezkidetzaila gurasoen ustez**

- Irakasleen rola erabakigarria da, hezkidetzaren aldeko pedagogia bermatuko bada
- Aldaketaren oinarria familia da: etxean gertatu behar da hezkuntza eredu aldaketa, jendartea benetan aldatzeko
- Hezkidetzaren alorrean, beste alor batzuetan bezalaxe, ñabarra da oso eskolaren errealtatea: paradoxak eta kontraesanak ez dira gutxi
- Ikastetxeetako orientatzaileek hezkidetzaren inguruko prestakuntza berezia jasotzea komeniko litzateke

#### 4.4.4. Genero rolen adierazpen eta elkarreraginak

Kapitulu honetan azalduko dira zer nolako diferentziak ikusten dituzten gurasoek nesken eta mutilen arteko portaeretan, harremanetan, eta sare sozialetan eta baita ere zer nolako diferentziak dauden lanbide-hautaketetan generoa dela eta.

##### 4.4.4.1. Nesken eta mutilen portaera-diferentziak

Hau da azpikategoria emankorrena. Neska-mutilak desberdin portatzen dira eta rolen banaketaren arabera jokatzeko dituzte euren rolak. Gurasoek hau argi ikusten dute. Baita honen oinarrian dagoen hezkuntzaren erantzukizuna ere. Rol femenino eta maskulinoak ikasi egiten direla diote. Horren ondorioz, hezkuntza zaintzea oso garrantzitsua dela esatean dutenak bat datoz.

“*Hay diferencias innatas[entre hombres y mujeres], pero el 95% es el entorno. Las creencias, la educación... El poder del sistema educativo es demoledor. Condiciona el futuro, es decisivo. No se le da toda la relevancia que tiene a la educación. Es la formación de la persona para el futuro. La educación debería posibilitar a los niños conocer otras cosas, ofrecer otras opciones. Cuando eres niño se forman las bases de la manera de pensar, de mayor es más difícil cambiar estas concepciones. Tiene todo tan asumido que te cuesta cambiar. La mayoría de lo aprendido es cultural, aprendido.*” (ET/LO/140319/Guraso/1/Em)

“*Somos producto de lo que hemos vivido. Es una tarea ardua. El prevenir comportamientos. Los chicos deberían poder llorar, expresar sentimientos. Deberían tener la posibilidad de cuidar a los demás, los afectos...*” (ET/LO/140319/Guraso/1/Em)

“*A medida que pasa el tiempo los chicos van perdiendo la afectividad no dan besos, ni abrazos, van cogiendo distancia. Además ven modelos de cómo se gestiona la afectividad entre los hombres tipo saludos entre ellos “hola, cabrón” dándose un golpe, sin embargo entre mujeres no se dice “hola, zorra”. Las chicas tienen otros modelos diferentes. Se van diferenciando modelos para expresar la afectividad, las emociones.*” (ET/LO/140319/Guraso/1/Em)

Rol banaketa sexista etxean edo etxetik kanpo ikas dezakete. Guraso hauen arabera heziketa bera eman diete semei eta alabei eta gurasoek etxeko lanak ondo banatu dituzte eredu hezkidetzaila emanaz. Hau horrela izanda ere, mutilek futboleko jarratzen dute hori delako haiei egokitzen zaiena, nahiz eta gustuko ez izan. Eta neska batek futboleko egiten badu, genero arauak urratzen baditu bullyinga dator, zigorra, estigma soziala. Horregatik etxeko lanen banaketa eta gurasoek ematen duten eredu ezinbestekoa da. Besteak beste aipatzen dute emakumeek denbora gehiago izateko lanak banatu behar direla, bai etxean eta baita ikasgelan ere. Eta honekin batera kanpo eraginaren ondorioz mutilek futboleko egin eta sozialki zigortuak direla neska-lagunak izatekotan eta honi etxean kontra egiten saiatzen dira batzuk.

“*Y eso que también será diferente tener hijos que tener hijas, o tener por ejemplo un chico y una chica. Yo no sé cómo es eso de educar a una niña.*” (ET/T/140319/Guraso/2/Gi)

*“Mis hijos han tenido siempre la misma educación. Mis hijos por la noche siempre han llamado a aita, porque era el que se encargaba de las noches, y jamás han llamado a amatxu, y siempre les dio de comer su padre, porque en nuestro reparto de tareas el encargado de las comidas y de las noches es él, por nuestros horarios. También es cierto, que yo le he oído decir a mi suegra, que ella lo ha educado como si fuera una niña, he tenido una suerte increíble (todas se ríen y dicen ijo maja, qué suerte!). Es que eso te pones a pensarlo y es una diferencia increíble, claro, yo no me he tenido que pelear con él ni la mitad de lo que mis cuñadas se han tenido que pelear con mis hermanos, y yo no miro mucho más lejos ¿eh? Y eso para mí es un avance increíble, bueno nosotros también funcionamos así porque tenemos unos turnos muy diferentes de trabajo y nos hemos repartido las cosas.” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)*

*“Claro, todavía está pasando esto, que hay falta de repartos en las casa, y si partimos de que eso está hecho, pero yo creo que eso es lo que falta en la mayor parte de las casas, y ¡claro! Si no partimos de ahí, ya todo lo demás cojea, ¿o no?” (ET/T/140319/Guraso/2/Gi)*

*“Pero lo que luego si que es cierto, es que en el comportamiento de ellos, yo sigo viendo a mi hijo cómo se comporta en el patio, que luego su aspecto físico es muy, es delgadillo, es rubillo, y es que no le pega nada jugar a fútbol y es más, es que no le gusta y tiene que jugar porque si no se encuentra aislado en el grupo de clase. (se oye por debajo al aita que dice porque si no se queda solo, claro) La niña es diferente, la niña no juega al fútbol, porque además es que no le gusta sin más, pero luego si que veo fuera esa diferencia (...) y la traen a casa. Y yo le digo, oye pues si no quieres jugar a fútbol... pero claro está muy castigado que un niño juegue con niñas. Y claro, eso cuando tú eres mayor está muy bien, pero cuando lo está viviendo tu hijo, se te crean muchas dudas de cómo actuar para hacerlo de una forma correcta.” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)*

*“Y ¿si es la niña la que juega al balón? Son capaces de, de... A mí me pasa es mi hija la que juega al balón, (todos a la vez) y reciben un bullying que es terrible, en Abendaño hubo un caso el año pasado, y bueno tuvo que intervenir dirección porque era de juntarse unos niños y claro a la cabeza un líder de niños en edades muy tempranas estoy hablando de 7 años, y a la pobre niña le acorralaban y le daban caña, no es que le pegaran, pero le daban.” (ET/T/140319/Guraso/1/Em)*

Topiko eta estereotipoetan jausten gara etengabe, adibidez emakumea zarelako ezingo duzula ezer egin esatea, edo mutil bati barre egitea genero araua ez betetzeagatik. Gurasoek seme-alabak maite behar dituzte direnak direla, hortik abiatu behar da hezkidetza, errealitate anitza onartzetik.

**“***Yo tengo 3 hijas y 2 hijos, y comentan cosas que son increíbles, cosas como que yo no voy a poder hacer nada porque soy mujer. Y a veces, mi*

*pareja cae también en esos tópicos. A mi hijo hubo un momento que chicos y chicas se reían de él, y ahora no lo verbaliza jamás, les tienes que querer a tus hijos por lo que son, para entrara en temas de igualdad, las chicas no nos lo creemos.”* (ET/LO/140319/Guraso/1/Em)

Aitzitik asmo honi kontra egiten dio errealitateak. Emakume eta gizonen rol desberdinduen araberako portaeren artean afektibitatea eta oldarkortasunari erreparatu zaie bereziki eztabaida taldeotan. Generoak badu zeresana afektibitate eta oldarkortasun kontuetan. Nesken artean askoz ohikoagoak dira besarkadak eta mutilen artean boterearekin lotutako oldarkortasuna. Besteak beste, estereotipoekin zerikusia du azken honek, mutilak zakarrak eta astakiloak direla esaten duenarekin zehazki. Hala ere guraso batzuek nabaritu dute oldarkortasuna deitu dioten portaera berria neskengan, asertibotasuna edo ahalduntzea izan daitekeena. Guraso batzuentzat neska hauek mutilen ezaugarri negatibo batzuk hartu dituzte berdintasuna “txarto” ulertzearen ondorioz eta arriskutzat dute portaera aldaketa hau. Bistan denez, azpikategoria honetan ere agertzen da nesken asertibotasun eta botere-hartzearekiko mesfidantza.

“*El género juega un papel importante en las manifestaciones de agresividad, de afectividad, sin duda.”* (ET/T/140319/Guraso/1/Gi)

*“Yo creo que en el patio se ve claramente, yo recuerdo a niñas de la clase de mi hija mayor, que se encontraban en el patio y se daban un abrazo, y ves a los chicos y se ipá, pá! Se dan un par de hostias... es un poco esa forma de relacionarse que a los chicos pocas veces les ves abrazarse.”*

(ET/T/140319/Guraso/1/Em)

*“Lo que pasa es que a veces se cae en los estereotipos, y se dan por hecho cosas como que ... los niños son unos brutos... o las niñas son unas pe-dorras... (...) esa separación existe. No nos damos cuenta pero... ¡uy! Es que a mí esa pregunta me cuesta. Es que yo creo que ahora también hay una gran agresividad unida al poder, al rol tradicional pero yo creo que en estos momentos también hay una agresividad de las chicas hacia los chicos... y sobre todo más psicológica que física, ... quizá... y un abordaje, miedo y el pobre cuitadillo... porque en esas edades se nota como que hay un año o dos de diferencia en las niñas. Yo no lo he visto, pero sí que dijo la profesora que se da el hecho de que una niña dice, yo lo quiero, y va directa. Eso sí que responde un poco más a lo que somos nosotras, para otras cosas y lo estamos llevando a ese terreno...”* (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

*“No pero eso también ha cambiado, antes eran los chicos, los que iban a dónde las chicas, en nuestros tiempos éramos los que teníamos que ir, ¿o no?”* (ET/T/140319/Guraso/2/Gi)

#### 4.4.4.2 Neska-mutilen diskurtso-diferentziak

Hitz egiteko moduari ere begiratu zioten gurasoek eztabaida taldeetan eta parekidetasunerako bidean duen garrantzia aitortu zioten arlo honi. Arazoa ikusten da gehienetan, ez beti,

eta onartzen dute batzuetan diskriminazio diskurtsibo hori erreproduzitzen dutela, baina ez dute gustuko irtenbiderik topatzen eta bai kanpotik etorritako erresistentzia eta aurkakotasun edo etsaitasuna. Honez gain, gai honek urte askotan izan duen garapenaren ondorioz “astuna” iruditzen zaie batzuei eta formula magikoaren zain geratzen dira bitartean, ezer egin gabe edo zalantzetan murgilduta.

“ *iHombre! Yo los ‘los’ y las ‘las’ desde hoy mismo. (todos, ja,ja, ja!!!!!!) Y al hablar me va a costar, pero lo voy a intentar. Yo no me considero machista y creo que el lenguaje no es neutro, ¿eh? iojo!,... pero lo del ‘los/las’ como que me cuesta. Otras cosas creo que si hay que luchar contra ellas, pero estar ahí hablando continuamente... Yo si decimos todos, para mí el ‘todos’ en castellano es un neutro, y quiere decir todos y todas, si estamos hombres y mujeres, yo no me siento ofendida. Yo lo considero como neutro de toda la vida cuando estamos chicas y chicos: todos. Pero es que igual no es tan neutro el ‘todos’... Yo si la costumbre fuera decir todas, pues a lo mejor me acostumbraría a decir todas, pero lo que me cuesta decir es: ¿todos y todas estamos de acuerdo? En la medida que tu digas todas y todos, y te pases tres años diciéndolo, lo raro te parecerá que no se diga todas. No a mí me cuesta, (...) aquello de queridos queridas padres madres de los alumnos alumnas... ¡ostras! Esto ¿qué es?... ¿ya saludarás?.. Porque claro luego le quedaba el rector, el representante de no sé quién. A mí eso, me resulta pesado. Pues mira, yo a quién más se lo he oído decir es a un representante político, que seguro que estamos pensando en el mismo, y a mí me encantaba oírsele... Pues a mí me resulta pesado, y os digo que creo que el lenguaje no es neutro. Y llevarlo al extremo ¿no es un poco radical...? Es que venimos de un extremo (se ríen todos), ahora tenemos que intentar dejarlo en el medio. A mí por ejemplo la cuestión del lenguaje, me parece importantísima. Y creo que es bastante más fácil para que la transmitamos a nuestros hijos e hijas de lo que pensamos, bastante más fácil.” (ET/T/140319/Guraso/2/Emk)*

Gai honi buruz hitz egitean agertu ohi den polemika agertu da hemen ere, gaztelania erabiltzean genero maskulino orokortzailea saihesteko estrategiekin adostasun eza eta deserosotasuna. Gainera, rol desberdintasunei lotutako hitz diskriminatzaileak ere argitara atera ziren.

“ *Bueno, yo soy implacable, y claro mi hijo desde pequeños decía chicos, chicas, porque ha aprendido desde casa que cuando vamos hombre y mujeres, hay que decir chico, chicas. Y decía en el patio: ¡eh, chico, chicas! Y parecía repelente, y me daba igual, aunque ahora no lo diga ya nunca jamás. Y ahora dice que somos todos chicos. Y yo le digo: ¿ah, sí, te parece? ¿yo también soy un chico? Y entonces nos reímos... pero a mí lo que más pena me da es que no nos lo creemos, y lo veo en casa y lo veo en el trabajo, y si quieres trabajar sobre ello, te lo tienes que creer. Hace poco cambie de puesto de trabajo y a un compañero le han asignado el tema de igualdad y dice: ¡jo! ¡qué rollo! Porque tenía que asistir a una formación y a unas reuniones... y decía claro es que a partir de ahora todo será euskara-castellano, castellano-euskara, chicos-chicas,*

*personas, personas, (...). Y si la persona de llevar eso a la práctica en una entidad pública tiene esa actitud, y no se lo cree, difícilmente lo va a trabajar, porque si no te lo crees no puedes transmitir ilusión, ni puedes poner toda la carne en el asador...” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)*

*“El otro día estábamos haciendo una historia en el colegio y le pasé un escrito a una compañera de la escuela de padres, y me lo devuelve escrito, mira te he corregido algunas cosas, Los/las... todo barras, y yo dije ¿pero qué es esto?, y luego lo leí, y pensé, claro, es que me tengo que acostumbrar. Pero alargar la historia poniendo los dos géneros, al principio cuando me lo pasó ella con los dos géneros escrito me pareció un coñazo, claro según nos vayamos dando cuenta de eso nos pasará lo contrario.” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)*

*“Yo si puedo sigo siendo insistente con ellos, uso el genérico o los y las, y eso que se llevan, porque en la medida que ellos lo normalicen no dirán: ¡Jo, qué coñazo! con esto de poner los, las, no se soluciona todo.” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)*

*“El otro día comenzaron con los asistentes a esta reunión... yo no me sentía excluida porque dijeron los...” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)*

*“No y antes no teníamos que sentirnos excluidas porque dijéramos todos y fuéramos todo mujeres y ahora quiero sentirme excluida y me siento excluida porque podemos decir personas, no tengo porqué decir los alumnos. En general ¿cuántos profesores hablan en genérico?... muy poquitos... y eso al final deja poso, deja unos trazos en la educación de las criaturas. En la medida que lo normalizas te llama la atención lo contrario, y eso lo he conseguido yo con mi pareja, ya que trabaja también en un sitio público (...) y ahora lo hemos conseguido, en todos los textos que tiene que hacer ahora lo hace. Está, claro que los cambios deben ser poco a poco. En general, hablar en igualdad es uno de los retos para el profesorado, y en eso se necesita formación, y una falta de hablar en igualdad. Dí un curso hace poco en el que había 14 chicas y un chico, empecé a hablar en femenino, y a los tres segundos el chico me dice ¡oye que estoy yo aquí! Y le dije ya pero somos más chicas, cuando es al contrario, quizá nadie hubiera dicho nada, pero en este caso, me lo dijo, y me encantó que me lo dijera, porque les ayudó a entender. Cuando ellos están en minoría y utilizas el femenino, enseguida un chico te dice que está aquí, y sin embargo, nosotras hemos estado aguantado siempre lo mismo, y no se nos ha ocurrido quejarnos.” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)*

*“Pero nos pillamos a nosotras mismas, delante de nuestros hijos e hijas decimos: mi marido me ayuda, a mí no me ayuda nadie, es de los dos, y es eso lo que está dejando un poso que es muy peligroso. (...) ese lenguaje esta al cabo de la calle, mi marido no me ha podido ayudar, no me ha*

*recogido al pequeño, y por eso no he podido llegar, eso se da continuamente.”* (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

*“También están los términos que usamos en casa: mi rey, mi princesa...”*  
(ET/LO/140319/Guraso/1/Em)

Hala eta guztiz ere badira gurasoen artean kontzientzia dutenak eta honetan sinisten dutenak. Izan ere badaude ere itxaropena eta ikuspegi baikorra dutenak gai honen etorkizunari begira.

“*¿Pero tú crees que arreglando el lenguaje se consigue igualdad? No solo, pero es una de las cosas más fáciles para poder transmitir a las generaciones jóvenes... y no sé me tendrían que explicar otro tipo de acciones, otro tipo de soluciones... porque yo quiero que me traten como mujer, y yo cuando oigo personas, hombres y alumnas, me siento estupenda.”*  
(ET/T/140319/Guraso/2/GietaEm)

*“A ver...eso es como todos los hábitos, una vez que coges el hábito, no te cuesta nada y me imagino que con el lenguaje ocurre lo mismo, o que te cuesta dos días, o cinco años, pero bueno...”* (ET/T/140319/Guraso/1/Em)

*“Bueno, pero también costó mucho empezar a reciclar, y ahora es algo automático, es un hábito supongo que pasaría lo mismo con el lenguaje.”*  
(ET/LO/140319/Guraso/1/Gi)

#### 4.4.4.3. Lanbide hautaketak

Seme-alabek etorkizuneko lanbidea hautatzerakoan ere oso argi ikusten dute gurasoek rolen arteko banaketa, lanbide maskulinoak eta lanbide femeninoak daude oraindik. Eta honen aurrean agertzen duten kezka haien baldintzapenarena da. Hau da, zenbateraino uzten dieten libreki benetan gustuko dutena aukeratzeko eta zenbateraino proiektatzeko duten euren umeengan haien itxaropen eta aurreiritziak lanbidearen aukeraketa baldintzatuz.

“*Yo creo que les dirigimos en todo, y que intervenimos en sus elecciones... (Aita por debajo, ¿sí? Yo no creo...) yo soy sorda y quería que estudiaran música y los dos han estudiado música y los dos son músicos. [su padre es músico] pero les puse yo a estudiar música, yo sí que tenía claro que no lo iban a hacer si ellos no querían, pero yo soy sorda y no lo pude hacer y me encanta... eso sí que no es porque sean mujer o hombre. Y condicionamos en la manera que nos dejan. Si ella viene y me dice que quiere ser médica, bueno... pero si me dice que quiere ser fontanera, eso ya me gusta menos, primero porque nos rebaja un poco las expectativas que tenemos de ella, y después, porque si es niña ¡fíjate! Te dice que quiere estudiar eso y no les escuchas, y aunque en bachiller ya tienen sus propios criterios, seguimos dirigiéndoles hacia donde los padres y las madres creemos que pensamos que hagan (aita y ama4, se extraña con cada comentario y sueltan expresiones sueltas todo el rato por debajo, ¿sí? ¿tú crees?...).”* (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

*“Hombre, yo creo que en las carreras o profesiones que has comentado, que son de ciencias, yo creo que son un poco más asexuadas, pero si te viene tu hija un día y te dice que quiere ser mecánico de automóviles... verás como tú, la mayor parte de las familias nos asustaríamos un poco. Yo creo que si, yo creo que la profesión de albañilería no está muy feminizada, y no estoy despreciando para nada la profesión de fontanería (...) de hecho el ayuntamiento tiene un programa de “elige tu profesión sin género” (...) que se está llevando por los colegios y que se está promocionando desde el departamento de promoción económica, yo trabajaba en ese momento ahí.... Y yo eso lo hablo a nivel general, y las estadísticas son abrumadoras, porque hay profesiones de mujeres y de hombres. Incluso hay familias que en un momento son ellos, los que deciden qué estudia el niño, no sé y como tenemos escasez económica...”* (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

*“Yo lo veo por ejemplo en mi casa, como hijos, que somos un chico y una chica, y nos animaron a estudiar a los dos, no le animaron más a estudiar a mi hermano que a mí, y yo creo que no sé que habrá familias... pero yo no sé si en la próxima generación quedará también alguna familia, pero eso es tan... Está a la orden del día.”* (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

Honi gehitu behar zaio lan-merkatuan sartzean zeintzuk izango diren lanean hasteko aukerak lanbide bat ala bestea aukeratzekoan eta jendartean nolako harrera izango duen bere aukerak genero arauak urratzen baditu. Baina gai honetan ere etorkizunerako itxaropena dute gurasoek, beren seme-alabei beraiei egokitu zitzaien egoera baino hobea bizi dutela uste dute eta gustuaren araberako hautaketa posible dela, ingurunearen eraginpean egingakoa bada ere.

“*A mi me gustaría que les gustara, que va a ser algo que vas a hacer durante el resto de tu vida, y que lo vas a tener que hacer a gusto. No meterles en una cosa, que me da igual lo coeducativo que sea o no, que me da igual que sea muy masculino, muy femenino, que vaya a favor de la sociedad o muy en contra...”* (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

*“Y antes se hacía lo que decían los padres, y sin embargo mi padre estaba en desacuerdo con lo que yo quería hacer, y sin embargo hice lo que yo pensé. Y mi padre que era abogado y quería que alguno hubiéramos hecho abogacía, pues nadie hicimos abogacía, cada uno hizo lo que quiso...”* (ET/T/140319/Guraso/2/Gi)

*“Bueno... eso es un ejemplo concreto, pero lo que yo he vivido es otro... yo no pude estudiar, porque primero tenían que estudiar mis hermanos, porque según su planteamiento ellos eran los que tenían que sacar a sus familias adelante. Yo con el tiempo he llegado a reconciliarme con esto que me pasó de pequeña, porque al final, analizamos y dices... bueno, pero ves que no es así, que hay una serie de cosas que están ahí.”* (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

*“Yo no veo grandes problemas, ni grandes diferencias, mi hija por ejemplo ahora está eligiendo las materias que va a coger en 1º de bachillerato, está pensando qué va a hacer, qué no va a hacer, nos dijo que iba a hacer biología, nos echamos las manos a la cabeza, y ahora parece que dice que quiere hacer veterinaria, pues yo no sé si veterinaria es una carrera femenina o masculina o de las dos, pero yo pienso que le puede ir bien, luego depende, si piensas que vas a trabajar con chiguaguas o con caballos, ¿no? Tiene una amiga que quiere hacer ingeniería, en su familia son todos ingenieros.” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)*

#### 4.4.4.4 Sare sozialak eta hedabideak

Pantailetatik ere sexu/genero sistema sartzen da etxeetan. Sare sozialei buruz hitz egite-rakoan hauetan jasotzen dituzten mezuak kontrolatzeko zailtasuna eta honek eragiten dien kezka adierazi dute gurasoek. Oso sexistak eta oso bortitzak dira bertan dituzten ereduak eta harreman motak eta gurasoek ez dakite nola jokatu honen aurrean.

“*Con el móvil acceden a un mundo difícil de controlar, es muy complicado pero deberíamos trabajar con esto. Internet manda unos mensajes terribles, y sobre qué es el cuerpo de la mujer, habría que explicar a la juventud que la mujer no tiene porque aparecer de escaparate al lado de un coche caro. Pero todo esto da para mucho y yo tengo muchas dudas.” (ET/LO/140319/Guraso/1/Em)*

Telebistari dagokionez argiago dute jokatzeko modua. Seme-alabei ez diete uzten saio batzuk ikusten eta beste batzuk haiekin ikusten dituzte, filtro lana ahalik eta ondoen egiteko, hausnar-ketara eta ikuspegi kritikora bideratzeko ahal duten neurrian. Behintzat, azken hau egitearen beharra aipatzen dute, gero egunerokoan gehiago ala gutxiago betetzen duten arren.

“*Pero tú está viendo el programa de ‘Aquí no hay quién viva’, es un cachondeo, pero es un cachondeo durísimo, y hay cantidad de chavalillos que lo están viendo... y no saben cortarlo... y es un humor patético y muy pernicioso.” (ET/T/140319/Guraso/2/Gi)*

*“Esa es una de las cosas para las que quizá yo no les estoy preparando, porque yo hasta los domingos les tengo prohibido ver la tele, porque hay que estudiar, y sí que es cierto que el fin de semana todas estas cosas las descontrolas un poco, les echamos una ojeada, pero deberíamos estar un poco más encima de ellos.” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)*

*“En la televisión cada vez se ven más noticias de violencia de género, y en la manera que lo normalizas, lo cotidianizas, pierde sentido y valor, y parece que es otra noticia más, ya que oímos casi todos los días algún caso, y no digo que mis hijos vean eso como algo normal, y yo intento comentarlo.” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)*

*“Yo ya solo veo deportes, porque cada vez que veo las noticias me deprimó, pongo el telediario y muchas veces digo, ¿para qué? Si no veo más que desgracias.” (ET/T/140319/Guraso/2/Gi)*

*“Viendo el fútbol también te deprimirás ¿no?... (risas) porque la imagen que proyecta el deporte es muy masculina, ya habrá algún equipo de chicas, pero en general, lo que mueve dinerito es el fútbol masculino, y también hay algún equipo de chicas de baloncesto, pero lo que se televisa en la tele es masculino.”* (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

## 29. laburpen-laukia

### Gazteen arteko interakzioak gurasoen ustez

#### Gazteen arteko interakzioak gurasoen ustez

- Rol femenino eta maskulinoak ikasi egiten direnez hezkuntzaren erantzukizuna oso handia da, bai eskolan bai etxean.
- Haurrek eta gazteek genero arauak betetzen jarraitzen dute, eta hauek urratzen dituzten salbuespenek bullyinga, zigorra eta estigma jasotzen dute.
- Topiko eta estereotipoetan jausten gara etengabe, horregatik, helduek eredu hezkidetzaileak eman behar dituzte eta errealtatea anitza dela onartu.
- Estereotipoei dagokienez, afektibitatea eta oldarkortasuna oraindik oso atxikita daude rol femenino eta maskulinoei, hurrenez hurren, eta erresistentziak agertzen dituzte gurasoek nesken asertibitate eta botere hartzearen aurrean.
- Gurasoek hizkuntzaren bidezko diskriminazioa egiten dutela onartzen dute, alde batetik kanpotik etorritako erresistentziari nola aurre egin ez dakitelako eta bestetik denbora luzean irtenbide argirik jaso ez duten gai bat delako.
- Lanbide hautaketan lan merkatuak, jendartearen espektatibek eta familien asmoek markatutako rolen araberako baldintzapenak jarraitzen du
- Umeek eta gazteek telebistaren eta pantailen eduki sexistak eta bortitzak helduen laguntzarekin ikuspegi kritikoz ikustearen beharra agertu da, pantailaren aurrean bakarrik egoteko ohiturarekiko kezka agertu dute.

Neska eta mutilen arteko harremanetan estereotipoak behin eta berriro errepikatzen direla esaten dute gurasoek (begiratu 29. laburpen-laukia).

### 4.4.5. Espazioaren erabilera

#### 4.4.5.1. Patioaren erabilera

Ikastetxeen proiektu pedagogikoak nahiz erakundeen berdintasun planak gorabehera, askotan patioan gertatzen dena aski argigarria izaten da. Izan ere, ikasleak haien jolas-orduetan modu naturalagoan aritzen dira, berdinen artean, eta hurbileko irakaslearen jardunetik urrunxeago. Ikasleak libreago ibiltzen direneko patioetan ikus daiteke noraino gauzatzen diren hezkidetza asmoak, eta noraino ez. Gurasoek adierazi duten eran, askotan patioan gertatzen denak gezurtatzen du diskurtso politikoki zuzena, eta bien artean leize handia dagoela agerian uzten du.

“*El discurso es uno, es correcto, y la realidad de patio es otra*” (ET/LO/140319/Guraso/1/Em)

Ikastetxeetako patioetan berdintasuna bermatuko bada, Haur Hezkuntzatik heldu behar zaio aferari, Haur Hezkuntzan bertan hasten baita banaketa garbia. Eskolatik kanpo gertatzen denaren antzera, ikastetxea berriz ere jendartearen isla da, oso ohikoa da mutilak eta neskek bereiz aritzea jolas-orduetan, patioetan. Neskak neskekin eta mutilak mutilekin jolasteko eskema oso indartsua bide da, neke handiz jarduten dute bi sexuek elkarrekin jolasean, ikastetxeko patioan. Guraso batzuek aipatu dutenaren arabera, banaketa desegokia ez ezik, ulertezina ere suertatzen zaie, eta zatiketa horren aurka zer egin ez dakitela aitortu dute.

“*Hay una separación brutal en el patio entre niños y niñas que yo no entiendo*” (ET/T/140319/Guraso/2/Em)

#### 4.4.5.2. Espazioaren banaketa

Patioan ikusten diren sexuen araberako zatiketak beste eremu informal batzuetan ere gertatzen dira. Alde horretatik, eskola-orduan gertatzen diren banaketak moldatzeko zailtasun nabariak badaude, are zailagozat jo dute aisian ikusten diren jarrera naturalagoak –ez hainbeste pedagogiak bideratuak, nolabait– aldarazteko. Eskolaren esparru fisikotik atera gabe, eskolaz kanpoko jardueretan ere sexuen araberako sailkapen gogorrek eta gotorrek ikusten dituzte, eta horiek nahiko moldakaitzak direla adierazi dute.

“*Yo el problema más grande lo veo a la hora de tratar el tema en el tiempo de ocio*” (ET/T/140319/Guraso/2/Gi)

Gurasoen ustez, espazio banaketak patioa dela eta, gizarteak dituen aurreiritziekin bat egiten du (ikusi 30. laburpen-laukia)

### [30. laburpen laukia](#)

#### Espazioen erabilpena

##### Espazioen erabilpena

- Patioetan gertatzen den sexismoak gezurtatzen du diskurtso politikoki zuzena
- Haur Hezkuntzatik bertatik landu beharra dago hezkidetzaren afera
- Zenbat eta eremu informalagoa izan, orduan eta sexuen araberako banaketa argiagoa





5.

ONDORIOAK



## 5.

---

# ONDORIOAK

### 5.1. EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO AUKERA BERDINTASUN POLITIKAK

#### 5.1.1. Politikak: zabalkundea eta eragina

Hezkidetza eta bortizkeriaren prebentzioaren inguruan Gasteizko udalerriko ikastetxeetan martxan jarritako politikek izandako zabalkundea eta eraginkortasun maila aztertzean ikusten da, oro har, ikastetxeen erdiek badutela hezkidetza eta bortizkeriaren prebentziorako arduradun bat zentroetan. Zuzendaritzakoen iritziz arduradun horrek badu berariazko prestakuntza baina irakasleen gehiengoak ezjakintasuna adierazten du. Azken ikasturtean genero biolentziaren prebentziorako formazioa jaso den galdetzen dugunean zuzendari gehienek baietz erantzun badute ere, alor honetako prestakuntza ez da irakasle guztietaraino iristen, klaustroa osatzen duten irakasle batzuetara mugatzen baita kasurik gehienetan. Horrela, jasotako datuen arabera badirudi ikastetxeetan irakasleria eta zuzendaritza-taldeetako kideen artean komunikazio eta informazio gabeziak aurkitzen direla hezkidetzaren inguruan aurrera eramaten diren politiken inguruko informazioaz aritzerakoan.

Hezkuntza osatzen duten eragile desberdinen artean mugak daudela ohartu da, batez ere hezkidetzaren inguruan existitzen diren prestakuntza eskaintzak helaraztean edota alor honetan dauden figurek jasotako prestakuntzaz aritzerakoan. Aipatutako muga horiek ikastetxea, ikasle zein gurasoen artean ere antzeman dira. Hezkidetzaren zabalkundearentzat ezinbestekoak diren eragile hauenganako zubiak behar baino urriagoak dira. Faltan bota dira,

beraz, eragile guztiak kontuan hartzen dituzten politikak, bai eta eragile desberdinen artean elkarrenergina eta elkarrekintzak bideratuko dituzten dinamikak sortzea ere.

Egun ikastetxeetan martxan dauden programak ezagunak dira irakasleen artean, ordea horiek behar adina oihartzunik sortzen ez dutela ikusten da. Programak aurrera eramateko zailtasunen inguruko iruzkinak jaso izan dira. Batzuetan, zentroetan beste hainbat programekin batera aukeraketa egitea beharrezkoa izaten delako eta hezkidetzeta ez da izaten beti lehentasuna. Bestetan, programetan jarraipen falta antzematen da, “modak” balira bezala jasotzen dira, baina berehala izaten dira beste programa berri bategatik ordezkatuak.

**Erakundeen arteko koordinazioa.** Eztabaida-taldeen artean koordinazioa eskatu zen, bai eta elkarlana euren eskaintzak eta eskaerak egiterako orduan ere. Garrantzitsua da haien artean eskola eta ingurunean dauden baliabide eta eragileen artean koordinazioa sortzeko sareak ehuntzen joatea. Orain artekoa irakurrita honako ondorioetara ailega gaitzke:

- Zuzendarien erdiek haien ikastegietan genero bortizkeriaren aurkako prebentzio arduraduna dagoela esaten dute, baina ikasleen % 70k kontrakoa dio, horren arabera badirudi informazio hori ez dela irakasle guztiengana iritsi.
- Aurten ikastetxe gehienek genero biontzien prebentzioan formazioa jaso dute baina ez irakasle guztiek.
- Ikastetxeetan gaur egun hezkidetzeta lantzea ez da lehentasuna.
- Horrelako politikak eta ekimenak zabaltzeko erakundeen artean koordinazioa eskatzen da.

### 5.1.2. Politika hezkidetzailleak zabaltzen ikastetxeak duen rola

Irakasle eta zuzendarien galdetegietan aipatu zuten hezkidetzeta programak zabaltzeko ikastetxearen rola ezinbestekoa dela, baina askotan programak ez direla ezagutzen edo, ezagutzen badira, ez direla aplikatzen hainbat arrazoi direla medio. Oro har, galdetegiaren emaitzak ikusita badirudi programa hauek ezagunagoak direla zuzendaritza taldeen artean irakasleen artean baino.

**Ikastetxeetan ezagutzen diren programei buruz hitz egiten dutenean**, garbi dago orokorrean programak ezagutzen dituztela, eta hala, zuzendarien erdiek (% 55k) baino gehiagok ezagutzen dituzte Pentazitarea eta Beldur barik kanpainak; aldiz, kopuruetan oinarrituta, irakasleen ezagutza txikiagoa da (% 27). Galdetegietan izendatu ez ziren programa batzuk aipatu zituzten, horien artean: Berritzegunearen bitartez jasotako formakuntza, “Ausartzen al zara ni maitatzen?”, “Gizonduz”, “Solasean”, Emakumeen asanbladako formazioa, Udaleko Berritasunerako hezkuntza tailera, “Ni ogros ni prinsesas”, “Hezkidetzeta lau haizeetara”, Gurutze gorriak eta Apezpikutzaren genero biontzien aurka emandako formazioa, STEE-EILAS-ek hezkidetzari buruz egindako unitate didaktikoak, Urtxintxan eta Txanelan eginkoak... Eusko Jaurlaritzak 2013ko azaroan argitaratu emandako plan gidariak dioten bezala ezinbestekoa da ikastetxeen inplikazioa hezkidetzaren helburuak lortu ahal izateko. Horrela, Eusko Jaurlaritzak Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planetan honako hau jaso daiteke: *“Hezkidetzako helburuak lortzeko, funtsezkoa da ikastetxeen barrutik nahiz kanpotik sustaturiko jarduera horien inguruan, hezkidetzeta, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun politikak eta ikerketa zientifiko feministen emaitzak egotea”*.

Programak ezagutzen ez dituztenen kasuetan hainbat arrazoi jartzen dituzte aitzakia moduan eta horien artean arruntena lanean denbora gutxi daramatela da. Beraz, erakundeen erronka bat irakasle berriak formatzea da.

Bestalde, eztabaida taldeetan irakasleek berdintasunerako politikak oro har ezagutzen dituztela eta horiek zentroetara iristen direla diote, baina ez dela hausnarketa sakonik egiten hainbat egoera diskriminatzaile identifikatzeko. Ikastetxeetara iristen diren eskaerak “modaka” doazela kritikatzeko dute, birziklapena edo garraioaren ingurukoak bezalaxe, eta batzuetan erakunde desberdinek egiten dituzten eskaerak ez datozela bat. Sakoneko formazioa faltan somatzen dute, formazioa badutela diote, baina begirada zorrozteko tresnak falta zaizkiela ere.

Ikasleek gai hauen inguruan gehiago jakiteko interesa adierazi dute, landu dituzten programekin hezkidetzaren garrantziaz ohartu direla aipatuz. Ikasleen ustetan, argi dago irakasle guztiek ez dutela hezkidetzaren programetan parte hartzen. Eskoletara politika horiek iristen diren ala ez baloratzeko honako ondorio hauek atera ditugu:

- Eskoletan berdintasun programak ezagutu arren askotan ez dira aplikatzen.
- Ezagutzen diren programak: Berritzegunearen bitartez jasotako formakuntza, “Ausartzen al zara ni maitatzen?”, “Gizonduz”, “Solasean”, Emakumeen asanbladako formazioa, Udaleko Berdintasunerako hezkuntza taillera, “Ni ogros ni princesas”, “Hezkidetzeta lau haizeetara”, Gurutze gorriak eta Apezpikutzaren genero biolentziaren aurka emandako formazioa, STEE-EILAS-ek hezkidetzari buruz egindako unitate didaktikoak, Urtxintxan eta Txanelan eginikoak...
- Gazteek eta lanean denbora gutxi daramaten irakasleek ez dute berdintasun programarik ezagutzen.
- Eztabaida taldeetan irakasleek, berdintasunerako politikak oro har ezagutzen dituztela eta horiek zentroetara iristen direla diote, baina ez dela hausnarketa sakonik egiten.
- Sakoneko formazioa faltan somatzen dute.

**Ikastetxearen papera dela eta**, ikasleen eztabaida-taldeen kasuan ezberdintasun handia dago parte hartu dutenen erantzunetan. Nabari da gazte batzuek sentsibilitate handia dutela gaiarekiko, eta besteek, aldiz, ezjakintasuna azaltzen dute nagusiki. Horrek adierazten du ikastetxean landu diren programen arabera ikasleen inplikazioa eta sentsibilizazioa oso desberdina dela. Irakasleen eztabaida taldeetan ikastetxeen rolari dagokionez, garbi dute hezkidetzari begira eskolaren papera funtsezkoa dela, eta lehenengo lana eskola-komunitatearen sentsibilizazioa lantzea litzatekeela. Horretarako komunitate osoaren inplikazioa aldarrikatzen da. Ikastetxeen artean ezberdintasun handiak daude inplikazio mailari begira. Eskolen esperientziak, gehienbat, puntualak izaten dira data jakin batzuei lotuta. Orain dela urte batzuk hainbat esperientzian parte hartu zutela diote, baina gaur egun indarra galdu dutela. Beraz, hezkidetzeta lantzeko modua aldatu da eta gaur egun, bietako bat gertatzen da; edo gaia ez da lantzen, edo bestela Bizikidetzeta eta Hiritartasuna bezalako irakasgaietan lantzen da. Lanketa tutorearen esku gelditzen da. Eusko Jaurlaritzaren Hezkidetzeta gidan jasotzen denaren arabera, *Eskola leku pribilegiatua da aldaketa handiak hasteko, baina berak bakarrik ezin dio lan horri heldu, beste erakunde eta gizarte eragile batzuen laguntza formalagoa behar du, baita hurbileko hezkuntza komunitatearen zuzeneko laguntza ere.* (Eusko Jaurlaritza, 2014: 7). Orain arte hemen esandakoak bat datoz ideia horrekin.

Gurasoek eztabaida-taldeetan ikastetxeen eginbeharra hezkidetzeta lantzea dela esaten dute, eta bereziki Haur Hezkuntzan lantzen dela, baina joera hori denborarekin galduz doala eta edukiek protagonismoa eta lehentasuna hartzen dutela, eta gainera, materialei begira zaharkituta geratu den gaia dela. Goian aipatu den ideia errepikatzen da berriro ere, ematen du irakasleen borondatearen arabera lantzen dela gai hau, gehienetan zeharkako lerro bezala.

Azken bi ideia hauekin gurasoak ere ados agertu dira. Aholkularien edota orientatzaileen hezkidetzari buruzko formazioa nahiko txikia dela aipatzen dute, sentsibilizazioa eta pres-takuntza jaso beharko lituzketela hezkuntza erakundeen aldetik, gaur egun alderdi horretan dagoen gabezia nabarmendu baitute. Hori dela eta, erakundeei eskatzen diete irakasleen eta gurasoen formazioa eta baita ikastetxeetako orientatzaileena ere. Familientzako formazioa eskatzen dute. Izan ere, gurasoek liburuek ekartzen dituzten ereduengatik inguruko formazioa eskatzen dute bai beraiantzat, baita irakasleentzat ere (liburuetan aurkezten diren mutilen ereduak, nesken ereduak edo familien ereduak kolokan jarri behar direla diote).

Esan bezala, galdetegietan jasotako erantzunen arabera irakasle eta zuzendaritza taldeko gehienek uste dute Hezkidetzaren ikastetxeen arduraren dela, tutoretza saioak izanik proposenak gai horiek lantzeko, eta hala, gai hau ikastetxeko aholkulari baten esku utzi behar dela uste dute. Irakasleentzako formazioa eta baliabide didaktikoak hobetu behar direla ere gaineratu dute.

Fundamentazio teorikoan ikusten den bezala, Hezkidetzaren ikastetxeen arduraren dela plan guztietan aipatzen da. Era horretan Eusko Jaurlaritzak, Hezkuntza-sisteman hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko, 2013-2015eko Gida Planaren diogen bezala, helburu horiek lortzeko funtsezkoa da ikastetxeetan, barrutik nahiz kanpotik sustaturiko jardueraren inguruan hezkidetzaren, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun politikak eta ikerketa zientifiko feministen emaitzak egotea. Argi dago, beraz, Erakundeek horrelako arloak sustatu eta bermatu beharko lituzketela.

**Hezkidetzaren Curriculumean integratu behar da.** Galdetegietan gehiago handi batek ikusten du hezkidetzaren curriculumean integratuta egon behar dela (zuzendaritza taldeen % 72k eta irakasleen % 49,2k). Tutoretzan landu behar dela diote, eta era berean interesgarria litzatekeela ikastetxeetara kanpoko adituak ere ekartzea. Ikastetxeetan egiten den lanari buruz, iritziak denetarikoak dira, batzuek ezer egiten ez dela aipatzen duten bitartean (32 pertsonak), beste kasu batzuetan hezkidetzaren inguruko lana ekimen pertsonalaren esku gelditzen dela aipatzen da, edo kasu batzuetan zuzendaritzak hartzen duela inizatiba, tutoretza planetan sartuz edo Bizikidetzaren batzordearen bitartez hezkidetzaren inizatibak bultzatuz. Hezkidetzaren bidean jartzeko hainbat ekintza puntual aipatzen dituzte, eta honez gain, hizkuntzaren zaintza ezinbestekoa dela. Hezkidetzaren lantzeko gehien erabiltzen diren tresnak eta estrategiak jolasak, emozioen tailerrak eta hezkuntza sexualaren tailerrak dira. Era horretan, irakasleen esanetan Arenas-ek (2006) dioena eskatzen da, eskolan benetako eredu hezkidetzarela zabal dadin eskolako komunitateak gai honekiko sentsibilizazioa eta inplikazioa adierazi beharko du, erakundeetatik bultzatuta.

**Mutilen lekua.** Guraso eta ikasleen ustez, egungo ikastetxeetan aukera berdintasuna eta biolentziaren prebentzioa lantzen dira bereziki, eta gurasoen arabera gizonen rola lanketa da heldu beharreko erronka berria, eta hala komentatzen dute, genero rol banaketa berri horretan mutilak deskolokatuta gelditzen direla oso ondo jakin gabe zein den beraien funtzioa gizarte berrian. Honen inguruko formazioa eskatzen dute.

Azkenik, beharrezkoa da ikasleenganako zubi berriak eraikitzea. Alde batetik gurasoak erakunde eta ikastetxeen programen inguruan hobeto informatuz eta murgilduz, garrantzitsua delako euren ere jakitea zer nolako lanak egiten diren hezkidetzaren inguruan, hezkuntzan ezinbestekoak diren eragileak baitira. Bestetik, beharrezkoa da egungo gazteek darabilten euskarri desberdinetan mugitzen ikastea. Beharrezkoa da eragile guztien prestakuntza sustatzea formatu klasikoek harago (sare sozialak edo formatu digitalak ezagutzen kasurako). Azken finean beharrezkoa da zaharkitua geratu den hezkidetzaren lanketa berritzea eta egungo garai berrietara

egokitzea, parte hartzen duten eragile guztiak batuz, murgilduz eta konektatuz. Politika horiek zabaltzen eskolak duen papera ondorio hauen bitartez laburbil daiteke:

- Diskriminazioa eta genero estereotipoekiko ikasleek duten sentsibilizazio mailak eta ikastetxean horren inguruan egiten den lanak harreman estua dute.
- Ikastetxeak eskola komunitatea berdintasunean sentsibilizatzea lortu behar du.
- Berdintasun gaia gehienetan tutoretza orduetan garatzen da, garatzen denean. Askotan pertsona baten iniziatiba hutsa izaten da.
- Gurasoek esaten dute hezkidetzaren lantzea ikastetxearen eginbeharra dela.
- Gurasoen ustez, berdintasunaren inguruan egiten den lana alde batera uzten da edukiek pisua hartzen doazen neurrian.
- Gurasoek liburuek ekartzen dituzten ereduaren inguruko formazioa eskatzen dute.
- Interesgarria litzateke ikastetxeetara kanpoko adituak ekartzea.
- Hizkuntzaren zaintza ezinbestekoa da.
- Ikasleek eta gurasoek mutilen rol berria zein izan daitekeen aztertzeko formazioa eskatzen dute.
- Hezkidetzaren lanketa zaharkituta gelditu da eta egungo ohituretara moldatu beharko litzateke, gazteen ohituretan lan hori sartuta. Beraz, formazioa sare sozialez baliatuz egin beharko litzateke.

### 5.1.3. Eusko Jaurlaritzako programak ezagutzen diren ala ez

Ikasleek ezagutzen dute Eusko Jaurlaritzaren Hezkidetzaren Proiektua eta beste programa batzuk ere aipatu zituzten – zehazki, tratu txarren ingurukoa – baina orokorrean **berdintasun politiken inguruan ikasleek ez dute jakite-maila alturik**. Nahiz eta, esan bezala, oso argi ez zaizkien geratu Eusko Jaurlaritzaren Hezkidetzaren Proiektuaren zehaztasunak, **eragina eduki duela baieztatzen dute** eta lagungarria izan dela emakumearen eskubideak defendatzearen eta berdintasunaren alde egiteko garrantziak konturatzeko. Are gehiago, balio izan die emakumeen egoera ez dela gizonezkoen berdina konturatzeko, gutxietsia dagoela eta egoera hori txikitatik jasotzen dutela babestuek izan behar diren ideia ondorio eta aurrekari izanik.

Irakasleek ezagutzen dute Eusko Jaurlaritzak aurkeztu duen Hezkidetzaren Plana eta ongi baloratzen dute. Beraien ustez, planak maila pertsonala gaintzen du eta ikastetxe guztietan landu behar da. Plana garatzeko beharrezkoa iruditzen zaie ikerketa honetan egin den diagnostia zentro bakoitzari itzultzea. Positibotzat jotzen dute erakundearen lehentasunen artean egotea.

Egin ez den lan pare bat aipatu dute, emaitza akademikoaren azterketa eta sexuen araberako jarrera desegokien jarraipenena, neska-mutilen artean dauden ezberdintasunak ezagutu beharko lirateke eta horien sorrera zein den aztertu.

Arrazoi laboralak izan dira Eusko Jaurlaritzaren Plan Berriari uko egiteko motiboa, irakasleen lan eskubideak gutxietsiak izan direlako azken urteetan, eta hala, asko izan badira ere programa ezagutu dutenak, gutxi izan dira horren azterketa egin dutenak, eta are gutxiago deialdian izena eman dutenak. Askotan hezkidetzaren irakasleen esku geratzen den zehar letroko lanketa izatera mugatzen da. Orokorra da programek sortzen duten eragin positiboaren iritzia. Bai irakasleen aldetik bai eta ikasleen aldetik ere. Aitzitik, kontuan izan behar da jasotako erantzunen artean irakasleen herenak onartzen duela hezkidetzaren alorrean ezer ere landu ez duela eta gehienetan irakasleen irizpideak eta ardura pertsonala izaten direla hau lantzerako bideratzeko arrazoiak. Ikasleengan duen eragina ikustean berdintasunaren alde egi-

teko garrantziak ohartzen dira irakasleak eta gehiago jakiteko interesa azaltzen dute. Hau ezagututa honako ondorio hauetara iritsi gara:

- Eusko Jaurlaritzaren Hezkidetza Proiektua ezaguna da, baina beti ez da sektore guztietara iristen, ikasleengana adibidez, ikasle batzuk ez baitakite ezer.
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkidetza Proiektua baligarria izan da emakumea gutxietsia dagoela ikusteko.
- Irakasleek Hezkidetza Plan hau ezagutzen dute eta ondo baloratzen dute.
- Erronka berri bat planteatu dute: emaitza akademikoen azterketa egitea sexuen araberrako jarrera desegokien azterketarekin batera.
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkidetza Proiektuan irakasle gutxi hartzen ari dira parte, haien lan eskubideak gutxietsita ikusi dituztelako azken urte hauetan.

## 5.2. ZER DA HEZKIDETZA?

### 5.2.1. Definizioa

**Hezkidetzari buruz irakasleek dituzten ideiak oro har** ez dira oso zehatzak edo osatuak. Galdetegietan hezkidetzaren kontzeptura hurbiltzen dira modu batean edo bestean, baina bakarrik irakasleen % 20 inguru da gai hezkidetzaren oinarriko ideiak formulatzeko. Hau da, hezkidetzaren oinarrian dauden funtsezko ideia asko eta asko ez dituzte aintzat hartzen, besteak beste, genero estereotipoak gainditzea, pertsona bakoitzak dituen gaitasunak eta bakantasanak onartzea eta esku-hartze hezitzailea praktikan jartzeko hezkuntza jarraitzea.

Irakasleen definizioetan berdintasunaren kontzeptua nagusitzen da, baina eskala desberdinetan ulertuz. Batzuek neska eta mutilak berdin hezi behar direla diote, ia-ia eskola mistoaren ideiekin bat eginez. Hauetariko zenbait hezkidetza neska-mutilak espazio berean elkarrekin egotearekin identifikatzen du. Badira, hala ere, berdintasunaren beste maila batera pasatzen direnak ere, eta “berdintasunean” hezi behar direla diotenak pertsonen arteko parrakidetasuna lortzeko.

Bigarren multzo batean, aukera berdintasuna eskatzen dutenak ditugu, eskubideak aldarrikatzen dituztenak eta diskriminaziorik gura ez dutenak.

Beste alde batetik, hezkidetza genero biolentzia ekiditeko sustatu behar den bizikidetzarekin zerikusirik duela pentsatzen dutenak daude.

Eta, azkenik, hezkidetza genero ikuspuntutik definitzen dutenak ditugu, hezkuntzaren bigarren etapan gehiago izanik tankera honetako hezkidetzaren definizioak ematen dituztenak. Eta harrigarria gerta badaiteke ere, hiru irakasleek ez dute jakin hezkidetza zer den erantzuten eta honi buruz inoiz ezer entzun ez izana agertu dute. Hain kopuru txikia izan arren, zer pentsatua ematen du ikusteak oraindik badirela irakasleak kontzeptua barneratu gabe dutenak, are gehiago aldaketaren eragileak izan behar badira.

Eztabaida taldeetako irakasleek, aitzitik, hezkidetza bere gain hartzen dute eta, gehienbat, haien formazioarekin lotzen dute. Izan ere, jakin nahi dute zertan arreta jarri, noiz eta nola egin; hau da, begirada lantzea, gai hau haien inguruan ikusten jakitea delako eurentzat hezkidetza. Eta begirada trebatu ostean zer egin jakin nahiko lukete eskola benetan hezkidetzaillea izan dadin.

Ikasle **gehienek**, berriz, **Hezkidetza definitzean, indarra aukera eta eskubide berdintasunean eta pertsonen arteko harremanetan eta tratuaeren berdintasunean jartzen dute**. Parekidetasun hau irakasgai guztietan betetzea aldarrikatzen dute. Eta, gainera, ikasgai konkretu batzuetan proposamen diskriminatzaileak egiten direla salatu dute. Hala ere, ez dira hurbiltzen irakasleek ematen dituzten definizioetara, ez doaz hezkidetzaren muinera, hots, genero estereotipoak salatzerara eta gainditzera, ez dituzte ideia hauek azaleratzen.

Bestalde, ikasleen, edo haien seme-alaben antzeko erantzunak eman dituzte eztabaida taldeetako gurasoek hezkidetzaren definizioari buruz galdetzean. Azalean gelditzen dira, berdintasunarekin edo harreman desorekatuekin lotzen dute, baina ez dute argi zehazten zer den, edo ez dute gehiegi sakontzen. Bi gai edo kezka azpimarratzen dituzte: bata, gaur egun ikastetxeetan lantzen ari dena, biolentziarena, eta bestea, zeharka edo inplizituki agertzen den aniztasunaren kudeaketa.



2.irudia: Hezkidetzaren definizioan eman den continuuma.

Hezkidetzaren definizioan continuum bat ikusi dugu (ikusi 2.irudia), bertan “ez jakintza” izan-go litzateke mutur bat eta “genero ikuspegia” bestea. Continuum horren barruangurasoak elkarbizitzan gelditzen dira; ikasleak berdintasunean; eta irakasleak genero ikuspegaraino iristen dira.

Ondorioak:

- Hezkidetza zer den irakasleen % 20k ezagutzen du.
- Lau ideia nagusi biltzen dira hezkidetzaren inguruan: neska-mutilak berdinean hezi behar dira, aukera berdinean izan behar dituzte, biolentzia ekidin behar dute eta genero ikuspegia ezagutu behar dute.
- Irakasleek begirada trebatzeko formazioa eskatzen dute.
- Irakasleek ematen duten hezkidetzaren definizioaren bi zutabeak: aukera eta eskubide berdintasuna eta pertsonen arteko harreman eta tratuparekidea. Gurasoek emandako definizioa ere antzekoa da.
- Hezkidetzari begira gurasoak elkarbizitzan gelditzen dira; ikasleak berdintasunean; eta irakasleak genero ikuspegaraino iristen dira.

### 5.2.2. Ikastetxeen beharrak eta aurkitu dituzten oztopoak

Ikastetxeen beharrak asetzeko, gai batzuk proposatzen dituzte: sare sozialetako jazarpena, bullying homofobikoa, harremanak bideratzeko ekintzak, genero indarkeriaren prebentzioa, estereotipoen analisisa eta hizkuntzaren zaintza, besteak beste. Instituzioak inplikatu behar-ko lirake formazio horretan, irakasle, ikasle eta gurasoentzako formazioa eskainiz. Modu horretan, “famiaren terrorismoaren” aurrean, Osbornek (2009) dioen bezala, baliabideak izateko.

Era berean, irakasleek ez dute errefusatu gai honen lanketa, baina gogoeta egiteko denbora falta azpimarratzen dute, materialak prestatzeko edo elkarrekiko lana sustatzeko. Baita hezkidetza kontzeptuan sakontzeko eta etapa guztietan zabaltzeko ere. Lan honetan taldeko hausnarketak eta eztabaidak abiapuntu izan daitezke, materialen prestakuntzarekin eta

familien inplikazioarekin jarraitu ahal izateko. Honez gain, interesgarria litzateke haien uste-tan ikastetxe guztietan gai hauetan prestatuta dagoen irakasle bat egotea, eta, zergatik ez, kanpoko aholkularitza bereziaren laguntza ere izatea.

Hedabideek hezkidetzari kalte egiten diotela esaten dute ia aho batez, horretan ez dute inongo zalantzarik, baina ez dute ikusten eskolako liburuetan dagoen sexismoa; horretarako prestakuntza falta dutela onartu dute. Familietan dagoen sexismoa ikusten dute, baina nekez ikusten dute irakasleen artean dagoena.

Baliabideen inguruko kezka handiena hizkuntzaren erabilera ez sexisten irizpideak ezagutzea da, eta honekin batera liburuaren analisirako tresnak izatea agertzen dute. Kasu guztietan curriculumean integratzea eskatzen da, baina horretarako sentsibilizazioa eta errespetua behar dira autore ezberdinen ustez (Moreno, 2013; Salas, 2003); eta azkenik, emakumeen presentzia bermatzea hizkuntza-sisteman (Alvarez-Uria, 2013).

Nolanahi ere, oro har, familien parte hartzea apala dela esan daiteke, bai hezkidetzaren kon-tuetan, baita eskolako beste arlo batzuetan ere: oso lanpetuta dirudite familiek eta, gainera, bestelako kezka nagusiago batzuk bide dituzte. Gauzak horrela, familiek hezkidetzaren gaitan prestatzeari oso zaila deritzote, hirian dauden guraso eskolak eta familiek haien etxeetan egiten duten lanketa gorabehera. Hezkuntza legeek zein erakundeek sustatu nahi dituzten berdintasun balioak jendartean behar bezala finkatzeko, lanean segitu beharko da, lorpenak eta hobekuntzak belaunaldiz belaunaldi eskuratuko direlakoan. Orain artekoa, honako ondorio hauetan laburtu daiteke:

- Formazioari ekiteko zenbait ideia proposatzen dute: sare sozialetako jazarpena, bullying homofobikoa, harremanak bideratzeko ekintzak, genero indarkeriaren prebentzioa, estereotipoen analisia eta hizkuntzaren zaintza.
- Kanpoko laguntza eskatzen dute ekintza batzuei heltzeko: hausnarketak eta eztabai-dak abiapuntu izan daitezke materialen prestakuntzarekin eta familien inplikazioarekin jarraitzeko.
- Testu liburuetan dauden diskriminazioak ikustea eta gizartean dagoen sexismoa identifikatzea kostatzen zaie ikasleei.
- Familien parte hartzea apala da eta hezkidetzaren ez da beraien lehentasuna.

Azken finean, eta laburtzeko, ikastetxeak hezkidetzaren bidean jartzeko irakasleen eskaerak hauexek dira: genero arloan prestakuntza handiagoa jasotzea; hezkidetzaren curriculumean sartzea, eta material egokiagoak aukeratzea eta prestatzea; egiten diren tailer, ikastaro eta egitasmoetan baliabideak izatea eta hezkidetzaren lanetan parte hartzen duten erakundeek sarean eta modu koordinatuan lan egitea.

### 5.2.3. Proiektu hezkidetzaleak

Ikastetxeetan hezkidetzaren inguruan antolatzen diren programak aplikatzearen garrantzia-rekin irakasleen adostasuna altua edo oso altua da. Horrela, ondorioztatu daiteke haien araberako egokia dela horrelakoak aurrera eramatea. Era berean, programa horien eraginkortasun-ean ere adostasun maila altua erakusten dute oro har, nahiz eta kopurua baxuagoa izan.

Programei dagokienez, martxoaren 8aren inguruan burutzen diren ekintzak dira arrakastatsuenak, guztiz onartuta baitago egun hori gaiarekiko sentsibilizazioa duten ikastetxeetako zereginetan. Zertxobait baxuagoa da azaroaren 25ean (emakumearen aurkako indarkeriaren

kontrako eguna) aintzat hartzen dutenena. Eta aniztasun afektibo sexuala eta hezkuntza barneratzailea onartze bidean antolatzen direnak berriz, oso bakanak dira, ez dute oraindik lortu irakasleak erakartzerik.

Programa hauen eraginkortasuna dela eta, badirudi zalantza gehiago sumatzen dela irakasleen artean. Ikastetxeetan hezkidetzan lortutako aurrerapen handienak zehazteko orduan, irakasleen artean ezjakintasuna nagusi izan bada ere, erantzunen gehiengoa sentsibilizazioan oinarritu da. Dirudenez, azken urteotan sortutako ekimen eta programek lortu dute gai honekiko begirada lantzea, bai klaustruetan baita klaseak antolatzeko moduan ere. Orain arte landutako programek irakasle eta zuzendaritza-kideengan eragina izan dutela bistan dago, irekiagoak direlako hezkidetzaren ikuspegia lantzeko orduan euren eguneroko lanean. Nabaria da barneratu dutela hezkidetzaren beren jarduna lantzeko orduan ere, hizkuntzaren erabilera zaintzeko adibidez. Ikasleekin eta ikasleen artean erabiltzen den hizkuntzaren erabileraren ardura ikastetxeek egindako aurrerapen garrantzitsutzat hartzen da.

Bestalde, zuzendaritza-kideen ustez irakasleen prestakuntzan baino gehiago hezkidetzaren inguruan ikasleen sentiberatasuna lantzean egin beharko litzateke indar handiena, komunikabideen eragina landuz edota honen inguruko planak antolatuz, esaterako. Era berean, eskatzen dute eskola eta familiaren arteko harremana gehiago lantzea edota hezkidetzaren alor integral gisa hartzea.

Oinarria familia dela argi eta garbi gelditu da. Eskolak eginkizun handia eta garrantzizkoa badu ere, etxean ikusten eta ikasten denak eragin zuzen-zuzena du seme-alaben heziketan. Kontua da hainbat familia eredu dagoela gaur egun elkarren ondoan eta, ondorioz, ikuskerak eta praktikak nabarmen alda daitezkeela familiarik familiara. Gero eta ñabarragoa den panorama honetan, mendez mendeko tradizioak badu oraindik indarririk. Hortaz, hezkidetzaren aldeko aldarriek eta, areago, jarduerak oztupo franko topatzen dituzte jendartearen eta, zenbaitetan ikusi dugun legez, militantziaz ere hitz egin liteke eredu hezkidetzaille bati (aktiboki) eusteko asmotan dabiltzan amen edo aiten kasuan.

Baina hezkidetzaren militante aktiboak diren gurasoak ez dira, tamalez, gehiegi, zenbakieki erreparatuz gero. Izan ere, guraso askori, nahiz eta hezkidetzaren zer den badakitela dioten, asko kostatzen zaie benetan definitzea, esangura zehaztea. Batzuentzat biolentziaren prebentzioa baino ez da eskolaren egitekoa gai honetan. Eta beste hainbatek diote gaitzaren erantzukizuna gaia dela, berdintasunaren bidean asko egin delako azken urte hauetan.

Eta berdintasuna ulertzeko modu anitzak bereiz daitezke, normala den moduan, edozein ibilbide luzetan gerta ohi den eran, halakoa baita hezkidetzaren jorratu behar duena. Baina harrigarria da oraindik emakumeek emandako aurrerapausoak begi onez ikusten ez dituzten gurasoak egotea, gizon-emakumeen arteko botere harremanetan indarren iraulketa bezala interpretatzen baitituzte haiek, feminismoaren eraginez gizonak emakumeen menpeko bihurtu izan balira moduan. Hots, berdintasuna, gizona eta emakumearen arteko galera balitz moduan.

Zer esan dute, berriz, ikasleek ikastetxeetako ekintzei buruz galdetu diegunean? Bi iritzi arras desberdinak topatu ditugu erantzun dutenen artean. Alde batetik, ikasle batzuk kexu antzean agertzen dira, ekitaldiak egiten dituztela esanez, baina hezkidetzaren zer dela benetan klaseetan lantzen, hau da, gai honen inguruko funtsezko ikasketarik ez dagoela.

Beste batzuen esanetan, ordea, asko landu dute gaia. Hala ere, ekintzen adibideak zehazterakoan, “dantzak eta horrelako gauzak” aipatzen dituzte. Posible da, beraz, euren pertzepzioaren arabera gaia landuta egotea, baina benetan lanketa hori azalekoa izatea.

Ukaezina da neska-mutilek sarritan azpimarratzen dutela irakasleek gaiari buruz asko hitz egiten dietela, nahiz eta ez duten zehazten zer nolako ekarpenak egin dizkieten, zein izan den programa eta proiektu horiek guztiak euren gan utzi duten arrastoa. Nolanahi ere, talde guztiak bat etorri dira erantzuterakoan ez dakitela Udalak hezkidetzaren kanpainarik egiten duenik. Ondorio horien laburpena honako puntu hauetan aurkezten dugu:

- Berdintasun programak garatzeko adostasuna adierazten dute, baina askotan urteko egun seinalatuetan lantzen da bakarrik.
- Irakasleen ustez, ikastetxeetan badago sentsibilizazioa eta aurrerapen handiena hizkuntza erabilera ez sexistaren arloan lortu da.
- Gurasoek genero biolentzia arazotzat dute, baina era berean, iruditzen zaie berdintasuna gairiditutako zerbait dela.
- Irakasleen artean ezberdintasun handiak egon ziren bi taldeetan. Talde batek esan zuen emakumeari eskaintako egun seinalatu horietan egiten dena kenduta, hezkidetzaren ez dela lantzen. Eta besteak esan zuen, (gure ustez, kasu hori salbuespena da), lan handia egin dutela.
- Irakasleek ez dituzte udaleko kanpainak ezagutzen.

### 5.3. ESKOLAREN EREDU HEZKIDATZAILEA

Irakasleen eztabaida taldeen emaitzak aztertuta, esan dezakegu irakasleen artean *desberdintasunak antzemateko sentiberatasuna* badagoela. Galdetegietako erantzunei erreparatuta, emaitza bera aurki daiteke, irakasleen % 75ek, ez baitute zalantzarik jokabide desegokiak antzemateko duten sentiberatasunaz. Dela urteetako esperientziagatik, enpatiagatik edo formazioagatik, dela sufritu izanagatik edo emakume edo ama izateak ematen duen esperientziagatik, gehiengoak uste du kontzientzia hori baduela. Era berean, gaineratzen dute, emakume helduagoek gazteagoei zein gizonezkoei esperientziak emandako sentiberatasun hori helarazten dietela.

Emaitza horiek baikor azaltzen diren arren, irakasleen % 25ek zalantzan jartzen du beren kontzientziarioa benetakoa ote den. Hainbat gabezia dituztela aipatzen dute: informazio eta formazio eza, ziurtasun eza, hausnarketa pertsonal eza, eta sexista zer den eta zer ez den jakiteko zailtasunak. Modu berean, aipatzen dute noizbehinka gertaera arbuigarriak gertatzen direla, azken batean, arreta falta dagoelako, beste aspektu batzuei arreta handiagoa eskaintzen zaielako.

Bai galdetegietan eta bai eztabaida taldeetan ere, irakasleek aitortzen dute haien zaila dela diskriminazioez konturatzea edo egoera zehatz batzuk sexismoaz kutsatuta ote dauden jakitea eta ondorengo esku-hartzea egitea. Halaber, egoera arbuigarri asko normalizatzen direla diote, guztiz barneratuta dituztelako. Batez ere DBH eta Batxilergoan, ikasi beharreko materialak direlako ikasketen ardatz nagusi eta (ia) bakarra eta etapa honetan pertsonen arteko harremanak ez direlako hainbeste lantzen. Hortaz, ikuspegi hauek guztiak prestakuntza beharrezko adierazle dira.

Irakasleen galdetegiekin jarraituta, garrantzitsutzat jotzen dute zuzendarien jokabidea eraso sexisten aurrean: emakumeei babesa eta laguntza emanaz, salaketa ipiniz edo emakumeak ipini dezan animatuz, Gizarte Zerbitzuetara edo dagokion erakundera joz, eta, azken batean, beste edozein eraso dagoenean bezala jokatu behar duela deritzote.

Ikasleen eztabaida taldeetan esandakoaren haritik, aitortzen dute ikasleen sentiberatasun eta kontzientzia hartzeak oso desberdinak direla: batzuk oso kontzientziatuak dauden bitartean eta emakumeak “zapalduak” daudela dioten bitartean, beste batzuek ez dute genero indarkeriarik identifikatzen. Oro har, harremanak sexu desberdintasunik gabe bizi dituztela esan arren, sarritan aipatzen dute neskek komentario, txiste eta jokabide sexistak jasotzen dituztela. Hala ere, mutilen komentarioak ez direla matxistak diote eta ez daudela asmo txarrez eginak. Arazo bera gertatzen da bullyingaren aurrean: nahiz eta egoera horiek deskribatzen dituzten, ez dituzte bullying bezala identifikatzen.

Sentiberatasun eta kontzientziazio mailaren atalean ezberdintasunak atera badira ere, erabateko adostasuna adierazi dute irakasleen prestakuntzaren beharraz hitz egitean, eta horrela, egunerokotasunean hezkidetzaren ikuspegia txertatzeko tresnak, prestakuntza eta jarduteko protokoloak eskatzen dituzte irakasleek. Agerian geratzen da, modu berean, eztabaida-taldeetan nahiz galdetegietan irakasleek prestakuntza praktikoa nahiago dutela teorikoaren aurrean: Hezkidetzaren zer den bere konplexutasunean ulertzeko; irakasleak sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko; indarkeria eta sexismoa prebenitzeko asmoz elkarlana sustatzeko; barneratutako ohitura desagokiak eta errotutako estereotipoak identifikatu eta gainditzeko eta gero eta ugariagoak diren beste kultura batzuetako etorkinekin lan egiteko.

Planteatzen den prestakuntza lan pertsonaletik hasi behar dela adierazten dute eta klaustro osoak hartu behar duela parte. Egunerokotasunean sortzen diren kasu praktikoen bitartez lan egitea eta gatazka guztiak generoaren ikuspuntutik begiratzen ikastea oso interesgarria litzatekeela iradokitzen dute. Edonola ere, ezinbestekoa iruditzen zaie gaia lantzeak duen garrantziaz kontzientzia hartzea eta klaustro osoa horretara begira formatzea.

Ikasleek euren irakasleek duten prestakuntzari dagokionean bi iritzi kontrajarri azaltzen dituzte: ikasle batzuek irakasleek hezkidetzan prestakuntza dutela eta ikasgeletan sexismorik ez dagoela pentsatzen duten bitartean, beste batzuek diote irakasleek, oro har, ez dutela prestakuntzarik, are gehiago, bakarrik hezkidetzaren gaian interesatuak dauden irakasleak daudela prestatuak.

Honen harira, nahiz eta, ikusi dugun bezala, sentiberatasuna eta prestakuntzaren inguruko iritziak kontrajartzen diren kasu batzuetan, irakasleen rola zehazteari dagokionez aho batez erantzuten dute honen beharra eta garrantzia azpimarratuz. Horrela, irakasleen eztabaida-taldeetan, irakaslearen papera argi dute: estereotipoak ekiditen edo diskurtsoa zaintzen lagundu behar du, besteak beste. Ikuspegi hezkidetzaillea izatea, jarduera edo programa jakin bat aurrera eramatea baino askoz garrantzitsuagoa dela esaten dute. Gurasoen eztabaida taldeetan ere, denak egon dira ados, ebatzi dutelako irakasleen rola erabakigarria dela hezkidetzaren aldeko pedagogia bermatuko bada. Hala ere, aldaketaren oinarria familia dela azpimarratzen dute. Etxean gertatu behar da hezkuntza eredu aldaketa, jendartea benetan aldatu hala izateko.

Salbuespenak salbuespen, eta ekimen pertsonalak alde batera utzita, irakasleek uste dute eskolak urrun daudela eredu hezkidetzailetik eta horrela agertzen da ondoren aztertuko diren puntuetan. Lehenenik hizkuntzaren erabilera ez-sexista tratatuko da. Ondoren material didaktikoak, hirugarrenik ikasgelaren kudeaketa, curriculumak, eskolaren errealitatea eta ikasleen orientazioa aipatuko dira. Hori dela eta, honakoa ondoriozta daiteke:

- Irakasleen % 75ek jokabide desagokiak antzemateko sentiberatasuna adierazten dute.
- Sentiberatasuna ez dutenean hainbat arrazoi aipatzen dituzte: informazio eta formazio eza, ziurtasun eza, hausnarketa pertsonal eza, eta sexista zer den eta zer ez den jakiteko zailtasunak.

- Irakasleek aitortzen dute zaila egiten zaiela diskriminazioez eta sexismoaz konturatzea.
- Zuzendariak eraso sexisten aurrean salaketa egitera animatzen dutela diote.
- Harremanak sexu desberditasunik gabe bizi dituztela esan arren, ikasleek esaten dute emakumea “zapalduta” dagoela.
- Irakasleek formakuntza eskatzen dute, baina prestakuntza praktikoa, gelako kasuen azterketan oinarritutakoa adibidez, eta hainbat esparrutara egokitua egotea eskatzen dute: hezkidetza ulertzeko, indarkeria ekiditeko, estereotipo eta diskriminazioak identifikatzeko eta gainditzeko, kulturartekotasunean erabiltzeko kapazak izateko.
- Gurasoek irakasleen rola erabakigarria dela diote, baina era berean, aldaketaren oinarrian familia jartzen dute.
- Kolektibo guztiek uste dute eskolak urrun daudela eredu hezkidetzailetik.

Hizkuntzaren erabilera ez-sexistak daukan garrantzia dela eta, irakasleek eztabaida taldeetan diote ez dagoela nahikoa kontzientziarik haien artean eta, sarritan, egunerokotasunean jarre-  
ra kontrajarriak daudela ikastetxeetan, batez ere, gaztelerako mintegietan borroka bihurtzen den gaia dela. Bestetik, irakasle guztien inplikazioa eta familiekiko elkarlana ezinbestekoak direla uste dute, baina oso ondo azaldu behar zaie irakasle nahiz familiei zergatik den hain garrantzitsua hizkuntzaren erabilera ez-sexista.

Galdetegietan jaso ditugun erantzunen arabera, zuzendari eta irakasle guztiek zaintzen dute hizkuntza, sexismoa ekiditeko eta hezkidetzaille izateko. Horrela, komunikazio instituzionalean oso kontuan izaten da hizkuntzaren erabilera ez sexista. Modu berean, adibideetan, emakumeei protagonismoa ematen zaie, ikasleen desbideratzeak zuzentzen dira, ikasgeletako karguak modu orekatuan banatzen dira, tradizionalki “emakumeenak” izan diren zereginak gizonezkoiei esleitzen zaizkie (“amo de casa”), genero marka duten hitzak ez dira erabiltzen eta horien ordez hitz orokor eta pluralen erabileraren aldeko apustua egiten da (adibidez, “persona” edo “alumnado”).

Aurreko adierazpenetan azaltzen denaren kontra, bi sexuei erreferentzia egiteko, gaztelerako hitz orokor edo plurala erabiltzerakoan, bi jarrera antzematen dira: batetik, irakasleen bi herenek gaztelerazko maskulino orokortzailearen defentsa egiten du: “los alumnos”, neskak eta mutilak barruan izanda. Bestetik, irakasleen heren batek gaztelerako maskulino orokortzailea arbuatzen du: “el alumnado” hobetsiz. Hauez gain, irakasle bakarrak, bi sexuetakoa egonda ere, neskak gehiago direnean, “las chicas” esaten du hain ohikoa ez den femenino orokortzailea erabiliz. Mutilak gehiago direnean ordea, “los chicos”.

Ikastetxeetan aurrerapenik egin ote den hizkuntza ez sexistaren erabileran galderari dagokionez, irakasleen % 20k bakarrik ikusi du hori bere eskolan. Hizkuntza ez sexistaren erabilerarako protokoloen ezarpenari eta eraginkortasunari buruz galdetzerakoan, zuzendarien % 40 ados dago eraginkorrak direla esaterakoan, irakasleen artean aldiz, % 30 bakarrik dago ados baieztapen horrekin.

Material didaktikoak direla eta, galdetegietan jasotako erantzunak eta irakasleen eztabaida taldeetan esandakoak ez datoz bat. Galdetegia erantzun duten irakasleen bi herenak, ikasmaterialak hautatzerakoan hezkidetzak kontuan izaten dutela aipatzen duten bitartean, eztabaida taldeetan esandakoaren baitan, hezkidetzak ez da izaten ardatza materialak aukatzerakoan eta sarritan jartzen diren bideoetan edo kontatzen diren ipuinetan estereotipo sexistak errepikatzen dira. Modu berean, aipatzen dute ez dela hausnarketa handirik egiten erabiltzen diren materialen inguruan. Adierazpen horiek indartzera dator ikasleen eztabaida taldeetan esandakoa, material didaktiko batzuk sexistatzat jotzen dituztenean: emakumearen presentzia urria dagoelako edo rol estereotipatueta agertzen direlako. Era berean, hainbat

liburuk ematen duten baldintzatutako ikuspegi hori irakasle gutxi batzuen laguntzaz aztertu dutela aipatzen dute. Gai horren inguruan kontzientzia gutxi dagoela iruditzen zaie, nahiz eta sexistak diren edukiak agertu klasekide eta irakasle gehienek ez dituztelako material hauek iraingarritzat hartzen eta ez dutelako zalantzan jartzen beren egokitasuna.

Galdetegiak erantzun dituzten irakasle zein zuzendarientzat, hezkidetzak, erantzunkidetasuna eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa lantzeko material didaktikoa edukitzea oso garrantzitsua da. Jasotako erantzunen arabera, materialak eskaintzen direnean erabili egiten dituzte: erakundeek sorturiko materialak, merkatuan eskaintzen direnak, irakasleek beraiek sortutakoak edo hedabideetan aurki daitezkeenak erabiltzen dituzte. Honekin batera hezkidetzak lantzeko eskaintzen diren programa espezifikoak. Ikastetxe berrietan aitortzen dute oraindik ez direla horrelako baliabideak erabiltzen hasi, baina heldu beharreko erronka dela eurentzat erabiltzen hastea.

Atal honekin bukatzeko, ikasmateriala hautatzerakoan hezkidetzak irizpidea izan beharko litzatekeela azpimarratzen dute eta pertsona formatu eta sensibilizatuak behar direla zentroetan hezkidetzak egunerokotasunean txertatzeko. Irakasleen eztabaida taldeetan nabarmentzen dute prestakuntza faltaz eta sensibilizazio beharrez gain, hausnarketa ikastetxe mailan eta maila pertsonalean egin beharko litzatekeela. Horrekin batera, Hezkuntza Sailaren inplikazio handiagoa eskatzen dute.

Aurreko dimentsioan gertatzen zen bezala, zuzendari nahiz irakasleentzat egokiena litzateke Hezkidetzak Curriculumean txertatzea. Eztabaida taldeetan parte hartu duten irakasleek ere hezkidetzarekin lotutako gaiak curriculum ofizialean txertatzea ezinbestekoa dela uste dute, bestela pertsonen borondatearen arabera gelditzen da horren lanketa. Euren ustez, esan bezala, egunerokotasunean landu behar da hezkidetzak. Arlo guztietan eta irakasle guztiek egin beharko lukete. Irakasleek galdetegietan esaten dutenaren arabera, ordea, bi herenek hezkidetzak zeharka lantzen dute eta heren batek arlo jakin batzuetan txertatzen du. Modu berean, irakasle gehienek jakintza zientifiko eta akademiko moduan emakumeek egindakoa bistaratzen saiatzen direla diote, orain arte ez bezala. Eztabaida taldeetan aipatzen duten bezala, kontua ez da hezkidetzak programa bat egitea, baizik eta programa guztietan hezkidetzak zelan sartu pentsatzea. Honenbestez, interesgarria litzateke eguneroko ekintzetan hainbat irizpide zehaztea eta egunerokotasunean aplikatu ahal izateko tresnak ematea irakasleei.

Illo horretan, hezkidetzak lantzeko, tutoretza saioak oso baliagarriak direla uste dute irakasleen % 60k eta zuzendarien % 95ek. Aldika saio eta egun bereziak antolatzea egokia iruditzen zaie. Aholkularitza berezituaren laguntza izatea eta beste erakunde batzuekin lankidetzak handitzea ondo legokeela diote. Modu horretan, eraginkorragoa eta arrakastatsua litzateke lortu beharreko helburua. Harrigarria iruditu zaigu galdetegiak erantzun dituzten irakasleen % 50k hezkidetzak espezialisten ardurapekoa izan beharko litzatekeela uste duela.

Ikasgelaren kudeaketari dagokionez, irakasleen eztabaida taldeetan aipatzen dute irakasleak ikuspegi hezkidetzakilea erabiltzen badu, nolabaiteko jarrera garatzen dutela irakasleek ere, “kutsatu” egiten dielako begiratzeko modua. Irakasleen taldekatzeari, emandako protagonismoari eta parte hartze aukerei dagokionez, irakasleek eztabaida taldeetan diote hezkuntzako etapa guztietan neskek gehiago hartzen dutela parte gela barruan, baina hori aldatu egiten dela Bigarren Batxilergora iristen direnean. Horren zergatia ikertu beharko litzateke irakasleen esanetan. Modu berean, irakasleek kezka adierazi dute mutilen emaitza akademiko eskasak eta geletan gertatzen diren portaera desegokiak direla eta. Mutilen protagonismo “ezkorra” aipatzen dute, zarata egiteko eta taldea apurtzeko jarrera duena. Sarritan, nahiz eta azkarrak izan emaitza akademiko eskasak ateratzen dituzte. Neska zein mutilei arreta

handiagoa eskaintzeko “segregazioaz” hitz egiten hasi dira hainbat ikastetxetan, baina hitz horrek ikara sortzen du partaideen artean. Galdetegietan adierazten dute neska eta mutilen artean oreka bilatzen saiatzen direla. Eta horrela, galdetegietan jasotako erantzunen arabera, % 60k pentsatzen du neskek eta mutilak pertsonak direla eta berdin tratatu behar direla. Gainontzeko % 40k uste du desberdin tratatu behar direla. Baieztapen horren barruan bi jarrera ezberdin antzeman ditugu: nahigabe bada ere, desberdin tratatzen direla diotenak; eta taldearen arabera, neskek indartu behar direla eta nolabaiteko diskriminazio positiboa egin behar dela uste dutenak.

Ikasleek beren aldetik, eztabaida taldeetan aipatzen dute klaseko taldekatzeak, oro har, irakasleen eskuetan daudela eta normalean sexua ez dela irizpidea izaten. Salbuespen moduan aipatzen dute Gorputz Hezkuntzan sexua dela askotan irizpidea, ez bakarrik taldekatzeak egiteko, baizik eta jarduera fisikoak egiteko ere. Ikasleen eztabaida taldeekin jarraituta, bi iritzi kontrajarri agertu zituzten irakasleek ikasleekiko duten tratuari buruz: batzuk tratu berdintsua jasotzen dutela dioten bitartean, besteek ez-berdintsua sumatzen dute. Tratua ezberdina dela dioten kasuetan, batzuek irakaslearen sexuari egotzen diote eta besteek pertsonen arteko desberdintasunei. Beraien esanetan, desberdintasunak ikasleek irakasleekiko duten tratuan eta kontzeptuan ere gertatzen dira, aurrekoan bezala, batzuk sexuari egotziz eta beste batzuk pertsonaren izaerari honen arrazoia.

Gelan gertatzen denaz gain, zuzendarien iritziz, garrantzitsua da aisialdia, jolas orduetan, jantokian eta eskolaz kanpoko ekintzetan arreta jartzea hezkidetzan hezteko. Galdetegiak erantzun dituzten zuzendarien iritziz, irakasleen kontzientziarioa behar da arlo guztietan eta irakasle guztiengan, eta curriculumean txertatu beharra dago hezkidetzan. Galdetegietan esandakoaren baitan, gertatzen diren bullying eta bortizkeria kasuetan indarrean dauden protokoloak jarraitu behar dira. Bortizkeriaren biktima izan direnekin, ez dago jokabide zehatzik. Ikastetxeetan gertatzen denari buruz hitz egiterakoan, honako ondorio hauek atera ditugu:

- Hizkuntzaren erabilera ez sexistari ez zaio ematen duen garrantzia, eta azalpen luzeak eman behar dira erabilera hau justifikatzeko.
- Irakasleen gehiengoak erabiltzen du gaztelarazko maskulino orokortzailea, eta oso jende gutxi uste du zerbait aurreratu dela hizkuntzaren arloan.
- Orokorrean material didaktikoetan estereotipo sexistak errepikatzen dira, eta hala ikusi dute ikasleek eta irakasleek.
- Indarkeriaren prebentzioa lantzeko material didaktikoa edukitzea oso garrantzitsua da.
- Ikastetxeetan pertsona formatu eta sentsibilizatuak behar direla esaten dute, hezkidetzan egunerokotasunean ezartzeko ikasmaterial egokiak hautatu ahal izateko.
- Irakasleek uste dute bakarrik prestatuak daudela hezkidetzan gaian interesatuak dauden irakasleak.
- Irakasle gehienek emakumeek egindakoa jakintza zientifiko eta akademiko moduan bisitaratzen saiatzen direla diote.
- Ikasleen ustetan neskek gehiago hartzen dute parte gelan bigarren batxilergora arte eta gero joera hau aldatzen da.
- Irakasleek mutilen protagonismo “ezkorra” aipatzen dute, baita “segregazio” hitzak ikara sortzen duela partaideen artean ere .
- Irakasleen % 60k pentsatzen du neskek eta mutilak pertsonak direla eta berdin tratatu behar direla, gainontzekoek, aldiz, desberdin tratatu behar direla.
- Gorputz Hezkuntzan askotan zeregin ezberdinka eta sexuka banatzen dira ikasleak.
- Ikasleek esaten dute tratu ezberdina jasotzen dutela irakaslearen sexuaren arabera eta izaeraren arabera.

- Hezkidetzan hezteko erronka batzuk ez dira eskuratu, hain zuzen, aisialdian, kanpoko ekintzetan eta jolastokietan gertatzen diren bortizkeria egoerei aurre egitekoak.
- Bortizkeriaren biktima izan direnekin ez dago jokabide zehatzik, jarraibiderik.

Ikasleen orientazioa dela eta, burutu dugun lanean ikusi dugunaren arabera, lan handia egingen da erakundeetan eremu hori latzeko, baina tresna egokiak falta zaizkie eta duten eragina zalantzan jartzen dute. Gainera, umeak gero eta babestuago daudela diote, baina gero eta lehenago erabaki behar dutela zer bide hartu, zer ikasi e.a., oraindik euren irizpidea garatu gabe dutenean. Hori dela eta, ikasleek eztabaida taldeetan aipatzen duten bezala, karrera bat aukeratzeko orduan familiaren eta eskolaren laguntza jasotzen dute. Irakasleen galdetegietan esandakoaren baitan, eskolan irizpide berdinak erabiltzen dituzte neska zein mutilen orientazioan sexuari begiratu barik. Informazio berdina ematen zaie eta eredu aberatsak eskaintzen zaizkie (sexismorik gabekoak) hitzaldi eta bisitaldietan. Bestalde, gustuari begiratu behar diotela azpimarratzen zaie ikasleei eta norabide horretako programa espezifikoak erabiltzen dituzte. Zuzendarien iritziz, eskolaren apustua berdintasuna izan arren, gizarte ereduak eta familiak sarritan ez datoz honekin bat. Askotan, erabiltzen dugun diskurtsoa ez dator bat ikasleek ikusten eta bizitzen duten egoera eta jasotzen dituzten ereduarekin. Adibidez, emakumezko eta gizonezko irakasleen banaketa etapaka begiratzen badugu eskolatzearen beheko mailetan emakume gehiago egoten direla ikusiko dugu eta mailak igo ahala emakumeen presentzia gutxitzen doala. Edo DBHn, letra edo zientzietako mintegien osaketari erreparatzen badiegu zientzietako mintegietan gizon gehiago egoten direla ikusiko dugu eta letretakoan emakume gehiago. Horregatik oso zaila da barneratuta ditugun rolerkin apurtzea gizartean errotutako estereotipoen kontra egitea ez delako erraza. Familian ematen diren ereduarekin gauza bera gertatzen da eta horregatik familiekin ere lan handia egin behar dela diote.

Irakasleen galdetegietan jasotako iritziek eztabaida taldeetan esandakoak berresten dituzte. Eta horrela, irakasleen hiru laurdenak jakintza arloak sexuaren arabera bana daitezkeela errefusatzen duen arren, irakasleen laurden batek aitortzen du neskek eta mutilek oso gustu desberdinak dituztela ikasketetan eta aisialdian. Modu berean aipatzen dute estereotipoak oso bizirik dirautela: neskontzako letretako ikasketak, irakasle, estetika, biologia, medikuntza eta zaintzarekin lotutakoak eta mutilentzako teknologiak, ingeniaritza, automozioa, heziketa fisikoa eta inizatiba edo lidergotza behar duten lanbideak. Ikasleek eztabaida taldeetan diotenaren arabera, ez dirudi sexuaren arabera egiten dutenik euren aukeraketa. Gustu pertsonalak eta tituluen balorazioa kontuan hartzen dituzte euren aukera egiterakoan. Familien iritziz, ikastetxeetako orientatzaileek hezkidetzaren inguruko prestakuntza berezia jasotzea komeniko litzateke. Irakasleen eztabaida taldeetan ezagutu ditugu hainbat ikastetxetan orientazioa hobetzeko aurrera eramaten ari diren proiektu berritzaileak. Irakasleek interesgarritzat jotzen dute proiektu horiek beste ikastetxeetan zabaldu eta ezagutaraztea. **Laburbilduz**, honako ondorio hauek ater daitezke:

- Ikasleek esaten dute karrera bat aukeratzeko orduan familiaren eta eskolaren laguntza jasotzen dutela, eta gehienetan sexu estereotipoek bustita daudela orientazio horiek.
- Zuzendariak berriz, eskolaren apustua berdintasuna izan arren, gizarte ereduak eta familiarenak sarritan ez datozela bat esaten dute.
- Familien iritziz, ikastetxeetako orientatzaileek hezkidetzaren inguruko prestakuntza berezia jasotzea komeniko litzateke.

## 5.4. GENERO ROLEN ADIERAZPENAK ETA INTERAKZIOAK

Irakasle eta zuzendarien galdetegietan bildutakoaren arabera, neskek eta mutilek haien arteko harremanetarako erabiltzen dituzten *kodeek sexistak izaten jarraitzen dute*, batez ere DBHko etapan. Rol femenino eta maskulinoak ikasi egiten direnez, etxeko zein eskolako hezkuntzaren erantzukizuna oso handia da, irakasleen ustez. Hezitzaile profesionalak, baina, haien frustrazioa adierazten dute arazoaren aurrean, ez baitakite nola eragin pedagogikoki sexuaren araberako ohiko jokamolde horietan. Horregatik, nahiz eta hezkuntza zentroetan egoera estereotipatuaren aurka lan egin, oso zaila ikusten dute irtenbide zehatzak topatzea. Izan ere, emaitzak urriak izaten dira, gizartearen eta, batez ere, telebistaren eragina oso handiak direlako. Halaber, gurasoek kezka agertu dute umeez eta gazteek eduki sexistak (eta bortitzak) modu homologatuan kontsumitzen dituztelako, helduen ikuspegi kritikoaren laguntzarik gabe.

Kodea ere baden *hizkuntzaren inguruan*, jendartean bizirik dirauen *polemika* eztabaida-taldeetan ere agertu da. Hala, batzuen iritziz, gai astuna eta deserosoa gertatzen da orain arteko hizkuntza berritzea berdintasunaren izenean eta, gaztelaniari dagokion adibide bat emate aldera, maskulino orokortzailea erabiltzeari ez diote aparteko garrantzirik ematen, aurreko dimentsioan gertatzen zen bezala. Beste batzuen iritziz, aldiz, hizkuntza sexista ez erabiltzea zutabe garrantzitsua da, normalean hizkuntzaren bidezko diskriminazioa egiten dela salatuta.

Generoaren aurkezpenaren agresibitate/afektibitateari dagokionez, gelan oso modu desberdinean azaltzen dela diote irakasleek, oso modu dikotomikoan: *mutilena fisikoagoa* eta agerikoagoa, eta *neskena, aldiz, emozionalagoa* eta gordeagoa. Agresibitatea kudeatzeko orduan, ez dakitela nola egin aitortzen dute. Izan ere, portaera diferenteek erantzun diferenteak eskatzen dituzte, eta eskolan erantzun integralak emateko joera dago.

Agresibitatearen inguruan garrantzi handiko kontu bat aipatu dute irakasleek: portaeretan balore femeninoak ahultzen bide doaz balore maskulinoen alde. Horrela, agresibitateari dagokion arloan, neskak maskulinizatzen ari direla nabarmendu dute behin eta berriro eta mutilen indarkeria fisikoa nahiz diskurtsiboa bereganatzen ari dira. Bestalde, afektibitatearen agerpenari dagokionez, balore femeninoarekin lotzen denez, ahultzen doa, gainbehera. Horrenbestez, *gaizki ulertutako berdintasun baterantz* abiatu garela dirudi: portaera maskulino tradizionalak ordezkatzeko duten konbergentziarantz. Izan ere, guraso batzuek adierazi dute neskak botereaz jabetu direla aski modu oldarkorrean, orain arteko mutilen erara nolabait, eta beraz, berdintasuna gaizki ulertzearen ondorioz, hau da, emakumeengan oldarkortasuna negatiboki baloratzen dute guraso batzuek.

Kontrara, beste guraso batzuek nabarmendu dute **genero-arauak gainditu dituzten neskak** daudela, boterea hobeto hartu dutenak eta menpeko roletik atera direnak. Areago, neska “berri” horien aurrean “atzean” geratu diren mutilak ikusten dituzte guraso batzuek. Botere-harremenen logikari jarraituz, mutil horiek menpeko rolean kokatzen dituzte eta testuinguru berrian “birkokatzen” ikasi behar dutela uste dute, lehenengo dimentsioan komentatu den bezala. Alde horretatik, badirudi sexu/genero-sistemaren adierazpenak eta interakzioak auzitan jartzen hasi direla hainbat neska, (beste hainbat neska eta) mutilak ez bezala, baina oraindik ere bereizitako rolak gainditu edo desoreka hori auzitan jarri edo deuseztatu gabe.

Eztabaida-taldeetan jaso dugun eran, ikasleek irakasleengandik jasotzen duten tratua zein den esatean ez da adostasunik agertu, iritzi desberdinak plazaratu baitituzte: batzuek berdintasuna sumatzen dute, beste batzuek, aldiz, desberdintasuna, sexuarekiko bereizkeria.

Era berean, ikasleek irakasleei buruz daukaten irudia aztertzerakoan generoaren arabera bereizketak egin daitezkeela iradoki dute. Gauzak horrela, irakasleen lidergo-estiloek hitz egiterakoan, oro har irakasle emakumeak malguagoak direla azpimarratu dute, irakasle gizonen estilo autoritarioagoak erabiltzen dituzten bitartean. Nolanahi ere den, ez dago guztiz garbi irakasleen artean gertatzen diren desberdintasun horiek genero-kontuak diren ala kontu pertsonalak. Egindako azterketaren ondorio gisa, bietatik egon daitekeelakoan gaude.

Bi proposamen zehatz bildu ditugu ikasleen ahotatik: **Emozioen Tailerra berreskuratzea** eta **eztabaida-taldeak antolatzea**. Batetik, emozioen Tailerra berriro martxan jartzea aldarrikatzen dute, neska eta mutilen artean sentimenduak lantzeko eta beste pertsonen roletan sartuz enpatia lortzeko. Bestetik, eztabaida-taldeak proposatzen dituzte gatazka edo arazoak guztien artean konpontzeko. Haien ustez, halako jarduerak txikitatik ezartzea lagungarria izango litzateke norberaren eta gizartearen garapenerako, elkarrekin ideiak eta iritziak partekatuz, bizikidetzeta hobetzeko asmoz. Aitortzen dute laguntza behar dutela eskolaren aldetik, eta, agian, tutoretzatan posiblea izango litzatekeela horrelako gaiak lantzea.

Bikote harremani dagokienez, ikasleek aipatzen dute ohikoena dela DBHko laugarren mailan hasia bikotekidea izaten, eta kezkatuak daudela **lehen harreman horietan rol jakin batzuk** azaltzen direlako. Izan ere, batik bat komunikabideetatik ailegatu zaien maitasun erromantikoaren ideala tarteko, kontzepzio eta jarrera okerrak gertatzen dira, batzuetan, gainera, amodioaren izenean: bestea kontrolatu nahi izatea, agresibitatea justifikatzea,... Hartara, hasierako bikote-harremanetan gertatzen diren egoerak nola kudeatzen diren oso garrantzizkoa da, nerabezaroan bizi izandako esperientzien arabera modu bateko edo besteko jokamoldeak garatuko dituztelako helduaroan.

Bestalde, puri-purian diren sare sozialetan ere arestian aipatutako rola eta interakzioak ikusten dituzte ikasleek, bereziki emakumeen irudi estereotipatuak, nonahi agertzen baita. Orobat, **sare sozialen eta komunikabideen eragin handia geratzen da agerian**; izan ere, teknologia berriek arrisku eta abantaila berriak ekarri dituzte, hala nola hitzezko eraso oso erraz gertatzea zein pertsonen etiketa iraingarriak jartzea. Hori dela eta, ikasle batzuek egoera horien beldur direla adierazi dute, ez baitakite zer-nola jokatu halakoetan. Nolanahi ere, sarritan aipatu dute arazo horri irtenbidea bilatzeko jendarteak egin beharko litzukeela aldaketak, eta hezkuntzak duen garrantzia handia dela esan dute.

Aurrekoarekin lotuta, ikasleek ez dute argi ikusten zein izan litekeen irakasleen papera egoera zail horietan, ez eta norainoko gaitasuna izango lukeen balizko esku-hartze batek ere. Irakasleek, berriz, protokolo argirik eza utzi dute agerian, eta jazarpen digitalaren inguruko formaziorik ez dutela azpimarratu dute, nahiz eta kode penalean jasotzen diren honekin lotutako delituak gero eta maizago ikusten diren egunerokoan eta horrek prestakuntzaren premia areagotzen duen. Beraz, irakasleei baliabideak eta prestakuntza eskaintzeari egoki deritzote.

Bildutako datuen argitan, lanbidearen edo ikasketen aukeraketan ere oso aldaketa gutxi gertatzen ari dira, neskentzat eta mutilentzat propioak diren *arlo estereotipatuak nabarmen errotuak* daudelako. Arestikoaren frogagarri, irakasle ugari (sexuen arabera) aukeraketa horiek naturalizat hartzen dituzte, eta ez dute antzematen hautu horien atzean egon daitekeen afera kulturala (komunikabideak hedatzen dutena berezi). Hori dela eta, hezkidetzaren inguruko kontuetan irakasleak gehiago eta hobeto prestatu behar direlakoan gaude.

Oro har, ikasleek egiten dituzten hautu akademikoei buruz, oraindik **ikasketak aukeratzeko joerak lerratu samarrak** dira: mutilek, nagusiki, Lanbide Heziketa eta unibertsitateko karrera teknikoak (ingeniaritzak-eta) hautatzen dituzte; neska gehienek, berriz, karrera teknikoak

ez diren unibertsitateko graduatara jotzen dute, eta Lanbide Heziketaren aukera baztertzen dute. Gurasoek adierazi dutenez, ikasketak aukeratzeko orduan, lan merkatuaren eta jendarte osoaren espektatibak sexuaren arabera suertatzen dira eta, ondorioz, genero-rolen araberrako baldintzapenak jarraitzen du indarrean.

Aurretik aipatutako rolen banaketa (des)ikasteko, etxea eta eskola ditugula diote guraso batzuek, eta bien arteko lankidetzak eskatzen dute. **Genero-arauak hausten dituzten umeek**, nolabaiteko alerta pizten dute, edo **zigorra jaso** dezakete sozialki onartuta ez dagoelako. Hartara, familiek ere badute zeresan eta zeregin, adibidez afektibitatea eta oldarkortasunaren rolen araberrako banaketan eta kudeaketan.

Bukatzeko, ikasleen eztabaida-taldeetan agertu denarekin bat, esan dezakegu ez direla betetzen Bilgune Feministak bere Hezkidetzak Gidak minimoen taulan (2008) proposaturiko puntu ugari, eta **genero-indarkeria**, batez ere **sinbolikoa** (Bosh eta Ferrer, 2002:30), gaur egungo **eskoletan** oraindik topatzen dugula aski modu normalizatuan. Hori dela eta, honako ondorio hauek ateratu ditugu:

- Ikasleek harremanetarako erabiltzen dituzten kodeek sexistak izaten jarraitzen dute.
- Irakasleek ez dakite nola eragin pedagogikoki sexuaren araberrako ohiko jokamolde horietan.
- Telebista eta sare sozialei esker ikasleek eduki sexistak (eta bortitzak) modu homologatuan kontsumitzen dituzte.
- Hizkuntzaren erabilera ez sexista lortze alderantz deserosoa iruditzen zaie orain arteko hizkuntza berritzea berdintasunaren izenean.
- Agresibitate adierazpenak sexuaren araberraz ezberdinak dira: fisikoa mutiletan, emozionala nesketan.
- Portaeretan balore femeninoak ahultzten bide doaz balore maskulinoen alde, eta neskek maskulinizatzen ari dira, berdintasuna gaizki ulertzen ari delako guraso batzuen esanetan.
- Aurreko joerak mutil batzuk menpeko rolean kokatzen dituzte eta testuinguru berrian “birkokatzen” ikasi behar dutela uste dute zenbait gurasok.
- Irakasleen lidergoa dela eta irakasle gizeonezkoek estilo autoritarioagoak erabiltzen dituztela esaten dute ikasleek.
- Bi proposamen zehatz bildu ditugu ikasleen ahoetatik: Emozioen Tailerra berreskuratzea eta eztabaida-taldeak antolatzea.
- Ikasleek aitortzen dute laguntza behar dutela eskolaren aldetik gai hau lantzeko.
- Lehen harremanetan komunikabideetatik iristen zaien maitasun erromantikoaren idealak jarrera okerrak bultzatzen ditu (kontrolatua izatea onartzea, erasoak...)
- Sare sozialetan emakumeen irudi estereotipatua zabaldu da, eta horrekin batera ziberbullyinga. Irakasleen papera zein izan behar den horren aurrean ez daki inork.
- Ikasleek azpimarratu dute irakasleek ez dutela jazarpen digitalaren inguruko formazioarik.
- Genero-arauak hausten dituzten umeek zigorra jaso dezakete sozialki onartuta ez dagoelako haien jokaera eta honek alarma pizten du guraso batzuegan.

## 5.5. ESPAZIOAREN ERABILERA

Irakasle eta zuzendarien eztabaida-taldeetan, *espazioaren kudeaketaren inguruan*, oraindik patioa mutilena dela diote, baloia eta porteriak nagusitzen dira espazioaren kudeaketan eta neskek hitz egiten jarduten dira patioaren ingurumarietan. Ikasleek honekin bat datoz: patioa diseinatuta dago “mutilenak diren kirolak” jokatzeko eta futbol eta saskibaloizelaiak

okupatzen dituztenak patioaren jabeak dira, erdigunean baitaude, baina honetan ere adinak zerikusia dauka, mutil nagusienak izanik lekua hartzen dutenak.

Hala eta guztiz ere, neskek ez dute bereziki adierazten espazio gehiagoren beharra; izan ere ondo barneratuta daukate beraienezako esparruak beste batzuk direla, aipatu bezala, hitz egiteko elkartu daitezkeenak hain zuzen. Hala ere, kasuren batean espazio berezi batzuk aipatzen dituzte, espazio horietan dantza egiteko aukera dute, eta beren gustukoak diren jarduerak egiteko aproposak dira, baina kasu hauek oso gutxi dira.

Honen harira esan beharra dago, zenbait ikastetxetan espazioa aztertzen dela futbola kirol hegemonikoa ez izateko eta beste ekintza batzuk bideratzeko, eta honekin batera, beste espazio batzuen erakitzea aurrera eramateko: pin-pon mahaiak, maila ezberdinetako ikasleek espazioak txandaka erabiltzeko, hitz egin eta egoteko bankuak, boleibol zelaia... Ikasle guztiek parte hartzeko proposamen desberdinak egin direla baieztatzen dute, baina horrelako ekimenak urriak direla uste dute.

Gurasoek berriz, espazioaren erabilera dela eta, uste dute ondorio argi bat dagoela: patioan oso modu normalizatuan suertatzen dira sexuen araberako banaketak, eta Haur Hezkuntzan bertan nabari da neskak eta mutilak bereizita ibiltzen direla. Hori dela medio, Haur Hezkuntzatik heldu behar zaio aferari eta, ahal dela, hurrengo etapetan ere izan behar du segida interbentzio pedagogikoak. Eskola-ordutegian gertatzen diren espazioaren banaketak gertatzen dira eskolaz kanpoko jardueretan ere, baina bigarren horietan eta aisian pedagogikoki eskuhartzea zailagozat jo dute. Funtsean, patioetan ikusten den egoera jendarte sexistaren isla dela aipa daiteke.

Irakasleek galdetegietan diote, eskolako lehendabiziko etapetik, Haur Hezkuntzatik, espazioaren erabilera ezberdina dela nesken eta mutilen partetik. Mutilak jadanik futbolearen aritzen dira eta espazio gehiena okupatzen dute. Neskek bere aldetik futbol zelaien inguruetan ibiltzen dira, edo eserita eta hitz egiten pasatzen dute jolastokiko denbora. Neska-mutilek elkarrekin jolasten badute zentroetan plangintza bat dagoelako da, hezkuntza zentroaren eskuhartze kontzientea egiten delako. Lehenengo etapan nabarmenagoa da mutilen protagonismoa futbolearen, eta neskak ia-ia ikusezin bihurtzen dira jolastokietan. Gainera mutilak ez dira bakarrik futbolearen aritzen, beste jarduera aktiboagoetan ere parte hartzen dute, nesken jarrerak ordea, pasiboagoak izaten jarraitzen dute. Espazioen okupazio asimetriko hauen aurrean irakasleen jarrerak ezberdinak dira. Batzuek normalizat hartzen dute egoera hau, eta ez dute ezer arrarorik antzematen, mutilen eta nesken jarrerak naturalak direla pentsatzen dutelako. Beste irakasle multzo bat kontzienteagoa da gizartearen eragina dagoelakoan eta zerbait egin beharko dela diote. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasleek gutxiago erabiltzen dute jolastokia, baina erabiltzen dutenean aurreko etapetako egoera berdina edo muturrekoagoa omen da. Hemen ere irakasleen jarrera bi motatakoa da, jokaera naturala dela pentsatzen dutenak eta desoreka bat ikusten dutenak. Azken hauek zerbait egin beharko litzatekeela uste dute nahiz eta zaila ikusten duten.

Irakasleek galdetegietan **jolasen ezaugarri buruz** diote, Haur Hezkuntzako etapan jolasteko bi jolas mota ikusten direla: era naturalean haurrek sortzen dituzten jolasak edo irakasleek proposaturikoak, gehienbat jolas kooperatiboak direnak. Hurrengo etapan, Lehen Hezkuntzako etapan, irakasleek gutxiago parte-hartzen dute jolasen proposamenean, eta haurrek beren kabuz erabakitzen dute zertan jolastu. Arestian aipatu bezala, mutilen artean jolas gogokoena futbolarak izaten jarraitzen du. Nesken kasuan gutxiago jolasten dutela azpimarratzen dute irakasleek, eta batzuetan irakasleek bultzatuta neskak mutilen jolasetan

sartzen dira, gehienbat kirol-jardueretan. Derrigorrezko etapan rolak eta estereotipoak barneratuagoak daude, eta ez bakarrik ikasleen artean; Hezkuntza zentro batzuetan jolastokietan nesken eta mutilen arteko elkarrekintza eta jarduera komunak bultzatzeko hainbat jarduera antolatzen dituzte, baina horiek normalean mutilen jarduerak izaten dira: futbola, saskibaloia, herri-kirolak, txapelketak, “txapelketa txikiak”. Azken finean, mutilen gustukoena direnak, nesken interesak edo aritzeko erak kontuan hartu gabe. Hori dela eta, honako ondorio hauek atera ditugu:

- Irakasleek eta zuzendariak oraindik patioa mutilena dela diote.
- Neskek ez dute adierazten espazio (zentral)aren beharra.
- Zenbait ikastetxetan espazioa aztertzen da futbola kirol hegemonikoa ez izateko eta beste ekintza batzuk bideratzeko.
- Gurasoek esaten dute patioan oso modu normalizatuan suertatzen direla sexuen araberrako banaketak. Eta hala gertatzen da jarduera fisikoetan, eskolaz kanpoko ekintzetan eta aisialdian.
- Irakasleek esaten dute Haur Hezkuntzan espazioaren erabilera ez dela ezberdina neska eta mutilentzat.
- Ez da ikasleria bultzaten elkarrekin jolastera eta horrela jolasten badute zentroetan plangintza bat dagoelako da. Berdintasunaren bidean talde misto naturalak bultzatu behar dira.
- Neskak pasiboagoak direla diote, genero estereotipoak esaten digun bezala. Mutilen burlen aurrean askotan neskak bi jokabide hartzen ditu: edo pasibo bihurtzen da bakean uzteko, edo mutilek dituzten balio berdinen arabera jokatzeko du, mutilen eredia kopia-tuz eta oldarkor jokatu.
- Patioaren erabilera asimetrikoa naturala dela esaten da.
- Adinean aurrera joan ahala jolasen erabilera geroz eta estereotipatuagoa da, Bigarren Hezkuntza kirolen *Txapelketa txikiak* antolatzen dira mutilen gustuen arabera.





6.

---

**ERREFERENTZIA  
BIBLIOGRAFIKOAK**



## 6.

---

# ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa. <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2005/03/0500982a.pdf>

Alvarez-Uria, A. (2013). Glosategia. In I. Castillo, eta I. Retolaza (koord). *Genero ariketak. Feminismoaren subjektuak*. Donostia: Edo.

Amnesty international. Derechos humanos y diversidad afectivo-sexual <https://www.amnesty.org/uploads/media/msx-educadores.pdf> eta <http://www.edualter.org/material/amnistia/educadores.pdf>

Arenas, G. (2006). *Triunfantes perdedoras*. Bartzelona: Graó.

Aristizabal, P. (2010). *Emakume eta gizonen berdintasuna irakasleen formazioan: Gasteizko Irakasle Eskolaren kasua*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

Aristizabal, P., eta Vizcarra, M. (2013). Eztabaida taldeetan jasotzen den informazioa tratatzeko zailtasunak: NVIVO8, analisirako tresna lagungarria. *Tantak*, 25 (2). 97-117.

Aubert, A., García, C., eta Racionero, S. (2009). El aprendizaje dialógico. *Cultura y Educación*, 21 (2), 129-13.

Ballarín, P. (1993). *El mito de la coeducación*. In J. Ramos (koord). *El camino hacia una escuela coeducativa*. (119-128). Non eta editoriala

Beauvoir, S. (2005). *El segundo sexo*. Madril: Cátedra. Feminismos.

- Bilgune Feminista (2008). *Hezkidetza gida*. EHBF eta Emagin
- Bisquerra, R. (2004). *Metodología en la investigación cualitativa*. Madril: La Muralla.
- Bonino, L. (1995). Desvelando los micromachismos en la vida conyugal. In J. Corsí (ed.). *Violencia masculina en la pareja. Una aproximación al diagnóstico y a los modelos de intervención* (192-208). Buenos Aires: Paidós.
- Bosch, E. eta Ferrer, V. (2002). *La voz de las invisibles. Las víctimas de un mal amor que mata*. Madril: Feminismos, Cátedra.
- Bourdieu, P. (2000). *La dominación masculina*. Bartzelona: Anagrama.
- Bourke, J. (2009): *Los violadores. Historia del estupro de 1860 a nuestros días*. Bartzelona: Crítica.
- Butler, J. (2006). *Deshacer el género*. Bartzelona: Paidós.
- Butler, J. (2007). *El género en disputa. El feminismo y la subversión de la identidad*. Bartzelona: Paidós.
- Coffey, A., eta Atkinson, P. (2003). *Encontrar sentido a los datos cualitativos*. Medellin: Contus.
- De Lauretis, T. (1991) La tecnología del género. In C. Ramos (Koord.) *El género en perspectiva: De la dominación universal a la perspectiva múltiple* (231-277). México: UAM.
- Elliot, J. et al. (1986). *Investigación-acción en el aula*. Valentzia: Conselleria de Cultura.
- Eurydice, Comisión Europea. (2011). La enseñanza de la lectura en Europa: contextos, políticas y prácticas. [http://eacea.ec.europa.eu/education/eurydice/documents/thematic\\_reports/130ES.pdf](http://eacea.ec.europa.eu/education/eurydice/documents/thematic_reports/130ES.pdf)
- Freire, P. (1990). *La naturaleza política de la educación*. Bartzelona/Madril: Paidós/MEC.
- Freire, P. (1999). *A la sombra de este árbol*. Bartzelona: El Roure.
- Goetz, J. P., eta Lacompte, M. D. (1988). *Etnografía y diseño cualitativo en investigación educativa*. Madril: Morata.
- Guba, E. G. (1989). Criterios de credibilidad en la investigación naturalista. J. Gimeno Sacristán, eta A.I. Pérez Gómez (Ed.), *La enseñanza: su teoría y su práctica*, 3. ed.(148-165). Madril: Akal.
- Habermas, J. (1994). *Teoría de la acción comunicativa*. Madril: Catedra.
- Haurreskolak Partzuergoa. Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buzruzko diagnostikoa. [http://www.haurreskolak.biz/Diagnostikoa\\_laburra\\_100224.pdf](http://www.haurreskolak.biz/Diagnostikoa_laburra_100224.pdf)
- Herranz Gómez, Y. (2006). *Igualdad bajo sospecha. El poder transformador de la educación*. Madril: Narcea.

Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana (Eusko Jaurlaritza, 2013) [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig\\_publicaciones\\_innovacion/eu\\_conviven/adjuntos/coeducacion/920006e\\_Pub\\_EJ\\_hezkidetzeta\\_plana\\_e.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_conviven/adjuntos/coeducacion/920006e_Pub_EJ_hezkidetzeta_plana_e.pdf)

III Lanbide Heziketako Euskal Plana. 2011-2013ko Lanbide Heziketan III Euskal Plana (Eusko Jaurlaritza) <http://www.parlamento.euskadi.net/irud/09/00/024235.pdf>

III plan para la igualdad de mujeres y hombres en vitoria-gasteiz (2014-2015) <http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/32/54/53254.pdf>

Juliano, Dolores. (2004). *Excluidas y marginales*. Madril: Cátedra, Feminismos.

Larrauri, E. (2007). *Criminología crítica*. Madril: Trotta.

Limon, M. R., eta Crespo, J. A. (2002). *Grupos de debate para mayores. Guía práctica para animadores*. Madril: Narcea.

Moreno, M.A. (2013). *Queremos coeducar*. Centro de Profesorado y recursos de Aviles-Occidente .

Moret, Z. (2000). Esos cuerpos escritos con sangre: Del horror y lo abyecto en Gambaro, Álvarez, Itit, Sivestre y Mendieta. InB. Suárez Briones, M. B., Martín Lucas, eta M.J. Fariña Busto, (Ed.) *Escribir en femenino*. Bartzelona: Icaria.

NBE-aren dok.: 1994ko otsailaren 23a, A/RES/48/104. 1. art. <http://www.un.org/documents/ga/res/48/a48r104.htm>

Osborne, R. (2009). *Apuntes sobre violencia de género*. Granada: Bellaterra ediciones.

Preciado, B. (2008). *Testo yonqui*. Madril: Espasa.

Rapley, T. (2014). *Los análisis de la conversación, del discurso y de documentos en Investigación Cualitativa*. Madril: Morata.

Recalde, I, Vizcarra, M.T., eta Macazaga, A.M. (2011). La aventura de investigar. Una experiencia de investigación-acción participativa. *Aula Abierta*, 39 (1), 93-103.

Recalde, I, Vizcarra, M.T., eta Macazaga, A.M. (2014). La observación como estrategia de investigación para construir contextos de aprendizaje y fomentar procesos participativos. *Educación XX1*, 17 (1), 199-220.

Rich, A. (1978). *Nacida de mujer*. Madril: Noguer.

Rich, A. (1981). Compulsory heterosexuality and lesbian existence. <http://wayanswardhani.lecture.ub.ac.id/files/2013/04/Rich-1.pdf>

Rodríguez, G. Gil, J. eta García, E. (1996). *Análisis de los datos cualitativos asistidos por ordenador: aguar y Nudist*. Bartzelona: PPU.

- Rubin, G. (1986). El tráfico de mujeres: Notas sobre la "economía política" del sexo, *Nueva antropología*, 30 (VIII), México <http://www.juridicas.unam.mx/publica/librev/rev/nuant/cont/30/cnt/cnt7.pdf>
- Russi, B. (1998). *Grupos de discusión. De la investigación social a la investigación reflexiva*. In J. Galindo (koord.). *Técnicas de investigación en sociedad, cultura y comunicación*. Mexiko: Pearson Educación Latinoamericana.
- Salas, B. (2003a). *El modelo coeducativo de la pentacidad*. *Aula de encuentro: Revista de investigación y comunicación de experiencias educativas*, 7, 147-153.
- Salas, B. (2003b). *Diccionario de la pentacidad: un modelo coeducativo capacitador para el desarrollo global de la persona*. *Bartzelona* : EUB.
- Sandin, M.P. (2003). *Investigación cualitativa en Educación: fundamentos y tradiciones*. Madril: MC Graw Hill.
- Sau, Sánchez V. (1990). *Diccionario ideológico feminista. Volumen I. La mirada esférica*. Bartzelona: Icaria.
- Ugarte, B. (2005). Hezkidetzta, detaile sutilen indarra. *HikHasi*, 96, 20-26.
- Urruzola, M. J., Agirre, N., Dugau, A., eta Barea, M. (2002). Emakumea hezkuntzan. Gehien-goia bai, baina zertan? *Hik Hasi*, 64, 8-17.
- Vallés, M. S. (2003). *Técnicas cualitativas de investigación social*. Madril: Síntesis sociología.
- VI-227-2014. Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI (Emakunde, 2014) [http://www.emakunde.euskadi.net/contenidos/informacion/u72\\_iv\\_plan/eu\\_emakunde/adjuntos/VIPlan\\_final\\_eu.pdf](http://www.emakunde.euskadi.net/contenidos/informacion/u72_iv_plan/eu_emakunde/adjuntos/VIPlan_final_eu.pdf)
- Vives, I. (2001). Las políticas públicas desde la administración del Estado. In R. Osborne (Koord.) *La violencia contra las mujeres: realidad social y políticas públicas* (77-91). Madril: UNED.
- Vizcarra, M. T., Macazaga, A. M., eta Rekalde, I. (2009). *Eskolako kirol lehiaketan neskek dituzten baloreak eta beharrak*. Bilbo: Emakunde eta UPV/EHU.
- Vizcarra, M. T., Macazaga, A. M. eta Rekalde, I. (2009). *Eskolako kirol lehiaketan neskek dituzten baloreak eta beharrak*. Bilbo: Emakunde eta UPV/EHU.
- Wittig, M. (2010). Ikuspuntu berezia ala unibertetsala. In Askoren artean (ed.). *Desira desordenatuak*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Wittig, M. (2005). *El pensamiento heterosexual*. Madril: Egales.
- Wollstonecraft, M. (1972). *Vindicación de los derechos de la mujer*. Madril: Feminismos Clásicos.
- X. Legealdia. Plan estrategikoaren egutegia. [http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informacion/v2\\_coordinacion/eu\\_planixle/adjuntos/planes\\_eu.pdf](http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informacion/v2_coordinacion/eu_planixle/adjuntos/planes_eu.pdf)



